

PARTE HARTU ALA PASO EGIN?

GAZTEEN IKASKETA POLITIKOAK AZTERGAI



Parte Hartuz
ikerketa taldea

Ane Larrinaga Renteria
Julen Zabalo Bilbao
Maddalen Epelde Juaristi
Iker Iraola Arretxe
Onintza Odriozola Irizar
Mila Amurrio Velez


Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea


PARTE
HARTUZ
Ikerketa taldea
Research group / Grupo de Investigación / Groupe de recherche


FUNDACIÓN
FUNDAZIOA


MANU
ROBLES
ARANGIZ
FUNDAZIOA

Argitalpen hau UPV/EHUko Parte Hartuz Ikerketa Taldearen, Vital Fundazioaren eta Manu Robles-Arangiz Fundazioaren babesari esker egindako ikerketaren emaitza da.



2020ko ekaina

Argitaratzailea: Parte Hartuz Ikerketa Taldea (UPV/EHU)

Testua: Ane Larrinaga Renteria, Julen Zabalo Bilbao, Maddalen Epelde Juaristi, Iker Iraola Arretxe, Onintza Odriozola Irizar, Mila Amurrio Velez

Azaleko irudia: Igor Ramos Peula

Diseinua eta maketazioa: Marina Balenciaga Juaristi

ISBN: 978-84-09-21062-6



Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC BY-NC-SA 4.0).
Lizentzia osoa: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/deed.eu>

PARTE HARTU ALA PASO EGIN?

Gazteen ikasketa politikoak aztergai

Parte Hartuz Ikerketa Taldea (UPV/EHU)

Ane Larrinaga Renteria

Julen Zabalo Bilbao

Maddalen Epelde Juaristi

Iker Iraola Arretxe

Onintza Odriozola Irizar

Mila Amurrio Velez

Esker onak

Jende askoren parte hartzea behar izan dugu ikerketa hau egiteko. Hasteko, gure eskerrik beroena adierazi nahi genieke elkarrizketatu guztiei. Eskerrik asko, era berean, elkarrizketatuekin harremanetan jartzen lagundu diguzuenoi: hainbat erakunde eta elkartetako ordezkariak lehendabiziko fasean, eta Bildarte enpresa bigarreanean. Azkenik, eskerrik asko baita ere lana garatzeko babes eta finantziarioa eskaini diguten UPV/EHUko Parte Hartuz ikerketa taldeari, Vital Fundazioari (I Deialdia, 2018) eta Manu Robles-Arangiz Fundazioari.

Elkarrizketa sakonetatik eta eztabaida taldeetatik jasotako informazioa aztertu ondoren, lan jardunaldi bat antolatu genuen¹. Lan saio hartan ikerlanean landutako edukiak jarri genituen mahai gainean, hainbat gazterekin eta eragilerekin partekatzeko; horrela, gaiari buruzko hausnarketari esker, guztion artean lanari ekarpenak egiteko eta lanaren ondorioak aberasteko aukera izan genuen. Beraz, ezin ditugu eskertu gabe utzi beren ekarpenekin txosten hau osatzen lagundu duten lagunak: Erantz Saez de Egilaz, Aitor Idigoras, Irune Prieto, Aitor Urkullu, Ander Vizan, Ibon Meñika, Amalur Alvarez, Unai Palentzuela, Xabier Valdor, Mikel Urdangarin, Imanol Artola, Ane Izagirre, Unai Oñederra eta Iratxe Delgado.

Bukatzeko, bereziki eskertu nahi genituzke Marina Sagastizabal, Maia Beitia eta Eneko A. Romero, jardunaldiko mahai inguruan ikerketa txostenari berariazko ekarpena egin ziotelako.

¹ 2019ko otsailaren 28an izan zen, UPV/EHUko Arabako campuseko Lascaray ikergunean.

Aurkibidea

1. GAZTEAK ETA POLITIKA AZTERGAI	4
1.1. Sarrera	4
1.2. Ikerketaren helburuak	7
1.3. Ikerketaren hipotesiak	8
2. METODOLOGIA	9
3. GAZTEEN SOZIALIZAZIO POLITIKOA	14
3.1. Gazteen ikasketa politikoaren guneak eta eragileak	14
3.1.1. Familia	14
3.1.2. Eskola eta ikasketa aldia	18
3.1.3. Berdinen arteko harremanak, lantokia eta esparru digitala	22
3.2. Gazteen ibilbide politikoak	29
3.2.1. Gazte politizatuen ibilbideak	31
3.2.2. Politizatzeko maila apalagoa duten gazteen ibilbideak	40
3.2.3. Esparru digitaleko praktikak	46
3.2.4. Generoaren eta adinaren eragina parte hartze politikoan	48
4. GAZTEAK ETA POLITIKA AURREZ AURRE	58
4.1. Zer iritzi dute gazteek politikaz? Zeintzuk dira gazteen interes eta kezka politiko nagusiak?	58
4.1.1. Gazteen kezka politiko nagusia: enplegua	62
4.1.2. Euskal Herriko politikagintzaren zenbait gatazka gune ahulduta	66
4.2. Gazteak eta ohiko politika moldeak	71
4.2.1. Gazteen ustezko despolitizatzearen inguruko eztabaidak gazteen begietan	71
4.2.2. Despolitizatzearen arrazoiak	73
4.2.3. Hauteskundearen balioa kolokan	83
4.2.4. Gazteen egungo joerak lehenagoko belaunaldiaren politika moldeen ispiluan	87
4.3. Gazteen politika moldeak	94
4.3.1. Ohiko politikagintza instituzionaletik haragoko partaidetza motak: boluntarioritza eta mugimendu sozialak	94
4.3.2. Gazteen proposamenak: nola parte hartu?	98
4.3.3. Gazteen proposamenak: nola erakarri gazteak politikagintzara?	101
5. BERRIKUNTZA POLITIKOAREN ZANTZUAK: GAZTEEN ESKUTIK SORTZEN ARI DEN POLITIKAGINTZA	108

1. GAZTEAK ETA POLITIKA AZTERGAI

1.1. Sarrera

Gaztearen kategoría, Soziologiaren ikuspegitik behinik behin, adinari lotutako kontzeptu biologiko hutsa baino askoz ere zabalagoa da. Izatez, gazte kategoría kontzeptu historiko moduan ulertu behar da. Izan ere, Aro Modernoa baino lehenago ez zegoen haurtzarotik helduarora bitarteko bizi-tarte bereizirik. Baina, Modernitatearen etorrerarekin batera, gauzak aldatu egin ziren pertsonen bizi-zikloetan. Batetik, lan industrialerako beharrezkoa zen kualifikazio maila gero eta handiagoaren premiak haurren eta nerabeen prestakuntza epea luzatu zuen progresiboki. Bestetik, eraikitzen ari ziren nazio-estatuak beren beharrianetara egokitutako eta hezitako herritarrak behar zituzten eta, ondorioz, beren menpean hartu zuten haurren eta nerabeen heziketa, eskolaren bitartez. Harrez geroztik, gaztaroa bizi-epe modura luzatu eta luzatu egin da gaur egunera arte. Ondorioz, arian-arian gaztaroak garrantzia irabazi du eta gazteak talde sozial modura irudikatu izan dira, beren espezifikotasun eta ezaugarri sozial nahiz kulturalekin.

Gaztaroak, berez, XX. mendetik gaur arte jaso duen arreta soziologikoa nabarmena izan bada ere, Mendebaldeko gizarte zahartuetan, XXI. mendeko lehen hamarkada hauetan, gazteen kopurua urritzen ari da. Hurbileko adibide bat jartzearren, azpimarratzekoa da gazteen kopurua oso txikia dela Euskal Herrian. Izatez, biztanleen %13,7² baino ez du osatzen gazteen taldeak, definizio ofizialaren arabera. Horri gehitu behar zaio, gainera, kopuru horrek beheranzko joera izan duela azken urteotan eta, aurreikuspenen arabera, ez dela aldatuko hurrengoetan. Soziologo batzuen aburuz, gutxitze hori gizartearen marjenetan kokatzen ari da gazteen taldea politikarien begietan nahiz gobernuen politiketan. Eta, alderantziz ere bai, ikerketa batzuek erakusten dutenez, gazteek ere gero eta gutxiago ikusten dituzte beren interesak eta premiak gaur egun nagusi den esparru politikoan, sistema demokratiko liberaletan, islaturik. Zalantzarik gabe, politika ordezkatzailan eragiteko gaitasuna galdu dute gazteek, eta eraginkortasun-eza horren pertzepzioa handitzen ari da euren artean.

Gizarte ereduak bera sakonki aldatu da XX. mendetik XXI. mendera. Gaurko gazteen bizipenek eta esperientzia gehienek ez dute antz handirik haien gurasoek eta arbasoek bizi izandakoekin. Izan ere, Bigarren Modernitatea deitutako aroan aldatu egin dira, nola aldatu ere, gazteen bizitzak egituratzen dituzten baldintza sozio-ekonomikoak, kulturalak eta instituzionalak. Dударik gabe, gaur egungo gizarte aldakorrean gazteen bizi esperientziak etengabe ari dira mudatzen. Hasiera batean, beren burua prestatzeko gurasoek baino aukera zabalagoa duten arren, helduarorako igarobidea ziurtasunik gabekoa dute eta, ondorioz, sozializazio-prozesu gorabeheratsuak bizi dituzte gurasoen aldean. Lehenagoko gazteen ibilbide lineal samarra hautsi egin da, alegia, ikasketa-aldia, lanbidea, emantzipazioa eta familia sortzea, beste aukera batzuen artean, ez datoz gaur egun behinolako berezko jarraieran. Era berean, helduarorako aurreikusten ziren rolak (langilea izatea eta guraso izatea, adibidez) lausotu egin dira, neurri batean, pertsona gazteen esperientzietan nahiz bizi proiektuetan. Zalantzarik gabe, helduarorako trantsizioak zaildu egin dira. Esparru politikoari dagokionez, engaiamendu soziala eta politikoa har dezaten eskatzen dien gizarte horrek berak ez die neurri berean belaunaldi gazteenei integrazioarako eta ekinbide sozialerako beharrezkoak dituzten baliabideetarako sarbiderik ematen.

² 2015eko datuak; ik. Gaindegia (2017): gazteen proportzio demografikoaren jaitsiera. <https://gaindegia.eus/cu/gazteen-proporzio-demografikoaren-jaitsiera>

Horrenbestez, esan genezake egungo sistema sozialak oztopo ugari jartzen dizkiela gazteei beren bizi-proiektuak eraikitzeke prozesuan eta, orobat, subjektu autonomo gisa garatzeko ahaleaginean. Azken batean, horrek gazteak ziurgabetasunera eta mendekotasun estatus batera zigortu ditu. Aipatu oztopo horien artean nabarmena da lan merkatuan sartzeko zailtasuna eta, batez ere, enplegu iraunkorrari eusteko ezintasuna. Izan ere, kapitalismoaren eredu posfordistak eragotzi egiten dio gazte jendeari ohiko emantzipazio ekonomikorako bidea erraz garatu ahal izatea. Adibidez, joan den mendean enpleguak ahalbidetzen zuen familiari buruzko emantzipazioa, neurri handi batean. Hain zuzen ere, soldatapeko lanak errazten zion gazteari helduaren estatusa lortzea, eta helduaren roletarako bidea irekitzen zion. Enplegua zen, nolabait, herritartasunerako zubia ere, harexek jartzen baitzuen norbanako autonomia konpromiso zibiko eta kolektiboen aurrean. Lan merkatuaren esparruan gertatutako aldaketek, hartara, jarraitutasun eza eta ziurgabetasuna ezarri dute; eta horrek eragina izan du, hein batean, konpromiso kolektiboak eta politikoak hartzeko gaitasunaren ustezko apalduran.

Faktore sozio-ekonomikoez gain, Bigarren Modernitateko aldaketa instituzionalek eta kulturek ere eragin dute egungo gazteen esperientzietan. Garaiotan, indibidualizazioa da nagusi, ez pertsonen aukera delako, sistema sozialak ezarritako obligazio bilakatu delako baizik. Izan ere, indibidualizazioa egiturazko ezarpena da. Hala, erabaki indibidualak gero eta gehiago nagusitzen zaizkie ohiko arau eta instituzio sozialei. Izan ere, instituzio sozialek beren ohiko nagusitasuna eta agintea galdu dute pertsonen pentsamoldea eta jokabidea arautzean. Horregatik hitz egiten da hain sarri azken urteotan familiaren, eskolaren edo politikaren krisiaz, erakunde horien eragina, arian-arian, apaltzen joan delako eta ez dituztelako lehen bezala betetzen ustez esleituta zeuzkaten funtzioak. Instituzio politikoei dagokienez, globalizazioaren aroan estatuak galtzen joan dira gizarteak arautzeko orain arte zituzten zereginak, besteak beste, herritarren eskubideak babesteko eta lan merkatuak zuzentzeko ahalmenak. Ondorioz, ziurgabetasuna, prekaritatea eta etorkizunari buruzko egoneza hedatu dira gazte jendearen artean. Joera horien testuinguruan, gazteek norberaren errealizazioa bilatzen dute gero eta gehiago, eta eguneroko bizitzako jardueretan zentratzen dira beren erabakiak hartu eta beren autonomia garatu ahal izateko, arrotz sentitzen dituzten instituzioetatik gero eta gehiago urrunduta.

Bestalde, instituzioen gainbeherari lotuta, balio desberdinen lehiak eta gatazkak bizi gaitu eta, ingurumari horretan, gero eta zailagoa da belaunaldi gazteenei aurreko belaunaldien balio sendoak eta rolak transmititzea. Sozializazioa (sozializazio politikoa barne harturik) belaunaldien arteko transmisio kulturala baldin bada, esan genezake prozesu horrek zulo ugari dituela gaur egun. Ildo horretan, ohiko sozializazio erakundeen aginte indarra (familiarrena, eskolarena, alderdi politikoena, eta abarrena) ahuldu egin da. Askotariko arau eta balio sozialak dituzten gizarte ereductan bizi gara orain. Ondorioz, erlatibismoa ere garatu da kulturen, indar handiz gainera belaun gazteenetan. Aniztasuna nagusi den gure munduan beti ez dago argi zein den jokabiderako arau edo erreferentzia-puntu nagusia, zer dagoen gaizki eta zer ongi, zer den zilegi eta zer ez. Halakoetan, instituzioen agintearen ordez, pertsonen hautua lehenesten da sarritan bizitza erregulatzeko.

Aipatu diren aldaketa prozesuen guztien ondorioz, gizarteko instituzioak (familia, eskola, gobernu erakundeak, alderdi politikoak, elizak eta abar) ahulduta agertzen dira eta, behin baino gehiagotan, ez dira gai egungo arazo sozial askori eraginkortasunez aurre egiteko, tartean gazteen premiei eta interesei. Horren ondorioz, pertsona gazteek baliagarritasun mugatua ikusten diete gizarteko instituzio nagusiei eta haietatik eratorritako ekimenei eta balioei. Ildo horretan, iritzi zabaldu samarra da, adibidez, gazteek gero eta interes gutxiago

agertzen dutela politikari buruz. Hori erakusten digu inkesta ugari. Hein handi batean, gainera, haserre jarreratik ikusten omen dute gazteek erakundeen eta eragile soziopolitikoaren jarduna. Egiari zor, ez dago interpretazio bakar eta bateraturik politikarekiko gazteek duten jarrera horri buruz: interpretazio batzuen ustez, gazteen despolitizatzeaz, apatiaz eta alienazio politikoaz hitz egin liteke. Beste batzuen ustez, aldiz, *politika zaharra* baztertu eta politikagintza molde berriak agertzen ari dira belaunaldi gazteen eskutik. Azken ikuspegi horren arabera, ekintza politikoak, aktibismoa eta engaiamendu politikoak beste era bateko esperientzia eta eredu batzuen itxurarekin garatzen dituzte egun gazteek.

Bete-bete aldaketa prozesuan dagoen esparru sozial batez ari garenez, politikaren definizioa bera eta haren hedadura ere eztabaidagai dira gaur egungo azterketa soziologiko eta politologikoetan. Alde batetik, XX. mendean nagusi izan den politikari buruzko ikuspegi liberal hegemonikoa daukagu, hitz gutxitan esanda, politika eta politikagintza estatu erakundeekin eta ohiko aktore politikoeekin identifikatzen duena. Politikaren adiera “estu” horretan, ekintza politikoak ohiko aktore soziopolitikoaren jardunari lotutakoa da, alegia, gobernuek, parlamentuek, alderdi politikoek, sindikatuak eta abarrek burutzen dutenari. Herritarren errepertorio politikoak, ildo horretan, hauteskundeetako kanpainetan, bozkan, protesta ekintzetan eta halakoetan oinarritzen da. Beste alde batetik, politikaren adiera “zabalago” bat garatzen joan da azken hamarkadetan. Bigarren ikuspegi horren arabera, politika ohiko esparru politikoari ez ezik, botere harremanei lotuta dagoen jarduna da. Hartara, botere harremanak gizarteko esparru orotan agertzen direnez, jardura politikoaren mugak ere hedatu egin dira. Bestela adierazita, lehenago politikotzat jotzen ez ziren auzi askok “politikoaren” estatusa berenganatu dute gaur egun eta, ondorioz, praktika politikoak ere ugaltu eta dibertsifikatu egin dira, ohiko politikagintzaren mugetatik at. Bigarren ikuspegi horren arabera, “politikaren” kontzeptua bera behin eta berriro definituko litzateke testuinguru sozialak aldatu ahala.

Interpretazio horiek gazteen eta politikaren arteko gaur egungo harremana ulertzeko moduak baldintzatzen dituzte, jakina. Eta auzi hori ez da hutsala. Izan ere, behin baino gehiagotan, bereziki inkestetan eta azterketa soziologiko kuantitatiboetan, alde aurretik definituta ematen zaizkie gazteei politikaren zentzu eta ulkerak jakinak egindako galdera-erantzun itxietan. Eta horrek eragina izan ohi du azterketen ondorioetan eta, beraz, gazteei buruz zabaldutako irudikapenetan. Sarritan, haien apatia, desafekzio politikoak eta politikari buruzko indiferentzia aipatzen dira, besteak beste. Muga horiek ikusita, ikerketa teknika kualitatiboan alde egin dugu lan honetan. Izan ere, belaunaldi gazteenek bere politikari eta politikagintzari esleitzen dizkieten esanahiak aztertzeak interesak bultzatu gaitu eta, bide horretatik, gazteak agentzia sozial modura hartu eta beraien ahotsak jasotzeko nahi izan ditugu. Ariketa hori eginez, adin eta kokapen sozial desberdinetako pertsona gazte batzuen narratibak ematen dira argitara txostenean.

Arestian aipatu ditugun joera sozial orokorrak gero eta nabarmenagoak dira Euskal Herriko gizartean. Horrenbestez, Euskal Herriko politikagintza beste ziklo batean sartu den abagunean, iruditzen zaigu interes zinez handia duela belaunaldi gazteenen sozializazio politikoak eta beraien ondorengo jarduna nahiz jardun eza aztertzeak. Sozializazio politikoak baditu, izan, berezitasunak. Ez da ikasketa formal bat, ez formula baizik. Gehienetan modu ez kontzientean eta oharkabean gauzatzen da, familiaren, eskolaren, lagun taldeen, inguruko komunitate hurbilaren, mass-medien, interneten eta bestelako eragileen eraginez. Bestalde, bestelako sozializazio prozesu orotan argi ikusten den bezala, ez da norabide bakarreko (hau da, goitik beherako) eragina; aitzitik, gizartearen eta norbanakoaren arteko dialektika gauzatzen da prozesuan. Horrela, sozializazio politikoak pentsamolde, balio, arau, jarrera eta jokabide batzuen transmisioa eta barneratzea da, batetik. Baina,

baita pertsonaren eztabaiden, praktiken eta esperimentazio aktiboaren ondorioa ere, bestetik. Hitz batean, sozializazio politiko hori, beste edozein ikasketa prozesu bezala, belaun arteko transmisio hutsa baino askoz harago doa. Bada, pertsonak subjektu aktibo izan ohi dira beren ikasketa eta esperimentazioetan, bereziki nerabezarotik aurrera.

Une honetan ez dugu informazio eta datu handirik euskal gazteek subjektu aktibo gisa hainbat testuinguru sozialetan gaur egun garatzen duten ikasketa politikoaren eta ondorengo esperimentazioaren zer-nolakoaz. Jakin badakigu ikasketa horiek ez direla ikasketa (soilik) formalak eta ez zaizkigula begien bistan argiki agertzen. Baina, ez ditugu prozesu horien mekanismoak xehe-xehe ezagutzen, ezta zein faktorek eta zein neurritan baldintzatzen dituzten ere. Bestalde, ez dugu zehatz ezagutzen gazteek zer esanahi ematen dieten beraien eguneroko nahiz mundu publikoko jardunei, zeri esleitzen dizkioten esanahi politikoak, zer ulertzen duten politikaz eta nola bizi duten hura. Horiek horrela, gazteen sozializazio politikoaren mekanismoak eta ikasketa horren ondorioz burututako praktikak identifikatu ahal izateko ezinbesteko lana da hainbat prozesu kultural sakon aztertzea, eta gazteen bizipenetatik abiatzea, besteak beste, esperientzia politikoei atxikitzen dizkieten esangurak jasotzeko. Horixe da, hain zuzen ere, ikerketa honen helburua.

1.2. Ikerketaren helburuak

Ikergaiak ertz ugari ditu baina, mugatu behar diren mugatu beharraz, jarraian aipatuko ditugun helburuak lortu nahi ditugu eskuartean dugun ikerlan honekin. Hasteko, helburu nagusia honako hau da: Hego Euskal Herriko egungo testuinguru soziopolitikoan belaunaldi gazteen sozializazio politikoan parte hartzen duten mekanismoak aztertzea, eta ikasketa-esperimentazio horren ondorioz gazteen artean azaleratzen ari diren praktika politiko desberdinak detektatzea. Helburu orokor horri begira, honako helburu espezifiko hauek zehaztu ditugu:

- 1) Gatazka armatuaren osteko testuinguruan, Hego Euskal Herriko hainbat eremutako gazteek beren ikasketa eta esperimentazio politikoaren gainean dituzten pertzepzioak jasotzea eta aztertzea.
- 2) Gazteen ikasketa politikoetan sakontzea: zer ikasten duten, non eta noiz ikasten duten, noren eraginez, eta abar.
- 3) Politikoki aktibo diren gazteen artean, beren ikasketa eta esperimentazio politikoetan darabiltzaten praktikak ezagutzeko, bai parte hartzeko erreperitorio konbentzionalak, bai berriki azaleratzen ari direnak.
- 4) Politikatik urrundutako gazteen arrazoiak ezagutzeko, eta gazte horien soslaiaren zirriborroa egitea.
- 5) Oro har, gazteek politika eta partaidetza politikoa nola ulertzen dituzten zehaztea eta aztertzea: politikagintzari eta, zehazki, partaidetza politikoari esleitzen dizkioten esanahiak jasotzea eta, horren ondorioz, politika kontzeptuari emandako hedadura ezagutzeko.

1.3. Ikerketaren hipotesiak

Ikerketaren helburuak argituta, honako hipotesi hauek txertatu ditugu lanaren ardatzean:

- 1- Mendebaldeko beste gizarte batzuetan gertatu bezala, euskal gizartean burutzen ari diren egiturazko aldaketa instituzionalek eta kulturelek eragina izan dute gaurko gazteen ikasketa politikoek hartutako norabideetan, hitz batean, sozializazio politikoaren prozesuetan.
- 2- Ikerketa kuantitatiboek iradokitzen dutenaren ildotik, hauteskunde abstentzioa gero eta handiagoa da gazteen artean eta euskal gazteek mesfidantzaz begiratzen diete ohiko sistema politikoa osatzen duten instituzio eta erakundeei (gobernu, alderdi politiko, parlamentu, hauteskunde sistema, eta abarri), eta eragileei (politikariei), baina horrek ez dakartza, ezinbestean, politikari buruzko interes eza eta apatia.
- 3- Gazteek ohiko erakunde politikoen bitartekaritzarik gabe burututako zenbait praktikan inplikazio soziala eta zibiko-politikoak atzeman daiteke maiz, baina atxikimendu hori ez dute politikotzat jotzen, gizartean oraindik hegemonikoa den politikaren adiera liberal murriztailearen ondorioz.
- 4- Indibidualizazio prozesuak indarrez txertatu dira gazteek politikan aritzeko dituzten moduetan. Hartara, gazteen esperimendazio politiko batzuk oraintsura arte politikagintzarako erabili ez diren esparruetan azaleratzen eta garatzen ari dira. Politika indibidualizatuak pertsona gazteen eguneroko bizitzaren eta "niaren" garapena hartzen ditu barnean. Hori dela eta, pertsonala eta politikoa, pribatua eta publikoa, eta antzeko dikotomiak auzitan jarri dira gazteen politikagintza moldeetan. Horrela, politikaren eta politikagintzaren nolakotasuna eta mugak birdefinitzen ari dira etengabe.

2. METODOLOGIA

Eskuarte dugun ikerlan honetan Hego Euskal Herriko gazteek politikaren eta politikagintzaren gainean eraikitzen dituzten ikuspegiak eta diskurtsoak aztertuko ditugu. Hala, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako gazteen narrazioak hartu dira abiapuntu. Hiriguneetako nahiz tamaina desberdinetako herrietako gazteek parte hartu dute ikerketa prozesuan. Gehienbat 18 eta 29 urte arteko pertsonak sartu ditugu *gaztearen* kategorian; edonola ere, ikerketa aberasteko (alegia, gaur egungo “gazte heldu” batzuen garai bateko sozializazio politikoaren nondik norakoak eta ondorioak kontrastatu ahal izateko) 29 urtetik 35 urtera arteko zenbait gazte ere elkarriketatu dira ikerketaren lehen fasean.

Ikerketa kualitatiboa izanik, bi teknika mota erabili ditugu: sakoneko elkarriketa erdi-egituratuak, batetik, eta eztabaida taldeak, bestetik. Ikerketa bi fasetan garatu da. Lehendabiziko fasean, beren burua politizatutzat eta jarduna politikotzat jotzen duten gazteen diskurtsoak aztertu ditugu. Aurrerago ikusiko denez, talde bakarrean sartu arren, politika eta politikagintza ulertzeko oso diskurtso ezberdinak jaso ditugu, soslai honetan sartzen baitira ohiko instituzio politikoetan dihardutenak (alderdi politiko nahiz sindikatueta), eta bestelako esperientzia soziopolitikoetan murgildurik daudenak. Azken horiei dagokienez, esperientzia berritzaileak garatzen ari den pertsona dezente elkarriketatu dugu fase honetan. Beren jarduna politikotzat jotzen dutenez, *politizatu* kontzeptua erabili dugu gazte horiek izendatzeko. Guztira, 22 sakoneko elkarriketa egin dizkiegu gazte “politizatu” modura autodefinitzen direnei. Multzo batean ohiko erakunde soziopolitikoetan jarduten duten gazteak elkarriketatu ditugu: hots, alderdi politiko nahiz sindikatueta afiliatuta egonik, arduraren bat edo karguren bat dutenak. Oinarri sendoa izan dira ikerlanarentzat, izan ere, erakunde politiko konbentzionaletan jarduten duten euskal gizarteko gazte politizatuen (hots, gutxiengo baten) sozializazioa aztertzeko aukera eman digu, baita sozializazio horren berariazko alderdietan sakontzeko ere. Bigarren multzo batean mugimendu sozialetan eta bestelako ekimen zibiko-sozialetan jarduten duten gazteak elkarriketatu ditugu. Politika eta politikagintza ulertzeko beste diskurtso batzuk eskaini dizkigute, bestelako eredu batzuk, eta oso kritikoa agertu dira, oro har, politika konbentzionaltzat hartzen dugun jardunarekin. Edonola ere, lehendabiziko multzoko gazteek bezala bigarren multzokoek ere, helburu politiko argia esleitu diote beren jardunari.

Ikerketa-prozesuaren bigarren fasean beren burua eta jardura politikotzat jotzen ez duten gazteen diskurtsoak aztertu ditugu. Goiko gazteengandik bereizteko, azken batean ikerketa bera sistematizatzeko, “ez politizatu” kontzeptua aukeratu dugu gazte horiei buruz hitz egiteko, horixe baita eurek beren buruaz ematen duten definizioa, nahiz eta jakin badakigun beren jardunak ere politikoak direla, eta sailkapen orok errealitatea sinplifikatzeko arriskua dakarrela berekin. Hain zuzen ere, talde honetako hainbat gaztek hausnarketa landuak agertu dituzte politikaz eta politikagintzaz. Bigarren fase honetan, sakoneko elkarriketez gain, eztabaida taldeak ere antolatu ditugu Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan. Hiriburuetako gazteengana hurbildu gara nagusiki, baina Bizkaiaren kasuari dagokionez, hirigunea Bilbo baino zabalagoa izanik, Bilbon eta Basaurin egin ditugu elkarriketak, eta eztabaida taldea, berriz, Ezkerraldean. Guztira 9 sakoneko elkarriketa egin ditugu bigarren fasean: herrialdeko bina (Bilboaldean, berriz, 3), eta lehendabiziko faseko gazteekin erabilitako gidoiaren antzeko ereduak erabili dugu. Horiekin batera, 8 laguneko 4 eztabaida talde ere egin ditugu (lurraldeko bana). Eztabaida talde horietan modu libreagoan hitz egin dute parte hartzaileek (guk gure aldetik galdera zehatzak egin gabe). Era horretan diskurtso espontaneoagoak lortu nahi izan ditugu, gazteek elkarrekiko harremanean sortutakoak.

Honenbestez, guztira, 31 sakoneko elkarrizketa eta 4 eztabaida talde egin ditugu. Elkarrizketatuen anonimotasuna gordetze aldera, ez ditugu beren izenak erabili eta ordezkaten duten taldea oso txikia edo identifikagarria denean, elkartearen izena ere ezkutatu egin dugu. Azpimarratu nahi genuke, era berean, lehendabiziko faseko gazte elkarrizketatuek ez dutela, inola ere, kide diren erakundearen edo taldearen jarrera ofiziala islatzen. Ez dira erakunde edo talde haien ordezkari edo bozeramaile gisa aritu. Txostenaren garapenean era nahasian aipatuko ditugu lehendabiziko eta bigarren faseko gazteak, baina hemen, elkarrizketatuen soslai hobeto identifikatzeko, bereizita azalduko ditugu bi multzoak.

Elkarrizketaren hizkuntzari dagokionez, lehendabiziko fasean euskaraz egin ditugu 16 elkarrizketa eta 6 gaztelaniaz (elkarrizketatuek beraiek aukeratu dute zein hizkuntzatan egin). Bigarren fasean 3 elkarrizketa egin ditugu euskaraz eta 6 gaztelaniaz. Bigarren faseko eztabaida taldeen kasuan, halaber, 3 gaztelania hutsean egin ditugu eta bat elebitan, euskara eta gaztelania tartekatuta. Guztira, 16 neska eta 15 mutilek hartu dute parte elkarrizketetan, eta eztabaida taldeetan launa neska eta launa mutilek. Baldintza gisa jarri ez arren, elkarrizketatu gehien-gehienak Euskal Herrian jaiotakoak dira, hiru kasutan izan ezik: bat Gaztelan (Espainia) jaioa da, unibertsitateko ikasketak egitera Bilbora etorria; bestea Andaluzian (Espainia) jaioa, 10 urterekin familiarekin batera Iruñera etorria; eta azken bat Kantabrian (Espainia) jaioa, duela 10 urte Bilbora bizitzera etorria.

1. taula: 1. fasean elkarrizketatutako gazteak. Gazte “politizatuak”³

Erakundea edo taldea <small>(elkarrizketatutako gazteak ez du erakundearen edo taldearen jarrera ofizialik ordezkatzeko)</small>	Nola agertzen den testuan	Lurraldea ⁴	Hizkuntza	Elkarrizketatutaren sexua	Adin tartea
Nuevas Generaciones	Nuevas Generaciones-eko kidea	Araba	Gaztelaniaz	Gizona	25-30
Podemos-Ahal Dugu	Podemos-Ahal Dugu-ko kidea	Gipuzkoa	Euskaraz	Gizona	25-30
Juventudes Socialistas de Euskadi	Juventudes Socialistas de Euskadi-ko kidea	Gipuzkoa	Gaztelaniaz	Emakumea	25-30
EGI	EGIko kidea	Bizkaia	Euskaraz	Gizona	18-24
Ernai	Ernaiko kidea	Bizkaia	Euskaraz	Emakumea	25-30
ELA	ELA sindikatuko kidea	Gipuzkoa	Euskaraz	Emakumea	31-35
Bilgune Feminista	Bilgune Feministako kidea	Nafarroa	Euskaraz	Emakumea	25-30

³ 2017ko azaroaren eta 2018ko maiatzaren artean egin dira lehendabiziko faseko elkarrizketak.

⁴ Elkarrizketatuak bere jarduerara garatzen duen herrialdea.

Erakundea edo taldea (elkarrizketatutako gazteak ez du erakundearen edo taldearen jarrera ofizialik ordezkatzeko)	Nola agertzen den testuan	Lurraldea⁴	Hizkuntza	Elkarrizketatuaren sexua	Adin tartea
Ikasle Abertzaleak	Ikasle Abertzaleak-eko kidea	Nafarroa / Gipuzkoa	Euskaraz	Gizona	18-24
Ongi Etorri Errefuxiatuak	Ongi Etorri Errefuxiatuak-eko kidea	Araba	Euskaraz	Emakumea	18-24
OlatuKoop sareko kidea	OlatuKoop sareko kidea	Gipuzkoa	Euskaraz	Emakumea	25-30
Errekaleor	Errekaleorreko kidea	Araba	Euskaraz	Gizona	25-30
Gure Esku Dago	Gure Esku Dago-ko kidea	Bizkaia	Euskaraz	Emakumea	25-30
Euskara Elkarte bat	Euskara Elkarte bateko kidea	Gipuzkoa	Euskaraz	Gizona	25-30
SOS Arrazakeria	SOS Arrazakeriako kidea	Gipuzkoa	Euskaraz	Emakumea	18-24
Ezkerraldeko bazterketaren aurkako taldea	Ezkerraldeko bazterketaren aurkako talde bateko kidea	Bizkaia	Gaztelaniaz	Gizona	25-30
LGTBI	LGTBI Ligako kidea	Bizkaia	Gaztelaniaz	Emakumea	18-24
Ekologistak Martxan	Ekologistak Martxan taldeko kidea	Bizkaia / Nafarroa	Gaztelaniaz	Gizona	18-24
Herri ekimenak	Herri ekimenetan diharduen Donostiako gaztea	Gipuzkoa / Araba	Euskaraz	Gizona	18-24
Pa-Ya konpartsa	Pa-Ya konpartsako kidea	Bizkaia	Gaztelaniaz	Gizona	31-35
Piratak	Donostiako Piratak-eko kidea	Gipuzkoa	Euskaraz	Gizona	31-35
Astra	Astrako kidea	Araba	Euskaraz	Emakumea	25-30
Uribealdeko sozioekologia taldea	Uribealdeko sozioekologia taldeko kidea	Bizkaia	Euskaraz	Gizona	31-35

Iturria: Egileek egina.

2. taula: 2. fasean elkarrizketatutako gazteak. Gazte “ez politizatuak”⁵

Pertsonak edo taldeak (testuan nola agertzen den)	Testuan erabilitako laburdura
Donostiako neska bati egindako elkarrizketa. Donostian elkarrizketatutako kide bat, edo Donostian elkarrizketatutako neska bat	ELK-Donostia-neska
Donostiako mutil bati egindako elkarrizketa. Donostian elkarrizketatutako kide bat, edo Donostian elkarrizketatutako mutil bat	ELK-Donostia-mutila
Gasteizko neska bati egindako elkarrizketa. Gasteizen elkarrizketatutako kide bat, edo Gasteizen elkarrizketatutako neska bat	ELK-Gasteiz-neska
Gasteizko mutil bati egindako elkarrizketa. Gasteizen elkarrizketatutako kide bat, edo Gasteizen elkarrizketatutako mutil bat	ELK-Gasteiz-mutila
Iruñeko neska bati egindako elkarrizketa. Iruñean elkarrizketatutako kide bat, edo Iruñean elkarrizketatutako neska bat	ELK-Iruñea-neska
Iruñeko mutil bati egindako elkarrizketa. Iruñean elkarrizketatutako kide bat, edo Iruñean elkarrizketatutako mutil bat	ELK-Iruñea-mutila
Basauriko neska bati egindako elkarrizketa. Basaurin elkarrizketatutako kide bat, edo Basaurin elkarrizketatutako neska bat	ELK-Basauri-neska
Bilboko neska bati egindako elkarrizketa. Bilbon elkarrizketatutako kide bat, edo Bilbon elkarrizketatutako neska bat	ELK-Bilbo-neska
Bilboko mutil bati egindako elkarrizketa. Bilbon elkarrizketatutako kide bat, edo Bilbon elkarrizketatutako mutil bat	ELK-Bilbo-mutila
Iruñean egindako eztabaida taldea	ET-Iruñea
Donostian egindako eztabaida taldea	ET-Donostia
Gasteizen egindako eztabaida taldea	ET-Gasteiz
Ezkerraldeko eztabaida taldea	ET-Ezkerraldea

Iturria: Egileek egina.

⁵ 2018ko azaroaren eta abenduaren artean burutu dira 2. faseko elkarrizketak eta talde eztabaidak.

3. taula: 2. fasean elkarrizketatutako gazteen soslaia

Identifikazioa	Adin tartea	Erabilitako hizkuntza	Hauteskunde parte hartzea	Interesa politikan ⁶	Elkar-teak ⁷	Boluntarioria ⁸	Protesta ⁹
Donostia-neska	25-30	Euskara	Boto aldakorra eta aldizkakoa	--	BAI	BAI	BAI
Donostia-mutila	25-30	Euskara	Ez du inoiz bozkatu	BAI	--	BAI	--
Gasteiz-neska	19-24	Gaztelania	Ez du inoiz bozkatu	BAI	BAI	BAI	BAI
Gasteiz-mutila	25-30	Gaztelania	Boto aldakorra eta aldizkakoa	BAI	--	BAI	BAI
Iruñea-neska	25-30	Gaztelania	Boto aldakorra eta aldizkakoa	BAI	--	BAI	BAI
Iruñea-mutila	25-30	Gaztelania	Ez du inoiz bozkatu	--	--	BAI	--
Basauri-neska	19-24	Euskara	Ez du inoiz bozkatu	BAI	BAI	BAI	
Bilbo-neska	25-30	Gaztelania	Boto aldakorra eta aldizkakoa	BAI	--	--	BAI
Bilbo-mutila	19-24	Gaztelania	Ez du inoiz bozkatu	BAI	--	--	BAI

Iturria: Egileek egina.

4. taula: 2. fasean egindako eztabaida taldeetako gazteen soslaia

<p>Iruñean egindako eztabaida taldea. Iruñean bizi diren 18-30 urte arteko lau neskek eta lau mutilek hartu dute parte. Ez dute inoiz botoa eman: lauk politikan eta politikagintzan interesik ez dutelako, eta beste laurek egungo politikagintza gogoko ez dutelako (edonola ere, agertzen dute nolabaiteko interesa, eta protesta edo manifestazioren batera joan dira inoiz). Gaztelaniaz egin da.</p>
<p>Donostian egindako eztabaida taldea. Donostialdean bizi diren 18-30 urte arteko lau neskek eta lau mutilek hartu dute parte. Botoa eman izan dute guztiak, baina inoiz abstenitu ere egin dira eta hautu politikoa aldatu izana onartzen dute: batzuek <i>eskuina-ekerra</i> ardatzaren baitan eta besteek <i>euskal-espainiar</i> nazionalismoaren ardatzean. Elebitan egin da, euskaraz eta gaztelaniaz.</p>
<p>Gasteizen egindako eztabaida taldea. Gasteizen bizi diren 18-30 urte arteko lau neskek eta lau mutilek hartu dute parte. Hainbatek ez dute inoiz botoa eman; besteek aldizka bai, eta elkarte ez politikoren batean ere hartu dute parte inoiz (hots, elkarte kultural, sozial, erlijioso edo laguntza-elkarteren batean; ez ditugu aintzat hartu hemen kirol taldeak edo haurtzaroen/nerabezaroen eskolaz kanpo egin dituzten jarduerak). Gaztelaniaz egin da.</p>
<p>Ezkerraldeko eztabaida taldea. Bizkaiko Ezkerraldean bizi diren 18-30 urte arteko lau neskek eta lau mutilek hartu dute parte. Ez dute inoiz botoa eman: lauk politikan eta politikagintzan interesik ez dutelako, eta beste laurek egungo politikagintza gogoko ez dutelako (edonola ere, agertzen dute nolabaiteko interesa, eta protesta edo manifestazioren batera joan dira inoiz). Gaztelaniaz egin da.</p>

Iturria: Egileek egina.

⁶ Interesa agertzen du politikari buruz. Aldizka bada ere, informazio politikoa jasotzen du.

⁷ Elkarte esplizituki ez politikoren batean parte hartu du inoiz, edo mugimendu sozial edo gobernuz kanpoko erakunderen batean (kirol taldeak, edo talde kultural, erlijioso eta asistentzialak ez dira hemen sartzen).

⁸ Boluntario lanetan aritu da inoiz.

⁹ Protesta, manifestazio edo elkarretaratze publikoren batean parte hartu du, behin gutxienez.

3. GAZTEEN SOZIALIZAZIO POLITIKOA

3.1. Gazteen ikasketa politikoen guneak eta eragileak

Norbanakoak bere bizitza osoan barrena bizi duen ikasketa prozesuari *sozializazio* esaten dio soziologiak. Prozesu horren bidez gizarte-talde jakin baten balioak, sinesteak eta kultur arauak barneratzen ditu norbanakoak. Baita berriak sortu ere. Prozesu horretan izaki sozial gisa osatzen da banakoa, batetik, eta gizarte eredu jakin bateko (edo gizarte orokorreko talde bateko/batzuetako) kide bilakatzen da, bestetik. Orain arte askotan irudikatu denaren kontra, sozializazioa ez da norabide bakarreko transmisio prozesu hutsa, alegia, goitik behera zuzendutakoa. Jasotako orientazioak eta jarrerak mantendu, moldatu nahiz birdefinitu egin ditzake norbanakoak etengabeko dialektika batean. Hartara, ikasketa izateaz gain, prozesu sortzailea eta eraikitzailea ere bada sozializazioa. Aipatu ikasketa-sortze hori ertz askotatik aztertu liteke, baina ikerketa honetan sozializazio *politikoa* interesatzen zaigu, hau da, sozializazioaren dimentsio zibiko-politikoa aintzat hartzen duen dinamika. Gai horrek baditu bere zailtasunak. Izan ere, askotan, ez da erraza izaten ikasketa politikoa beste ikasketa sozialetatik bereiztea, eguneroko bizitzan ikasketa guztiak loturik egoten baitira. Bestalde, jakina da talde sozial adina sozializazio topa genitzakeela, eta banakoaren bilakaera bakoitza ere prozesu aldakorra izan litekeela bizitzan zehar eta testuinguru sozial desberdinetan.

Arestian esan den bezala, ikasketa politikoa ez formala eta, gehienetan, ez kontzientea izan ohi da. Haren bitartez, gizabanakoak subjektu politiko bilakatzen dira, eta komunitate politiko batean txertatzen dira. Hain zuzen ere, herritartasunaren eraikuntza prozesu horren ondorio izan ohi da. Ikasketa eta sortze ez formal hori norbanakoak beste batzuekin dituen harremanetan garatzen da. Izan ere, haurra, gaztea edo pertsona heldua beste batzuekin interakzioan aritzen da gizarteko gune edo erakunde desberdinetan: modu zuzenean batzuetan, familian, komunitatean, eskolan, lagun artean edo lantokian esaterako, edo bestelako eragilean eraginpean, masa-hedabideak, internet eta antzekoekin harremanetan. Hartara, sozializazio politikoan haurrak edo gazteak izaki pasibo gisa irudikatu diren arren sarri, haurrak eta gazteak ikasketa prozesu horren eragile aktibo izaten dira. Areago, beste batzuekin elkarreraginean, hartzaile ez ezik sortzaile ere badira, batez ere adinean aurrera egiten duten heinean. Ildo horretan, elkarrizketatu ditugun gazteen esperientziak oinarri hartuta, gazteen sozializazio politikoaren bilakaerak aztertuko ditugu jarraian. Arreta berezia jarriko da sozializazio gune batzuetan, alegia, familian eta komunitatean, eskolan (hezkuntza mailak aintzat harturik) eta berdin taldean. Gazteek kontatutako esperientzietan nabarmendu diren joera batzuk azpimarratuko ditugu ondoren.

3.1.1. Familia

Soziologiak erakutsi digunez, familia izan da orain arte norbanakoen sozializaziorako eragilerik garrantzitsuenak. Familia haurra bere baitan hartzen duen lehen erakunde soziala da. Hartara, gizartearekin edo erreferentziako taldearekin zubi lana egiten du familiak norbanakoarentzat. Familiaren gunean jasotako balioak, arauak eta sinesteak sakonki barneratzen dira haurren baitan, munduari buruzko haurren lehen erreferentzia izateaz gain, osagai emozional indartsuz kutsatutako prozesua izan ohi delako instituzio honen barruan burututako ikasketa. Eskuardean dugun ikerketak ez digu kontrarik erakutsi. Bada, aztertu ditugun agente sozializatzaileen artean, familiaren esparrua agertu zaigu eraginkorren gazteen ikasketa politikoen prozesuan. Elkarrizketatuek familiari buruz hitz egin dutenean, hurbileko senideez aritu dira gehienetan, hots, gurasoez eta neba-arrebez; nahiz eta hainbatek gainerako senitartekoak ere aipatu dituen (aitona-amonak, osaba-izebak, eta abar).

Familiaren eragina ulertzeko, aurreratu dezagun elkarrizketatuen artean maila desberdinetako politizatze graduak eta politikarekiko atxikimendu ereduak aurkitu ditugula. Modu sinplean azaltzeko, mutur batean, gazte batzuek politizatze eta aktibismo maila handia erakutsi dute. Beste muturrean, politikari buruzko indiferentzia eta urruntze-jarrera adierazten du zenbaitek. Tartean, beste gazte asko kokatzen da, esaterako politika instituzionalari buruzko desilusia agertzen dutenak, baina, aldi berean, informaturik daudenak, edota konpromiso zibiko eta sozialari dagokionez gradu desberdinetako jarduerak burutzen dituztenak. Desberdintasunak desberdintasun, den denek nabarmendu dute familiaren eta haren barruan burututako sozializazio goiztiarraren eragina beren gaur eguneko pentsamolde eta jarrera zibiko-politikoetan.

Lehen taldearekin hasita, politikaren esparruan gaur egun aktiboki parte hartzen duten elkarrizketaturiko gazte ia guztiek azpimarratu dute, haur edo gazte zirela, beren etxean garrantzia ematen ziotela politikari eta politikagintzari, gai zentrala zela familia bizitzan, hizketa gai ohikoa izaten zutela eguneroko bizitzan eta komunikabideetako albiste politikoei buruz hitz egin ohi zutela etxean, besteak beste. Gurasoak (edo haietako bat) informaturik zeuden, espazio publikoan gertatzen zenari buruzko ezagutza zuten, interesa adierazten zuten gai sozialei buruz eta, askotan, lerratuta eta engaiatuta zeuden politikoki. Elkarrizketatu askoren diskurtsoetan azaleratu zaigu ideia hori, hots, gai politikoeikiko eta sozialekiko gaur egungo interesaren jatorria etxeko giroan sortu zela:

Orduan, etxetik beti jaso dut herrian parte hartzearena, herriari jaten ematearena, hau da, zuri jaten ematen dizunari jaten ematea. Rollo hori eduki dut etxean (Astrako kidea).

Hamasei urterekin sartu ahal zara EGIIn, orduan, hamasei urterekin amak galdetu zidan ea zer nahi nuen egin. Egia da inoiz ez didatela inposatu etxetik, egin dutena izan da dagoena planteatzea. Eta hamasei urterekin ez nuen horretan sartu nahi, eta hemezortzi urterekin sortu zitzaidan apur bat kuriositatea edo nahi nuen nire familiak eta batez ere nire amak egiten duen lan hori ez galtzea (...). Egun batean amari esan nion sartu nahi nuela, afiliatu nahi nuela EGIIn (EGIko kidea).

Gazte politizatuenen lehen talde honi dagokionez, balio eta jarrera politikoen transmisio-espazio ez ezik esperientziazio politikorako lehen gunea ere izan da familiaren esparrua. Izan ere, gurasoen aktibismoaren garrantzia azpimarratu zaigu behin baino gehiagotan elkarrizketatu politizatuenen diskurtsoetan. Horrela, gazte politizatuek maiz aipatzen dute gurasoek, edo gurasoetako batek, politikan parte hartzen duela, edo parte hartu izan duela. Hainbatetan, seme-alabek aitaren edo amaren militantzia jardunari jarraitu diote (hala nola, ELAko edo Juventudes Socialistas-eko kideen kasuan, adibidez) eta, modu horretan, familiaren bitartez, aurretik datorren tradizio politikoa birsortzen lagundu dute. Horren guztiaren ondorioz, gai politikoei etxean leku nabarmena izateaz harago, elkarrizketatu politizatu askok onartu du etxekoekin batera (gurasoekin edo senideekin) manifestazio, errebindikazio-jaialdi, edo ekitaldi politikoetan parte hartu zuela zuzenean haurtzaroan eta gaztaroan. Talde honen kasuan, beraz, esperientziazio politikoa oso goiztiarra izan da, jardun politikoa haurtzaroan bertan gauzatzen hasi baitzen familiaren eta hurbileko komunitatearen eraginez. Zalantzarik gabe, gizarte politizatu batean bizi izanaren kontzientzia agertu dute gazte horiek, haurtzaroko oroitzenen batez ere: auzoko edo herriko mobilizazioak, euskararen aldeko ekimenak, auzoko edo herriko jaiak, mitin politikoak, eta abar dituzte gogoan beren ikasketaren lehenbiziko esperientzien artean. Familiaren sozializazio politiko indartsu hori nabarmena da gunea abertzaleetako gazte politizatuen artean eta, bereziki, ezker abertzalekoen artean.

Gazte horiek dira, hain zuzen ere, gaur egun politizatze mailarik handiena duten pertsonak beren gazte-helduaroko bizitzan (kontuan hartu 35 urtera arteko gazteak elkarrizketatu ditugula). Familiaren bitartez, txikitatik aritu dira familiaren hurbileko ingurune sozialean gertatutako ekimen kolektiboetan parte hartzen. Eta, sendia tarteko dela, bizitza komunitarioaren nondik norakoak ezagutu dituzte: auzoko edo herriko arazoak bizi izan dituzte -hautzaroan modu lauso batean izan bada ere-, familiaren norabide politiko edo ideologiko berean lerraturiko taldeak, gune sozialak eta elkarteak ikusi dituzte hurbiletik, baita haienezako garrantzitsuak ziren kausak ezagutu ere. Intentsitate eta homogeneotasun handiko sozializazio politikoa izan da gazte horiek bizi izandako prozesua, inguruan izan dituzten eragile sozializatzaile nagusiak, sendia eta hurbileko komunitate trinkoa, norabide bereko indarrak izan direlako. Dударik gabe, jarduera goiztiar horietan dago gaur egungo gazte politizatuenean denborarekin bereganatu dituzten trebetasun sozialen eta politikoen abiapuntua, eta luzaroan landutako norberaren eraginkortasun politikoaren pertzepzioa. Ezaugarri horiek guztiak osatzen dute politikagintzan eraginkorki jarduteko beharrezkoak diren gaitasunen multzoa, *habitus politikoa* dei dezakeguna.

Zenbaitetan, familiaren bitartez helarazi zaie aurreko belaunaldien memoria politikoa haurrei eta gazteei, esate baterako, aiton-amonei edo arbasoei 1936ko gerran eta gerra ostean gertatutakoa, haien lerratze edo militantzia politikoaren kariatz. Kasu horietan, familia agertzen zaigu zenbait tradizio politikoren eramale gisa belaun arteko transmisioan. Beste zenbaitetan, zuzeneko edo urrunagoko familiako kideen atxikimendu politikoen ondorioak ere ezagutarazten dira, zuzenean edo zeharka, familia gunean, euskal gatazka politikoaren isla izan direnak haurrentzat: heriotzak, senideen edo gurasoen kartzelaldiak, erbesteratzeak eta abar. Bizipen horiek iltzatuta geratu dira gazteen oroimenean.

Hala ere, familiak ez du beti eta ezinbestean aipatu bezalako intentsitate handiko sozializazioa bideratu dimentsio politikoan. Aitzitik, sozializazio politiko “ahulagoak” edo inplizituagoak (balio orokorren transmisioan gauzaturikoak eta ez praktika politikoetan) izan dira beste gazte batzuen ikasketa prozesuaren oinarria. Horrela, gaur egun maila desberdinetan politikatik urrun sentitzen diren gazteek edo jarduera zibiko-sozialera lerratutako gehienek adierazi dute auzi politikoek ez zutela izan zentraltasunik beren familietan. Batzuetan aipatzen ziren, baina ez ziren gurasoen eta seme-alaben arteko elkarrizketan garatzen. Gurasoek ez zuten rol politiko ikusgarriarik, eta dimentsio hori ezkutaturik zegoen edo ez zuen presentziarik izan senitartean. Horrenbestez, familiak ere ez zuen zubi lanik egin haurra edo gaztetxoa gizarteko gune zabalagoekin harremanetan jartzeko, alegia, auzoko edo herriko arazoekin, elkarteekin eta abar.

Ildo horretako gazteen elkarrizketetan behin baino gehiagotan adierazi da gurasoen jarrera hori modu kontzientean gauzatzen zela. Izan ere, gurasoen edo senideen artean ikuspegi politiko desberdinak egotean, isildu egiten ziren gai politikoak familian, gatazkak saiheste aldera. Bestalde, gai politikoei buruzko axolagabetasunarekin batera, modu desberdinetan izan bada ere, zuhurtzia eta isiltasuna agertu dira familia zenbaiten jokabideetan seme-alabekiko. Horrela, batzuetan gurasoek “gai pribatu edo intimoztat” hartu dituzte beren iritzi politikoak, eta beretzat gorde dituzte seme-alaben aurrean. Omisio kontziente horiek badute Euskal Herrian bizi izandako egoera politiko gorabeheratsuekin lotura zuzena, jakina.

Nirekin uste dut ez zutela erakutsi nahi (...) uste dut nire aitak eta nire amak arlo politikoan oso ideia desberdinak dituztela (...) ez genuen gehiegi hitz egiten eta uste dut horregatik zela (ELK-Donostia-mutila).

Gurasoen zuhurtzia eta beldur horren erakusgarri dira, beste batzuen artean, Nuevas Generaciones-eko kidearen adierazpenak baita despolitizatugoak diren gazte batzuenak ere. Lehenengoaren kasuan, argi azpimarratzen du politika ez zela etxekoan arteko solas gaia, eta ez zutela horri buruz inoiz hitz egiten. Hala ere, geroago aipatzen dituen bestelako hizketa-gai “sozialak”, politikotzat jo daitezkeenak, normaltasunez agertzen ziren senideen arteko elkarrizketan. Horrek adierazten digu zeintzuk izan zitezkeen etxean seme-alabei aipatu ezinezko gai “gatazkatsuak” euskal agertoki politikoan:

Incluso esos temas, yo creo que más que hablarse se intentaban obviar o tapar (...) [baina] yo creo que no he tenido ningún problema en hablar en mi niñez de sexo, drogas... de esos temas que no siendo políticos influyen en la sociedad (Nuevas Generaciones-eko kidea).

Sobre temas políticos, mis padres tienen mal visto que alguien sepa tú de qué partido eres o qué opinión tienes respecto a ciertas cosas. No les gusta que la gente sepa lo que piensan, les parece algo íntimo (...) No se si es miedo o qué, pero son más cerrados (ELK-Gasteiz-mutila).

Familia barruko isiltasun politikoa gai errepikaria dugu elkarrizketetan nahiz eztabaida taldeetan. Hala, tankera bereko iritziak topatzen ditugu beste diskurtso batzuetan ere; adibidez, Ezkerraldeko bazterketaren aurkako taldeko kidearen adierazpenetan. Hartara, argi geratu da familiako kideak batzuetan ez zirela gai politikoez modu esplizituan mintzatzen. Are gehiago, politikaz hitz egitea saihesten zutela aitortu du batek baino gehiagok. Honako aipu honek egoera horren berri ematen du:

Berak [aitak] adibidez ez du inoiz esan ze alderdi bozkatzan duen; berak beti esaten du politikaren inguruan hitz egiten duzunean beti arazoak sortzen direla familian, eta horregatik berak ez du politikaz hitz egiten (ELK-Donostia-neska).

Ildo berean, elkarrizketatu gutxi batzuek aitortu dute beren familiak ahaleginak egin dituela semeak edo alabak politikagintzan aritzeko zuten asmoa eragozteko. Hala sentitu dute, behinik behin, elkarrizketatuek, segidan aurkezten dugun elkarrizketatuaren adierazpenetan ikus dezakegunez:

Nik argi neukan zerbait egin nahi nuela, baina ez nintzen kapaza pausu hori emateko. Agian [oztopatzen ninduen] gurasoek nola ikusiko zuten nik egin nahi nuen (Ongi Etorri Errefuxiatuak-eko kidea).

Esan bezala, familien eta haur nahiz gazteen bizipen horien nondik norakoa ezin da ulertu Euskal Herriko gibelalde politiko gatazkatsua eta indarkeriazkoa aintzat hartu gabe. Testuinguru berean kokatu behar da gazteen adierazpenak zeharkatu dituen emozio jakin batek hartutako protagonismoa ere: beldurrak, hain zuzen ere. Izan ere, elkarrizketatu askok aipatu du beldurraren auzia, guk zuzenean horri buruz galdetu ez badiegu ere. Zalantzarik gabe, presentzia eta eragin handia izan du gaur egungo gazteen –batez ere gazte heldueneren– sozializazio politikoan. Beldurra adierazpen desberdinetan agertu da: seme-alaben balizko aktibismoari buruzko gurasoen beldurra, testuinguru politiko orokorrari buruzko beldurra, ETaren jarduerari buruzko beldurra eta Espainiako estatuaren errepresioarekiko beldurra, besteak beste. Gurasoen *ohiko* beldurra ere aipatu dute batzuetan: semea edo alaba kooperante gisa, edo ikasle gisa atzerrira joatean sentitutako kezkaririk lotua, adibidez. Baina, denen gainetik nabarmenenak gatazka politikoaren adierazpen bortitzeekin lotutako

beldurraren adierazpenak izan dira. Elkarrizketatu askoren diskurtsoetan agertu zaigu seme-alaben jardun politikoak gurasoengan eragindako kezka eta, areago, beldurtasuna:

Nik uste dut gehien bat beldurratik ez zuela nahi ni [institutu horretara] joatea. Bazekien hor zertara hurbildu nintekeen [giro politikoaz ari da] eta beldur handia zeukan (Errekaleorreko kidea).

Pues sobre todo se preocupaba [mi madre]. Me decía a ver si estaba seguro de lo que estaba haciendo, y yo le decía que no estaba haciendo nada. Yo les contaba todo, sabían que yo era el representante de los alumnos (...) Yo creo que iba por el sentido de “no quemes nada ni tires piedras” (Ekologistak Martxan taldeko kidea).

Gurasoen iritzi politikoak eta etxeko giroak gorabehera, elkarrizketatutako gazteek aho batez aitortu dute familiak beren bizitzako ikusmoldeetan izandako eragina. Iritzi horretan bat datoz gazteak, edozein delarik politikari buruzko beraien gaur egungo jarrera, dela deskonexioa, aktibismoa nahiz jardun zibiko-soziala. Hartara, familiari esleitzen diote gazteek beren bizitzako balioen eta erreferentzia nagusien iturri izatea. Horrela, elkarrizketatu guztiek aipatu dute mundua ikusteko duten moduan gurasoen –edo gurasoetako baten– eragina izan dutela. Hainbat balio zibiko jaso dutela aipatu dute eragin horren ondorioz: besteekiko begirunea, elkartasuna, kritikotasuna, berdintasuna, tolerantzia, ezkertiaratasuna, abertzaletasuna eta euskalduntasuna, besteak beste.

Horrenbestez, familiaren transmisioan kokatzen dute elkarrizketatu gehienek beren gaurko jarrera politikoaren jatorria. Hala ere, emakume gazteen zenbait elkarrizketetan bereziki, emakumezko eta gizonezko gurasoen rol desberdinak bereizi dira bizi izandako eragin horretan. Batzuek amaren jarrera eta biografia jotzen dute eragin nagusien jatorri, publikoki jardun ikusezinagoa izan duten arren, balioen helarazte lana burutu dutelako familian; beste batzuek, aldiz, aitari aitortzen diote transmisioaren zeregina, behin baino gehiagotan gizonek rol eta ardura politiko ikusgarriagoak izan dituztelako esparru publikoan. Ildo horretan, hainbat gazte politizatutak nabarmendu du arlo eta gai zehatz batzuen inguruko ikasketa politikoan amak edo aitak izandako papera. Bereiziki aipagarria da ama batzuek betetako eginkizuna (seme)alabei feminismoari buruzko ezagutzak eta feminismoaren araberako balioak eta jokamoldeak helaraztean. Edonola ere, azpimarratzeko moduko gaia da gizartean nagusi diren genero desoreken testuinguruan, diskurtso askotan rol desberdinak egotzi dizkietela amari eta aitari. Ondoko informatzaileak era honetan laburbiltzen du auzia:

Nik esango nuke [nire familia] izan dela egitura bat oso estereotipokoa eta tradizionala, eta askotan jasotzen dudana da aitaren aldetik politizazioa etorri zitzaidala (...) baina nire etxean transmisio politikoa amak egin du. Baina ez da horrela ikusten, alde batetik, oso familia estereotipokoa delako, baina gero, egia esan, oso transgresorea izan da, ama oso ausarta izan da gauza batzuk transmititzean, bai formetan eta edukietan ere; oso txikitatik ez du beldurrik eduki oso kontzeptu konplexuak azaltzeko. Nik orain jartzen dut balorean hori (OlatuKoop sareko kidea).

3.1.2. Eskola eta ikasketa aldia

Familia bezala, hezkuntza sistema ere sozializazio agente garrantzitsua da ezbairik gabe. Gaur egungo gizarteetan pertsonak haurtzaro goiztiarrean sartzten dira bertan eta bizitzako urte asko igaroten dute

hezkuntza erakundeen zaintzapean. Ezaguna denez, hezkuntza sistemak ezagutza legitimoaren (hots, gizartean garrantzitsutzat eta beharrezkotzat hartzen den horren) transmisioa du funtzionatzen. Baina, horrekin batera, ezkutuko curriculumare ere lantzen da gune horretan. Esan nahi baita, irakaskuntza programen barruan nahiz haietatik kanpo dauden balio, mundu ikusmolde, aginte-eredu eta diziplina praktika asko helarazten zaio norbanakoari eskola erakundeetan, geroago haren jarrera eta iritzi politikoetan eragina izan dezaketena eta, hitz batean, herritartasuna eraikitzen laguntzen diotenak. Hala ere, ez da hor amaitzen pertsonak eskolan jasotakoa eta, batez ere, bizi izandakoa. Goitik beherako eraginak ez ezik, elkar eragin horizontalak ere gertatzen dira eskola barruan, ezin baita ahaztu eskolan gauzatzen direla, urte luzez, norbanakoak bere berdinekin dituen interakzioak eta harremanak ere.

Gure ikerketan familiaren eragina gailendu bazaigu ere beste ezeren gainetik, elkarrizketatu batzuen diskurtsoak aztertuta, esan genezake hezkuntza sistemak ere aintzat hartzeko funtzioa bete duela gazteen sozializazio politikoan. Ikasketa aldiei begiratuta, elkarrizketatuek garrantzia kendu diote Lehen Hezkuntzako etapari eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik aurrerako urteetan (instititutuko garaian) jarri dute arreta eragin hori adieraztean.

Ikerketan parte hartu duten gazteen aburuz, Lehen Hezkuntzako urteak ez dira erabakigarriak izan beren jarrera politikoak finkatzeko prozesuan. Nolanahi ere, bestelako ikuspegi bat hartzen dute gurasoen eskola hautuaz zehatzago mintzatzen direnean. Guraso batzuek hurbiltasun geografikoaren arabera aukeratu dute seme-alabentzako eskola, seme-alaben ustetan. Baina, hainbat elkarrizketetan adierazi denez, gurasoen hautua ez da ausazkoa izan; aitzitik, irizpide argiak erabili dituzte erabakia hartzean. Horrela, eskola publikoa, eskola pribatua, ikastola, D eredu eskola publikoan (eredu horren eskaintza urria izan den guneetan, bereziki), eskola erlijiosoak, eta abar, hautu kontzienteak eta esanguratsuak izan dira guraso gehienei dagokienez. Beraz, hautaketa neutralak izatetik urrun, esanahi soziala dute erabakiok, erabat. Hartara, argi dago gurasoek, aukeran, beren balioekin eta mundu ikusmoldearekin bat egiten duten ikastetxeak hautatzen dituztela. Horrek pentsarazten digu familiaren balioak eta iritziak berrindartzen dituzten ikastetxe ereduak hartzeak, eskolaren eraginaren garrantzia erakusten duela hezkuntzaren lehen unetik bertatik.

Eskola bat zen, hor zegoen D eredu eta gaztelerazko eredu (...) Gaztelerazko ereduak bazeukan pare bat urte, baina euskarazko promozioa gu izan ginen lehenengoa (...) Soilik geunden hor apustu sendo bat egin genuenok eskola horren alde, ez zegoen garbi kurtsoa aterako zen edo ez (...) Dena zegoen egiteko (...) Nire gurasoak beti egin dira publikoaren alde, eta euskararen alde ere bai. Orduan (...) hara joan nintzen (Bilgune Feministako kidea).

Bereziki esanguratsuak dira diskurtso batzuetan agertu diren balorazioak ikastetxe eredu jakinek sozializazioan izandako pisuari buruz. Ikastolei dagokienez¹⁰, adibidez, ikasketak bertan egin dituzten elkarrizketatu politizatuenek euskalduntasunaren, euskaltzaletasunaren eta, zenbait adibidetan, abertzaletasunaren transmisioa egotzi diete (hala nola, Ernaiko, EGIko, Podemos-Ahal Dugu-ko, eta Donostiako Piratetako kideek, eta baita Gasteizen elkarrizketatutako mutilak ere). Elkarrizketatutako gazte askok burutu dute hezkuntza prozesua ikastoletan. Hainbatek ikastolako giro euskaltzale hura beren lagun taldean ere garrantzitsua izan dela adierazi du. Ildo berean aipatu dira Nafarroako D ereduko eskola publikoak ere. Baina, badira ikastoletara joan eta balio horietako batzuk barneratu ez dituztenak ere (abertzaletasuna, kasu). Bestalde, ikastetxe erlijioso

¹⁰ Hots, Ikastolen Elkarteko ikastetxeen kasuan.

katolikoaren erdua izan da behin baino gehiagotan agertu den beste adibide bat, ikastetxe horietan ikasitako gazteek, erlijiozaletasunaz at, bertan jasotako balio humanistek beren bizitzan (eta beraz, jarrera zibiko eta politikoetan ere) izandako eragina azpimarratu dute. Azkenik, badira auzoetako eta herrietako dinamika komunitarioarekin eta sozialarekin lotuta egon diren ikastetxeak ere, komunitate proiektuetan txertaturik aritu direnak. Horietan jasotako esperientziak ere aipatu dira elkarrizketa batzuetan.

Ahora, con 27 años, pongo mucho en valor lo que he aprendido en el colegio [católico] (...) La educación incluía valores como la justicia, el compañerismo (...) No son valores negativos (...) Entonces, yo creo que lo que se nos inculcó en el colegio sí fue positivo y nos ha enseñado mucho (Juventudes Socialistas de Euskadiko kidea).

Lehen Hezkuntzako urteei buruzko ikuspegi baikorra erabatekoa izan da gure elkarrizketatuen diskurtsoetan; informatzaile bakarrak –eskola erlijioso batean ikasi zuen batek– adierazi du kontraktasuna ikastetxean jasotako balioei eta ikuspegiari buruz.

Lehen Hezkuntzari buruzko ikuspegi lausoagoaren ondoan, bestelakoa da, DBHko urteez galdetuta, elkarrizketatuen diskurtsoetan agertutako iritzia. Arestian esan bezala, oro har, garrantzi handiagoa aitortu diote gazteek fase horri lehenengoari baino. Nabari denez, adinak zerikusi handia dauka pertzepzio horretan. Alde batetik, haurtzarotik gaztarorako bilakaeraren ondorioak ikusten dira. Izan ere, nerabezaroan gaztetxoak autonomia gero eta handiagoa irabazten doaz, eta beren nortasuna eraikitzeke rol, espazio eta harreman berriak deskubritzen dituzte. Era berean, erreferente berriak aurkitzen dituzte familiarik harago berdinen taldeetan. Beste alde batetik, Bigarren Hezkuntzan politikarekin topo egiteko eta harreman politikoetan esperimentatzeko aukera handiagoa zabaltzen zaie gaztetxoek: testuinguru horretan agertzen dira lehen organizazioak (ikasleenak, politikoak), gai sozio-politikoei buruzko lehen eztabaida mamitsuak (ikasgelan nahiz berdinen taldeetan), ikasle rolean grebak edo protestak egiteko aukerak, eta abar.

Salbuespenak albuespen, DBH eta Batxilergoa eztabaida eta gatazka politikorako gune gisa deskribatu zaigu gure ikerketan. Horrela, elkarrizketatuek garai horretako ikaskideen arteko eztabaida sozialak eta politikoak aipatu dituzte, ikasle mugimenduen eraginak eta egindako lehen mobilizazioak edo grebak, besteak beste. Gogoan dute batzuek aldi horretan hartu zituztela beren gain lehen ardurak publikoak, ikasgelako ordezkari gisa edo ikasle mugimenduetako partaide gisa (hala aitortzen dute, adibidez, Nuevas Generaciones-eko, Juventudes Socialistas-eko, eta Ekologistak Martxan taldeko kideek). Badirudi, beraz, gazte politizatuenentzat bederen, esperimentazio politikorako gune egokiak izan zirela ikasketa ertainetako ikastetxea eta nerabezaro-gaztaroko aldia.

Beraz, adierazpen desberdinen bitartez bada ere, nabari da partaidetza kolektiboa handitu egiten dela DBHtik aurrerako etapan. Funtsean, gaur egun politikagintzan diharduten gure elkarrizketatuek (salbuespen bakarra tarteko) orduan ekin zioten parte hartze zibiko-politikoari (kontzeptua bere adierarik zabalenean hartuta). Gehienak ikasle taldeetan hasi ziren, zenbait organizaziok eskaintzen zieten aukera baliatuta; beste batzuek boluntariotzari loturiko ekimenetan eta aisialdi taldeetan abiatu zuten beren ibilbidea (behin baino gehiagotan, Eliza Katolikoari lotutako taldeetan). Hasiera horiek apalak izan ziren askotan, haztatze saioak besterik ez. Behin baino gehiagotan, elkarrizketatuek beraiek ez diete saiakera horiei zentzu politikorik esleitzen. Kontuak kontu, denek azpimarratzen dute esperimentazio horietan atzemandako kolektibotasunaren ideia, eta

talde batean jardutearen zentzuaz jabetzeak izan zuen garrantzia lehen gaztaroko urte haietan: “Eta lortu genituen gauza batzuk [institutu garaiko lehen aktibismoan]. Gero guretzat ez ziren ezer, lorpen horiek ziren ondorengoentzat” (Astrako kidea). Kolektibotasunaren kontzientziaren ondoan, politikagintzak erakarri izana ere aitortu dute elkarrizketatu batzuek:

Uste dut, alde batetik, jaso nuela gatazkaren gordintasuna eta horrek ni ere interpelatzen ninduen, eta gero baita ere jaso nuen pixka bat militantziaren edo ekintzaren edo politikaren erotika (Bilgune Feministako kidea).

Organizazioekin izandako lehen kontaktuak zabalduak aukerez gain, bigarren faktore eragingarri bat ere aipatu dute elkarrizketatu batzuek, garai horretan parte hartzera erakarri zituena, alegia, lagun eta ikaskideen eragina. Hor ikusten da, berriz ere, berdinen taldeen eta instituzio formalen baitan garatzen diren harreman ez formalek sozializazio politikoan bete ohi duten eginkizuna. Lagun kontzientziatuek, politizatuek, kezka sozialak dituztenek edo ideologikoki jantzita agertzen direnek lidergoak ezartzen dituzte beste ikaskide eta lagun gain, eta besteen praktika sozialetan eragiteko gaitasuna izan ohi dute. Zentzu horretan, “beste esanguratsuen” artean erreferente bihurtu diren helduen figurak ere atzeman ditugu gaztaroaren lehen urteetan. Horien artean zenbait irakasleren eragina aipatzen da elkarrizketetan. Irakasle-ikasle arteko harremana ona zen egoeretan gertatu da batez ere (hala adierazi dute herri ekimenetan diharduen gazteak, LGTBI Ligako kideak, eta Euskara Elkarteko kideak, besteak beste).

Bai, gazte gaztetatik mugitu gara (...) Eta, gainera, barrukoen presioa eduki dugu, hori aitortu behar dut. Badaude kuadrilako batzuk politikoki mugitzen ez direnak edo publikoki beren burua kokatzen ez dutenak, baina guk igual bultzatu ditugu askotan parte hartzera. Hor bai egon dela eragina, batzuetan konturatu gabe (Gure Esku Dago-ko kidea).

Guk zorte handia eduki genuen eta gure ondoan zeuden neskak oso borrokalariak ziren, feministak ziren (...) neska horiek ikusarazi ziguten nola hitz batek edo besteak bere garrantzia duen, edo jarrera batek edo beste batek bere garrantzia duen, eta alde horretatik eskertzen dut neska horiek ondoan izatea, ze gauza asko ikusarazi zizkidaten (Uribealdeko sozioekologia taldeko kidea [mutila]).

Elkarrizketatu guztiek ez dituzte goi mailako ikasketak burutu. Baina, burutu dituztenen artean sarriagotan agertzen da politikari buruzko interesa, eta politizatuen agertzen diren gazte ia guztiak unibertsitate ikasketak egindakoak dira. Unibertsitateari dagokionez, eragin maila ezberdinak agertu dituzte gure informatzaileek. Hiru talde bereiz ditzakegu, orobat, elkarrizketatuek emandako erantzunetan oin hartuta. Elkarrizketatu talde baten arabera, unibertsitateak ez zuen inolako eraginik izan beren ikuspegi politikoen eraikuntzan, izan ere, diotenez, goi mailako ikasketak egitera joan ziren bertara, ez beste ezertara. Hartara, ez zuten inolako partaidetzarik garatu eta ez zuten harreman handirik egin. Bigarren talde baten esanetan, unibertsitateko urteek nolabaiteko eragina izan zuten beren bilakaeran, jende berria ezagutu baitzuten bertan eta ordura artean ez zituzten bestelako ikuspegiak jasotzeko parada izan baitzuten. Hainbatetan, ikasle mugimenduek antolatutako mobilizazioetan ere parte hartu zuten. Azkenik, hirugarren talde batentzat (ordurako parte hartze politiko handia garatzen zutenentzat), unibertsitatea aktibismo politikorako eremu bat gehiago izan zen, aurreko ibilbidearen segida bat ekarri zuena. Gure elkarrizketatuen iritzietan nabarmendu ez den joera izan bada ere, azken talde horren erakusgarri dira honako bi aipuok:

Ni Gasteizera etorri nintzen jakinda hemen zegoela mugimendua, eta horregatik etorri nintzen Gasteizera eta ez nintzen geratu Donostian (Herri ekimenetan diharduen Donostiako gaztea).

Azken finean, unibertsitateak nahi duena da gu egotea bakarrik lanak eta azterketak egiten, eta hori nabaritzen da lehenengoa ez den beste urteetan; hasieran igual parte hartze handia egoten da bileretan eta asanbladetan, baina gero gutxi batzuk dira bakarrik (Ikasle Abertzaleak-eko kidea).

Horrenbestez, DBHko eta Batxilergoko urteak gazteek eragin-garai gisa gogoratzen badituzte ere, ez da beste horrenbeste gertatzen unibertsitate aldiarekin. Itxuraz behintzat, badirudi garrantzitsuagoak izan zirela familian, haurtzaroan, eta, ondoren, nerabezaroan eraikitako ildoak, geroago gaztaro “helduagoan” sortutakoak baino, gazte politizatuenei dagokienez. Beren burua gazte ez politizatutzat jotzen dutenentzat, aldiz, partaidetza aukera batzuk aurkitu zituzten unibertsitate aldian, nahiz eta behin behinekoak eta ikasle garaiko sartu-irten errazekoak izan ziren. Hartara, askotariko egoerak aurkitu ditugu unibertsitate ibilbideetan. Esan bezala, aurretik politikagintzan parte hartzen zuten gazte batzuek adierazi dute unibertsitatean partaidetza horrekin jarraitu zutela (Errekaleorreko eta Gazte Sozialistetako kideek, esate baterako). Aitzitik, beste batzuk gehiago erakartzen zituen herriko edo eguneroko aktibismoak eta, ondorioz, ez zuten unibertsitateko taldeetan parte hartu. Izan ere, ez zituzten hain baliagarri edo eraginkor ikusten beste esparru batzuetan –auzoan edo herrian- garatzen zuten aktibismoarekin alderatuta (Ernaiko kidearen, Gure Esku Dago ekimenekoaren, edo Bilgune Feministako kidearen adibidea litzateke hori).

Hala ere, aipatu behar da gazte askok aitortu duela garai hartan zeuzkaten kezka sozial eta politikoen arabera ikasketa hautua egin zutela unibertsitatean hastean. Hautatze hori nabarmena izan da gazte politizatuenei kasuan eta gaur egun nolabaiteko konpromiso sozial edo zibikoren bat duten gazteen artean. Horrek ere adierazten du atxikimendu sozio-politikoren bat izan duten gazteei dagokienez, unibertsitatera heldu orduko bazutela oinarriren bat alde aurretiko sozializazioan jasotakoa eta mamitutakoa, geroago formula desberdinetan adierazi dena gazte-helduaroan.

3.1.3. Berdinen arteko harremanak, lantokia eta esparru digitala

Familiaren eta hezkuntza sistemaren esparruez harago, beste hainbat eremurik ere eragiten du gazteen sozializazioan. Atal honetan berdinen arteko harremanak, lantokia eta eremu digitala aipatuko ditugu. Aurreratu dezagun hemen, familiarena eta hezkuntza sistemarena ez bezala, hiru eremu horien eragina aldakorra izan dela gure elkarrizketatuen pertzepzioetan: hots, nabarmena batzuen kasuan, ezdeusa beste batzuenen. Berdinek osaturiko taldeak sozializazio agente garrantzitsuak dira, oro har; nerabeez ari garenean batez ere. Hala, dagokionean bere bizimodua familiatik at modu autonomoan garatzen hasten da gaztetxoa, eta erreferentziatzen hartutako hainbat talderen eragina jasotzen hasten da; talde horien artean lagun-taldeak edo *kuadrilak* izan ohi du eraginik handiena gure gizartean, bertan garatzen diren harremanen trinkotasuna dela medio. Jakina, eragin hori ez da soilik goitik-beherakoa izaten, alegia, taldeetik gaztearengana doana, banakoen arteko elkarreragin sortzailea eta eraikitzailea baizik.

Gure ikerketan ikusi dugunaren arabera, kuadrillaren itzala ez da, itxura batean, familiaren edo institutuaren eraginaren parekoa izan gure elkarrizketatu askoren pertzepzioan. Hala ere, kontuan izan behar da ikastetxeaz eta haren eraginaz hitz egin dugunean, barnean hartu direla ikastetxe barruan garaturiko berdinen arteko harremanak ere.

Dena den, hasiera batean adierazitakoaren kontra, bestelako ikuspegia atzematen dugu gazte batzuek beren bizitzako gertakarien nondik norakoak aletzen dituztenean. Horrela, bere ibilbide politikoez edo zibiko-sozialez aritu denean, hainbat gaztek aipatu du behin baino gehiagotan lagunen taldea (edota lagun jakin baten konpainia edo eredu) erabakigarria izan dela giro sozial zehatz batean murgiltzeko, esaterako herriko gazteen asanbladara hurbiltzeko, edo musika-molde nahiz jai-eredu jakin batzuetan parte hartzen hasteko; askotan, errebeldia eta bereizte nahiaz haragoko parte hartze horrek duen kutsu politikoaren kontzientzia handirik izan ez badute ere lehen unean. Ildo horretan, lagunen artean deskubritzen diren espazioak eta esperimentatzen diren gazte kulturak, bizi estiloak, musika moldeak, jai giroak eta eredu estetikoak (janzkera, hizkera, eta abar), modu inplizituan bada ere, mundu ikuskera nahiz jarrera politikoei lotuta egoten dira, modu lausoan izan arren, eta, zenbaitetan, gaitasun zibiko jakinak garatzeko garrantzizkoak izaten dira gazteentzat.

Nik uste dut 17 edo 18 urterekin hasi nintzela. Deitu zuten asanblada ireki batera [herrian] (...) Orduan sartu ginen N. eta biok eta gero taldeko beste hiru bat edo ere bai. Eta orduan hasi ginen gazte asanbladan, batez ere gazteontzako aisialdi bila edo. Urteekin pentsatzen duzu eta esaten duzu : “juergan baino ez genuen pentsatzen eta juergarako aukerak hartzen genituen!”. Baina, uste dut gazte asanbladak asko lagundu zigula sozializatzeko. Batez ere, lantaldean lan egitea zer den jakiteko. Uste dut hor ikasi nuela lantaldean lan egiten, nola funtzionatzen duten herriko elkarteek... (Gure Esku Dago-ko kidea).

Su eta Gar, Eskorbuto... eta estetika ere bai, punky edo. Arropa erreibindikatioa ere bai erabiltzen genuen, palestinoa eta abar. Horrek laguntzen zuen, azken finean musika horrek lelo batzuk zituen, eta aldarrikapenak ere bai. Eta hori beste elementu bat zen (Errekaleorreko kidea).

Esan dezagun, era berean, lagunen kuadrilla informalaz harago, era askotako talde egituratu ugariarekin izandako harremana aipatu dutela elkarrizketatuek beren haur- eta gazte-ibilbidean: kirol taldeak, aisialdi taldeak (Eliza Katolikoari lotutakoak horietako batzuk, *eskaut* taldeak kasu), dantza taldeak, bertso eskolak, eta abar. Esan bezala, batzuetan Eliza Katolikoari loturiko taldeak agertu zaizkigu eta, beste batzuetan, izaera alternatiboa duten taldeak (elkarrizketatu batek, adibidez, aisialdi taldearekin *Errekaleor* auzo okupatura egindako bisita hartu du gogoan). Ikasketa eta trebatze zibiko-politikoek ari garenez gero, halako taldeen eragina inplizitua izan ohi da maiz, eta parte hartzaileentzako oharkabean gauzatzen da eragin hori. Ildo horretan, gure ikerketan ere informatzaileek ez dituzte talde horiek bereziki nabarmendu ikasketa politikoez aritu direnean. Aitzitik, gaztetxotako aisialdi taldeak askotan ekarri dituzte gogora, bertan izandako esperientziak goraiatu dituzte behin baino gehiagotan eta han ikasitako balioak positibotzat jo dituzte denboraren ikuspegiari atzera begiratuta. Zalantzarik ez, talde antolatu horiek eta talde horietan bizi izandakoak munduarekiko ikuspegi zehatz bat transmititu diela iruditu zaigu.

Había un pequeño grupo de boy-scouts en el que nos juntábamos (...) Me gustó la experiencia, los valores que inculcaban (...), cuidar de la naturaleza, eso es algo que ahora está a la orden del día, pero hace 20 años no lo estaba tanto (...), valores como la sinceridad a la hora de cometer errores y no esconderse (...) Yo creo que sí [ha influido en mí] (...) Lo tengo muy interiorizado y lo intento inculcar a mis hijos (ELK-Iruñea-mutila).

Lantokia eta lanbidea ere ikasketa gunetzat jo izan dira sozializazioari buruzko lan klasikoetan. Izan ere, bizirauteko baliabideak eskaintzeaz gain, lantokiak eta lanbideak berebiziko pisua dute norbanakoaren identitate

indibiduala eta soziala eraikitzeko garaian, gune horietan rol berriak betetzen direlako. Enpleguak jatorrizko familiekiko emantzipazioa eta, hartara, helduarorako trantsizioa irudikatu du XX. mendetik gaur egunera arte. Horrela, enpleguak gizarteko toki jakin batean kokatzen gaitu eta herritartasun osorako bidea ematen du, autonomia ekonomikoa dela tarteko. Edonola ere, azken hamarkadotan aldatzen ari dira lan ordainduaren eta lan merkatuaren mundua, merkatu global kapitalisten desarautzearen eta sistema posfordistaren ezarreraren kariatz. Gazteentzat zaila da gaur egun beren prestakuntza mailari dagokion lan duina eta egonkorra lortzea. Merkatuak eskainitako lanak gero eta prekarioagoak dira, eta ugaltu egin dira aldi baterako enpleguak gazteentzat. Horrela, egungo gazteen bizi ibilbideek gurasoenak izan zuten linealtasuna galdu dute. Izan ere, tarteko lanaldiek zatitu egiten dute haien bizitza eta, ondorioz, gero eta korapilatsuagoa da bizi proiektuak aurreikustea eta garatzea. Horrenbestez, gero eta gehiago indibidualizatu dira lan esperientziak eta, hein batean, lan ordainduaren zentzu kolektiboa galdu egin da gazteen artean. Zalantzarik ez, ziurgabetasuna eta etsipena zabaldu dira belaun gazteen artean enpleguari dagokionez.

Gure ikerketan ikusi dugunaren arabera, elkarrizketatuaren kokapen soziala tarteko, asko aldatzen da lan munduari buruzko ikuspegia. Ikuspegi desberdin horiek lotuta daude elkarrizketatuen adinarekin, bizitza zikloarekin eta prestakuntza mailarekin. Elkarrizketatuetako batzuk oso gazteak dira oraindik eta ez dute zuzenean lan ordainduaren mundua ezagutzen. Gazte helduago batzuk lanean ari dira aspalditik. Beste elkarrizketatu batzuk abiatu berriak dira. Hainbatek epe laburreko esperientziak izan ditu, eta sartu-irtenak besterik ez ditu egin lan merkatuan edo ezkutuko ekonomian. Nolanahi ere, esperientziak esperientzia, ia aho batezko iritzia dago elkarrizketatuen artean; gaur gaurkoz, beren bizitzetako kezka sozio-politikorik handiena (eta politikariei eta gobernu instituzioei zuzendutako eskaririk argiena) lan ordainduari, lanerako aukerei eta lanaren kalitateari lotuta dago.

Oro har, elkarrizketatutako gazteen lan-esperientzia prekarietateari loturik agertu zaigu, lan baldintza eskasen eta lanaren izaera aldakorren kariatz. Testuinguru horretan eta, salbuespenak salbuespen, informatzaileek ez dute lanbidea ikasketa politikorako eremu gisa ikusi modu esplizituan. Baina, bestelako irudia jaso dugu esperientzia zehatzak aletzen hasi direnean. Esate baterako, elkarrizketatu batek nabarmendu du lan eremuan sakondu ahal izan zuela politizatze prozesuan, nahiz eta onartzen duen bere esperientzia berezia izan dela:

Agian eragin gehien izan duena nigan izan da pasatzea zortzi ordu egunean oso giro politizatuan (...) Ni nentorren bide batetik non ez nintzen inoiz antolatuta egon ezertan, eta hor aurkitzen duzu [lan] bat non horren bitartez ahal zara hurbildu jende interesgarriarengana (...). Eta hortik hasi nintzen, euskaratik asko enfokatuz (Donostiako Piratak-eko kidea).

Lan esperientzia luzeagoa izan duten elkarrizketatuen kasuan, enpleguak garrantzi handiagoa eskuratu du ikasketa politikoan. Adibide horren erakusgarri dugu ondoko elkarrizketatuaren iritzia, zeinak pisu handia aitortzen dion sindikatuekin izandako harremanari, eta sindikatuek lan arazoak konpontzeko emandako laguntzari:

Mi primera experiencia fue al terminar [los estudios]. En la misma residencia donde hice prácticas me contrataron, sólo para un mes. (...) Pero en cuanto se acabó el contrato de un mes a la puta calle. (...) Para flipar. Otra fue en un grupo (...) de residencias, (...) y de la noche a la mañana, sin previo aviso, me dicen que no seguía. (...) Entonces yo pregunté y me dijeron que preguntara por el enlace sindical de la residencia

y que hablase con él. Hablé con el enlace sindical, (...) consiguieron reunión con la directora del grupo para que me pagaran el mes y el finiquito y algo más por despido improcedente, que no fue gran cosa, pero bueno. Después por medio de una subcontrata me consiguieron un trabajo de teleoperador. (...) Entramos a currar y de las X personas que habían contratado el primer día un montón fuimos a la puta calle. (...) Y ahí el sindicato no podía hacer nada (...) En mi actual trabajo, no tengo contrato, me paga una familia (Pa-Ya konpartsako kidea).

Sindikatuak aipatu ditugunez gero, esan dezagun gaur egungo lan munduaren egoera prekariedade eta indibidualizazio handikoak izanik, sindikatuak ez direla agertu, modu esplizituan, eragile garrantzitsu gisa informatzaileen iritzietan. Elkarrizketatu askok ez du sekula kontratupeko lanik egin, eta egin dutenen artean, gutxiengo batek izan du harremana sindikatuarekin. Ildo horretan, iritzi oso desberdinak jaso ditugu elkarrizketatuei sindikatuak betetzen duten zereginaz galdetu diegunean. Mutur batetik hasita, politizatze maila gutxien duten gazteek sindikatuari buruzko ikuspegi ezkorra erakutsi dute. Izan ere, “denak berdinak dira” gisako iritziak eman dituzte eta alderdi politikoekin alderatu dituzte. Ildo horretan, batek baino gehiagok esan du erakunde zaharkituak direla eta ez dutela inondik ere ikusten edo ezagutzen haien zeregina. Ikusi dugunez, sistema politiko konbentzionalari buruzko ikuspegia dago iritzi horren gibelaldean, gazte askok ohiko instituzio politiko nahiz gobernuari buruz barneratuta duen mesfidantzaren isla dena. Zalantzarik gabe, sindikatuak ere, sistema horretako aktore soziopolitikotzat jotzen dituzte. Hortik sortzen da haiei buruzko irudikapen ezkorra. Jarrera horren adibide dira hurrengo bi iritziak; nabarmena iruditu zaigu sindikatuari buruzko urruntasuna eta ezagutza falta:

Nik ikusten ditut langileentzako laguntza moduan, baina niri ez zait burutik pasatzen sindikatu batera joatea galdetzera. Egia esan, ez dakit oso ondo sindikatuak zer diren; elkarte politikoak diren edo (ELK-Basauri-neska).

Igual es algo que para muchos jóvenes es arcaico o que no sirve para nada. A mí la verdad es que no me ha interesado nunca, pero tampoco te sabría decir por qué (ELK-Bilbo-neska).

Baina, gutxi politizatuen artean ez ezik, engaiamendu politiko nabarmenagoa duten gazteen artean ere ikusi dugu sindikatuari buruzko zehurtzia eta prebentzioa. Jarrera hori ez da sindikatuari buruzko balizko ikuspegi ezkorretik eratorri, bizitza errealean gazteek bizi izandako lan-baldintza hertsatzaileetatik baizik. Testuinguru horretan azaleratu da, berriz ere, beldurraren eragina; oraingoan gaur egungo lan ereduak gazteen erabaki politikoetan eta ustezko lan eskubideetan eragindako menpekotasunaren isla moduan agertzen zaigu beldur hori. Bada, gazteek, beren burua politizatutzat jotzen dutenak barnean hartuta, arriskuen kudeatzaile gisa jarduten dute gero eta gehiagotan, indibidualizaturik agertzen den lan eredu batean.

[Nire enpresan] komitea dago (...) Nire ustez, zoritxarrez, nire egoeran dauden gazteak..., agian ez zen oso begi onez ikusiko sindikatuan sartzea, nahiz eta eskubide hori eduki. Adibidez, orain greba bat egongo balitz, nahiz eta alde egon, nik badakit niretzat egokiena litzatekeela greba hori ez egitea (Gure Esku Dago-kidea).

Si te metes en un sindicato, la empresa ya te va a tener como fichado, y encima la gente a la que en principio defiendes se va a quejar de que todo es una mierda... Paso. Es muy complicado (ELK-Gasteiz-mutila).

Baina, oro har, politizatzeko maila gorena duten gazteen artean ikuspegi baikorrak jaso ditugu. Izan ere, mundu politikoaren ezagutza sakonagoa izatean eta elkarte politiko formal nahiz alternatiboetan eskarmentua metatzean, gai dira sindikatuen eginkizunak eta balioak zehazteko, eta haien eginkizunak balioan jartzeko. Hala ere, gazte horien artean beharrezko ikusten da sindikatuak eraberritzea gaur egungo garaietara, bereziki, gazteen premietara egokitu daitezen. Ildo horretan, batetik, badaude dagoeneko sindikatuak bide horretan abiatu ikusten dituztenak, beren egitekoa eguneratzen eta berritzen eta, bestetik, eguneratze hori egiteko ikusita, horren behar larria azpimarratzen dutenak:

Nik sindikatuak aterako nituzke agian [ohiko politikaren] zaku horretatik, ze uste dut ondo ari direla, gustatuko zaigu gehiago edo gutxiago, baina ondo ari direla birplanteatzen beraien burua uste dut (OlatuKoop sareko kidea).

Es verdad que quizás las luchas sindicales están muy ancladas (...) a una lucha de los 80. (...) Ahí alcanzaron su fuerza y no han sabido renovarse. También claro, si no han recibido aporte de gente es muy difícil hacerlo... (Ezkerraldeko bazterketaren aurkako talde bateko kidea).

Horretarako [gazteak sindikatuera gerturatzeko] aldatu beharko da sindikatuen izaera, hau da, lanaren kontzeptua berri behar da, lana orain ez da lehen zena, orain ez dago bizitza osorako lanik, lan berri pila bat sartu da lan munduan, etxekolanak adibidez, klase partikularrak..., uste dut horren inguruan egin behar dela gogoeta bat eta landu gazteak benetan erakartzeko (Ernaiko kidea).

Azkenik, ordaindutako lanari dagokionez, bada ikerketan atzeman dugun azpimarratzeko moduko aurkikuntza bat. Gazte politizatuaren artean ikusitako joera izan da. Gazte horiek, aurrerago aipatuko denez, parte hartze sozio-politikora zuzendutako ibilbide luzea dute haur eta gaztetxo zirenetik, organizazio politiko formal, elkarte eta erakunde ez formaletan metatutako esperientzia baitute eskuratuta (ezker abertzaleko erakundeetan nagusiki). Partaidetza eta aktibismo aniztun horren ondorioz, trebetasun eta abiltasun sozial eta politiko askoren jabe dira, beren prestakuntza maila onaz gain. Zalantzarik gabe, oso ahalndutako pertsonak dira, subjektu eraginkor izanaren autopertzepzioa dute eta kapital sozial sendoaren jabe dira (harreman sare eraginkorrak kudeatzen dituzte). Hartara, edozein testuingurutan (lanean ere) herritar aktibo izateko beharrezkoak diren trebetasunak eskuratu dituzte.

[Esperientzia aktibistaz ari da] Horrek lagundu dit pila bat. Azkenean ikasten duzu pertsonekin nola hitz egin, nola bideratu bilera bat, nola bideratu modu asertiboan gatazkak edo eztabaidak daudenean. Eta nik badakit garatu izan dudala, adibidez, bilera bat bideratzeko ahalmen hori Gure Esku Dago-ri esker. Bestela ez nintzen izango kapaza (...) Beraz (...) horri esker uste dut gai naizela nire laneko hainbat funtzio egiteko (...), horrek asko lagundu dit. Eta alhoan izan ditudan pertsonak oso inportanteak izan dira, asko ikasi dugu elkarrengandik (Gure Esku Dago-ko kidea).

Kontuan hartu gabe alderdi politiko nahiz sindikatuaren profesionalki diharduten pertsonak, elkarriketetan ikusi dugu gazte horietako askok duen lanbidea aktibismoari loturik dagoela, baita modu nabarmenean egon ere. Esan nahi baita, euren balio, iritzi eta helburu politikoek bat egin dute jardun profesionalean, eta jardun horren bitartez gauzatzen dira gaur egun. Gizarte aldaketa eta kultur- nahiz bizi-eredu alternatiboak dituzte xede. Hartarako, lanaren esparrua politizatu dute, esanahi politikoa eta etikoa erantsita jardura

profesionalari berari. Geroago ikusiko dugunez, talde sortzailea eta berritzailea osatzen dute politikagintzari dagokionez gazte horiek. Izan ere, politika eguneroko bizitzara eta ekintzetara eramateko gaitasuna izan dute, ohiko instituzio eta gobernu erakundeetatik at. Modu horretan jardunez, gizarte aldaketak bilatzen dituzte, aldaketa pertsonalekin batera. Bi esparru horien uztarketa da, hain zuzen ere, azken urteetan sortzen ari den politikagintza indibidualizatuaren ezaugarri nabarmenetako bat, aldi berean burutzen baita norberaren errealizazioa eta proiektu politikoen aldeko jarduna. Lana bihurtu zaigu, kasu horietan, ikasketa politikoen gune ez ezik, jarduera politiko intentsiboaren gune ere.

Atal honekin amaitzeko, eremu digitalari buruzko aipamen labur bat egingo dugu (geroago, praktika politikoen atalean berriro hartuko baitugu aintzat gaia). Hedabideak ohiko sozializazio agente garrantzitsu gisa hauteman izan ditu soziologiak, errealitate sozialari buruzko irudikapen eta ikusmolde jakinak zabaltzeko -nahiz isiltzeko- duten gaitasuna tarteko dela. Azken urteetako eremu digitalaren eztaba areagotu egin du komunikazio esparruaren garrantzi sozializatzailea, gazteen artean bereziki. Eta aukerak eman ditu, ustez, komunikazio horizontalagoak eta, batez ere, azkartasun handikoak garatzeko. Horren ondorioz, azterketa askok nabarmentzen dutenez, komunikazio orokorrerako ez ezik, komunikazio politikorako (eta manipulaziorako) ere bide berriak zabaldu ditu iraultza horrek.

Ikerketa honi dagokionez, azpimarra dezagun elkarrizketatu ugari aipatu duela internetek betetzen duen toki nagusia beren bizitzetan, eta haren bidez izan duten eragina ikasketa politikoari dagokionez. Hain zuzen ere, beren jarrera politikoa finkatzeko interneten bitartez eskuratutako edukiak izandako rol nagusia azpimarratu dute batzuek. Adibidez, bi elkarrizketaturen ustetan, beren ikasketa politikoetan funtsezkoak izan dira internet eta sare sozialak. Magreben familia duen SOS Arrazakeriako kidearen kasuan, adibidez, eta LGBTBI komunitateko kidearen kasuan hala gertatu da.

Politikagintzan inplikaturik dauden elkarrizketatu zenbaitentzat (Pa-Ya konpartsako kidea, OlatuKoop sarekoa, etabar) sare digitalak baliagarriak dira ez soilik azaleko informazioa jasotzeko eta komunikazioa bideratzeko, baita irakurketa politikoetan eta eztabaidetan sakontzeko ere (esate baterako, feminismoan, komunismoan, eta beste hainbat gaitan barrentzeko baliagarritzat jo izan dituzte gazte horiek). Bestalde, politizatze maila lotuta agertu da edukiak sortzeko eta zabaltzeko gaitasunarekin. Horrela, interes politikorik izan ez edo politikatik urrun sentitzen diren gazteek albisteak jarraitzeko bitarteko gisa erabiltzen dituzte sare digitalak, oroz gain. Eta sarri, albiste horiek ez dute zuzenean kutsu politikorik izaten. Edonola ere, gaur egun zabaldua dagoen uste orokorraren kontra, elkarrizketatu askok azpimarratu du ez dituela interneteko sare sozialak erabiltzen. Sozialki asko nabarmentzen badira ere, badirudi, sarean dauden edukiak eta eztabaidak ez zaizkiola gizarte osoari interesatzen edo iristen. Hartara, pentsa dezakegu, gazteen artean batez ere informazioa jasotzeko erabiltzen direnean, lehenagotik finkaturik dauden jarrerak eta iritziak berresteko erabiltzen direla nagusiki sareak. Eta, modu sortzaileago eta politikoki aktiboagoan erabiltzen direnean, berriz, eztabaidetan sakontzeko eta ideiak zabaltzeko erabiltzen direla.

Laburbilduz

Orain artekoa laburbilduta, esan genezake familiaren eragina oso nabarmena dela gazteen ikasketa politikoei dagokienean. Balioen eta ideien transmisio politikorako lekua izateaz gain, batzuetan, familia esperientziazio politikorako lehen gunea ere izan da haur eta gaztetxo zenbaitentzat. Intentsitate handiagoz edo txikiagoz, politikari buruzko atxikimendu maila desberdina erakutsi duten gazte guztiek nabarmendu dute familiaren eragin

orokorra (lehenik, politizatze eta aktibismo maila handia erakutsi dutenek, bigarrenik, politikarekiko desilusia adieraztearekin batera konpromiso zibiko-sozialean aktiboak direnek, eta, azkenik, politikari buruzko urruntze-jarrera nabarmenagoa adierazten dutenek ere).

Politikarekiko interesa duten gazteei dagokienez, batez ere giro abertzaleetan sozializatu direnen kasuan, familian gauzatutako espermentazio politiko goiztiarraz hitz egin genezake. Izan ere, ildo horretako gazteek onartu dute manifestazio, erreibindikazio-jaialdi, edo ekitaldi politikoetan parte hartu zutela, zuzenean eta etxekoekin batera, haurtzaroan eta gaztaroan. Jarduera goiztiar horietan dago gaur egungo gazte politizatuenean denborarekin bereganatu dituzten trebetasun sozialen eta politikoen abiapuntua, eta luzaroan landutako norberaren eraginkortasun politikoaren pertzepzioa.

Halaber, politikan modu aktiboan ari diren gazte horien kasuan, familia tradizio politiko batzuen eramale ere izan da sarritan, balio jakin batzuek helarazi dizkietelako eta familiako kideen atxikimendu politikoaren oroitzapena eta memoria jakinarazi dietelako etxeko gazteenei (heriotzak, kartzelaldiak, erbesteratzeak, etabar tartean direla). Horrek, jakina, eragina izan du gazteen ikasketa politikoan.

Aitzitik, politika urrunagotik bizi duten gazteei dagokienez, sozializazio politikoa modu inplizituagoan bizi izan dute euren familietan. Oro har, eta aurreko gazte politizatuene kasuan ez bezala, auzi politikoek ez dute izan zentraltasunik gazte horien familia giroan: politika, gai gisa, ez zen mintzagai izaten etxean, eta gurasoek ez zuten rol politiko ikusgarririk betetzen (edo ezkutatu egiten zuten beren iritzi politikoak) gazte horien haurtzaroan. Ondorioz, gazte horientzat familiak ez du bete gaztetxoa bere inguruko auzi kolektiboekin lotzeko eginkizuna.

Horrenbestez, familiaren transmisioan kokatu dute elkarriketatu askok beren gaurko jarrera politikoaren jatorria (dela jarrera aktiboa edo dela jarrera apatikoagoa). Bestalde, emakume gazteen zenbait elkarriketetan, batik bat, emakumezko eta gizonezko gurasoen rol desberdinak bereizi dira seme-alabengan izandako eraginean. Hala, aitaren ikusgarritasun publikoaren ondoan, batzuek amaren rol erabakigarria azpimarratu dute zenbait balio eta jarrera feminista helaraztean.

Emozioen aldetik, beldurrak paper garrantzitsua bete du gure ikerketako gazte askoren bizipenetan. Beldur mota bat baino gehiago agertu da ikasketa politikoaren prozesuetan. Batetik, parte hartze politikoak eragin izan duen beldur lausoa egon da (“ez dadila alaba/semeara arazoetan sartu”), beharbada, Hego Euskal Herriko eta Espainiako Estatuako kultura politikoak eragindakoa; eta, bestetik, “euskal gatazka” deitutakoari lotutako beldurra. Izan ere, bai Espainiako estatuaren errepresioa bai ETaren jarduera ere maiz aipatu dira elkarriketetan. Oro har, Euskal Herriko gibelalde politiko gatazkatsu eta indarkeriazkoaren eragin sakona agerian geratu da behin baino gehiagotan gazteen adierazpenetan.

Eskolari dagokionez, bigarren hezkuntzako aldia eztabaida eta jarduera politikorako inimizazio aro gisa deskribatu zaigu gure ikerketan. Funtsean, gaur egun politikagintzan diharduten elkarriketatuek garai horretan ekin zioten parte hartze zibiko-politikoari, familiarik kanpo, hain zuzen ere. Gaztetxoek autonomia irabazten doazen une horretan, garrantzia hartzen dute lagunek eta berdinen taldeen arteko interakzioek. Unibertsitateari dagokionez, politizatze maila handia duten gazte ia guztiak unibertsitate ikasketak egindakoak dira, baina unibertsitate aldiaren eragin ezberdinak agertu dira ikerketan. Batzuentzat, unibertsitate aldiaren eragina oso apala izan da euren ikasketa politikoetan; beste batzuek giro politiko berrietan hasteko eremu gisa definitu dute (lagun berriak egitearen eta eragin berriak jasotzearen ondorioz); eta azken batzuentzat, parte hartze eta aktibismo politikorako esparru garrantzitsua izan da unibertsitatea.

Hezkuntza erakunde formalez harago, lan honetako gazteen ikasketa politikoetan nabarmen agertu dira bestelako eremu ez formal batzuk, modu inplizituan izan bada ere: kirol taldeak, aisialdi taldeak (Eliza Katolikoari lotutakoak horietako asko), kultur taldeak, etab.

Azkenik, lan esparruaren sozializazio gunea dugu. Ikerketan parte hartu duten gazte batzuek ez dute inoiz lan merkatuan jardun. Baina, elkarrizketatu gehienek kezka sozio-politikorik handienak enplegu aukerei eta enpleguaren kalitateari lotuta daude. Ildo horretatik, ikerketan parte hartu duten gazte askoren lan esperientzia eta prekarietatea uztartuta agertu zaizkigu beren bizi ibilbideetan, lan baldintza eskasen eta lanaren izaera aldakorren kariatz. Horrek zaildu egin du askorentzat lan eremua modu esplizituan ikasketa politikorako esparru gisa ikustea, lan esparruaren eragina modu sotilagoan agertu den arren. Hala ere, elkarrizketetan ikusi da politizatze maila handiena duten gazteen artean, askoren lanbidea aktibismoari loturik dagoela. Izan ere, euren balio, iritzi eta helburu politikoek bat egin dute jardun profesionalarekin. Gizarte aldaketa eta kultur- nahiz bizi-eredu alternatiboak xede izanik, lanaren esparrua politizatu egin dute gazte horietako batzuek, esanahi politikoa eta etikoa erantsita jarduera profesionalari berari.

3.2. Gazteen ibilbide politikoak

Adinean aurrera egin ahala, gaztetxoak subjektu gero eta autonomoago eta aktiboago bilakatzen dira beren ikasketa politikoan. Gazteen ikasketa politikoetan sozializazio erakundeek banakoen lehen urteetan izandako eginkizuna aztertu ondoren, nerabegarotik aurrera gazteek parte hartze politikoan egindako ibilbideetan jarriko dugu arreta segidan. Hori egiteko, kontzeptu bat argitu behar dugu aurretiaz. Hain zuzen ere, zer da parte hartze politikoa gaur egun? Zer nolako errepertorioak hartzen ditu barnean partaidetza politikoak? Ikertzaile batzuek nabarmentzen dutenez, parte hartze politikoaren irakurketa zabal bat egin behar da egungo gazte jendearen herritartasun praktikak benetan ulertu nahi badira. Hala egin ezean, gazteen apatia politikoari buruzko irudi estereotipatuak besterik ez genituzke aurkituko. Horiek horrela, ikus dezagun zergatik eta zein testuingurutan gertatzen ari den parte hartzeari buruzko aldaketa gaurko egunean.

XX. mendearen erdialdetik orain dela gutxira arte parte hartze politikoa estatu erakundeei lotuta egon da (ildo horretan, deszentralizatutako instituzio politikoak ere –gurean elkarte autonomoetako instituzioak- erakunde-multzo horren zati dira). Sistema demokratiko liberaletan herritartasuna gizabanakoaren eta estatuaren arteko harreman gisa definituta egon da ohiko azterketa politikoetan. Hartara, herritartasun eredu hori hauteskunde bitartez gauzatzen zen nagusiki demokrazia ordezkatzailaetan, alderdi politikoen arteko joko tartean zela. Mende batez, alderdien bitartez eragin izan du herritarrek erabaki politikoetan. Eta sindikatuen bitartez, auzi sozio-ekonomikoetan. Zalantzarik gabe, alderdi politikoak eta sindikatuak izan dira sistema demokratiko ordezkatzailen barruan aktore sozio-politiko nagusiak. Aipatu ikuspegiaren arabera, herritarren partaidetza errepertorioa bozkara, hauteskunde kanpainetan eta alderdi politikoetan parte hartzera eta hautagaien aldeko sinadurak batzera mugatu da. Hala ere, 1960/70eko hamarkadetan Mendebaldeko herrialdeetan izandako mobilizazio sozialen ostean, errepertorio horren barruan bestelako partaidetza informala ere (adibidez, mugimendu sozialak, manifestazioak eta protestak) aintzat hartzen hasi ziren hala politikariak nola ikertzaileak. Baina, betiere ulertuta estatu esparru politikoari begirako partaidetza ekintzetan, eta soilik horietan, eraikitzen zela herritartasuna.

Ildo beretik, XX. mendean partaidetza politikoa bereizi egiten zen beste edozelako partaidetza sozialetatik. Hala, adibidez, parte hartze zibikoa ez zen politikotzat jotzen, nahiz eta bizitza kolektibora bideratutako

jarduera multzoa hartu barnean. Bada, partaidetza zibikoaren barruan sartu izan dira, besteak beste, elkarte komunitarioetako parte hartzea, elkarte erlijioso, kultural edo sozialetako kideak, laguntza sozialera eta karitatera bideratutako lana, erakunde desberdinetan gauzatutako boluntariora jarduerak, eta abar. Jarduera horietatik bereizita irudikatzen zen, lehen, parte hartze politikoa. Gaur egun, aldiz, partaidetza mota horiek politikotzat (edo zibiko-politikotzat) hartzen dira azterketa akademikoan, hauteskudeen eta alderdi politikoen bitartekaritza gabe burutzen diren arren.

Zergatik aldatu da lehenagoko parte hartze politikoa buruzko ikuspegi hertsia eta murriztaile hori? Galdera horri erantzuteko, aintzat hartu behar dugu merkatu kapitalista globalen osaketarekin batera, egiturazko aldaketa politikoa gertatu direla azken hiru hamarkadetan. Izan ere, aktore ekonomikoaren eta merkatu transnazionalen aurrean, nazio-estatuak behinola arautzen zituzten arlo askoren gaineko kontrola galdu dute. Arlo horiek, jakina, funtsezkoak dira estatu horietako herritarren bizitzetarako. Horrela, ohiko instituzio politikoen (governuek, parlamentuek eta alderdi politikoen, besteak beste) baita politikariek ere, ezin dituzte modu eraginkorrean herritarren interesak ordezkatu eta defendatu gaur egun. Hitz batean, ohiko instituzio politikoen gero eta ezintasun handiagoa erakutsi dute azken aldi honetan jendearen premia eta oinazeak auzi publiko bilakatzeko, eta, beraz, horiei erantzun politikoa emateko. Behin baino gehiagotan, gainera, aktore ekonomikoaren aldeko babes politikak bultzatu dituzte gobernu instituzioek, herritarren eskubideen eta gizartearen gehiengoaren kaltetan. Eta horrek, deslegitimatatu egin ditu, neurri handi batean. Ondorioz, populazioaren sektore gero eta handiagoek ez dute dagoeneko konfiantzarik esparru politikoko instituzioen eraginkortasunean.

Ildo horretan, gizarteak berak ere zailtasun gero eta handiagoak ditu norbanakoengan kidetasun sentimenduak sortzeko. Pertsonen parte hartzeko eta eragiteko aukera formalak sustraitik aldatu dira. Bada, esparru publikoa bera murrizten joan da desindustrializazio-, pribatizazio- eta desarautze-prozesuen ondorioz. Merkatuen, merkataritzaren, komunikazioaren eta populazio-mugimenduen globalizazio liberalak eraldatu egin du, baita errotik eraldatu ere, herritartasun kontzeptua; estatuak definituriko estatus gisako herritartasun eredia gainbeheran dago, eta harekin batera, herritartasun hori gauzatzeko formulak: hauteskunde partaidetza, alderdi politikoen bitartekaritza eta afiliazioa, eta abar.

Azken bi hamarkadetan ikusi da ohiko sistema politikotik urruntzen ari direla gizarteko populazio-talde zabalak. Era askotan adierazten ari da prozesu hori: abstentzio tasa handiak daude hauteskudeetan, aldakortasuna bozkan, afiliazio jaitsierak alderdi politikoetan, jendearen politikari buruzko mesfidantza agertzen da etengabe inkestetan, eta abar. Gizartea osatzen duten adin talde guztien artean, gazteenen aldetik gertatu da urrutiratzerik nabarmenena. Izan ere, eskolan eta lanean gertatu den indibidualizazioaren ondorioz, ohiko instituzioen krisi-testuinguruan hazi dira azken belaunaldiak: familia, eskola, gobernu eta lana, instituzio garrantzitsu guztiak ari dira eraldatzen, eta ahultasunak erakusten gizartea nahiz pertsonen bizitza bera arautzeko eta zuzentzeko. Hori gutxi ez eta, gaur egun, lanaren segurtasun-ezak eta ideologia neoliberalak ohiko esparru politikotik at kokatu ditu pertsona gazteenak. Esparru publiko-politiko gero eta itxiago agertzen zaie gazteei, eta ez dute bide instituzionalik atzematen beren beharrezkoak eta arazoak esparru politikora helarazteko. Ildo horretatik, gazte horiek behartuta daude beren bizitzaren biografia eraikitzea lanaren arloan ez ezik, gizarte arloan eta politikan ere, orain arteko instituzio sozialen abarotik kanpo.

Egiturazko aldaketa horien guztien ondorioz, parte hartze politikoa lotutako ekintzak lekuz aldatzen ari dira gero eta gehiago. Nora aldatzen? Bada, gizartera bertara eta pertsonen eguneroko bizitzara. Horrenbestez, gaurdaino politikatik kanpoko arlotzat jotzen zirenak politizatzen ari dira apurka-apurka gaurko egunean.

Gazteek gizarteko arloetara eta, batez ere, eguneroko bizitzako arloetara bideratu dituzte beren ekimenak. Izan ere, esparru horietan aukera gehiago ikusten dute beren kezkek eta atxikimenduak adierazteko eta beharrezkoak dituzten autonomia esparruak eraikitzeke, betiere ohiko instituzio politikoetatik eta sistema demokratiko ordezkatzailak eskaintzen dituen bideetatik at. Aipatu aldaketa prozesuok orokorrak dira, eta populazioaren sektore gero eta handiagoak daude horietan inplikaturik. Baina, zalantzarik gabe, belaunaldien ordezteka dela medio, gazte jendearen eskutik datoz, batik bat.

Ildo horretatik abiatuta, elkarrizketaturiko gazteen parte hartzearen molde desberdinak eta parte hartze prozesu horretan ikusi ditugun ibilbideak aztertuko ditugu atal honetan. Hori egitean, gazte horiek hartutako partaidetza bideen arabera egindako sailkapenetik abiatuko gara. Horrela, bereizi egingo ditugu euren burua *politizatutzat* jo dituzten gazteak, alde batetik, eta *ez politizatu* gisa agertu den gazte multzoa, beste alde batetik. Lehenengo multzoan zentratuta, lehenbizi, gaur egun parte hartzen duten alderdi, sindikatu, eragile eta mugimendu politikoetara iristeko egin duten bidea aztertuko dugu, eta ibilbide politiko horietan nagusitu diren joera nabarmenenak azaleratuko ditugu. Bigarrenik, politikaz interes gutxiago agertu duten gazteen jarduerak aztertuko ditugu. Lehenago ere esan denez, bi multzo horiek ezin dira ulertu kontrajarritako binomio modura, ez baitituzte talde homogeneoak osatzen. Interesari, informazioari eta partaidetzari dagokienez, mailaz mailakako progresio bat egongo litzateke mutur batetik bestera. Bestela adierazita, politizatze neurririk handiena erakusten duten horietatik maila apalena erakusten duten beste horietara, tarteko egoera eta praktika politiko mota asko daude. Hala ere, abiaburu gisa elkarrizketatuek beren buruez emandako definizioa erabiliko dugu (politizatu/ez politizatu), gero ñabardura gehiago egiteko.

3.2.1. Gazte politizatuaren ibilbideak

Elkarrizketatu ditugun gazte politizatuak beren partaidetza politikora nola iritsi diren islatzea eta garatu dituzten partaidetza erreperorioak aipatzea interesatzen zaigu atal honetan, gaur egun politikarekin duten harremana eraikitzeke nolako ibilbidea egin duten jakiteko. Gazte politizatuaren artean partaidetza esperientzia desberdinak ditugu: 1) lehenik, badira aktibismo politikoan murgildurik dauden gazteak baina sistema politikoaren ohiko erakundeetatik at, hau da, mugimenduetan, eta gizartean sortutako era desberdinetako ekimenetan; azken horietako batzuek, gazte helduagoak izanik, beren lan jarduera ere aktibismoaren barnean hartzen dute; 2) bigarrenik, badira ohiko alderdi politikoetan eta sindikatuetan diharduten pertsonak; 3) azkenik, mugimendu asoziatiboan, elkarteetan eta era askotako boluntariora jardueretan dabiltzanak ere badira. Hartara, susma dezakegu talde horien ibilbideak ez direla guztiz berdinak izan. Multzo horietako bakoitzean sakonduko dugu jarraian.

1) Elkarrizketatu ditugun gazte politizatu gehienek herri ekimenetatik sortutako mugimenduetan hasi eta garatu dute haien praktika politikoa. Nonbait, mugimendu horiek familian bizi izandako lehen sozializazio politizatuaren jarraipen “naturala” izan dira sarritan, etxekeoengandik jasotako kapital politikoa dela medio. Beren inguruan bizi izan duten errepresioaren pertzepzioak eta euskal gatazka politikoari buruzko ikuspegi jakin batek (non, gazte errebolitariaren irudikapena oso zabalduta egon den) hurbildu ditu gune horietara. Hala, gazte horietako gehienek institutu- eta unibertsitate-garaian egin zuten jautzia, 14-18 urte bitartean: batzuk ikasle mugimenduan sartu ziren; beste batzuek beraien auzo eta herrietako gazte asanbladetan eta gaztetxeetan izan zuten lehen esperientzia zibiko-politikoak; eta hirugarren multzo bat protesta-mobilizazioetan parte hartzen hasi zen (mugimendu feministaren ekimenak, preso politikoaren aldekoak, etxebizitza eta pentsio duinen aldekoak, LOMCEren kontrakoak, eta abar, aipatu dituzte). Ekimen hertsiki politikoetan ez ezik,

bestelako esparru batzuetan ere parte hartzen zuen gazte horietako askok garai horretan, esparru sozialean eta kulturean esaterako, eta, beraz, inplikazio handia zuen bizitza komunitarioan. Dantza taldeak, bertso eskolak, jai herrikoien antolaketa taldeak, hezitzaile lanak aisialdi eta kirol taldeetan, eta antzeko hainbat jarduera aipatu dituzte beren ibilbide goiztiar horretan. Bada, Euskal Herrian urte luzez garatutako kultura politiko kontra-hegemonikoaren ezaugarrietako bat askotariko mugimendu eta organizazio sektorialetan izandako hedapena izan da. Soslai honetako gazte gehienek lagun taldearekin batera eman zuten aktibismorako lehen pausoa, nahiz eta baten batek ekimen propioz ekin zion bide horri. Oro har, etxeko hasierako eraginaz gain, beren hurbileko testuinguru sozialean sortutako premiek eta dinamikek (ikasle giroak, herriak edo auzoak eta, bereziki, lagunarteak) lagundu zieten hastapenetako urrats horietan. Gazteentzat, aktibismorako eta partaidetzarako gune horiek berdinen arteko ikasketa bultzatu dute. Zalantzarik gabe, izan duten eduki politikoaz at, berdinen arteko soziabilitatea garatzeko eta beste gazte batzuekin harreman sareak osatzeko balio izan diete ikasketa gune horiek lehen gaztaroan.

Gazte asanbladako jende konprometituaren artean sortzen den harremana hasieran politikoa da, baina gero laguntasuna sortzen da. Eta nik esango nuke kuadrilla horretatik jaso ditudala ideia politikoak, hau da, gazte asanbladan konprometituta geunden lau-bost pertsonen arteko harremanetik (Ikasle Abertzaleak-eko kidea).

Lehendabiziko esperimenezko politiko horrek harreman sare politizatuak (eta, hartara, kapital soziala) eraikitze bidea eskaini zion gazte haietako askori. Eta, ezagutza eta gaitasun multzoa metatu ondoren, harreman horiek eman zieten bidea beste erakunde eta mugimendu antolatuago batzuetara jauzia egiteko: gazte mugimendura, mugimendu feministara, euskararen aldeko mugimendura, mugimendu ekologistara, jai herrikoien aldeko mugimendura, okupazio mugimendura, eta erabakitze eskubidearen aldeko mugimendura, besteak beste. Izan ere, ikasketa horren ondorioz, *habitus* edo disposizio aktibista batzuk barneratu ahal izan dituzte gazteok: mundu politikoan nahiz esparru publiko sozialean aritzeko trebetasunak, gaitasunak eta ezagutzak, hain zuzen ere. Beste modu batera adierazita, herritar aktiboaren rola eraikitzen hasi dira adin goiztiarreen, baina ez urrunetik, ez ezagutza formal batetik abiatuta, ez hedabideen edo interneten bitartekaritzaren bidez jasotako irudietan oinarriturik, norberak ekintzen bitartez esperimenezko abiaburu hartuta baizik. Ikasitako abilitate horiek guztiak eta eraikitako harremanak aintzat hartu gabe ezin da ulertu gazte horien ibilbide politikoa ezaugarritzen duen multiaktibismoa. Elkarrizketetan aitortzen dutenez, harreman-sare politizatuetan sartzea eta haien baitan politikoki esperimenezko erabakigarria izan da gazteen geroagoko partaidetza politikoen bilakaeran. Ikasketa politiko-instrumental hutsetik haragoko elkartasun harremanak eraiki dituzte, eta afektuz nahiz emozioz betetako esperientzia kolektiboak bizi izan dituzte prozesuan, gazteen bizitzak markatu dituztenak gerora.

Hasten zara jende bat ezagutzen, lehen aldiz bizitzan zure berdintsua dena, ezberdintasun handiekin baina kezka dituen. Lehen urtearen amaieran izan zen Herri Harresia Donostian eta hor parte hartu nuen, eta pila bat eragin zidan. Pixkanaka Piraten bitartez eta jai herrikoien bitartez bazoaz sartzen herri mugimenduan eta bat-batean deskubritzen duzu mundu guzti hori (Donostiako Piratak-eko kidea).

Ikasi genuen, lehenengo eta behin, adin guztietakoekin hitz egiten, adosten eta gauzak antolatzen. Gero, herriari beste buelta bat ematen ere ikasi genuen. Nik uste dut jarrera kritiko hori garatzen duzula besteak entzuten (...) besteekin eztabaidatzen ere. Gero, lan taldean, era berean, era autonomo batean lan egiten genuen (...) Eta erreibindikatiboa izaten ere ikasten duzu, gure kasuan, udaletxeari aurre egiten (...) Eta

ikasten duzu ere gazteak ez garela etorkizuna, orain ere bagarela, eta gure iritzia orain ere entzun behar dela. Hori uste dut hor, gazte asanbladan, asko ikasi nuela, gazteak gizartea garela gaur egun (Gure Esku Dago-ko kidea).

Ildo horretan gehiago sakonduta, elkarrizketatuen diskurtsoetan ikusi dugunez, herri-mugimenduetako gazteen lehen esperimentazioan nabarmena izan da ezker abertzalearen kultura politikoaren eta organizazio-ehunaren eragina. Urteetan gizartean landutako kultura politiko kontrahegemonikoa eta hura sostengatu duten harreman sozial trinkoak gazte askoren trebakuntza sozio-politikorako mintegi izan dira, zalantzarik gabe. Era askotako organizazio- eta mugimendu-sareek aukera objektiboak eskaini dizkiete gazteei zuzenean parte hartzeko beren autonomia eta identitatea eraikitzen ari ziren urteetan. Organizazio horiek lagundu diete gazteei aktibismo-mota horrek sortutako beldurra gainditzen ere. Bestalde, gizarteko sektore honek jasotako errepresioak (gazte helduenek zuzenean ezagutu dutena), trinkotu egin ditu euren arteko komunitate harremanak. Horrek ez du esan nahi gazte horiek guztiek geroztik organizazio edo espektro ideologiko horretan jarraitu dutenik. Aitzitik, gerora, gazte horietako askok beste partaidetza eta engaiamendu politiko batzuetara trantsizioa egin dute. Are gehiago, batzuk gaur egun kritiko agertzen dira “bizi” izan dituzten organizazioekin, baina ez dute ukatzen haietan eskuratutako esperientziek eta jasotako balioek ondoren izan duten eragin erabakigarria beren engaiamendu eta ibilbide politikoetan.

ezker abertzalearen orbitatik at egonda politizatu diren beste gazte batzuentzat partaidetzarako lehenbiziko aukera mugimendu edo ekimen politiko berriek zabalduzako atetik etorri da. Hala gertatu zaie Espainiako esparru politikoa beren jarduerarako esparrutzat jotzen duten gazte batzuei. Ildo horretatik, arestian aipatu dugun gazte taldeaz gain, beste gazte multzo txikiago batek M-15 mugimenduaren harreman sarean garatu du bere lehen aktibismoa. Horrela, aldeztu aurretik etxean edo inguru komunitarioan partaidetzarako pizgarririk izan ez duten edo aukerarik hauteman ez duten batzuentzako M-15a mugarria izan da beraien hastapen politikoan. Izan ere, M-15ak zabalduzako protesta zikloa eta esperientzia horretan ikusitako aldaketarako aukerak izan dira beraientzat politikan sartzeko eta aktibo izateko eragile nagusiak. Mobilizazio horien ondorioz hasi dira batzuk kaleko protestetan parte hartzen, eta hortik abiatuta eraikitzen beren lehen sare politikoak. Sare horiei esker, jauzi egin ahal izan dute gero Elkarrekin-Podemos alderdira, gizarte bazterketaren aurkako plataformetara, edo elikadura- eta ekonomia-burujabetza bultzatzen duten taldeetara, adibidez.

El 15-M, que para mí fue un salto, fue lo que me marcó. Había terminado la carrera, estaba en el máster, estaba un poco asqueado con mi vida... (...) Yo estaba más apático, veía que socialmente no tenía futuro..., esa sensación de desasosiego. Tenía un tema interior que no tenía cauce. Entonces un amigo me comentó que había visto por Facebook que se estaba organizando todo aquello, y fui con él el 15 de mayo enfrente del ayuntamiento de Bilbao (...) Fue cuando en Madrid cargaron y empezaron las acampadas y me interesé un poco por ello. Claro, veía a gente que tenía unas perspectivas y unas formas de pensar bastante parecidas a las mías en muchos sentidos (...) Para mí aquello fue una apertura total, un mundo nuevo. Ahí fue cuando conocí más la movilización, entendiéndola no como ir y caminar, sino de organizar, estar al frente con la pancarta, estar en la asamblea, estar tomando decisiones políticas... (Ezkerraldeko bazterketaren aurkako talde bateko kidea).

2) Orain arte aipaturiko gazteez gain, politizatuen artean badago beste elkarrizketatu talde bat ohiko instituzio politikoaren bidea hautatu duena, alegia, sindikatu, eta alderdi politikoena. Sindikatuetan, alderdi politikoetan edo alderdi horien gazte organizazioetan jarduten duten gazteei dagokienez, esan genezake, gehien gehienak

goiz sartu zirela alderdien gazte erakundeetan, 16-18 urterekin. Horien artean ere, gehienek bestelako ekimen sozialetan, elkartean edo boluntariotzan esperienziak izan dituzte formalki afiliatu aurretik edo afiliatu ondoren. Organizazio horietako batzuk ez dira izan herri ekimenez sortuak (ezker abertzalearen organizazio-sarean gertatzen den bezela), Espainiako esparruko mundu zibiko-politiko instituzionalari lotuak baizik: Gurutze Gorria eta Espainiako Gazteriaren Kontseilua, esaterako. Baina, zenbaitetan, gazteok aritu dira bestelako tokiko ekimenetan ere: etorkinekin lanean, Sahararen aldeko elkartean, haurren aisialdirako begirale edo entrenatzaile modura, eta abar. Hartara, salbuespenen bat kenduta, multiaktibismoan eta sare sozial desberdinen eraikuntzan jasotako esperientzia da beraien ezaugarrietako bat. Beraz, ildo horretako gazteei dagokienez ere, berriz ikusten dugu bai familiaren eragin erabakigarria, bai askotariko sare zibiko eta politikoetan eskuratutako kapital politikoaren metaketa adin oso goiztiarretan.

Batzuek aipatu dute inguru sozial zehatz batean hazi izanak eurengan izan duen eragina; ezkerreko alderdiei dagokienez, adibidez, herri edo auzo industrialetan eta langile kontzientzia izan duten komunitateetan bizi izana. Gehien bat, familiaren bidez helarazitako tradizio politikoaren eragina sumatzen da beren hautuetan. Ikusi izan dugunez, aurrekariak zituzten familian (aita, ama edo senideren bat sindikatuan edo alderdi politikoan karguak betetzen, etxean jasotako balio edo ideologia jakin batzuen eragina, eta abar). Familiaren edo guraso batzuen eragin hori modu desberdinetan gauzatu da ildo ideologikoaren arabera: batzuek, txikiak zirenean, ETArek atentatuek familian eragindako zirrara eta gaitzespena dituzte gogoan; beste batzuek oroitzen dute senideekin batera txikitatik alderdiaren ohiko ekimenetan parte hartuta egin duten bizitza komunitarioa. Hainbestearainokoa da eragin hori non, elkarrizketetan aitortutakoaren arabera, kasu batzuetan familiak berak edo familiako kide batek proposatu baitziren zuzenean afiliazioa. Horrela gertatu da EGI eta Juventudes Socialistas de Euskadiko gazteen kasuan. Lagunen edo berdinen influentzia ere agertzen da sarri, nahiz eta eragin horrek ez duen hartzen familiaren indar maila bera. Baten batek adierazi du elkarrizketan aurretiazko inolako harreman sarrerik eta esperientziarik izan gabe, ekimen propioz, jo zuela erakundera (Nuevas Generaciones taldeko gazteak). Baina, azken horrek ere aitortzen du lagun batek animatuta hartu zuela inizatiba.

Los viernes por la tarde nos juntábamos con gente de otros colegios y llegué a conocer al hijo de un dirigente del Partido Popular en Álava importante, y pude tratar con él. Así empecé a tener una gran amistad, y al final fue él el que me afilió al partido. Entonces, pueden llegar a ser influencias de ese tipo. Pero yo cre que la influencia primordial, que a veces debe ser en casa..., pero en casa ya te comentaba que no se trataban temas políticos, aunque recuerdo que cuando ETA mataba que a mi familia sí que le parecía mal que alguien fuese asesinado por una ideología (Nuevas Generaciones-eko kidea).

[Familiaren] alderdi politiko baten inguruan gaude pila bat, ia guztiok gara parte-hartzaileak. Orduan, alderdi horrek egiten dituen gauza guztietara joaten ginen, beti batera joan gara (...) Ekitaldi bat dagoenean guztiok batera joaten gara, baita nire lehengusu txikiak eta ez hain txikiak direnak (EGIko kidea).

Jakina, alderdi politikoetan eta sindikatuetan integratu diren gazteek bat egiten dute erakunde horien ildo ideologikoarekin eta jardunarekin. Onartzen dute horrelako instituzioek organizazio bertikal eta burokratikoak izan ohi dutela, eta gazteen eta alde aurretik egitura horietan dauden pertsona helduen arteko harremanetan tentsioak izaten direla batzuetan. Gazteek aldaketak egiteko joera handiagoa izaten dute, eta egitura horietan aldaketen aurreko erresistentziak egoten dira, behin baino gehiagotan. Ildo horretatik, belaun arteko txandatzea gertatzen ari dela uste dute batzuek, eta horrela, organizazioen kultura ere, apurka apurka, aldatzen

doala. Bestalde, instituzio horietako emakume gazteek, beren aldetik, antolakuntza androzentrikoak aurkitu dituzte hastapen politikoetan, eta aitortzen dute oraindik urrats handiak egin behar direla berdintasunean oinarrituriko barne funtzionamendua lortzeko, nahiz eta lorpen handiak ere erdietsi diren azken urteotan. Afiliatu gazteetako batzuek denbora osoz lanean jarduten dute organizazioaren barruan, beste batzuek lanaz aparteko jarduna burutzen dute haien alde. Nolanahi ere, denak integratu dira alde zuzenetik ezarrita zeuden kargu eta organigrametan, eta ardura organiko horien berri eman dute elkarrizketetan. Ildo horretatik, sarrera unetik garatu duten ibilbidea gazte-gaztetatik ardura politiko gero eta handiagoak hartuta osatzen joan da. Modu horretan, zenbaitek alderdiaren maila-zerrendan gora egite progresiboarekin identifikatu du, besteak beste, ibilbide hori. Hala ere, “karrera politikoaren” irudikapen horrek ez du ezkutatu behar, alderdietako nahiz sindikatuetakoa kideek antolakuntza-egiturari zor dioten leialtasun organikoaz gain, harekin daukaten atxikimendu emozionala eta esleitzen dioten komunitate-zentzua. Alderdi politikoak egitura politiko bat edo lantoki bat baino askoz gehiago dira bertan afiliaturik eta lanean dauden gazteentzat.

Yo me afilié con 16 años (...) Yo participaba mucho en las cosas locales (...) Ahí empiezas a conocer gente (...) Luego yo cojo responsabilidad en lo local (...) [Después] se me propone llevar el área de formación (...) sería 2011, cuando entre a nivel de Euskadi (...) Luego en 2012 (...) hubo un congreso, y como yo estaba metida en el tema de la igualdad, asumo la responsabilidad de llevar el área de igualdad hasta el 2015 (...) Una vez que adquirí más responsabilidad dentro de lo que es la jerarquía de la estructura, pues yo estaba posicionada en el cuarto lugar durante el congreso, pues al acabar la legislatura estaba pues en el segundo lugar (...) En 2015 es el siguiente congreso y as ahí cuando entro a ser (...) de las Juventudes de Euskadi (Juventudes Socialistas de Euskadi-ko kidea).

Pues sí, era como la familia socialista viendo el resultado de toda la resistencia de estos años (...) Era el sentimiento de cómo gracias a todos ellos yo podía defender los valores que me habían enseñado en mi casa, de libertad (...) El hecho de ver que hemos sido capaces, con inquietudes parecidas y desde una base de principios y valores compartidos, el hecho de poder sacar adelante actividades y otro tipo de actos que pudiesen repercutir en la mejora, y pasar tanto tiempo juntos, yo creo que lo que hace es que sea más como una familia. Lo llamamos familia porque realmente somos como una familia (Juventudes Socialistas de Euskadi-ko kidea).

Politika instituzionalean murgildu diren partaide horien kezketako bat gaur egungo gazteek alderdiei eta, oro har, instituzio sozio-politikoari buruz duten ikuspegi ezkorra da. Horrek, batzuetan, kontraesanak sortzen dizkie. Neurri batean, onartzen dute gaur eguneko gazte gehienek zaharkitutako egituratzat jotzen dituztela alderdiak eta sindikatuak, kritikak jasotzen dituztela itxura txarra ematen dutelako eta gazte askok nahiago izaten duela gai sektorialetan edo kausa zehatzetan jardun. Hala ere, kritikak kritika, multzo horretako gazteek ikuspegi pragmatikoa dute instituzioetatik egiten den edo egin daitekeen politikagintzaz. Izan ere, uste dute, gaurdaino, alderdi politikoak nahiz sindikatuak izan direla lorpen politikoak eta sozioekonomikoak erdiesteko tresnarik eraginkorrenak. Hartara, erakunde horiek egiten duten bitartekaritza lanean jartzen dute beren ahalegin guztia.

Orduan, hor bai egon zen aldaketa bat, pasatzea frustrazioetik derrepente sartzera organizazio batean oso egituratuta zegoena. Orduan, hor bazoaz ikusten zure lanak fruituak ematen dituela eta daukazula gaitasuna inziditzeko, geroz eta gehiago gainera (...) egitura bat oso antolatuta dagoena eta ematen dizuna aukera gauza pila bat aurrera eramateko (ELA sindikatuko kidea).

¡Es que tenemos tantas herramientas para estar en la sociedad y para ser un altavoz de la sociedad! (...)
(Nuevas Generaciones-eko kidea).

3) Azkenik, bada elkarrizketatu multzo bat gazte gaztetarik gizarteko askotariko elkarteetan eta mugimenduetan parte hartzen hasi zena eta geroztik, gradu desberdinetan bada ere, partaidetza zibiko-aktiboa izan duena bere ohiko bizitzako atal garrantzitsu gisa. Gazteen soslai horrek ikerketaren abiaburuan pentsatu baino presentzia handiagoa hartu du. Izan ere, boluntariotzari lotutako gazteen jarduna garrantzitsua izan da elkarrizketatu ditugun gazteen artean. Horrenbestez, gazteen axolagabekiaren ikuspegia apurtzen du horrek.

Hala ere, aktibismorako joerak eta balioak, engaiamendu soziala eta jarduteko grina partekatzen dituzten arren, multzo horretako kideek ez dute osatzen talde homogeneoa, inondik ere. Besteak beste, ikusi dugu boluntariotza-organizazio askok ez duela xedetzat aldaketa sozialik sustatzea; eta, aldiz, mugimendu zenbaitek sistema ekosoziala, politikoa edo ekonomikoa goitik behera iraultzea bilatzen duela. Era berean, organizazio edo mugimendu batzuetako kideek aldi berean ohiko instituzio politikoetan jarduten dute, baina beste batzuek zeharo bereizten dituzte jardun horiek (hau da, partaidetza mota sozialak eta politiko-instituzionalak). Mugimendu multzo batek arestian aipatu dugun ezker abertzaleko ingurune abertzalearekin eta, batzuetan, mugimendu euskaltzalearekin bat egiten du zenbait ideiatan, adierazpen eta lan-ildo desberdinak lantzen badituzte ere (feminismoa, aldaketa ekologikoa, lan kulturala, eta abar). Beste multzo batek, aldiz, Espainiako esparruan kokatzen du bere burua edo, besterik gabe, ez du horrelako banaketarik aintzat hartzen. Boluntariotza erakunde batzuk goitik behera antolatuta daude, hau da estatu, eliza edo bestelako instituzio burokratikoaren menpe daude, eta gazte parte hartzaileek ez dute erakunde horien sorreran edo eraikuntzan partaidetzarik izan. Aldiz, mugimenduak eta herri ekimenak behetik gora eratutakoak dira eta, ildo horretan, gazte parte hartzaileek lagundu egiten dute modu aktiboan beren sorreran nahiz garapenean. Egin ditzagun, beraz, ñabardura batzuk.

Badira izan, boluntariotza lana edo bestelako jarduera sozialak ohiko alderdi politiko nahiz sindikatuetakoa militantziarekin bateragarriak direla uste dutenak. Hori gertatzen da, adibidez, Nuevas Generaciones-eko kidearekin. Gurutze Gorrian jardun du hamar urtez, eta oraindik jarraitzen du. Etorकिनentzako gaztelaniako klaseak ematen hasi zen, eta gero bestelako lanak ere egin ditu. Mugimendu soziala eta politikagintza konbentzionala elkarren osagarri ikusten dituzte beste batzuek ere. ELA sindikatuko kidearen ustez, politika ezin da mugatu alderdien esparrura, eta mugimendu sozialak funtsezkoak dira, besteak beste, dioenez, alderdiek askotan beren lehentasunak ezartzen dituztelako, eta hori mugimendu batzuen kaltetan etor daitekeelako. Ahal Dugu-Podemos-eko kideak ere garrantzi handia ematen dio gizarteko elkarteek nahiz gizarte mugimenduek eta alderdi politikoek norabide berean lan egiteari, bakoitzak bere esparruan.

Niretzat politena izango litzateke mugimendu sozialek politika egitea jendearekin, eta mugimendu sozial horien eta jendearen beharrianak eta nahiak igotzea Legebiltzarrerara, eta alderdiek horri buruzko gauzak aurrera ateratzea, baina beti jendeak esan duenarekin (Podemos-Ahal Dugu-ko kidea).

Bada politika konbentzionalari buruzko interesera eta ezagutzara boluntariotzaren esperientziaren bitartez ailegatu denik ere. Donostian elkarrizketatutako neskak, esaterako, kooperante jardun du birritan Erdialdeko Amerikan, eta azpimarratzen du esperientzia horrek aldaketa handia eragin diola, aldatu egin diola mundua ulertzeko ikuspegia. Han, Euskal Herrian ez bezala, asko hitz egiten eta ikasten baitzuen politikaz bere hango lagunekin.

Talde horretako beste elkarrizketatu batzuentzat ere, jardun sozialean eta jardun horren gunetan aritu izana, kontzientziatze eta ikasketa politikoaren abiapuntua izan da. Askotan, egindako ibilbideak orain arte ohikotzat hartzen ziren gune politikoetatik kanpo burutu dira. Horixe bera gertatu da Euskal Herriko hainbat jai herrikoiren inguruan sortutako festa-elkarteeekin. Gazteen kultura- eta soziabilitate-gune garrantzitsuak izanik (musikarekin gertatzen den bezala), bertan egin dituzte batzuek beren lehen partaidetza esperimenduzkoak, eta hortik abiatu dira bestelako jardungune batzuetara, hala nola, talde ekologistetara, bazterketaren aurkako mugimenduetara, eta abar. Hartara, ikusi dugu musika gune batzuk eta festarako organizazioak beste ekimen sozial batzuetarako erreklutamendu guneak izan ohi direla gazteen kulturaren.

Yo vengo de un entorno que no ha estado políticamente y socialmente movilizado (...) Es verdad que por el tipo de música que me gustaba, ya que me gustaba el rock, el heavy metal y así, te socializas en un entorno que políticamente igual tira más a la izquierda que a otra cosa (Ezkerraldeko bazterketaren aurkako talde bateko kidea).

Piraten mugimendua bada jai herrikoien inguruko mugimendua, oso errekonozitua herri mailan, badauen babes sozial bat, eta ahal duena bere posizioa baliatu gai batzuk mahai gainean jartzeko, eta zilegitasun osoz hitz egin zezakeena hirian kulturari buruz zetorrenari buruz (Donostiako Piratak-eko kidea).

[Entro] partir de la comparsa, que es como nuestro nudo para encajar con la gente joven. Y de ahí vas conociendo gente que trabaja en Ekologistak Martxan (...) En Bilbao hay muchas organizaciones sociales y la mayoría tienen una comparsa detrás, que también es una forma de financiación (...) Y coincides en algunas campañas que se hacen, y te vas juntando con otra gente a nivel de movimiento (Ekologistak Martxan taldeko kidea).

Hala ere, boluntariorik eta elkarte edo mugimendu sozialetan jarduten duen jende multzoaren gehiengo batek orain arte ikusitakoarekiko bestelako ikuspegi bat dauka. Bada, gehien gehienek arbuia egiten dute politika instituzionala, alegia, alderdi politikoaren bitartekaritza sistema politikoan eragiteko xedea duena. Eta, politikagintza, oro har, sistema politiko ordezkatzailaren ereduarekin identifikatzen dutenez, ez dute beren jarduna politikotzat hartzen, eta ez dituzte bateragarri ikusten ohiko politikagintza instituzionala eta gizartean sortzen diren boluntariorik eta elkarte lanak. Izan ere, politikaren definizio hegemonikoa erabiltzen duten heinean, beren jarduna eredu horretatik at kokatzen dute. Hala ere, boluntario moduan, komunitatera edo gizarte ongizatera bideratutako ekintzak burutzen dituzte bete-betean, eta kezka kolektiboak gidatzen du nagusiki beren jarduna. Paradoxa hori gertatzen da, beraz, engaiamendu zibiko handia daukan gazte askorekin. Hala, salbuespenak salbuespen, elkarrizketetan ere ez dute beren burua gazte “politizatutzat” hartzen.

Bestalde, boluntariorik eta elkarteetan ari direnen ibilbidea bereizi egiten da orain arte aipaturiko gazteen inimiziaz politikotik. Gehienetan, aitortzen dute politika ez dela mintzagai izan gurasoekin edo senideen arteko harremanetan. Ez du batere zentraltasunik izan beren haurtzaroko edo nerabezaroko bizitzetan. Isiltasun horren arrazoi desberdinak ematen dituzte, eta horietako batzuk elkarrizketa batean baino gehiagotan azaldu dira: familian joera politiko desberdinak zeuden eta gai gatazkatsua izatean, saihestu egiten zen. Beste batzuetan, gazte horien lagun taldeetan edo “kuadrilletan” ere ez zegoen homogeneotasun ideologikorik. Hartara, politika gatazkarekin eta kontu deserosoekin identifikatzen zen sarritan, hala familian nola lagunaren artean. Eta, ondorioz, ekidin egiten zen lehen, eta ekidin egiten da gaur egun ere. Ildo horretatik, ikusten

da gazte horien sozializazio politikoa ez dela joan, nagusiki, aukera partidista-ideologikoen bidetik. Batzuek aipatzen dute aititeren baten aspaldiko kidetza politikoa edo gurasoetako baten sindikatzea. Baina, argi ikusten da beren familietan eta ingurune hurbilean ez direla tradizio politiko zehatzak helarazi. Aitzitik, politikaren aurkako aurreiritzia azaldu da gune horietan sarri.

Alabaina, gazte horien sozializazio horretan balio sendoak transmititu dira. Balio horiek gehienetan familian jaso dituzte. Zenbaitetan, auzoak edo inguruneak ere sortu dute gai jakin batzuei buruzko sentiberatasuna gazteengan: auzo oso dinamikoak partaidetza sozialari dagokionez, langile-klasearen kontzientzia inguru industrializatuan, senideen artean desgaitasuna duten pertsonak izatea, eta abar, aipatu dituzte eraginaren artean. Beste zenbaitetan, ingurune horretan bizi izandako esperientzien indarra ere sumatu dute, adibidez, etxegabetzeena, edo zabortegi baten aurkako mugimendua herrian.

Baina talde horretako gazte askok jaso dituen balioen iturri nagusia Eliza Katolikoaren esparrua izan da, zalantzarik gabe: ikastetxe erlijiosoetatik eta aisialdi taldeetatik, besteak beste. Izan ere, multzo horretako elkarrizketatuen artean hainbatek elizaren itunpeko ikastetxe erlijiosoetan egin zituen ikasketak, eta hortik hasitako ibilbideari ekin zion haurtzaro-nerabezarotik aurrera. Lehenbizi, eskaut taldeetan parte hartuta, geroago, begirale moduan aisialdi edo kirol taldeetan ibilita, eta, handik, Caritas elkartera, Gurutze Gorrira, etorkinen aldeko elkartetara, desgaitasunak dituzten umeekin egindako lanetara, nazioarteko kooperaziora eta hainbat eta hainbat boluntariora jardunetara jauzi eginda (talde ekologistetan, bazterketaren aurkako taldeetan, eta abarretan). Aurreko gazte politizatuen kasuan gertatu bezala, konpromisoaren bide horiek lagunekin eta berdinekin batera hasi dituzte gazte horiek ere, baina inimizazioaren urteetan beste gune batzuetan egin dituzte urratsak, eta bestelako sare sozialak erabili dituzte. Hain zuzen ere, Eliza Katolikoak babestutako organizazioak eta elkarteak bilakatu dira partaidetza sozialerako eta boluntariorarako aukera nagusi. Partaidetza horrek ez du esan nahi, ezinbestean, ildo horretako elkarrizketatu guztiak erlijiosoak edo fededunak direnik. Baina, erlijio katolikotik jaso dituzte engaiamendu sozialaren aldeko balioak, eta instituzio horrek eskaini die,aldi berean, hurbil izan duten partaidetzarako organizazio sare bat. Elkarrizketatuek aipaturiko boluntariora jardueretan engaiamendu maila oso desberdinak ikusi ditugu, baina ibilbideen hurrenkera-eredu berbera behin eta berriro agertu da jasotako adierazpen askotan.

En los Salesianos había un centro juvenil y empecé a ir, y luego me metí como monitora de tiempo libre. Preparábamos actividades para los chavales que estaban ahí. Y luego me metí también en el mundo sanitario, en la Cruz Roja. En los Salesianos, las actividades eran abiertas a todo el mundo (...) Y se solían hacer los sábados, y eso te abría puertas para conocer gente para hacer actividades. Y estuve cuatro años y luego otros seis de monitora. Y en la Cruz Roja acabé por medio de un compañero de Salesianos que estaba metido y que me dijo que estaban buscando monitores (ELK-Iruñea-neska).

Lehen hezkuntza egin nuen monjetan (...) Gero, DBH eta Batxillerra egin nuen Salesiarretan (...) Ikastetxean eman zuten hitzaldi bat. Nik kezka hori baneukan, etxean esanda neukan nahi nuela bolondres izatea edo, baina ez nekien nola hasi. Orduan, hitzaldi horretan ikusi nuen aukera bat hasteko, gainera gazteak ziren, eta animatu nintzen. Eta ikusi nuenean izango zela munduko beste parteetako gazte batzuei laguntzea, ba gehiago animatu nintzen. Gero, Caritas-en pixka bat ere egon naiz, janari bilketak egiten, herriko jendeari emateko (...) [geroago] galdetu nuen immigrazioarek buruz egiten zutenaren inguruan, eta aipatu zidaten SOS Racismo (SOS-Arrazakeriako kidea).

Konfirmazioa egiten ari nintzen (...) Baina hor (...) izan nuen irakasle bat, monja zena (...) Eta irakasle horri esker pixka bat ikusi nuen mundu honetan baldin banago, badela gizarte konpromiso batzuk hartzeko. Eta orduan, kristautasun horrek ere reafirmatu zuen nire gizartearekiko konpromiso hori (...) Nik ikusten nuen nire balioekin bat egiten zuela (Euskara Elkarte bateko kidea).

Egin dituzten ibilbideak ibilbide, arestian esan bezala, boluntarioran eta gizarte lanetan ari diren gazte guztiek balio humanistak eta orientazio komunitario oso sendoak partekatzen dituzte. Balio horiek familian, ikastetxean edo inguruneko esperientzietan jaso eta barneratu dituzte, eta horiek gauzatzeko partaidetza bide desberdinak erabili dituzte, elkarte sozialak, boluntariora organizazioak eta mugimendu sozialak, besteak beste. Hartara, Eliza Katolikoaren eragina aipatu dugun arren, elizatik ez ezik beste gune batzuetatik ere sortu da balioetan oinarrituriko heziketa hori. Adierazgarria da, ildo horretan, Iruñean elkarrizketaturiko mutilaren jarrera: hurbileko senide bat zaindu eta lagundu behar izan du txikitatik, eta zaintzaren bizi-esperientzia horretatik jendeari laguntzeko bokazioa sortu zitzaioa dio. Beste batzuek, ordea, gizarteari bideratutako ordain gisa ulertzen dute konpromiso soziala. Donostian elkarrizketaturiko mutila, kasu, saskibaloian aritu da haurtzarotik, eta uste du balio oso garrantzitsuak jaso dituela kirol-jardueran. Horrenbestez, berak jasotako onura hori bueltatzeko premia sentitzen du, beste batzuen alde boluntario lana eginda kirolaren arloan.

Kirola gustatzen zait, eta ondo pasatzen dut entrenatzen. Ikusten dut laguntzen ditugula umeak (...) Nik uste dut umeentzat ona dela. Ni txikia nintzenean, entrenatzaileei esker egin nuen kirola. Orduan, gustatuko litzaidake nik beste batzuei berdin laguntzea (...) Talde kirolaren bidez ikasten duzu besteei errespetua edukitzen, taldean jolasten, diziplina, lanaren beharra... Nik uste dut inpaktu handia izan duela nigan kirolak (ELK-Donostia-mutila).

Azkenik, atal honetan bada nabarmendu beharreko beste gauza bat: hain zuzen ere, aktibismoak edo beste edozein motatako lan sozialak eragiten duen norberaren asebetetze sentimendua. Izan ere, partaideen pertzepzioan, gizarteari edo “besteei” dohainik eskainitako ekimen orok sari sinbolikoak izan ohi ditu, egindako ahaleginaren ordain gisa. Jakina, behin baino gehiagotan, aktibismoak eta partaidetzak desilusia eta frustrazioa eragiten dute (helburuak ez direlako sarri askotan erdiesten, edo organizazioen funtzionamendu ildoarekin guztiz bat ez datorrelako norbanakoa), eta hainbatek utzi egin du dena delako organizazioa edo jarduerara, eta beste toki batzuetara joan da. Eta, hala ere, bizi ibilbidearen ebaluaketa egitean, elkarrizketatuek ikasketa garrantzitsutzat hartzen dituzte egindako guztiak. Batez ere, ekimen horietan ehundutako harremanak, bizi izandako emozioak, taldearekiko komunitate-atxikimenduak eta taldekideengandik jasotako aitortzak baloratzen dituzte, erdietsitako helburuez gain. Horrekin batera, herritar eraginkor sentitzearen esperientzia ere badago, gaitasunez eta abildadez ahaldundutako gaztearena. Horrenbestez, orain arte aipatu ditugun gazte aktibista edo boluntario gehienek adierazpenetan jaso dugunez, egindakoaz harro sentitzen dira, edo uste dute beren printzipio eta jokamoldeen arabera, egin beharrekoa egin dutela eta, egitean, gogobetetze sentipena izan dutela. Zer esanik ez, horietako askok bizi-ikasketa erabakigarria izan dute helduarorako trantsizioan. Izan ere, gazteek beren bizitzari zentzua ematen dioten ekimenak eta jarduerak balioesten dituzte, eta beren autonomia indartzen dutenak, batik bat. Horrelako adierazpenak atzeman ditugu maila apalean politizaturik dauden gazteen artean ere:

Lo que estamos diciendo es que votar no sirve de nada, pero si lo que vamos a hacer es ayudar mediante un grupo en el cual sientes que sí sirves o te sientes valorado..., es que entonces claro que participas (ET-Iruñea).

Me parecía que era algo gratificante para mí (...) estuve en animación hospitalaria, jugando con niños con cáncer y cosas así, que al principio pensaba que iba a ser algo super duro, pero luego me llenaba muchísimo (ELK-Iruñea-neska).

3.2.2. Politizatze maila apalagoa duten gazteen ibilbideak

Gazte politizatuek talde homogeneoa osatzen ez duten bezalaxe, politizatze maila apalagoa duten gazteen artean ere alde nabarmenak aurkitu ditugu. Lehenago esan denez, beren buruak “ez politizatutzat” dauzkaten gazteek modu horretako auto-definizioa egin dute politika instituzionaletik kanpo kokatzen direlako, batik bat. Definizio hori egiteko erabiltzen duten neurgailuetako bat hauteskunde jokamoldea da, eta hein txikiago batean, alderdi politikoen bitartez bideratutako partaidetza. Ikusi dugunez, gazte horietako batzuek ez dute bozkatzeko, eta beste batzuek aldizka bozkatzeko dute, edo bozka aldakorra izan dute. Nolanahi ere, ez diote garrantzi handirik ematen bozkatzeari, ez dutelako ekintza eraginkortzat hartzen. Hauteskundeetako jokabide hori gora behera, dena den, euren artean politikari buruzko ezagutza, interes eta inplikazio gradu ugari atzeman dugu. Izan ere, politizatze maila handia dutenengandik hasi eta politizatze maila apalenak dituzten gazteenganaino irudika daitekeen lerroan tarteko egoerak ikusten ditugu ikerketan. Hitz batean, politizatze-edo despolutizatze-egoera mailaz mailakako inplikazioaren arabera ulertu behar da. Ondorioz, azken gazte multzo horri dagokionez ere, askotariko parte hartze graduak daudela hartu behar dugu abiaburuko ideia gisa.

Gizarte indibidualizatu batean, identitate sozial eta politikoen belaun arteko transmisioa ahultzen doa arian-arian. Gazteei talde identitateak helaraztea lehenago baino zailago bilakatu da gaur egungo testuinguru kulturalan. Ildo horretan ulertu behar da talde honetako gazteen lehen sozializazioa. Elkarrizketaturiko gazte guztien artean, politizatze maila apalagoa duten gazteek jaso dute sozializazio politikorik ahulena. Beren familiak eta ingurune komunitarioak ez dira politizatuak izan, edo politika elementu deserosoa eta saihestu beharrekoa izan da haien haurtzaroan eta gaztaroan. Familiek ez zuten parte hartzen auzoko edo herriko dinamiketan. Esparru publikoko eztabaidatik eta ekimenetatik at zeuden. Gauza bera gertatu zen lagunen taldeetan ere. Elkarrizketetan askok aitortu duenez, gurasoen edo senideen artean ez zeuden iritzi politiko partekatuak, eta gai politikoak solasean agertzen baziren, gatazka sortzen zen. Hartara, isildu egiten ziren kontzienteki, halako moldez isildu ere, non, etxean tabu bihurtu baitziren behin baino gehiagotan gai politikoak. Beldurra ere tartean egon zen, noiz edo noiz. Euskal Herrian bizi izandako gatazkaren gordintasunak eta gatazka horren adierazpen bortitzak izan zuten zerikusirik mundu publikotik urrutiratze horrekin. Testuinguru horretan, iritzi politikoak auzi pribatu bihurtu zen eta politikagintza esperientzia arrotza haurtzaroan nahiz, geroago, nerabezaroan eta lehen gaztaroan.

Alde batetik, nirekin uste dut ez zutela erakutsi nahi, baina, bestetik, uste dut nire aitak eta nire amak arlo politikoan oso ideia ezberdinak dituztela (...) ez genuen hitz egiten eta uste dut horregatik zela (ELK-Donostia-mutila).

[La política] no es un tema que esté presente a diario en casa. Y cuando hablan de esos temas suelen chillar y yo me suelo ir. Al final, cuando se saca la política en las comidas se monta, todo el mundo empieza a chillar (ELK-Gasteiz-neska).

Ez zen nire gerra. Aldarrikapen horiek ez nituen konpartitzen, edo erdian kokatzen nintzen edo ez neukan beharrik joateko (ELK-Donostia-mutila).

Aipatu dugun politikari buruzko arrotasunak ez du esan nahi ezagutza eta interes politikoa erabat desagertu direnik gazte horien bizitzetan. Aitzitik, ikusi dugu gai direla, salbuespenik gabe, beraiei zuzenean eragiten dieten auzi politiko nagusiak identifikatzeko, auzi horiek beren bizitzak baldintzatzen dituztelako goitik behera: enpleguaren prekaritatea eta lan baldintzak, etxebizitzaren prezioa, familiarik emantzipatzeko eta bizitza autonomoa eta duina garatzeko zailtasunak, bizi proiektuak aurreikusteko ezintasuna eta etorkizunari buruzko ziurgabetasuna, eta abar. Instituzio politikoei, politikariei eta, oro har, sistema demokratiko liberalari buruzko ikuspegi kritikoa ere ez da falta beren adierazpenetan. Izan ere, beren itxaropen zapuztuen erantzule jotzen dituzte.

No nos valoran. Estudiamos veinte años y luego nada (...) Todo el día de ETTs. Que alguien sea hijo es increíble (...) Entonces, ¿qué expectativas tienes para casarte, tener hijos y llevar una vida estable? No tienes dónde agarrarte (ET-Iruñea).

Hemen dago zirkulu bizioso bat: lana bilatu, ea zer baldintzekin, eta gero, baldintzak txarrak direnez, etxetik joatea zailagoa da (...) Nahiz eta titulu asko eduki, ez zaituzte hartzen (...) Gurasoen etxetik ezin mugitzea oso arazo larria da, eta lanarekin eta, batez ere, soldatarekin lotuta dago (...) Ezin bazara independizatu ezingu duzu seme-alabarik eduki (...) nik uste dut beldurra daukagula (ET-Donostia).

Zalantza barik, inplikazio maila apalena duten gazteen diskurtsoak injustizia marko bat definitzen du, non, sumindura eta etsipena biltzen diren, behin baino gehiagotan. Sistema politiko demokratikotik eta sistema hori sostengatzen duten balio eta funtzionamendu arauetatik gero eta urrunago sentitzen dira. Uste dute gazteei ez dietela entzuten eta instituzio politikoetan gazteek ez dutela ahotsik. Hartara, beste hitz batzuekin azaltzen badute ere, pentsatzen dute beren izaera, agentzia politiko gisa, erabat ahulduta dagoela. Egoera horren aurrean, batzuk era boluntario eta kontzientean erretiratu dira politikagintza instituzionaletik, ez ezagutza edo interes falta dutelako, erabaki koherenteena iruditzen zaielako baizik. Eszeptizismo politikoaren adierazpen argia dira.

La verdad es que, pasando los años, me convierto en lo más apolítico que he podido conocer, pero de una manera consciente y buscada. En general, detesto a toda la clase política, me da igual un partido que otro (ELK- Iruñea-mutila).

Oro har, sistema politiko instituzionaletik, eta haren balio eta prozeduretatik gero eta aldenduago sentitzen dira politizatze maila apalagoko gazteak. Zenbaitetan, ulergaitzak edo arrotzak egiten zaizkie komunitate politikoa eta ohiko herritartasunaren estatusa orain arte taxutu dituzten arauak. Batzuek zailtasunak daukate subjektu politiko gisa jarduteko sistema politiko konbentzionalean. Zalantzarik gabe, sozializazio politikoan izan dituzten hutsuneak atzematen dira egoera horren jatorrian. Bestalde, hutsune horiek erakusten digute orain arteko identitate sozialak eta politikoak belaunen artean helaraztea gero eta eginkizun zailagoa dela bizi dugun aro aldakorrean, eta gaztetako esperientzia politiko goiztiarrik ezak areagotu egiten duela gerora gazteak ez politizatzea.

Agian ezjakintasunagatik. Niri gertatzen zait. Igual alderdi bat ikusten dut telebistan, eta ez naiz gauza askotaz enteratzen. Eta igual hori arazo bat da, ezjakintasuna. Eta etxean, normalean, ez dugu horri buruz hitz egiten (ELK-Basauri-neska).

En mi casa no se habla mucho de política (...) Yo tampoco es que sea una persona que tenga mucha idea de política (...) Yo, con el tema de la política soy más de escuchar que de hablar (ELK-Gasteiz-mutila).

Estábamos tan metidas en el deporte que yo pensaba que la política era basura, no me interesaba nada. Tampoco entendíamos nada de política (...) En general, la política no me atrae, porque no entiendo la forma que tienen de hablar. Hablan un vocabulario antiguo (ELK-Iruñea-neska).

Goian aipatu ditugun agendaz eta kezka politiko partekatuez gain (lanaren baldintzak, etxebizitza, emantzipatzeko aukera eskasak, eta abar), ikusi dugu gutxiago politizaturiko gazteen ezagutza eta interes mailak zeharo aldatzen direla, baita sozialki edo politikoki ekiteko daukaten baliabideen jabetza gradua ere. Faktore horien arabera, estrategia eta ibilbide desberdinak azaldu dira elkarrizketetan jasotako diskurtsoetan. Horrela, oso aktiboak izan ez arren, gazte batzuek politikari buruzko arreta maila bat mantentzen dute eta, neurriren batean, informazio politikoa jarraitzen dute. Ikuspegi kritiko garatua adierazi duten gazteak ere badira beren burua “ez politikotzat” jo dutenen artean, botere politikoaren eta ekonomikoaren arteko elkar aditzeaz jakitun direnak eta politikagintzaren ikuspegi konplexu eta jantziaren jabe direnak.

A mí casi toda mi vida me ha interesado la política y he votado, pero es que cuanto más sabía sobre ella, más absurda me parecía, y más absurdo me parecía el voto. Por eso no voté la última vez (ET-Gasteiz).

Creo que ha llegado a un punto en el que hay muchas empresas que mandan sobre los políticos (ET-Gasteiz).

Yo creo que vivimos en un sistema liberal puro, pero escondido. ¿Vivimos en una sociedad rollo más escandinavo, socialismo, democracia, etc? No. Vivimos en un sistema capitalista liberal muy heavy (ET-Gasteiz).

Beste muturrean, aldiz, politikaz batere interesik eta ardurarik agertzen ez duten gazteak kokatzen dira. Baina jarrera hori gaur egungo gazte gehienen politikari buruzko axolagabekeriarekin lotu behar al genuke? Galdera horri erantzuteko, ñabardura kontzeptual batzuk egitea komeni zaigu. Lehenik, aztertzen ari garen gazteen taldeak *politika* kontzeptua esparru politiko instituzionalarekin, eta harekin soilik, identifikatzen du bere adierazpenetan. Hartara, gazte horiek politikarekiko agertzen duten jarrera ezkorra sistema politiko instituzionalak eragindakoa izan ohi da. Eta aitortzen duten atxikimendu eta parte hartze urria esparru instituzionaleko partaidetza ereduari dagokio, ez beste era bateko ereduai. Ondorioz, bere burua ez politikotzat jotzen duen gazte askok partaidetza aktiboa dauka gizarteko beste arlo zibiko-kolektiboetan eta, hainbatetan, unean uneko jarduerak izan arren, ibilbide bat egin dute era horretako ekintzetan. Besteak beste, honako ekintza zibiko edo sozial altruistak hauek jaso ditugu multzo horretako gazteen elkarrizketetan: kirol entrenatzaile lanetan aritzea umeekin, Cáritas elkartearen barruan egindako lanak etorkinekin, Gurutze Gorrian izandako jarduera, aisialdiko begirale lanak egitea umeekin, herriko elkarteetako partaidetza, herriko umeekin eta

emakume elkarteekin lanean aritzea, boluntariotza lana egitea desgaitasunak dituzten pertsonekin eta errefuxiatuekin. Partaidetza mota horrek erakusten digu politika instituzionalari buruzko jarrera axolagabeak ez dakarrela berekin, beti eta ezinbestean, gizarteari edo komunitateko arazoei entzungor egitea.

Me parecía que era algo gratificante para mí. Yo veía a la Cruz Roja ayudando en muchos sitios y a mí también me apetecía ayudar. Estuve un año aprendiendo y luego me metí como monitora en el área de juventud (...) A día de hoy sigo en la Cruz Roja, llevo ya casi diez años (...) Desde pequeños nos han dicho que hay que ir a votar, pero para mí no es gratificante. Yo no creo que votando se consiga nada (ELK-Iruñea-neska).

Yo, por ejemplo, he estado en una [asociación] sobre el tema de los refugiados que han venido a Navarra, y les he estado enseñando castellano, sin ánimo de lucro, en un voluntariado semanal (ET-Iruñea).

Ni nago txiroei laguntzen, baina ez nago talde politiko batean sartuta (ET-Donostia).

[Participo] en la comisión de fiestas, organizando las actividades para los niños pequeños y esas cosas (...) De las mujeres sí que se suelen hacer concentraciones y así. Hay una sección que se llama [izena] y suelen hacer cenas de mujeres, charlas para las mujeres, para protegerte y esas cosas (...) Sí, sí que voy (...) [Voy] a las manifestaciones de las mujeres el 8 de marzo. Cuando hay manifestaciones de ese tipo solemos ir (...) Un par [de amigos] sí que está más implicado en asociaciones de presos para ayudarles y así. Están en Ernai (...) Si puedo, les ayudo siempre. Si hacen alguna concentración o alguna actividad abierta, suelo ir (ELK-Gasteiz-neska).

Hala ere, ezin da ukatu multzo horretako gazte askok oso barneraturik duela honako ideia hau: arlo politikoan ez direla batere eraginkorrak. Are gehiago, ezintasun sentimendua ere sarri azaldu dute elkarriketetan, batzuek ez baitute beren burua gai ikusten sistema politikoan eta erabaki politikoetan eragiteko. Zentzu horretan, bi maila bereiztea komeni da gazteen jarrerak ulertu ahal izateko. Batetik, sistema politikoaren eta instituzioen eraginkortasun eza aipatu behar litzateke, gazteen urruntzea eragiten duena, ez derrigorrez, apatia politikoa. Bestetik, maila indibidualean norbanakoak sentitzen duen eraginkortasun eza aipatu behar litzateke; azken horrek ere gazteen urruntzea eragiten du, baina ezintasunaren (hau da, ezagutza eta gaitasun faltaren) ondorioz. Edonola ere, ezintasun politiko hori genuke ulertu behar maila indibidualean soilik. Izan ere, gaur egun gertatzen ari diren egiturazko prozesu batzuk lotuta daude, ezinbestean, norbanakoen esperientzia indibidualekin. Hala, gizarte indibidualizatueta bere ibilbidearen eraikitzaile aktibo eta erantzule bihurtzen da gaztea eta, hori egiteko, dituen baliabideak eta esperientzia izaten ditu lagun bakartzat. Hartara, gazteak eskura ditzakeen baliabide kopuruak eta baliabide horien nolakotasunak eragina izan ohi dute aipatu eraikuntza egiteko aukeretan. Prozesu hori politikara ekarrita, esaten ari gara indibidualizatze prozesua, alegia, subjektu politiko bilakatzea, ez dela modu berean gauzatzen gazte guztien kasuan. Bada, nahiz eta askatasun pertsonala, autonomia eta autogarapena diren kultura indibidualizatuaren balio nagusiak, askatasuna gauzatzeko aukeren banaketa ez da bidezkoa egungo gizartean. Ustezko askatasun horren atzean egiturazko murrizketak ezkututzen dira, hain zuzen ere, pertsonaren kokapen sozio-ekonomikotik, haren kultura mailatik, familian eta jatorrizko ingurune sozialean izandako sozializazio politikoaren intentsitateetik eta antzeko baliabieetatik datozenak. Baina, eskuarki, hertsapen estruktural horiek ez dira modu indibidualean detektatzen. Ondorioz, faktore horiek antsietatea, porrot sententzioa, ziurgabetasuna eta ezintasuna eragiten diote gazteari. Hartara, gaztearen apatia

politikoa ez da beti hautapen pertsonala izaten (norbanakoak horrela bizi duen arren), egiturazko baldintza bat baizik.

Gauza da: zer antolatu? Ez dakigu oso ondo zer antolatu eta nola antolatu (ELK-Basauri-neska).

Yo, sobre todo, creo que hay incultura política. No hay más que ver a los que estamos aquí (ET-Iruñea).

También reconozco que mucha gente quiere opinar, pero no tiene ni idea ((ET-Ezkerraldea).

Si vieras que cuando se vota o cuando la gente se moviliza, hay una respuesta o se ve algo, pues yo creo que la gente se movería más. Pero como todo sigue igual, ¿para qué me voy a movilizar? (ET-Ezkerraldea).

¿Manifestarte? Es que yo no sé si sirve para algo. Yo tengo la sensación de que lo de las manifestaciones no tiene mucho sentido (...) Yo creo que para los jóvenes, la política es un rollo de gente mayor (ELK-Bilbo-neska)

Ikusi dugunez, indibidualizazio prozesuek ahuldu egiten dute gazte jakin batzuen agentzia-izateko prozesua eta, ondorioz, urritu egiten dituzte baliabide sozio-politiko gutxien dutenen herritartasun esperientziak. Horrela, ekintza politikorako gaitasun eta trebezia gutxiago garatzen dute, politikari buruzko ezagutza eta esperientzia eskasagoa metatzen dute, eta oztopoak izan ohi dituzte ahots propioa izateko eta beren eskaerak entzunarazteko izaten dituzten muga sozio-estruturalak nahiz instituzionalak indargabetzeko. Ondorioz, elkarrizketetan ikusi ahal izan dugunez, gazte batzuen parte hartze politikoak jarraitutasunik gabekoak dira, indibidualizatuak, unean unekoak, noizbehinkakoak, eta abar. Ekintza horiek pizten dituzten motibazioak hainbat motatakoak izaten dira, elkarrizketetan jasotako informazioaren arabera. Batzuetan, gaztearen bizitza zuzen zuzenean baldintzatzen duten auziak izaten dira; besteetan, gizarteko agenda publiko-politikoetan tokia irabazten duten auziek baldintzatutakoak. Azken ildo horretan, ezagutza politiko eskasagoa duten gazteen artean, errazago zabaltzen dira esparru publiko-politikoan, mediatikoan eta birtualean “problema” gisa definitutako auziak, oihartzun handikoak direnak gizartean. Hala, behin baino gehiagotan, gazteok diskurtso estereotipatuak barneratzen dituzte, eta bereak egiten. Testuinguru horretan, gazte batzuek egiten dituzten unean uneko mobilizazioak denboran mugatuak izaten dira, organizazioen bitartekaritzarik gabe burutzen dituzte, eta zentzu utilitarioaren orde (kausa jakin baten alde ekitea), izaera sinbolikoa eta adierazgarria izaten dute norbanakoarentzat. Horrela, eredu horietan inplikazio jariakorrak ikusten ditugu, sarrera eta irteera errazekoak, identifikazio ideologiko sakonik eskatzen ez dutenak eta egitura oso informalean bitartez gauza daitezkeenak.

A manifestaciones sí hemos ido. Tampoco es que hayamos ido a muchas (...) Yo recuerdo que cuando cambiaban las leyes de educación solíamos ir a las manifestaciones. Hace muchos años recuerdo también ir a manifestaciones contra el machismo (ELK-Bilbo-mutila).

Errenteriako lau gazte espetxeratu zituztenean bai mugitu ginen, ze hurbileko jendea zen, eta garrantzitsua iruditu zitzaidan, ez zen bidezkoa (...) Altsasukoa ere egon da hor, mobilizazio asko egon dira (ET-Donostia).

Gazteak zuzenean inplikatu dituzten noizbehinkako partaidetza horietako batzuk honako hauek izan dira: ikasle garaiko protestak, manifestazioak eta grebak, batez ere unibertsitate garaian (LOMCE-ren aurka, eta abar); Gasteizko eta Arabako elkarrizketatuen artean, *fracking* edo haustura hidraulikoaren proiektuaren aurkako mobilizazioak; Altsasuko gazte auziperatuen aldeko manifestazioak; eta, zenbait kasutan, lan baldintzen inguruko protestak. Agenda publikoan gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari diren auzien inguruan ere piztu dira unean uneko partaidetza ekintzak: Martxoaren 8ko manifestazioak, biolentzia matxistaren aurkako elkarretaratzeak, erretiratuen eskubideen aldekoak, errefuxiatuen harreraren aldekoak, animalien eskubideei buruzkoak, eta euskararen aldeko jaialdiak, besteak beste. Horien artean, nabarmentzekoa da feminismoaren eta talde feministen proposamenak eta gai-zerrendak zein modu indartsuan sartu diren gazte gehienek hautematen duten eguneroko agendan. Hala ere, aipaturiko proposamenak banalizatuta eta azal azaleko ezagutzara mugaturik agertzen dira gutxi politizaturiko gazteen adierazpenetan.

Estuve yendo a reuniones contra el fracking, ahora no me acuerdo cómo se llamaba ese movimiento, estuve en la acampada que hicieron (...) Una vez fuimos a una manifestación, pero no me acuerdo de qué era. A nivel nacional fue algo importante, pero no me acuerdo de qué era (ELK-Gasteiz-mutila).

Feminismoaren ingurukoetara [manifestazioetara] bai joan naiz. 25ean egon nintzen, martxoaren 8an ere egon nintzen (ELK-Basauri-neska).

Sí que cuando pasó la movilización de la mujer y tal, yo creo que me hizo reflexionar (ELK-Bilbo-neska).

Mailakaturiko partaidetza mota horietan, mailarik baxuenean nazioarteko laguntza-erakunde ezagunei zuzendutako diru emateak edo harpidetzak leudeke. Izan ere, multzo horretako hainbat gazteren ekarpena horretara mugatu da. Diru laguntzaren hartzaile izan diren erakundeen artean hauexek aipatu dituzte: Amnesty International, ACNUR (UNHCR) eta UNICEF (HLNBF).

Yo estoy en ACNUR. A mí realmente no me cuesta nada dar diez euros al mes para ayudar a otra gente (ET-Gasteiz).

Orain arte aipatutakoaren arabera, esan genezake politizatzeko maila apalagoa duten gazteen partaidetza gauzatu gauzaten dela, baina alde handiak daudela jarraitutasunean, intentsitatean, maiztasunean eta ekintza-moten nolakotasunean. Nolanahi ere, haurtzarotik gaztarorako trantsizioan gazte hauek berriazko ikasketa politiko ahula izan duten arren, nabari da inguruneke pertsonak eta gorabeherak (zuzenean edo zeharka) eurengan eragin informala izan dutela, eta maila jakin bateko ekintza politikoak burutzera eramane dituztela. Egia da ekintza horietako batzuk oso xumeak direla baina, azpimarra dezagun hemen, ikerketa honetan elkarrizketaturiko gazteen artean bakar batek besterik ez duela aitortu esparru publikoan sekula parte hartu ez izana. Egitate horiek bi gogoeta sustatzen dituzte ikerketan. Batetik, berretsi egiten dute gazte politizatu/ ez politizatu kategoriak ezin direla bere horretan erabili ñabardurarik egin gabe eta, hartara, egokiagoa dela mailaz mailakako logika batean ulertzea gazteen engaiamendu politikoa, eta ez kontrajarritako binomio baten arabera. Bestetik, engaiamendu publiko edo politiko handirik ez duten gazteek ere badutela nolabaiteko herritartasun “erreserba” bat.

Azken ildo horretan sakonduta, litekeena da gaur egun politikan aktibo ez diren gazte horiek noiz edo noiz, etorkizunean, parte hartzeko aukera egokiak ikustea: ziklo politiko berrietan, mobilizazio handiko garaietan edo, besterik gabe, eguneroko bizitzako ekintza indibidualetan, esaterako, kontsumo politikoan edo bizitzako hautu etikoetan. Gaur egun, oraindik ere, ezkutuan dago ahalmen hori, hemen aipatu den arrazoi zenbait dela medio. Horrela, batzuek ez dute aukerarik ikusten egungo sistema politiko instituzionalaren mugen ondorioz bertan parte hartzeko, edo eragozpenak ikusten dituzte arrakastaz edo eraginkortasunez parte hartzeko; ez dute atsegin alderdi politikoaren eta politikarien logika ordezkatzailerik, ez dielako ahotsik ematen. Baina,aldi berean, multzo horretako gazte askok kezka sozialak dituzte (adibidez, boluntarioritza lanetan dihardute), beharrezko jotzen dutenean manifestazio batera joateko gai dira, informatuta daude, eta gauza dira beren bizitzak baldintzatzen dituzten auzi politikoak identifikatzeko. Beraz, politikatik urrun sentitzen direla adierazten duten gazteen artean, denak ez daude guztiz deskonektaturik eta denak ez dira axolagabeak. Berrito diogu, mailaz maila aztertu behar da ustezko ez politizatuen errealitatea.

Yo creo que tampoco hace falta irse tan a lo grande para hablar de política, porque todo es política. Sales a la calle y ves pintadas racistas, y eso es política también. Ves conflictos en un autobús porque a una señora no le han dejado sentarse por un burka (...) Al final, todo es política, es inevitable el tener contacto con ella (ET-Gasteiz).

Nik esango nuke (...) egongo dela momenturen bat, zerbait espezifiko gertatzen dena eta masa sozial konkretu bat altxatuko dena, eta erreta daudenak ere altxatuko dira. Ez dakit nahikoa izango den aldaketa sozial bat egiteko, baina horrela gertatuko dela uste dut (...) Nik uste dut epe luzera iritsiko dela, baina ez dakit zenbat denboratan (ELK-Donostia-mutila).

Hemen ikusi dudana eta nire inguruan dagoena da frustrazioa, eta nire ustez, kontua da ez gaudela mugimendu askotan porque estamos muy frustrados, o porque no creemos que pueda cambiar la situación (ET-Donostia).

3.2.3. Esparru digitaleko praktikak

Eremu digitaleko praktikak modu desberdinean baloratu dituzte engaiamendu politiko edo sozial maila handia duten gazteek eta auzi politikoei eta sozialei buruzko interes handirik ez dutenek. Ezbairik gabe, arestian aipaturiko gazteen praktika politikoetan funtzio garrantzitsua izan dute eta dute, gaur egun ere, sare sozialek. Ikasketa politikorako nola praktika politikorako ere baliagarriak egiten zaizkie gazteei, salbuespenak salbuespen. Gazteen parte hartze politikoa edo engaiamendu soziala areagotu ahala, sare sozialen erabilera eduki politikoak eta sozialak sortzearekin eta hedatzearekin lotuago agertzen zaigu; gazte politizatuek eduki politikoak sortzeko, zabaltzeko eta eskuratzeko tresna gisa erabiltzen dituzte, baita aldarrikapenak egiteko ere. Mugimenduetan, elkarrekin, alderdi politikoetan edo bestelako ekimenetan duten partaidetzaren atal garrantzitsua da, zalantzarik gabe, sare sozialetan egindako lana.

Nik erabilera politikoa ematen diet [sare sozialei], argi eta garbi. Baina ez nire izenean, baizik eta mugitu izan naizen gauzen barruan eduki ditudan ardurengatik. Orduan, uste dut dela bozgorailu bat mezuak zabaltzeko, baina kalean pankartak, kartelak edo margoketak egitea bezala, denak jarraitu behar dira egiten (Errekaleorreko kidea).

Gogoratzen dut sare sozialak baino lehenago zeudela txatak eta foroak. Eta gogoratzen naiz gauetan txatetan sartzea eta eztabaidatzea espainolekin, erdaraz, gure burua defendatzen. Gero, internetetik gauzak jaisteko bazegoen Emule, eta nik gauzak igoten nituen, Euskal Herriko gauzak, jendeak jaisteko. Denbora dextente eskaini niona izan zen; pixka bat geroago Wikipedian idaztea. Nire “autonomada” eta nire “pedrada” zen, baina nik bilatzen nuen gai bat ezagutzen ez nuena, eta erdaraz edo ingelesez irakurtzen nuen eta gero euskarara itzuli. Imajinatu, Bobby Sands edo Nelson Mandela... Gero, niri gurutzatzen zait kazetaritza, orduan “pedrada” hori igual orduan ere baneukan, pentsatzea kanpoan ez dagoela guri buruzko informaziorik. Eta orduan egiten nuena zen euskaraz zegoena ingelesera itzultzea (Donostiako Piratak-eko kidea).

Sortzaile nahiz hartzaile modura, sareek mundu globalerako nahiz tokikorako leiho politiko bat zabaldu diote talde askori, baita ikusezinei eta isilduei ere; izan ere, tresna merkea, erraza, azkarra, oihartzun handikoa eta eraginkorra baita sare sozialena. Hain zuzen ere, leiho horrek esparru publiko-politiko birtual desberdinak eratzeko aukera ematen die, eta esparru horietan elkartasun sareak eta eztabaida guneak antolatzen. Hartara, internet ikasketa politikoa eta aktibismo politikoa garatu ahal izateko ezinbesteko tresna bihurtu da gazte batzuentzat, sareetan jardute horrek komunikazio autonomia garatzen uzten dielako. Esate baterako, LGTBI Ligako kidearen hitzetan, mugimendu horretako kideek asko erabiltzen dituzte mugimenduko beste kide batzuekin harremanetan jartzeko eta zalantzak partekatzeko. Izan ere, LGTBI kolektiboak gizartearen hainbat sektoretatik pairatu duen gaitzespena dela eta, mugimendu horretako kideek esperientzia traumatikoak izan dituzte hainbatetan eta, ondorioz, elkarrizketatuak esaten du zaila egiten zaiela, maiz, aurpegia ematea, aurrez aurre biltzea eta kalera ateratzea.

Es que dentro del colectivo LGTB se suele tener mogollón de ansiedad social debido a esas experiencias traumáticas que se pueden vivir. Entonces, hay personas que no se sienten seguras al quedar, y es muy guay que puedan tener en su día a día un espacio donde poder hablar y decir lo que les ha pasado (...) las inseguridades nos están matando un poquito y las redes sociales nos hacen las cosas más fáciles en ese aspecto (LGTBI Ligako kidea).

Informazio politikoa eskuratzeko iturri gisa ere funtzio garrantzitsua dutela ikusi dugu. Zenbait gazterentzat, bai politikoki edo sozialki aktibo direnentzat, bai maila apaleko interes edo partaidetza dutenentzat, eduki politikoak eskuratzeko bide garrantzitsua dira. Areago, hainbatentzat sinesgarritasun handiagoa dauka sare sozialek zabaltzen duten informazioak masa komunikabideek hedatzen dutenak baino (adibidez, politikari buruzko interes berezirik ez duten eztabaida-taldeetan ikuspegi hori gailendu da).

Nolanahi ere, gazte politizatuen artean *zibermilitantzia* eredu horren eraginkortasuna zalantzan jarri duenik ere izan da. Ikuspegi hori agertu dute kaleko dinamika sozialen eta politikoen ahultzearekin kezkatuta dauden elkarrizketatuek. Ildo horretan, iritzi horretako gazteek uste dute garrantzi handiegia ematen zaiela gaur egun sare sozialei, eta ez dute uste haien eraginkortasun politikoa horrenbestekoa denik. Zehatzago esatearren, maila pertsonalean egiten den informazio zabalpenari ez diote balio handiegirik ikusten. Horren aurrean, garrantzitsuago jotzen dute esparru publiko fisikoan egindako kaleko aktibismoa sustatzea: “Uste dut garrantzi gehiegi ematen diogula sareari eta kaleari eman beharko litzaioke garrantzi gehiago” (Herri ekimenetan diharduen Donostiako gaztea).

Beste era bateko iritziak jaso ditugu partaidetza apalagoa edo ezdeusa duten elkarrizketatuen aldetik. Hala, aktibismo politikoan jarduten ez duten gazteek lagunekin harremanetan jartzeko baino ez dituzte erabiltzen sare sozialak. Hartara, argi ikusten da alde zuzenetik gazteek dituzten interesek eta iritziek bideratzen dutela sare sozialez egiten duten erabilera, baita zein sare erabiltzen duten ere. Interes politiko handirik ez dutenek ez dituzte sare birtualak baliatzen informazio politikoa eskuratzeko, ezta hura zabaltzeko ere. Elkarrizketaren batean ideologia politikoa intimitateari dagokion zerbait dela ere aterata da. Gainera, sare sozialei buruzko ikuspegi ezkorra nabarmena iruditu zaigu elkarrizketatutako gazteen hainbat diskurtsotan, ez politizatuen kasuan, batik bat. Eurek egiten duten erabilera nagusia dela medio, denbora galtzeko tresna gisa definitu dituzte batzuek. Batez ere, lagunekin komunikatzeko edo, bakarka, denbora-pasa jostagarri gisa erabiltzen baitituzte. Gustuko ez dituztela ere aitortu dute beste batzuek. Gazteek gehiegi erabiltzen dituztela uste duenik ere bada. Segidan aurkezten dugun aipuan ondo asko azaltzen du hori informatzaileak:

Ez dut uste gehiegi erabili behar direnik. Gaur egun gure adineko jendeak erabiltzen ditu eta ematen du ez badituzu erabiltzen apur bat kanpoan geratzen zarela. Baina, behar beharrezkoak ez ditut ikusten. Gauza batzuetan laguntzen dute, baina uste dut erabili beharko genituzkeena baino gehiago erabiltzen ditugula (ELK-Donostia-mutila).

Ildo beretik, gizartean egungo gazteen praktika komunikatiboez kontrako irudia oso zabalduta badago ere, familia gunean haurtzaroko eta nerabezaroko ikasketa politikoan telebista generalistek izan duten esku hartzea nabarmendu dute gazte batzuek, hedabideen aldetik jasotako eraginaren artean. Izan ere, ez hain aspaldi, taldean ikusten zen telebista etxeetan, eta bertan azaldutako gertaerak eta irudiak mintzagai izaten ziren senideen artean, gazteek gogoratzen dutenez.

3.2.4. Generoaren eta adinaren eragina parte hartze politikoan

Gazteen parte hartze politikoa era askotako faktore sozialek baldintzatzen dute. Orain arte ikusi dugunaren arabera, familian eta ingurune sozialean jasotako ikasketa politikoei eta esperimenduetan eragin garrantzitsua dute gizarteko gazteen ondorengo ibilbide politikoetan. Hala ere, behin baino gehiagotan gogoratu dugu gazteek ez dutela talde erabat uniformeak osatzen. Bada, pertsonen egiturazko kokapen, ezberdintasun sozial eta azpiratze molde desberdinak bilbatzen dira ehun sozialean garatzen diren harremanetan; hala gertatzen da adin ziklo bereko taldeen barnean ere, gazte taldean guri dagokigunez. Faktore bereiztaile horietako bat dugu sexu-genero sistema.

Historikoki, Mendebaldeko herritartasun liberala esparru publikoaren eta esparru pribatuaren arteko banaketa zurrunean oinarrituta egon da. Orainsura arte, esparru publikoak politikagintzaren “berezko” eremua osatu du, alegia, boterearen kudeaketaren atal soziala; gaur ere, politikaren egitura hegemonikoa izaten jarraitzen du. Luzaroan, esparru publiko horretarako sarbidea itxita egon da emakumeentzat. Izan ere, azken horiei esparru pribatuari dagozkion jardunak egotzi zitzaizkien Modernitatearen hastapenetatik aurrera, herritarren eredu unibertsala irudikatzen zuten gizon arrazionaletatik bereizitako ontologia zutela argudiatuta. Beraz, lan ordaindua bezala herritartasuna ere esparru publikoan eraiki da, eta emakumeak gune horretatik at egon dira XX. mendera arte. Zalantzarik gabe, politikagintza eta instituzio politikoak gizonen interesen arabera eratu dira sistema politikoetan, alegia, zaintzaren eta afektuzko harremanen esparru zuzenetatik at. Bada, azken ezaugarri horiek guztiak esparru pribatuan garatu beharreko bizi-osagaitzat jo izan dira kultura

politiko patriarkalean. Hala ere, XX. mendearen azken hamarkadetatik aurrera, arian-arian, emakumeak lan merkatuan nahiz politikan integratzen joan dira. Baina, sexu-genero sistemaren artefaktu sinboliko-kulturala eta hartatik eratorriko sexuen arteko lan banaketa birsortu egin dira gaurdaino, baita gazteen artean ere.

Aipaturiko lan banaketak partaidetza zibiko-politikoaren esparruan daukan birsortze horrek adierazpen desberdinak ditu. Adierazpen horiek emakumeen nahiz gizonen sozializazio bereizgarrian dute jatorria, eta sozialki esleituta dauden genero-rolen luzapen naturalizatua dakarte esparru politikora. Horrela, ondoren jasotzen ditugun elkarrizketa-aipuetan ikusten den bezala, aktibismoan gauzatzen diren atazak ez dira maila berean partekatzen nesken eta mutilen artean. Eta, hartara, gazteek partaidetza politikoan bizi dituzten esperientziak ere modu desberdinean garatzen dira. Askotan, neska gazteek mutilek baino zailtasun handiagoak dauzkate ez soilik partaidetza guneetan integratzeko, baita hango erabakietan parte hartzeko, eta erantzukizun handiari eta lidergoari lotuta dauden rolak bereganatzeko ere. Beraz, ataza horien banaketa ez da berdinkidea izaten. Aitzitik, bereizketa gertatzen da, bai ikuspegi hierarkikotik (nork egiten ditu zuzendaritza- eta agintelanak, nork hartzen ditu erabakiak, eta nork betetzen ditu erabaki horiek), bai ikusgaitasunaren ikuspegitik ere (nor agertzen da aitortza sozial handiagoa duten foro publikoetan eta nor aritzen da ezkutuko zereginetan).

Elkarrizketaturiko gazteen artean, sexu-genero sistemak nesken eta mutilen partaidetzan eragindako esperientzia eta ibilbide desberdinei buruzko pertzepzioa nabarmenagoa izan da gazteen parte hartze horrek eraldaketa soziala helburutzat duenean edo harreman nahiz bizimodu alternatiboak bilatzen dituenen. Bestalde, pertzepzio hori harago joan da gazte talde horretako nesken artean, izan ere, proiektu eraldatzaileetan dabilzan neska gehienek gogoeta landuagoak egin dituzte, eta beren esperientziak ikuspegi feministatik aztertzeko gaitasuna erakutsi dute. Zalantzarik gabe, neska gazte aktibista horien erreflexibitate maila handia da, oso. Ostera, ez da gauza bera gertatu boluntarioritza jarduerak egiten dituztenen artean. Konpromiso sozial sendoak izan arren, gazte horiek ez dituzte detektatu horrelako desberdintasunak. Argi dago, beste era bateko kultura politikoa dutela, eta ez dutela boluntarioritza-lana aldaketa sozialaren bidean kokatzen. Esanguratsua da oso omisio hori. Izan ere, neska asko aritzen da boluntarioritza lanetan eta, gainera, esparru horretan aritutako gazteen ustetan, zaintza lanak egitea, “besteen zerbitzuan” egotea, eta besteei laguntzea dira, besteak beste, boluntarioritza-jarduerako atxikimendua akuilatzen duten balio nagusiak. Hain zuzen ere, modu naturalizatu batean betidanik emakumezkoei egotzi zaizkien balioak dira horiek guztiak. Azkenik, noizbehinkako partaidetza mota izan duten gazte gutxi-politizatuen artean ez da sortu gai honen inguruko kezkarik, nahiz eta hainbatek azaltzen duen martxoaren 8ko mobilizazioetan edo indarkeria matxistaren aurkako elkarretarazteetan parte hartu duela. Nabari denez, azken talde horretan partaidetza jarraiaeren esperientzia falta da auziaren ezagutza zehatzik ez izateko arrazoietako bat.

Oro har, politizatze maila handiena duten gazteen artean pizten ari den aldaketarako jarrera, genero berdintasuna helburu duena, feminismoaren eraginez sortu da. Elkarrizketatu batzuek adierazi dutenez, esparru politikoan emakumezkoen parte hartze gero eta handiagoa, feminismoaren teorizazioak eta praktikak neska gazteei azken urteetan ahalbidetu dien ahalduntzeari esker gertatu da, belaunaldi gazteenetako neskek aldaketaren aldeko presioa egin baitute organizazio eta mugimendu politikoetan.

Nire ustez, borroka feministaren bidez kriston ahalduntze bat ematen ari da, eta ari dira gauza asko mahai gainean jartzen, eta ari gara gauza askori buelta ematen (Herri ekimenetan diharduen Donostiako gaztea).

Hala ere, gaur gaurkoz, neskek eta mutilak ez dira berdin hezitzen, alegia, sozializazio prozesu bereizgarriak jasotzen dituzte. Etxean eta familian ikusten dituzten rol politiko generizatuak, oraindik ere, oso banatuta daude. Neska aktibista batzuek beren haurtzaroari buruzko gogoeta egitean hauteman ahal izan dutenez, rol banaketaren errealitate hori horrelakoa izan da guraso heterosexual biek politizatze maila handia izan dutenean ere. Neska batzuek irudikatzen dituzten gurasoen ibilbideak oso antzekoak dira, jarduera publiko/pribatu binomioari dagokionez. Ildo horretan, ikuspegi feminista duten neska militanteek (baita mutilen batek ere) zenbait balio eta esperientzia politiko helaraztean amak beraiengan izandako eragin erabakigarria azpimarratu dute, aita izan den arren figura publikoagoa esparru politikoan.

Esango nuke izan dela egitura bat oso estereotipikoa eta tradizionala, eta askotan jasotzen dudana da aitaren aldetik politizazioa etorri zitzaidala, ze aita izan da figura publikoagoa. Baina, nire etxean transmisio politikoa amak egin du. Baina, ez da horrela ikusten (...) Egia esan, oso transgresorea izan da, bai formetan, eta edukietan ere. Oso txikitatik ez du beldurrik eduki oso kontzeptu konplexuak azaltzeko. Nik orain jartzen dut balorean hori (Olatukoop sareko kidea).

[Amak] beti eraman gaitu manifestara, eta mila mobidetara (...) Aitak igual hartu zuen arduraren lehen planoan egoteko eta amak bigarren planoan egoteko (Herri ekimenetan diharduen Donostiako gaztea).

Nire amak igual ez du bizi izan politika hain modu egituratuan edo militante moduan, nire aitaren familian bezala. Orduan, nire amaren gaztaroa izan zen justu la apertura de que se acaba el franquismo, drogak, Rock Radical Vasco, kale borroka (...) Eta orduan, nik uste dut, zentzu horretan, badaukala pentsaera bat nahiko irekia, nahiko askatzailea puntu batzuetan. Orduan, niri txiki-txikitatik tokatu zait amarekin joatea [abortuaren aldeko manifestazioetara] (...) Orduan, berarengandik jaso dut antolatzaile moduan egotea euskararen egunean, edo ikastolako ez dakit zertan... (Bilgune Feministako kidea).

Ildo beretik, elkarrizketatu ditugun gazte batzuen diskurtsoetan adierazten da generoaren aldagaiak eragin mugatzailea izan duela beren praktika politikoetan. Hasiera batean, emakumeen esparru publikorako sarbidea bera zailagoa izan delako gaurdaino, bai emakumeen subjektibitateak sozializazio bereizgarrian eraiki diren moduengatik, bai organizazioek parte hartzeko ezartzen dituzten irazki-mekanismo generizatuengatik ere. Izan ere, mundu publiko politikorako sarbide horrek abilitade eta gaitasun batzuk eskatzen ditu, emakumeen ikasketa politikotik at egon direnak orain arte. Ondorioz, neska gazteen parte hartze politikoa zaildu egin du partaidetzak berez eskatzen dituen ahalmenen asimetria horrek, eta nesken ikasketa eta esperimentazio politikoa mutilena baino gorabeheratsuagoa izan da, batez ere hastapenetan. Ildo horretan, neska askok ahalegin gehigarria egin behar izan du unibertso politikoan integratzeko eta bertan ezinbestekoak diren trebetasunez jabetzeko.

Ni nahiko gaztea nintzen, neska... (...) Orduan, gogoratzen ditut urte horiek interesgarriak, emankorrak izan zirela, baina baita ere uste dut pasa nituela nire lotsak ete nire momentuak (...) Orduan, uste dut garai horretan ni hasi nintzela garatzen pertsonalitate bat edo itxura bat (...) txukuna naiz, badakit gauzak egiten, lengoia batzuk ere asumitzen eta nireak egiten leku horietara egokitze. Eta igual ere autoexijentzia bat ere izan nuen, nik militantzian autoexijentzia handia izan dut (Bilgune Feministako kidea).

Nik neukan papera oso pasiboa zen; informazioa eskuratu, esaten bazuten herrian egin behar zela ez dakit zer, egiten nuen (...). Eta gero indarra hartzen joan nintzen, baina espezializatu nintzenean edo. Nik hartu nuen (...) ardura, eta oraindik ere badaukat. Eta hor bai ezagutzen ninduten eta baneukan pisu bat apur bat handiagoa (Ernaiko kidea)

Gazte politizatuen taldean elkarrizketatutako gehienek, emakume nahiz gizon, esan dute aldea dagoela emakumezkoen eta gizonezkoen parte hartze politikoan. Kuantitatiboki antzeko parte hartzea ikusten badute ere, kualitatiboki hainbat ezberdintasun atzematen dute bien artean. Rol eta estereotipo sozialek sortutako ezberdintasunak nabarmendu dituzte: emakumezko aktibistak rol pasiboagoarekin lotu dituzte, edo begi publikotik kanpo egindako zereginekin, oro har. Erabaki-guneetan iritzia emateko garaian, adibidez, gizonezkoek beren iritzia gehiago adierazten dutela azaldu dute batzuek. Eta arduraren bat hartzea, hots, esparru publiko ikusgarrira salto egitea eta aginte rola hartzea, emakumezkoek zailagoa egiten zaiela, beste batzuek. Ikuspegi horiek, hala ere, iritzi edo diskurtsoaren mailan geratzen dira mutilei dagokienez. Aldiz, gorputzetan eta memorian grabaturiko bizipenak dira neskei dagokienez. Hala islatzen da hainbat lekukoren diskurtsoetan, segidan aurkezten ditugun hauetan adibidez:

Ni joan nintzen proiektu horrekin hitz egitera kide ezberdinekin (...) baina, gazte asanbladan boterea zutenek ez zuten ikusten hori lehentasun bat zenik (...) Hori izan daiteke arrazoi bat, eta gainera, konpartitu dezaket puntu batean. Baina, nik uste dut bazeukala zerikusia ni nintzela neska gaztetxoa, eta ez zioten ematen zilegitasun handirik nik ekarri nuen proposamenari. Ziur naiz hori esaten baldin badu [mutil batek] edo bere koadrillako batek, beste espazio bat emango ziotela (Bilgune Feministako kidea).

Sí que es verdad que uno de los problemas que tenemos es que los hombres estamos más visibilizados que las mujeres (Ezkerraldeko bazterketaren aurkako talde bateko kidea).

Mutil gazteek genero asimetriak aitortzen dituztenean, ez dute nesken bazterketaren erantzukizun-egozte argirik egiten. Gehienetan, modu neutro batean mintzatzen dira, generoan oinarrituriko bazterketa sistemikoak euren eguneroko praktikatik at egongo bailiran. Hala, beren adierazpenetan ez dute lehen pertsonan hitz egiten, ezta pribilegiorik dutenik ere adierazten. Ondorioz, ez dira gai beren buruak botere banaketari buruzko gatazka batean zuzenean inplikaturik kokatzeko, neskek egiten duten bezala. Hain zuzen ere, neskek diskurtso politikoez haratagoko pausuak eskatzen dituzte mutilen jarreretan, bada, oraingoz, aldaketa gutxi hautematen dute haien egoera pribilegiatuaren iraupenean.

Beti daude figura batzuk gehiago tiratzen dutenak, karismatikoagoak direnak, eta daukagun sozializazio herentziagatik, normalean, figura erreferentzialak gizonak dira. Eta, normalean, emakumeak hasieratik daude horrelako mugimenduetan, baina ez dira erreferentzialak, atzean daude, beste lan batzuk egiten dituzte. Eta hori gairiditza oso traumatikoa izan daiteke, zeren zaila da pribilegio batzuk seinalatzea inor iraindu gabe. Eta espazioa disputatu behar hori ez dugu ikusten eta ez dugu egin nahi askotan. Eta hori reto inportante bat da (...) Eta espazioen disputa oso inportantea izango da datozen urteetan (OlatuKoop sareko kidea).

Gogoratzen naiz diskurtsoaren eta nik bizi nuenaren artean kriston tartea zegoela, konkretuki nire kideekin, batez ere gizonekin, baina emakumeekin ere bai. Ba hori, ni igual sentitzen nintzen hirugarren edo laugarren

mailakoa bezala. Eta bueno, diskurtsoa zen egoera berezi bat bizitzen ari zela eta lehentasunak beste batzuk zirela. (...) Eta orduan sartu nintzen gehiago feminismoan militatzen. (...) Uste dut nire ibilbidea horregatik markatua izan dela. Ziurrenik, nire militantzia oso ezberdina izango zen eta ibilbidea ere ezberdina izango zen eduki ditudan militantzia mistoetan sentitu banu kritikotasun bat gizonezkoen aldetik beraien pribilegioei buruz, eta benetan ikuspegi feminista hori praktikara eraman izan balitz (ELA sindikatuko kidea).

Zentzu horretan, salbuespena izan dira lehen pertsonan hitz egin duten mutilen diskurtsoak; hots, norberaren militantziaren mugez edo abantailez mintzatu direnak. Bizipen pertsonalen narrazio mota hori elkarrizketaturiko emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino sarriago gertatu da. Egia esan, gizonezkoen artean, gazte bakar batek baino ez du hitzez aitortu parte hartu duen mugimendu politikoan pribilegio batzuk izan dituela gizonezkoa izateagatik. Pasadizo hau erabili du horretarako:

Uste dut niri bai izan zaidala faktore potente bat mutila izatea. Eta neska izan banintz ziurrenik dezente zailago edukiko nuen. Igual mutiloi erakusten zaigunez gehiago izaten “echado para adelante”, ahotsa altxatzen edo beste modu batera konportatzen... Hau bai pentsatu dut askotan. (...) Momentu batean, aukeratu behar zen arduraduna, eta berak [neska batek] esan zuen nahi zuela. Niri ere atera zitzaidan etorriko nintzela lasai, ez botere gogotik baizik eta prest nengoelako hori egiteko, eta orduan neska geratu zen kanpoan. Eta urte batzuetara konturatu nintzen pertsona horren bidea hor amaitu zela eta, ziurrenik, ni bezain prest edo prestatuago zegoen, zeren denbora gehiago zebilen hor. Ziurrenik berari eragin zion neska izateak momentu klabe horretan (Donostiako Piratak-eko kidea).

Esaten ari garen bezala, sexu-genero sistemak berarekin dakarren lanaren banaketa soziala argiro adierazten da gazteen parte hartzearen eremuetan. Hala, emakumeek eta gizonek, biak ala biak aktibista izanda ere, ataza desberdinak hartzen dituzte aktibismoaren esparruetan. Bada, gizarteak emakumeari eta gizonari esleitutako ohiko rol tradizionalak birsortuta ikusten ditugu parte hartzearen arloan, baita eraldaketa soziala xedetzat duten gune horietako batzuetan ere. Oro har, aktibismoan aritutako zenbait mutilek aitortu dute nesken eta mutilen arteko bereizketa, neska gazteek zaintzari eta heziketari lotutako ekimenetan presentzia handiagoa dutela esanez. Eta, aldiz, presentzia fisiko arriskutsuagoa eskatzen duten ekintza ikusgarri eta oldarkorretan mutilak nagusitzen direla nabarmenduta. Baina, gaur egun gero eta ikusgarriagoak diren prozesu horien ondoan, ezkutuko beste joera batzuk ere agertzen dira, detektatzeko zailagoak direnak. Hala, emakumeen partaidetza handiagotzen joan den neurrian, kopuruari dagokionez, behinik behin, gero eta bereizketa sotilagoak sortzen dira, eta gero eta iragazki finagoak ezartzen dira nesken ahotsak esparru publiko-politikoan legitimatzeko bidean.

Adibidez mobida baldin bada gogorragoa edo, gehiago izaten dira mutilak eta aldiz aisialdi taldean gehiago dira neskak (Herri ekimenetan diharduen Donostiako gaztea).

Uste dut militantzian hori erreproduzitzen dugula. Igual kontua ez da emakumeak ez daudela eremu praktikoetan, baina behintzat bai eremu teorikoetan; edo plangintzak prestatzeko eremuan ez dago emakumerik. Eta, nire ustez, kontua da nolabait erreproduzitzen dela banaketa hori. Ez dut esan nahi gizonik ez dagoela kartelak jartzen eta horrela, ze badaude. Baina, gehiago esango nuke emakumeak ez daudela beste eremuetan. Baina, aldatzen ari da (Ikasle Abertzaleak-eko kidea).

Orokorrean, espazio politiko guztietan, eta nik esango nuke, are gehiago, borroka sozialetan eta ekonomikoetan (...) emakumeok hitz egiten dugunean da bakarrik hitz egiteko ekonomia feministaz, eta “feminista” puntilla jarri behar dugu oraindik. Egunen batean irabaziko dugu, eta ez da beharrezkoa izango (OlatuKoop sareko kidea).

Emakumeen eta gizonen partaidetza berdintzaileari jartzen zaizkion oztopoetako asko organizazio molde politikoetan eta organizazio kulturetan itsatsita daude. Kultura patriarkalean oinarritutako era guztietako organizazioek eta mugimenduek erresistentzia handiak jarri ohi dituzte egitura parekideagoak sortzeko eta norabide horretan aldaketa kulturalak sustatzeko. Behin baino gehiagotan, organizazio politiko androzentrikoetan diharduten neska gazteek aldaketa horiek sustatzen egiten dute lan. Alabaina, ez da kontraesanik gabeko borroka. Izan ere, alde batetik, ideologia eta organizazio edo mugimendu jakin batzuei buruzko leialtasuna agertzen dute. Eta, beste alde batetik, beren printzipio feministak tartean direla, emakume gisa organizazio horiei buruzko ikuspegi kritikoa garatzen dute, eta hura aldatzeko beharra bereganatzen dute. Nolanahi ere, batzuek uste dute belaunaldiak ordezkatzearekin batera, aldaketa modu errazagoan bideratuko dela. Beste neska batzuek, agian ibilbide politiko luzeagoa dutenek, utzi egin zituzten aldaezinezko jotzen zituzten egitura edo funtzionamendu moldeak, eta beste gune batzuetara bideratu zuten aktibismoa.

Nosotras siempre tenemos que ser empujadas por más gente para dar el paso; si vas con más gente te sientes más legitimada, si no, te retraes siempre. Entonces, se ve que los chicos tienen menos problemas en decir que no les importaría presentarse a lo que sea (Juventudes Socialistas de Euskadi-ko kidea).

Orokorrean, niri iruditzen zait gaur egun dagoen militantzia eredia eta kultura organizatiboak nahiko maskulinoak direla. Uste dut pertsonak baino kultura aldatzen joan behar dela. Logikoki jende gaztearekin askoz ere errazagoa da (ELA sindikatuko kidea).

Nire harremana gaztetxearekin ez da oso ona edo erraza izan. Niretzat da lan espazio bat, eta saiatu garenean gauzak beste era batera egiten, oso inertzia sakonak aurkitu ditugu. Eta uste dut beste herri batzuetan gaztetxeak espazio askatzaileagoak izatea lortu dutela. Baina guk ez dugu lortu. Adibidez, mugimendu feministaren ikuspegitik, gaztetxe hori erre daiteke goitik behera (OlatuKoop sareko kidea).

Esparru publikoan eta pribatuan emakumeek betetzen dituzten zereginen arteko tentsioa ez da askorik nabarmendu neska gazte aktibista gehienek adierazpenetan. Izan ere, adina dela medio eta, salbuespenak salbuespen, elkarrizketaturiko neskek ez dituzte haurrak edo familia propioak. Hartara, ez dute zaintzaren eta denbora faltaren zama modu mugatzailean bizi izan, eta horrek erraztu egin du beren engaiamendu politikoa. Horrela, gazte izatean, gaur egun gizonen eta emakumeen artean modu desorekatuan partekaturik dauden zaintza ardurek ez dute oraindik bereziki kaltetu edo eragotzi beren esperientzia aktibista. Alabaina, kontzientzia eta praktika feministak dituzten neskek erraz identifikatu dituzte gizon eta emakume helduagoen ibilbide politikoetan gertatzen diren desorekak, hain zuzen ere, emakumeen eta gizonen etxetiar ibilbide paraleloei lotuta daudelako. Bi modutan adierazi da desoreka horri buruzko ikuspegia. Batetik, oraindik zenbait gazteren ekimenean (mutilen artean, bereziki) dirauen aktibismo intentsiboaren eredia modu kritikoan aztertu dute. Izan ere, neska horiek diotenez, aktibismoak ezin ditu pertsonaren bizi-esparru guztiak irentsi, modu horretan burututa, aldebakarreko bizimodu mugatua sortzen baitu. Horrenbestez, ezin dira alboratu aktibisten zaintza eta aktibismoaz gaindiko bitzitzaren bestelako esparruak. Bestetik, emakume eta gizon helduagoen aktibismo

politikoen lekukotasuna neurri estuan hartu dute. Bada, neska gazte feministek emakume aktibista helduagoen esperientzietatik ikasteko eta beren praktikei buruzko hausnarketa egiteko aukera ezinhobeia izan dute.

Badaude batzuk bizi direnak militatzeko, eta militatzea ez da nire prioritatea bizitzan (...). Nire inguruan ikusten dudanagatik (...) jendea da militante 24 ordu. Baina, nik bai ezberdintzen dut: badago [bere izena] militantea eremu batzuetan, baina gero badago beste [bere izena] bat (Ernaiko kidea).

Eskaini ditugun orduak, bilera luzeak izan dira (...) jende asko ere galdu egin da bidean, bueno galdu, beste lehenetasun batzuk dituzte batzuek orain, gurasoak izan direlako edo beste arrazoi batzuegatik. Nik beti diot geratu garela gizonak eta seme-alabarik ez daukagunok, edo seme-alaba nagusiak dituen jendea. Eta gizonak daude, emakumeak etxean daudelako, bestela... (Gure Esku Dago-ko kidea).

Azkenik, itxuraz emakumezkoen eta gizonazkoen praktika politikoak gero eta antzekoagoak direla iradokitzen duten iritziak ere jaso dira ikerketa honetan. Bereziki mutilen ikuspegiak izan dira, beren alderdi, eragile edo mugimendu politikoetako botere guneetan emakumezkoek duten parte hartze kuantitatiboa nabarmendu dutenak, beste sakontasun batzuetan sartu gabe. Hala, irizpide kuantitatiboa kontuan hartuta, azpimarratu dute gizonazko adina emakumezko edo gehiago dagoela bai lan-taldeetan bai ardura-lanetan.

Ez zait iruditzen ezberdintasunik dagoenik. (...) Ekimen asko ditugu, eta batzuetan neska bat izaten da dinamizatzen duena, besteetan mutil bat izaten da, beste batzuetan gazte bat izaten da, beste batzuetan zaharrago bat... (Uribealdeko sozioekologia taldeko kidea).

Generoaren aldagaiaren alboan, adinaren faktorea ez dirudi hain erabakigarria denik gazte politizatuen praktika politikoetan. Kontuan hartu behar dugu elkarrizketatu askok gaztez osatutako kolektiboetan garatu duela bere jardun politikoa orain arte. Edonola ere, helduekin eskuz esku ibili diren elkarrizketatu gehienek iritziak, parte hartu duten alderdi, sindikatu, eragile eta mugimendu politikoetan militante helduagoek oso aintzat hartu dituzte beren iritziak eta proposamenak. Hots, gaztetasunak ez die zailtasun berezirik ekarri beren praktika politikoa garatzeko orduan. Salbuespena izan da gaztea izateagatik bere ikuspegia balioa galduta sentitu duela adierazi duen diskurtsoa. Kasu horretan gaztetasuna ezjakintasunarekin, modernoegia izatearekin eta iraultzarekin lotu dute militante helduagoek.

Gazteen eta helduen praktika politikoen harremanaz galdetuta, gaztetasuna edo adina, praktika politikorako oztopo izan ez zaien arren, elkarrizketatu gehienek erantzunei erreparatuta, gazteen eta helduen jardura politikoetan aldeak daudela ondorioztatu dugu. Belaunaldien arteko etenaz hitz egin dute gazte politizatu batzuek. Hainbat faktore aipatzen dituzte gazteen eta helduen arteko urruntasuna justifikatzeko. Esate baterako, gauzak birpentsatzeko gazteek alde aurretiko jarrera malguagoa dutela iradoki dute elkarrizketatu batzuek. Ildo horretan, alderdi politiko bateko kide batek adierazi du beraien alderdian iritzi joera ezberdinetako jendea dutela adin sektore guztietan. Hala ere, gazteen gai politikoen agenda ez da beti bat etortzen helduagoen agendarekin. Ildo horretatik, aipatu du aldarrikapen sozial batzuk, sexu askatasunarena esate baterako, gazteek egiten dituztela soilik. Gai horietan helduek joera kontserbadoreagoa dutela iradoki du.

Liskarrerako faktoretako bat da adinarena beste batzuen esanetan; beraien esperientzian oinarrituta, esaten dute, gazteen eta helduen esperientziak eta ohiturak ezberdinak izateak gatazka eragiten duela. Ildo horretan,

gogo edo ilusio maila ezberdinaz hitz egin dute batzuek: gazteek grina handiagoa dutela argudiatu dute. Horrez gain, gazteen eta helduen praktika politikoen eremuak ezberdinak direla diotenak ere badira: hainbat ekimenetan heldu askok eta gazte oso gutxik parte hatzen du, beste hainbat ekimenetan alderantziz gertatzen da. Eremu ezberdinetan parte hartzeaz gain, gazteen eta helduen militantzia eredian ere alde dagoela iradoki du beste elkarrizketatu batek. Militante helduagoak 24 orduko militantziari lotuagoak ikusten ditu, eta militante gazteek, aldiz, beren jarduera politikoa beste ekintza batzuekin bateragarri egiten dutela adierazi du.

Azkenik, generoaren eta adinaren aldagaien arteko txirikordatzean jarri nahi genuke arreta. Hari horretatik, elkarrizketatutako hainbat gaztek adierazi du gazte militanteen jarrerak parekideagoak direla helduenak baino. Auzi horretan gehiago sakonduz, paradoxa bat ekarri du mahai gainera beste elkarrizketatu batek: hots, belaunaldi gazteak, ideologikoki nahiz teorikoki prestatuago dauden arren, inkesten arabera gazteen arteko harremanetan biolentzia matxista handiagoa agertzen ari dela. Honako aipu honetan islatzen da paradoxa hori:

Uste dut oraingo gazteriak, politizatuta dagoen gazteriak, badauzkala ideiak argiago, nik baino argiago bai, gutxienez. Nik ikusten ditut 16 eta 17 urtetako neskek eta benetan flipatzen dut, hor egon da aldaketa ideologiko bat eta bizi ereduetan aldaketa bat ikaragarria. Gero, horrek kontrastatzen du gero eta biolentzia gehiago egotearekin gazteen artean, gazteen arteko harremanetan. Orduan, hori, bada polarizazio hori. Genero biolentzia, hori da inkestek esaten dutena. Orduan hori da, alde batetik, gero eta ideologizazio eta politizazio maila altuago dago, baina, beste alde batetik, biolentzia areagotzen ari da (Ernaiko kidea).

Laburbilduz

Gazteen hasierako ibilbide politikoak aztertu ditugu atal honetan. Horretarako, *parte hartze politiko* kontzeptuaren esanahiaz eta mugez hitz egin dugu, mende batean erabat aldatu baita haren zentzua: XX. mendearen erdialdetik oraintsu arte estatu erakundeekin lotu izan da parte hartze politikoa, alegia, hauteskundeetan, alderdi politikoetan eta sindikatuetan egiten den jardunarekin. Hori izan da, hain zuzen ere, Mendebaldeko sistema demokratiko liberaletan partaidetza politikoari buruz zabaldu den ohiko ikuspegi hegemonikoa. Egun, ordea, errepertorio askoz ere zabalagoa sartzen da “parte hartze politiko” kontzeptuaren barruan. Hala, partaidetza zibikoa ere politikotzat hartzen da gaur egungo azterketa akademikoan nahiz aktibismoan, pertsonen eguneroko bizitzan gauzatzen diren ekintza asko ere barnean hartuta. Ikuspegi aldaketa horretan zein faktorek eragin duten aztertu ondoren, elkarrizketatutako gazteen partaidetza ibilbideak aztertzeko, elkarrizketatuek beraiek egindako sailkapenean oinarrituta, gazte *politizatuen* (beren jarduna politikotzat jotzen dutenen) eta *ez politizatuen* (beren jarduna politikotzat jotzen ez dutenen) ibilbideak aztertu ditugu, nahiz eta multzo horiek ezin diren hartu kontrajarritako binomio modura.

Konpromiso politiko-sozial gehien duten gazteen artean, hiru talde bereizi ditugu elkarrizketatutakoen partaidetza mota kontuan hartuta:

- 1) Elkarrizketatu ditugun gazte politizatu gehienek gizarte mugimenduetan eta bestelako gizarte ekimenetan jardun dute edo jarduten dute. Familiaren eragina tarteko, hurbileko testuinguru sozialean sortutako dinamikek eragin handia izan dute hastapeneko beren urratsetan. Elkarrizketetan aitortzen dutenez, harreman-sare politizatueta sartzea eta bertan esperimintatze goiztiarra izatea erabakigarria gertatu zaie beren partaidetza politikoaren bilakaeran, aukera eman baitie gero beste erakunde eta mugimendu antolatuago batzuetan sartzeko. Gehien

gehienak gazte gaztetan hasi ziren herritar aktiboaren rola eraikitzen, praxi politikoan esperimentatutakotik abiatuta. Gazte horietako asko ezker abertzalearen kultura politikoan hezi da. Oro har, gazteok politikaren mugak zabaltzen jarduten dute, zentzu politikoa eranstean baitiete estatuz nahiz instituzio politikoak kanpoko era askotako jarduerari, eguneroko bizitzan garatzen diren jardun eta harremanei, besteak beste.

2) Ohiko alderdi politikoetan eta sindikatuetan diharduten gazteei dagokionez, esan genezake horiek ere goiz sartu zirela alderdien gazte erakundeetan. Talde honetan ere erabakigarria izan da familiaren eragina, baita inguruko sare zibiko eta politikoetan eskuratutako kapital politikoaren eragina ere. Gehienek bestelako ekimen sozialetan, elkartean edo boluntario lanetan ere jardun dute afiliatu aurretik edo ondoren. Gazte hauek beren erakundeen ildo ideologikoarekin eta jardunarekin bat egiten duten arren, aitortzen dute ohiko instituzioek antolaketa bertikala eta burokratikoak izateko joera dutela eta hori eragozpena izan litekeela gazteak erakartzeko.

3) Partaidetza zibiko-politikoan jarduten duten gazteen taldeak, hots, mugimendu asoziatiboan, elkartean eta boluntario-lanetan dabilzanen multzoak, ikerketa hasi aurretik pentsatu baino presentzia handiagoa hartu du elkarrizketetan. Aurreko taldeek bezala, talde honek ere ez du gune homogeneoa osatzen. Batetik, beren boluntariora lana jasotzen duten organizazio gehienek ez dute aldatuta sozialean eragiteko asmorik, erakunde bertikalak eta burokratikoak dira, goitik behera eratutakoak. Askotan, Eliza Katolikoaren erakunde sareetan izan du abiapuntu gazte hauen ibilbideak. Bestetik, baina, multzo honetako zenbait mugimenduk sistema ekosoziala, politikoa edo ekonomikoa iraultzeko asmoa ere agertzen du. Bestalde, organizazio edo mugimendu batzuetako kideek ohiko instituzio politikoetan (alderdi nahiz sindikatueta) jarduten dute aldi berean, baina, multzo honetako elkarrizketatu gehienek zeharo bereizten dituzte bi jardun horiek. Hala, multzoko gazte gehienek ez dute beren jardura politikotzat jotzen. Aitzitik, gure gizartean nagusi den politikaren ikuspegi hegemoniko liberala dute (alegia, ekintza politikoa estatu erakundeen jarduerari loturik ikusten dute politika, eta horri soilik).

Konpromiso politiko edo sozial nabarmena duten gazteek gain, mundu sozio-politikotik urrunago sentitzen diren gazteak daude. Politizatze maila apalagoa duten gazte horien ibilbideak aztertuta, neurri eta era askotako parte hartze mailak aurkitu ditugu. Gazte hauek beren haurtzaroan ez dituzte familia, ingurune komunitarioa eta lagunartea oso politizatuak izan, ezta nerabezaroan eta lehen gaztaroan ere. Politikaz batere ardurarik agertzen ez duen gazte bakanen bat elkarrizketatu dugu baina, oro har, gazte guztiak izan dira gai beren bizitzak zuzenki zeharkatzen dituzten auzi politikoak identifikatzeko. Gazteok esparru politiko instituzionalarekin identifikatzen dute politikaren kontzeptua. Hartara, politikari buruz duten iritzi ezkorra eta urruntasuna sistema politiko demokratiko liberalaz sentitzen duten arrotasunak eragindakoka dira. Izan ere, uste dute beren iritziek eta ahotsek ez dutela inolako eraginik mundu instituzional horretan. Hala ere, talde honetako gazte askok parte hartzen du eta noizbait parte hartu du gizarteko beste arlo zibiko-kolektiboetan, gehienetan unean uneko ekintzetan. Bada, politika instituzionalari buruzko jarrera geldoak ez dakar ezinbestean berekin gizarteari edo komunitateko arazoei buruzko axolagabekeria. Beraz, gazteen jarrera eta politizatze maila, kategoria binarioetan baino gehiago, mailaz mailakako logika baten arabera ulertu behar dela ikusi dugu.

Ibilbide politikoetan ez ezik esparru digitaleko tresnen erabileran ere eragina du politizatze mailak. Esparru digitaleko praktikak ez dituzte maila berean balioztatu konpromiso politiko edo sozial maila handia erakutsi duten gazteek eta gai politikoei eta sozialei buruzko interes handirik agertu ez dutenek. Gazte politizatuei dagokionez, sare sozialek funtzio garrantzitsua betetzen dute beren ikasketa eta praktika politikoetan, oro har. Hainbatek *zibermilitantzia* ereduaren eraginkortasuna zalantzan jarri badu ere, gazte politizatuek eduki politikoak sortzeko, zabaltzeko, eskuratzeko eta aldarrikapenak egiteko tresna gisa erabiltzen dituzte, horretarako gaitasunak eskuratu baitituzte. Partaidetza apalagoa duten elkarrizketatuek beste ikuspegi bat azaldu dute, oro har, sare sozialen erabilerari buruz galdetu diegunean. Gehien gehienek lagunekin harremanetan jartzeko erabiltzen dituzte sare sozialak, ez informazio

politikoa eskuratzeko edo zabaltzeko, are gutxiago sortzeko. Nabarmentzekoa iruditu zaigu gazte ez politizatu ugari sare sozialei buruz agertu duen ikuspegi ezkorra.

Bestalde, egungo sexu-genero sistemak eragindako rol- eta lan-banaketa gazteen partaidetza zibiko-politikoan nola birsortzen den ere aztertu dugu. Ondorioztatu dugu aktibismo politikoan gazteek egiten dituzten zereginak ez direla berdintasunez banatu nesken eta mutilen artean, ez arduren eta erantzukizunen ikuspegitik, ezta ikusgarritasunaren ikuspegitik ere, eta, ondorioz, sarritan ibilbide desberdinak izan dituztela ikusi dugu. Gaur gaurkoz, genero rol eta estereotipo binarioak indarrean diraute gazteen aktibismo politikoan. Bereizketa horren kontzientzia modu nabarmenagoan agertu zaigu eraldaketa soziala edo bizimodu alternatiboak helburu dituzte gazteen artean; eta talde horren barruan nabarmenagoa izan da neskek auziari buruz duten kontzientzia mutilek dutena baino. Proiektu eraldatzaileetan dabiltzan neska gehien gehienek beren esperientzia politikoak ikuspegi feministatik aztertzeko gaitasuna erakutsi dute. Hain zuzen ere, feminismoari aitortzen diote elkarrizketatu batzuek esparru politikoan emakumezkoen parte hartzea gero eta handiagoa izatea, eta praktika politikoetan neska gazteak gero eta ahaldunduago agertzea.

Azkenik, gazteen iritziz, ez dirudi adinaren faktorea oso erabakigarria izan denik elkarrizketatuen ibilbide politikoetan. Diotenez, gaztetasunak ez die, oro har, zailtasun gainjarririk ekarri helduen ondoan beren praktika politikoa garatzeko garaian. Baina, zehaztasunetan sartuta, gazteen eta helduen esperientzietan eta ohituretan aldea dagoela adierazi dute elkarrizketatu gehienek: gazteek jarrera malguagoa eta grina handiagoa izan ohi dutela, helduek jarrera kontserbadoreagoa agertu ohi dutela hainbat aldarrikapen sozialetan, eta aktibismorako eremuak eta milintantzia-ereduak ere ezberdinak izan ohi direla diote, adibidez. Belaunaldien arteko alde hori gatazka-iturri izan dela esan duenik ere bada.

4. GAZTEAK ETA POLITIKA AURREZ AURRE

4.1. Zer iritzi dute gazteek politikaz? Zeintzuk dira gazteen interes eta kezka politiko nagusiak?

Zer iritzi dute euskal gazteek politikaz? Zer da politika beren ustez? Zeintzuk dira haien kezka politikorik handienak? Arestian partaidetza politikoaren atalean azaldu ditugun oraintsuko aldaketak berriro ekarri behar ditugu gogoetara, modu estuan lotuta baitaude politika ulertzeko modu berriekin eta, zehazkiago, politikaren kontzeptuari berari gizartean nahiz mundu akademikoan azken aldi honetan ematen zaion hedadurarekin. Horrenbestez, egiturazko aldaketa batzuen nondik norakoak ezinbestean aipatu behar dira atzera ere, gazteen ikuspegiak testuinguruan jartzeko eta ulertzeko eta, horrenbestez, hemen egindako galderei erantzun ahal izateko.

Ildo horretan, zenbait ikertzailereren ustetan, bizi dugun Bigarren Modernitatean belaunaldi gazteenek politikari buruz duten ikuspegia ezin da ondo ulertu esparru politikoan gertatu diren egiturazko aldaketak aintzat hartu gabe. Izan ere, aldaketa sistemiko horiek goitik behera baldintzatzen dituzte gaur eguneko herritarren orientazioak. Azken hamarkadetan Mendebaldeko sistema demokratikoak sustraitik mudatzen ari dira, batez ere, botere politikoaren banaketari dagokionez. Hala, botere politikoa ez dute dagoeneko estatuek eta haien erakundeek monopolizatzen. Mundu gero eta globalizatuagoan, behinola zeukaten zentraltasuna galtzen joan dira estatuak, erabaki politikoak hartzeko ahalmenean, batik bat. Galera hori merkatu kapitalista globalen faboretan gauzatu da, hau da, enpresa transnazional, finantza instituzio nahiz nazioarteko merkataritza interesen alde. Eta, modu paraleloan, herritarren interesen eta ongizatearen kaltetan. Horrela, botere politikoaren gunea lausotzen ari da, eta herritarrek zailtasun handiagoak dituzte hura identifikatzeko. Izan ere, gizartearen sektore handi bat ohartu egin da botere banaketan gertaturiko aldaketa horiez, eta gero eta gehiago kostatzen zaio ohiko instituzio politikoak ezagutzea eta haien funtzionamenduaren zentzua eta eraginkortasuna ulertzea. Hartara, gero eta deskonektatuago sentitzen da arrotz egiten zaion esparru horretatik.

Horren ondorioak gero eta nabarmenagoak dira. Arestian aipatu denez, herritarren jokabide politikoari buruzko lehen azterketek, alegia, XX. mendean egindakoek, hauteskunde partaidetza baino ez zuten aintzat hartzen. Harrez geroztik, baina, herritarrek partaidetza mota gero eta dibertsifikatuagoak burutzen dituzte. Gaur egun gauza nabarmena da joera hori. Bada, estatuaren krisiaren ondorioz, esparru politiko konbentzionalaletatik kanpoko ekimenetara bideratu dituzte, gero eta gehiago, herritar gisa dituzten kezkak, halako moldez, non, jarduera sozio-politikorako gune berri asko agertu diren gizarteko hainbat esparrutan eta jendearen eguneroko bizitzan. Hala, esparru politiko zabaltzen joan da, ohiko esparru politiko konbentzionalaren mugak hautsita. Ildo horretan, gaur egungo herritarren adierazpen politikoak pertsonen eguneroko bizitzan gauzatzen dira askotan. Era berean, pertsonak mugiarazten dituzten gai politikoak ere asko ugaritu dira. Gai horiek ez diete beti ohiko sailkapen politikoei erantzuten, hau da, sailkapen sozio-ekonomikoei, ideologikoei edo erlijiosoei. Horren froga dira gazteen artean indarra hartzen ari diren agenda politiko berriak: ingurumenari loturiko kezkak, emakumeen eta gizonen arteko harreman berdintasunari buruzkoak, talde nahiz pertsonen identitateen defentsazkoak, animalien ongizatearen aldekoak, eta abar.

Sistema politikoetan gertaturiko egiturazko mudantzarekin batera, bigarren aldaketa sozial garrantzitsua gertatzen ari da. Aldaketa hori behetik gorakoa da, eta horrek ere eragina du sistema politikoetan: pertsonen

baliabide kognitiboen hazkundeari lotuta dago, hain zuzen ere. Soziologo batzuek “mobilizazio kognitiboa” deitzen diote, eta azken hamarkadetan gertaturiko afiliazioaren jaitsierarekin lotzen dute. Zalantzarik gabe, azken hamarkadetan pertsonen hezkuntza maila gorantz joan da Mendebaldeko herrialdeetan eta, batez ere, belaunaldi gazteenetan nabarmendu da prozesu hori. Hezkuntza mailak, berez, eragin positiboa dauka partaidetza politikoan. Izan ere, politikaren mundua ulertzeko eta hari buruzko interesa pizteko baliabideak eta kontzientzia zibikoa eskaintzen ditu eta, horrenbestez, politikan eragiteko ahalmena ere handitzen du. Hezkuntza mailan gertaturiko hobetze hori, gainera, informaziora iristeko aukeren iraultzarekin batera etorri da, internet tartean dela. Prozesu horiek guztiak areagotu egin dute norbanakoaren autonomia eta dagoeneko pertsonak ez dute bitartekaritza instituzionalen hainbesteko beharizanik beren ikuspegi ideologikoak eratzeko eta adierazteko (adibidez, alderdi politikoen bitartekaritza). Hala ere, hezkuntzarekin gertatzen den bezala, baliabide horiek ere ez daude modu simetrikoan banaturik gizartean. Bestela adierazita, indibidualizazio prozesuen barruan, pertsona batzuek beste batzuek baino baliabide gehiago dute esparru politikoan askatasunez eta autonomiaz jokatzeko, partaidetza mota berriak sortzeko eta, hitz batean, gaur egungo egiturazko baldintzetan herritartasun eraginkor mota bat eraikitzeko.

Gaurko eguneko esparru politikoaren marko aldakor hori zirriboratu ondoren, gatozen orain ikerketako gazteen ikuspegiak deskribatzera. Elkarrizketatuek hainbat iritzi azaldu dute baina, ñabardurak ñabardura, esan genezake politikari buruzko bi ulerkera nabarmentzen zaizkigula ikerketa honetan. Bi adiera horiek gaztearen ikasketa politikoaren intentsitatearekin, politizatze mailarekin, eta politikari buruzko esperientzia graduarekin lotuta daude. Baita kultura kapitalarekin eta jatorri sozialarekin zerikusia duten zenbait gaitasunekin ere (lehenago aipatu ditugun baliabide kognitiboekin, besteak beste). Bestela adierazita, gazte politizatuenek politikari buruzko ulerkera konplexua, zabala eta aberatsa dute, horretarako gaitasunak eskuratu dituztelako (jatorri sozialari esker, familiarren edo ingurune sozialaren eraginez, edo norbanakoak metatutako esperientzien ondorioz, esaterako). Hori dela eta, politikotasuna esleitzen diete ohiko instituzioetatik kanpo egiten diren era askotako ekimenei ere. Are gehiago, esperientzia berritzaile horietan parte hartzaile aktibo izan ohi dira gehienetan.

Aldiz, zenbat eta sozializazio politiko ahulagoa, zuzeneko esperientzia politiko eskasagoa eta gaitasun sozial urriagoak izan, hainbat eta mugatuagoa, estuagoa eta konbentzionalagoa izan ohi da zenbait gazteren mundu politikoaren ikuskera. Horrela, elkarrizketetan eta eztabaida taldeetan ere ikusi dugu gazte batzuek maila guztietako gobernuei, ohiko instituzio politikoei, alderdi politikoei eta politikari profesionalei mugaturiko esparrutzat dutela politika. Hau da, muturrera eramanda, euren esperientzia sozialetatik, interesetatik eta jardunetik at ikusten dute mundu politikoaren esparru arrotz gisa. Esanahi estu eta mugatua ematen diote politikari; nonbait, ekintza handiekin lotzen dute, hedabideetan zabaldutako gertakari eta gatazka ikusgarriekin, urrun hartzen diren erabaki politikoekin, politikari profesional (ustelekin, sarritan) eta gazteen ahotsak entzuten ez dituzten alderdi politikoen organizazio erraldoiekin. Esan dugunez, beste gazte batzuek, berriz, politika modu zabalean eta konplexuan ulertzen dute. Azken adiera horretan, gazte politizatuenek politika eguneroko bizitzan eta maila mikroan txertaturik ere hautematen dute, eta ildo horretatik, eguneroko hautuen eta ekintza txikien edo sektorialen garrantzia azpimarratzen dute. Era berean, gazte horiek politikaren agendak zabaltzen dituzte, eta lehenago politikotzat hartzen ez ziren gaiak politizatze ahaleginak egiten dituzte. Hori egitean, auzitan jartzen dituzte esparru publiko-politikoaren eta esparru pribatuaren arteko behinolako muga zurrunak.

Ildo horretan, paradoxa bat gertatzen da behin baino gehiagotan. Izan ere, beren buruak ez politizatutzat hartzen dituzten gazte anitzek, ez diote zentzu politikorik esleitzen egindako ekintza edo mobilizazio askori,

politikaren ikuspegi liberal hegemonikoa barneratuta dutelako. Hartara, ez dute beren burua subjektu politikotzat hartzen, eta ezagutza-eza edo gaitasun-eza tartean direla, indargabe sentitzen dira herritar gisa, partaidetza ekimenak eta boluntariotza-lanak (maila handiagoan edo txikiagoan) burutu arren. Ekimen horiek, horrela, politikaz kanpokotzat jotzen dituzte, eta beren burua ez gaitzat hartzen herritar moduan.

Politikari buruzko ikuspegi hegemoniko horren adibide batzuk aipatuko ditugu segidan. Esaterako, Bilbon elkarrizketatutako neska baten diskurtsoa hona ekarrita, politikaren zentzu mugatuarekin bat egiten duela ikus dezakegu: politika alderdi politikoekin lotzen du soil-soilik, eta bestelako ekimenak, hala nola, emakumeen eskubideen aldeko mugimendua, euskarari loturikoa edo animalien ingurukoa, ez ditu politikotzat jotzen. Nabarmen ageri zaigu berriro ikuskera mugatu hori sare sozialen inguruan galdetu diogunean: inoiz animalien aldeko aldarrikapenen bat sinatu duela aitortzen bada ere, ekintza hori ez du ekintza politiko gisa hautematen: “En Change.org alguna cosa habré firmado y tal por el tema de los animales, en temas políticos no me gusta meterme, me parece algo más personal o íntimo” (ELK-Bilbo-neska). Ildo berean, Gasteizen elkarrizketatutako mutil batek ere bereizi egiten ditu emakumeen eskubideen aldarrikapena eta politika: “Con el tema de las mujeres y el feminismo, por ejemplo, mi madre suele hablar más que de política” (ELK-Gasteiz-mutila).

Iruñean elkarrizketatutako mutil baten kasuan ere nabari da politika alderdi politikoen jarduerarekin lotzen duela. Ondorioz, alderdi politikoei buruz sentitzen duen ezin ikusia tarteko, bere burua *apolitiko* gisa definitzen du eta, hala nahi izanda, sistema politikoan parterik ez hartzeko erabakia hartu du. Oro har, ohiko politika instituzional gisa definitu dezakegun horri buruzko desafekzio edo gaitzuste handia agertu da elkarrizketetan. Edonola ere, aipatutako azken kasu honetan, galdera bat jar dezakegu mahai gainean: apolitiko izateko erabakia “kontzientea eta bilatua” izan bada, ez ote da hori ere hautu politiko bat? Bada, sistema politikoaren deslegitimazio maila noraino iristen den erakusten du aipatu jarrerak.

Politikari emandako hedapenaz harago, politika bizitzeko edo sentitzeko moduetan arreta jarrita, ikusi dugu bizitza sozialaren ikuspegi zeharo pribatista dutela ildo horretako elkarrizketatu gehienek. Ildo berean, politizatze maila ahuleko gazteen artean agertzen diren ikuspegiak, batik bat, mundu politikoaz daukaten ezjakintasunari lotuta daude, lehenago esan bezala. Izan ere, politizatze maila apalagoko gazteek eta esperientzia politiko oso mugatuak izan dituztenek ezagutza eta gaitasun gutxiago daukate mundu politikoaren funtzionamenduan barrentzeko. Esparru publikoan izan dituzten bizipenak urriak edo ezdeusak izan dira. Hartara, arrotz sentitzen dute politikaren mundua, eguneroko bizi eta esperientzia sozial arruntetik urrun. Beren bizitzetan oso ondo berezita dago esparru publiko-politikoak, alde batetik (urrutikoa, ulertezina, arrotza), eta esparru pribatua, bestetik (hurbila, familiarena eta lagunena, eguneroko bizitza). Eta ez dago bien arteko loturarik, ez baitute zubi horiek eraikitze baliabide egokirik. Ildo horretan, esparru ilun eta misterioitsu gisa ezaugarritzen du politika Bilbon elkarrizketaturiko neskek.

Yo creo que la política se ve como tan oscura, y tan fea, y tan misterioso todo, que hay un rechazo hacia ella (ELK-Bilbo-neska).

Esperientzia eta ezagutza politiko urriko gazteek ez bezala, bestelako ikuspegia dute politizatze maila handiagoa eta kapital kultural trinkoagoa erakusten dutenek. Azken horien adierazpenetan, politikak beste hedadura bat hartzen du, eta beste inplikazio batzuk ditu, esparru politiko instituzionaletik harago doazenak. Izan ere,

politikaren ikuspegi liberal hegemonikotik aldentzen den ikuspegia da azken hori. Ildo horretan kokatzen da, hain zuzen ere, Iruñeko talde eztabaidako kide bat; jarraian agertzen den aipuan dioen bezala, harreman sozialak eta gizartearen alde gauzatutako ekimenak politikaren parte dira:

Yo creo que esos temas se interrelacionan también con la política, aunque haya gente que no lo vea. La política en sí es todas las relaciones sociales que tenemos. Evidentemente puedes ser apolítico y estar en una asociación por un tema social que te preocupa, pero eso en el fondo repercute en la sociedad. Entonces, aunque no lo quieras, en el fondo estás cambiando la política (ET-Iruñea).

Hari beretik, beste elkarrizketatu batzuek ere eguneroko jarduerarekin lotu dute politika; alegia, politikotzat jotzen dituzte bizitzako hainbat esparrutan eguneroko egiten ditugun hautuak eta ekintza txikiak. Zenbait kasutan, badirudi ohiko organizazio politikoek eragindako frustrazioak bultzatu dituela gazteok beste era bateko jardura politikoak egitera, eta jardura horiek bestelako esparruetara zabaltzera, gizartearen kokaturiko ekintzen bitartez.

Ernai sortu zenean, Ernain egon nintzen. Uste dut urtebete egon nintzela Ernain. Baina han sentitzen nuen ez zela nire lekua, oso pozik nengoen, baina ez nintzen eroso sentitzen, edo ez nuen ikusten egiten genuenaren baliagarritasuna. Eta hor, bakoitzaren lana banatzerakoan, nire burua aurkeztu nuen [beste ekimen sozial batzuekin] harremana izateko (Gure Esku Dago-ko kidea).

Dena den, gazteen elkarrizketetan politikari esleitutako esanahiak eta hedadura politizatzeko mailaren arabera aldatzen badira ere, bai gazte politizatu gehienek bai politizatzeko maila apalagoa duten guztiek partekatzen dute alderdi politikoei nahiz gainerako ohiko instituzio politikoei buruzko mesfidantza handia. Zalantzarik gabe, azpimarratzekoa da sistema demokratiko liberalen sinesgarritasuna kolokan jartzen duen ikuspegi hori elkarrizketa guztiak zeharkatu dituen iritzi-korronte nabarmena izan dela. Ildo horretan, alderdi politikoek adierazten dute hobekien, gazte gehienek (agian, alderdi politikoetan afiliaturik daudenen salbuespenarekin) sistema politikoaz duten desilusioa. Esate baterako, Euskara Elkarteko kideak dio, *ezkerra* agintera iritsi eta “gauzek berdin jarraitzen dutela ikusten duzunean”, mito bat erori zitzaioela. Hain zuzen ere, horrexegatik erabaki omen zuen euskalgintzan jardutea; gainera, konturatu omen zen Euskal Herri independente bat politikoki azaltzea ezinezkoa bazitzaion ere, kulturalki defini zezakeela: “hemen kultura bat dagoelako, hizkuntza bat dagoelako. Nolabait esateko, lehendik neukan eraikina deseraiki dut eta berri bat eraiki nuen”. Orain, nahiago du eguneroko ekintza txikiak egiten aritu, eta ekintza horiekin guztiekin kultura bat egiten jardun, ideal politiko baten alde aritu baino.

Ildo berean, OlatuKoop sareko kideak politikaren ikuspegi “ez organiko” bat azpimarratu digu, egitura politiko klasikoetatik at garatzen dena eta egunerokotasuna aldatzea xede duena: kontsumoa, bizi-estiloa, lana, energiaren erabilera, pertsonen arteko harremanak eta naturari buruzkoak, besteak beste. Sozioekologiaren eremuan jarduten duen kideak uste du gazte askok ez duela politikari buruzko kontzientziarik. Berak dioenez, horren arrazoietakoa bat izan liteke gazte askok alderdi politikoen jardunarekin, eta horrekin soil-soilik, lotzen dutela politikagintza. Hartara, haren iritziak, alderdi politikoen jarduna partidismo gisa definitu behar genuke, eta ez politikagintza gisa; funtsean, alderdi politiko bakoitzak bere interesak dituelako eta horien arabera jokatzeko duelako, eta ez gizarte osoaren onurarako. Horren aurrean, bestelakoa da berak defendatzen duen ikuspegia: eguneroko hautu guztiak dira politikoak eta horiek emango diote forma gizartearen nolakotasunari.

Horregatik esaten dut dena dela politika, guk hartzen ditugun erabaki txiki guztiak politika dira. (...) Politika orokorrean egunero egiten ditugun hautuak egitea da, eta horrek eramango du gizartea era batekoa izatera edo beste era batekoa izatera (Uribealdeko sozioekologia taldeko kidea).

Hainbat ñabardura agertzen dute alderdi politikoetan nahiz bestelako ekimen batzuetan parte hartu duten gazte batzuek. Izan ere, politikaren bi esparruetan aritzen dira azken horiek; batetik, ohiko instituzio politikoetan (alderdietan edo sindikatuetan), eta bestetik, ekimen edo mugimendu sozialetan. Eta bateragarri ikusten dituzte bi partaidetza motak. Hala, gazte horiek politikagintza bi modutan gauza daitezkeela onartzen dute, eta ez dute inolaz ere ukatzen eguneroko bizitzan pertsonak burutzen dituzten ekimen eta hautu asko zentzu politikoan ulertu behar direnik. Podemos-Ahal Dugu-ko kide batek, esaterako, kontsumo politikoaren garrantzia dakarkigu gogora:

Erosketak egitera goazenean ere politikan parte hartzen dugu: Indiako esparragoen edo hemengo esparragoen artean aukeratzean ere, politika egiten duzu, kooperatiba batean erosten duzunean eta ez multinazional batean ere politika egiten duzu. Orduan, egia da batzuetan politika instituzionalizatu egiten dugula, baina eguneroko bizipenetan politika dago (Podemos-Ahal Dugu-ko kidea).

Hari beretik, LGTBI Ligako kide batek ere politikaren ikuskera zabal hori agertu du, eguneroko aspektu guztiak bere baitan barnebiltzen dituena: “porque al final la política es todo”. Argi azaldu du gazteek egunero egin ditzaketen gauza apal asko ez direla oharkabean utzi behar ikuspegi politikotik. Norbanakoaren esku dauden gauza xumeak egiteari garrantzia ematen dio; jakin badakien arren eraldaketa handiegirik ez duela lortuko, geldirik egonda baino gauza gehiago lor daitezkeela uste du. Horrela dio:

A mí me han enseñado a ser así, yo soy así, quizás no voy a cambiar el mundo con lo que hago, pero por lo menos hago mi parte y me quedo tranquila, porque me niego a quedarme en el sofá diciendo que vaya mierda de mundo (LGTBI Ligako kidea).

Era berean, Errekaleor gune autogestionatuan bizi den gazte batek azpimarratu du toki horretan daukaten bizi-egitasmoa proiektu politikoa dela, ezbairik gabe: norberaren praktikak (non bizi, zer kontsumitu, nola bizi eta nolako harremanak garatu) bilakatzen baitira ekintza politikoaren muin. Izan ere, praktika horiek herritarren autonomiarako eta aldaketa sozialerako espazioak lantzen dituzte. Hala, ekintza txiki horiek, beren apaltasunean, helburu handiak lortzeko aukerak eta aldaketa garrantzitsuak atzemateko bideak izan daitezkeela uste du.

Gure asmoa da produkzio bitartekoak apropiatuz poliki-poliki geroz eta dependentzia gutxiago izango dugula merkatuarekiko. Orduan, alde batetik, komunitatea indartu, planteatuz harreman sozial sanoak, eta beste aldetik erakutsi eredu berri bat posiblea dela (Errekaleorreko kidea).

4.1.1. Gazteen kezka politiko nagusia: enplegua

Gaur egungo gazteek helduarorako bidean bizi dituzten trantsizioak ez dira linealak. Gazteek ezin dute prestatu eta aurreikusi helduaroko bizimodua. Izan ere, bizitzari buruzko ikuspegiak ez dira dagoeneko

iragartzeko modukoak, prekarioak baizik. Horrenbestez, mundu globalizatuak berezkoak dituen desafio berriak agertzen zaizkie gazteei, eta erronka horiei aurre egiteko baliabide jariakorrek eta aldakorrek baino ez dituzte nabigaziorako tresna gisa. Desafio horien artean dago enplegu egonkorra eta kalitatezkoa aurkitzea. Bada, gaur egungo ekonomia kapitalista garatuko lan merkatuak egonkortasunik eza eta ziurgabetasuna ditu ezaugarri.

Orain arte esan dugunez, pertsonen eguneroko bizitzaren aurrera-egite prozesuan linealtasun eza eragiten duen egiturazko prozesua dugu indibidualizazioa Bigarren Modernitatean. Indibidualizazioa instituzionalizatu egin da gaur egun. Hartara, egitura sozialak eta instituzionalak ahultzen ari diren garaian, norbanakoa behartuta dago instituzio eta obligazio tradizionalen laguntza barik erabakiak hartzera. Izan ere, ziurgabetasun handiko testuinguruan kudeatu behar du egoera hori, ahalik eta ondoen, banakoak. Bestela adierazita, indibidualizaturiko banakoek soluzio biografikoak eman behar dizkiete kontraesan sistemikoei. Hala, soluzio horien bilaketa funtsezko zeregin bilakatzen da pertsonen bizitzan. Horrek antsietatea edo egonezina sortzen du sarri. Bestalde, soluziorik atzematen ez denean, norbanako horiek porrot pertsonal gisa bizi ohi dute, egiaz, egiturazko arazoa den hori.

Indibidualizazioaren instituzionalizazioa modurik gordin eta itogarrienean azaltzen da gazteentzat enpleguaren esparruan. Zalantzarik gabe, esan daiteke egindako elkarrizketa eta talde eztabaida guztietan identifikatu dela enplegua gazteen arazo eta erreibindikazio nagusi modura. Elkarrizketatuek aho batez adierazi dutenez, gaur egun gazteek bizi duten lanaren arrangura hori garrantzitsua da. Batetik, berez duen pisuagatik norbanakoaren garapen pertsonalerako. Bestetik, enplegua pertsonen bizitzaren egituratzailea delako. Bada, enpleguak zabaltzen du atea emantzipazio ekonomikorako eta bizi askapenerako, hark ahalbidetzen ditu etxebizitza lortzeko eta harreman nahiz familia berriak osatzeko aukerak, baita herritartasuna eraikitzeko ere.

Zalantzarik gabe, aipatu dugun egiturazko testuinguru sozialak moldatu egiten ditu pertsonak: zuzenki eragiten die gazteei pentsamoldeetan eta, ondorioz, gizartean eragiteko edo mugitzeko izan dezaketen motibazioetan. Hala ere, esan genezake gaurko gazteen egoera gazi-goza dela Hego Euskal Herrian: bateko, kezka, zailtasunak eta etsipenak agertu zaizkigu, besteko, oraindik gaur egun gure gizartean familiak eskaintzen dien babesa, gaurdaino gazteen egoera latza pixka bat leundu duena. Elkarrizketetan gazteek aipatu dituzten kezka politiko nagusiak bi esparrutakoak dira, funtsean: enpleguarena eta etxebizitzarena. Lanbidea ez izateak eta lanbide horren nolakotasunak kezkatzen ditu batez ere; eta horrekin lotuta, etxebizitza eskuratzeko edo emantzipatzeko zailtasunak. Horrek bizi proiektuetan dituen ondorio guztiekin: zuzenean, pertsona autonomo gisa garatzeko eta familia berriak osatzeko ahalmen urriarekin; zeharka, herritar oso eta autonomo izateko ezintasunarekin eta, hartara, politika konbentzionalari buruzko desafekzioaren handitzearekin. Izan ere, instituzio politikoek arazo horiek konpontzeko izan zezaketen eraginkortasunean dagoeneko askorik sinesten ez baitute gazteek.

Auzi horren inguruko adibide batzuk aipatuko ditugu ondoren. Eztabaida taldeetan, esaterako 2008an hasitako krisiak eta hari emandako irtenbide neoliberalak gazteen bizitzetan izandako ondorio kaltegarriak hauteman daitezke. Kalte horiek baliabide gutxien duten gazteengan nabarmendu dira. Baina, ez horietan soilik. Bada, beste maila batean izan arren, goi mailako ikasketak dituztenek ere pairatzen dituzte. Horrela, paradoxa bat gertatzen ari da, gazteen ustetan. Gurasoen belaunaldikoei, ikasketa gutxiagorekin, bizi ibilbide egonkorragoa zuten. Aitzitik, haien seme-alabek, prestakuntza luzea izan ondoren, ez dute beren bizitzak antolatzeko euskarririk.

Nos ha tocado toda la crisis, todo lo malo, todos los cambios. Ahora nos sustituyen por máquinas, no nos valoran. Estudiamos 20 años y luego nada (ET-Iruñea).

-Antes, las cosas no eran como ahora. Antes los padres tenían oficios y muy pocos tenían estudios. Hoy en día, como no tengas una buena base de estudios, eres un mileurista toda la vida.

-Y teniendo estudios también (ET-Gasteiz).

Yo tengo 25 años y ando todo el día de ETTs. Que alguien sea fijo es increíble. Alguno conozco (...), y porque es sobrino de no se quién. Entonces ¿qué expectativas tienes para casarte, tener hijos y llevar una vida estable? No tienes dónde agarrarte (ET-Iruñea).

Gasteizen elkarrizketatutako mutilak gazteen prekaritatea nabarmendu nahi izan du: lanik ez izateak edo lanbide oso prekarioa izateak, emantzipazioa oztopatzen baitie sistematikoki. Gure Esku Dago-ko kidearen hitzetan, egoera horrek, bai lan egoera ezegonkorrak eta bai emantzipatzeko ezintasunak, itxaropenak zapuzten dizkie gazteei eta, ondorioz, beren aldarrean eragiten die. Bilbon elkarrizketatutako neska batek kritika egiten dio egungo lan merkatuaren logikari eta, zehazki, bekadunak merke kontratatzeke sistemari. Izan ere, beka lan munduan muturra sartzeko aukera gisa aurkezten badira ere, bi ondorio bidegabe sustatzen dituzte elkarrizketatuak nabarmendu duenez: alde batetik, bekadunei soldata oso baxuak ordaintzea; eta, bestetik, langile egonkor gutxiago kontratatu ahal izatea (ELK-Bilbo-neska).

Iruñeko taldearentzat ere, lanik eza da, egun, gazteen arazorik larriena. Horrekin lotuta, ikasketen balioa ere zalantzan jarri dute, esperientziarik izan ezean, ikasketak egiteak ez baitie gerora lanik bermatzen. Onenean ere, oso kontratu eskaseko lanak onartu behar izaten dituztela nabarmendu dute. Unibertsitateko ikasketak ordaindu beharraz ere kexatu dira hainbat elkarrizketatu, baita etxebizitzaren prezio altuaz ere. Honako elkarrizketatu hau, adibidez:

Lehenengoa edo garrantzitsuena unibertsitatea; hau da unibertsitate publikoa baina ordaindu behar da, eta hori niretzat arazo bat da. Gero, denok ikasten dugu zerbait eta ez daukagu non lan egin. Ez baduzu lanik egiten, nondik bizi ahal duzu? Eta nahiz eta lan egin etxebizitzek daukaten prezioa. Horiek dira nire ustez inportanteenak (ELK-Donostia-neska).

Donostiako talde-elkarrizketako kideek aipatu berri ditugun arazoak errepikatu dituzte: hots, gazteek enplegua lortzeko duten zailtasuna, emantzipatzeko ezintasuna, soldata baxuen arazoa eta alokairuen prezio altuak. Horrez gain, ikasketen gaia jarri digute mahaigainean: esan digutenez, unibertsitateko ikasketak ez daude batere ondo antolatuta eta, beren ustez, horrek zuzenean eragiten die enplegua eskuratzeko aukeran. Arazo horiez gain, bizitza proiektuaren ziurgabetasuna ere aipatu dute elkarrizketatu batzuek (ET-Iruñea): lanbiderik ez izateak, edo lanbide kaskarra izateak, etxebizitzaren auzian eragiteaz gain, etorkizuneko egitasmoetan edo proiektuetan zuzenean eragiten baitie (familia-bizitza eraikitzea aipatu dute, adibidez).

Horiek horrela, herri ekimenetan dabilen Donostiako gazteak ezinbesteko baldintzatzen jo du lan-baldintza hobeen aldeko aldarrikapena egitea:

Gazteoi eskaintzen dizkiguten lanpostu gehienak dira prekario hutsak. Lan mundua oso gaizki dago eta hori ikusten da, oso argi dago eta denok dakigu. Kontratazioak igotzen badira, kontratua begiratzuz gero ikusten da mierda bat direla. Lan baldintza duinen aldeko aldarrikapena egin behar dugu, ja (Herri ekimenetan diharduen Donostiako gaztea).

Beste elkarrizketatu batzuek, ordea, adierazi dute egun ez dela erraza gazteek horrelako aldarrikapenak egitea; izan ere, oso jarrera egoistak eta indibidualistak dituztela kexatu dira. Ildo horretan, Donostiako Piratak-eko kideak adierazi du bere inguruko lagun askoren egoera tamalgarria den arren, zaila egiten zaiola lagun haiekin langile izaeraz hitz egitea eta bizi duten egoera *kapitalismoa* bezalako terminoekin lotzea. Kexu agertu da ez dutelako auzi horiei buruzko inolako pedagogiarik jasotzen eta, bere ustez, transmisiorik gabe zaila da oso belaunaldi gazteek errealitate sozioekonomiko horren kontzientzia hartzea eta hobekuntzaren alde antolatzea.

Hari beretik, Donostian elkarrizketatutako mutilak gazteen kontrolaz hitz egin du. Honako aipua dugu horren adibide:

Problematika nagusia da nahi gaituztela kanpotik guztiz kontrolatu, bai sare sozialekin, bai berriekin... , eta ez garela oso kontzienteak kontrol horretaz. Eta nik uste dut hori oso arazo larria dela, eta gure askatasuna mugatzen ari garela aurrerapen teknologikoen aitzakiarekin. Uste dut gero eta eskubide gutxiago dugula, eta askatasun gutxiago ere (ELK-Donostia-mutila).

Uribealdeko sozioekologia taldeko kideak, bere aldetik, gazteen egoeraren paradoxa edo kontraesana azpimarratu nahi izan du: izan ere, gazteen errealitatea gogorra dela ondorioztatu liteke beren zailtasunak ikusita baina, aldi berean, gurasoen edo familien babes handiaren ondorioz, gure gizarteko gazte gehienek egoera erosoa dela nabarmendu du, nahiz eta emantzipatzeko aukerarik ez izan:

Hau da, gazteak txarto bizi dira? Nire ustez ez, ze gurasoen etxean oso ondo bizi gara denok, dena daukagu, aitak kotxea uzten dit, amari eskatzen diot dirua, eta hau eta bestea. Orduan, oso eroso gaude. Egia da burbuila horretatik irtetea zaila dela, ze gero gu bakarrik gaude, eta ez daukagu sostengu hori. Alde batetik, txarto gaude ezin garelako gurasoen etxetik irten, baina, aldi berean, gurasoen etxean oso ondo gaude. Orduan, hor dago “la pescadilla que se muerde la cola” (Uribealdeko sozioekologia taldeko kidea).

Era berean, uste du erosotasun hori oztopo izan litekeela gazteek kontzientzia soziopolitiko har dezaten eta egoera aldatzeko konpromisoa gara dezaten. Edonola ere, dena esate aldera, ikerketarako elkarrizketatu ditugun gazteen artean badira egungo sistema aldatzeko ereduak proposatzen dituztenak ere: hain zuzen ere, bizitza eredu alternatiboak jarraitzeko hautua egin dutenak. Adibidez, Errekaleorreko eta Ikasle Abertzaleak-ko kideek okupazioaren bidea aldarrikatzen dute etxebizitzaren arazoari aurre egiteko aukera gisa. Biak ala biak okupatutako eraikinetan bizi dira eta, ildo horretan, egungo egoera iraultzeko tresna politiko gisa ulertzen dute.

Oro har, elkarrizketatuetako askok uste du instituzio politikoek eta politikariek ez dituztela aintzat hartzen gazteen arazoak eta, ondorioz, ez dituztela politika publiko egokiak lantzen. Areago, zenbaiten iritziz, ez dituzte ezagutu ere egiten gazteen problema errealak. Ondorioz, enpleguaren eta etxebizitzaren arazoaren aurrean ez entzunarena egiteak gero eta gehiago urruntzen ditu gazteak ohiko politika instituzionaletik.

Yo creo que también igual la postura de las instituciones políticas está demasiado alejada de la realidad de la gente de a pie. Entonces, ya no es que no sepan cómo solucionar el problema, sino que quizás no lo conocen tanto como deberían. Quizás no conocen la problemática tan de cerca como para que nos puedan ayudar en ello (ET-Gasteiz).

4.1.2. Euskal Herriko politikagintzaren zenbait gatazka gune ahulduta

Euskal Herriak berezkoak dituen ezaugarriek ere izan dute lekua elkarrizketatu ditugun gazteen diskurtsoetan. Ezaugarri horietako batzuk ohiko *cleavage* edo zatitze-irizpideak izan dira gaur egunera arte euskal politikagintzan, hala nola, nazio identitatea, nazio gatazka eta hizkuntza. Argitu behar dugu, gai horiei buruzko galdera zuzenik ez diegula egin elkarrizketatuei, ez genituelako berariaz ikerketa honen helburuetan. Hala ere, aipaturiko gaiek zentralitatearik izan ez duten arren (hizkuntzaren gaiaren kasuan izan ezik), hainbat diskurtsotan azaleratu egin dira.

Nazio identitateari dagokionez, ez da diskurtso nagusi bakarrik eta zentralik osatu eta, gehienetan, gaia ez da modu esplizituan aipatu. Baina kasu batzuetan mahaigaineratu da, Euskal Herriko politikagintzan daukan garrantzia azpimarratzeko, batez ere. Ondoko elkarrizketatua horren erakusgarri da:

Porque yo soy comunista, y soy comunista español, pero me siento tan vasco como español, (...) [pero aquí] hay un sentimiento y es innegable que el pueblo vasco es un pueblo oprimido, tanto social como culturalmente. (...) Y a mí nadie me ha inculcado el sentimiento vasco ni el sentimiento de pertenencia, bueno sí, me lo ha inculcado mi madre, y mi madre es [Espainiako erregio batekoa], pero ella me dijo en su día que yo me tenía que sentir de aquí (Pa-Ya konpartsako kidea).

Beste batzuetan, nazio identitatearen auziak Euskal Herrian duen garrantzia onartuta, gai horri orain arte emandako erantzun politikoei buruzko atxikimendu falta mahaigaineratu da. Nazio identitatea ez da zalantzan jartzen kasu horietan (esan gabe doala dirudi), baina proposamen politiko klasikoekiko urruntasuna erakusten da. Ildo hori ondoko pasartean laburbiltzen da:

Instituzioak eta alderdi politikoak ikusten ditut gutiz jokoaz kanpo, hau da, ez daukate tresnarik aurre egiteko egoerari, baina ez daukate ezta burujabetzarik ere, eta Euskal Herrian oso inportantea da hori, zeren daramatzagu urteak Estatu propio bat aldarrikatzen Estatuak ezertarako balio ez duten momentu batera iritsita orain. Estatuak ez daukate inolako burujabetzarik; badago Europa, badaude merkataritza libreko tratatuak, eta zertarako nahi dugu Estatu bat? (...) Jarraitzen dute saltzen ilusionagarri bezala jendearentzat ilusionagarria ez den zerbait (OlatuKoop sareko kidea).

Baina, esan bezala, nazioari buruz zuzenean galdetu ez denez, iritzi ildo horiek gorabehera, nazio identitatea ez da gai zentrala izan gure elkarrizketatuen artean. Haatik, euskarari buruzko atxikimenduaren eta praktika politikoaren arteko harremanak garrantzi handiagoa eskuratu du gure elkarrizketatuen artean. Euskararen aldeko ekimenetara joateak beren sozializazio politikoan izandako garrantzia azpimarratu dute gazte batzuek. Praktika politikoan murgildu direnean, gazte politizatu batzuek diote handitu egin zaiela euskarari buruz zuten atxikimendua (gure ikerketan euskarak presentzia urria duen eremuetako aktibistek azpimarratu dute hori, Iruñean edo Gasteizen, adibidez). Unibertsitateak eskaini dien ikasketarako eta praktika politikorako guneetan

hartu dute batzuek euskararen kontzientzia; gune politiko euskaldunetan sartzeak euskara gehiago erabiltzera bultzatu ditu gazte horiek. Unibertsitatetik kanpoko eremuetan ere izan da horrelako eraginik: esate baterako, elkarrizketatutako gazte batek dio praktika politikoak euskaraz egiten zuten gazteekin elkartu zenean (M-15 mugimenduaren testuinguruan) eta euskaraz ulertzen zuela konturatu zenean, aldatu egin zela erabat euskarari buruz zuen jarrera. Segidan aurkezten dugun aipuan elkarrizketatuak modu oso argian azaltzen du hori:

El inglés se me daba muy bien, pero el euskera se me cruzó, no sé por qué. Es una cosa muy curiosa, yo durante la carrera no toqué nada en euskera, pero en el M-15, al oír a gente hablando en euskera pensé: “¿si estoy entendiendo! ¿Cómo puedo entender si llevo sin tocar nada de euskera años y yo antes no entendía nada de euskera?”. Me imagino que tendría una cerrazón mental por la que no quería aprender, o no sé (Ezkerraldeko bazterketaren aurkako talde bateko kidea).

Bestalde, Euskal Herriko gazteen praktika politikoak aztertzen ari garenez gero, funtsezkoa iruditu zaigu jakitea euskal gatazkak gazteen praktika politikoari eragin ote dion ala ez. Elkarrizketatu ditugun gazteen iritziak aztertuta, badirudi 25 urte ingurutik gora dituzten gazte politizatuen artean badela eraginik. Izan ere, gazte helduenek, helarazitako memoriaren bitartez ez ezik, pertsonalki bizi izan dituzte haurtzaroan eta nerabezaroan gatazkaren adierazpen bortitzenen ondorioak. Modu batera edo bestera, ETAren jarduerak, kale istiluek, manifestazioek, inguruko atxiloketek eta tortura salaketek zirrara sorrarazi die elkarrizketatu askori. Testuinguru horretan sozializatzea erabakigarria izan da gazte politizatu askoren praktika politikoan. Elkarrizketatu baten hitzak baliatuta, esan dezakegu abagune zehatz hori mugimendu politikoren batean hasteko amua izan zela hainbat gazte politizaturentzat:

Futbol giroan ere pixka bat ibili ginen eta hor egon ziren disturbio batzuk zipaioekin oso gazteak ginela. Lehenengo kale istiluak edo 13 urterekin bizi nituen. Behin faxistak ere etorri ziren eta egon ziren istilu batzuk... Biolentzia gustatzen zitzaigun, akzioa eta adrenalina hori guay zegoen (Errekaleorreko kidea).

Euskal gatazkak beraien praktika politikoan eragina izan duela erantzun duten askok beldurraren eragina jarri du mahai gainean: batzuek ETAren *terrorismoak* beldurra eragiten ziela adierazi dute; aldiz, beste batzuek Espainiako Estatuaren *errepresioaren* beldur zirela aipatu dute. Hala sumatzen da hainbat elkarrizketaturen iritzi-sortan, segidan aurkezten ditugun bi hauetan adibidez:

Venimos de una época no muy lejana en la que la gente en todo el País Vasco sentía miedo, no se sentía cómoda por esta situación. Había una banda terrorista que mataba a la gente, o al menos intimidaba, y quizás no sólo la banda, sino otras herramientas que tenía la banda para hacer esa presión social (Nuevas Generaciones-eko kidea).

Uste dut egoera objektiboa orain hobetua dela mugimenduetan aritzeko, zeren gaur egun ez dago beldur hori kontrolatua izateko eta abar, igual horrek atzera botatzen zuen jendea. Igual nire bueltako jendeari beldur horrek eragiten zion ez sartzea, ba hori eduki gabe uste dut errazago dela (Donostiako Piratak-eko kidea).

Beldurraren elementuarekin batera, euskal gatazkak gazteen praktika politikoetan polarizazioa eragiten zuela ere agertu da hainbat diskurtsotan. Ildo horretan, elkarrizketatutako gazte politizatuek modu positiboan

balioesten dute ETaren jarduera armatuaren ondorengo fasea. Alde batetik, elkarrizketatu askok esaten du errazagoa egiten zaiela orain aliantza politikoak egitea, eta iritzi ezberdineko jendea elkartzea. Beldurraren faktorea ere desagertu egin da oraingo testuinguruan, eta politikan jarduteko askeago sentitzen dela esan duenik ere bada. Azpiko lekukoen aipuetan, adibidez, dimentsio horiek ikus daitezke:

Argi daukat sentsibilitate batzuen barruan borroka armatuaren faktorea kentzeak batu dezakeela. Gaur egun egiten ari den bide horretan uste dut jende bat... lehenago ezberdintzen zuena zen hori, borroka armatuaren ados edo aurka egotea, orain desberdintasun hori kentzen da (Donostiako Piratak-eko kidea).

Ni mugimendu feministan aliantza espazio pila batean nago, eta hor dago oinarri bat elkarlanerako, eta uste dut aitortzen diogula elkarri, nahiz eta gauza askotan badakigun ezberdinak garela eta izaera eta oinarri politiko ezberdinak ditugula, baina, hala ere, gauza batzuetan elkarren beharra dugula eta aliatuak garela. (...) Eta puntu handi batean, gatazka politikoa orain ez izatea hain bizi, nahiz eta gatazka oraindik dagoen, uste dut horretan oso lagungarria izan dela eta, adibidez, Bilgune Feministarekiko garai batean zeuden errezelo eta desconfiantza pila bat ez dago orain (Bilgune Feministako kidea).

Beste alde batetik, ordea, gazte politizatuenean arrisku batzuk ere ikusten dizkiote egungo testuinguruari. Batzuen ustetan, euskal gatazkek gazteen politizatzea bultzatzen zuenez, gaurko egunean zaildu egin da gazteak politikoki aktibatzea eta gazteek erreferente politiko eraginkorrak izatea. Masa hedabideen botereak sorrarazitako munduaren ikuskerak gazteen gaurko ikusmoldeetan duen eraginak kezkatzen ditu beste batzuk. Eta belaunaldi gazteenek ETaren jarduera armatuak eragindako sufrimendua ahazteko dagoen arriskua jarri du mahai gainean beste gazte batek. Segidan aurkezten ditugun aipuetan kezka horiek islatzen dira:

Nire belaunaldia izango da azkenetarikoa pixka bat gatazka egoeran aktibatu dena. Nire ustez, bai dago erreferente falta bat, eta lehen oso agerikoak eta errazak ziren kontraesan horiek hor zeuden, orduan, errazagoa zen posizionatzea eta aktibatzea. Orduan, egun gatazka oso espliziturik ez dagoenez, ba gatazka ezak bilatzen du ez posizionatzea eta horren ondorioz ez politizatzea (Errekaleorreko kidea).

Egia da ere faktore polarizante hori kenduta, edo fundamentuz egiten da lan politikoa edo lan politikoak galtzen du erreferentzia. (...) Beste eragile batzuek hartu behar dute soka tenkatzeko ardura, eta ez badu tenkatzen..., telebistak eragin handia dauka bestela (Donostiako Piratak-eko kidea).

Sí que nos encontramos que la conciencia sobre el tema del terrorismo que tiene la generación de menos de 18 no tiene nada que ver con lo que ha pasado. (...) En eso sí que tenemos un compromiso claro, y estamos intentando que esas nuevas generaciones lo vean también de esa manera, que no se quede en el olvido lo que ha pasado y que entiendan cómo se ha vivido y lo que ha pasado (Juventudes Socialistas de Euskadi-ko kidea).

Illo horretan, eta salbuespenak salbuespen, elkarrizketatu ditugun gazteen artean 20 urte inguru dituztenek iraganeko fenomeno gisa ikusten dute euskal gatazka, eta ETaren jarduera armatua aurreko belaunaldiei zegokien arazo politikoa da haietzat. Hori iradokitzen du zenbait informatzaileraren diskurtsoak:

Uste dut gazteontzat gatazka “hor dagoen gauza bat” [urrun bezala, keinua eginez], baditugu preso batzuk guk ez ditugunak ezagutu, ia kartzelan zeuden gu jaio ginenean, eta bai dela beste elementu bat, eta zaharragoek ikusten dute elementu bat lotuta doakiona lehengo borrokari eta ezin dena bereizi (Ikasle Abertzaleak-eko kidea).

-Que si homenaje por aquí homenaje por allá..., omenaldi asko baina zazpi urtetan ez da ezer egin. Nik egia esan ez dut hori bizi izan, eta badirudi batzuk daudela bizitzen orain dela 20 urteko perspektibarekin.

-(...)

-Hubo un boom, estaban on fire en los 80 y nosotros estamos viviendo la resaca de todo eso (ET-Donostia).

Azkenik, ikerketa honetarako elkarrizketatu ditugun gazte ez politizatuek ez dute uste ETaren jardura armatuak inolako eraginik izan duenik politikari buruz sentitzen duten urruntasunean. Era berean, ez dute uste ETaren desagertzea politikari buruzko interes handiagoa piztuko dienik.

Laburbilduz

Egun belaunaldi gazteenek politikari buruz duten ikuspegia ulertu ahal izateko aintzat hartu behar dira esparru politikoan gertatu diren egiturazko aldaketak. Mendebaldeko sistema demokratikoak errotik mudatzen ari dira, batez ere, botere politikoaren banaketari dagokionez. Hala, dagoeneko estatuek eta haien erakundeek ez dute botere politikoak monopolizatzen. Botere galera hori merkatu kapitalista globalen faboretan gauzatu da eta herritarren interesen eta ongizatearen kaltetan. Hori dela eta, jende asko, gazteak tartean, ohiko instituzio politikoetatik gero eta deskonektatuago sentitzen da.

Estatuen krisiak herritarren jokabide politikoan eragina izan du. Gaur egun herritarrek partaidetza mota gero eta dibertsifikatuagoak burutzen dituzte esparru politiko konbentzionaletatik harago. Hartara, jardura soziopolitikorako gune berri asko agertu dira gizarteko hainbat esparrutan eta jendearen eguneroko bizitzan, esparru politikoak zabalduz. Era berean, pertsonak mugiarazten dituzten gai eta agenda politikoak ere asko ugaritu dira.

Aldaketa politiko horiez gain, azken hamarkadetan pertsonen hezkuntza mailaren hazkundera ere gertatu da Mendebaldeko herrialdeetan, batez ere, belaunaldi gazteenetan. Gainera, baliabide kognitiboen hazkundera hori informaziora iristeko aukeren iraultzarekin batera etorri da, internet tartean dela. Baliabide horiek norbanakoaren autonomia areagotzen dute, beraz, herritarrek ez dute bitartekaritza instituzionalen hainbesteko beharizanik beren ikuspegi ideologikoak eratzeko eta adierazteko. Hala ere, baliabide horiek ez daude modu simetrikoan banaturik gizartean, pertsona batzuek beste batzuek baino baliabide gehiago dute esparru politikoan askatasunez eta autonomiaz jokatzeko, partaidetza mota berriak sortzeko, hau da, egungo egiturazko baldintzetan herritartasun eraginkor mota bat eraikitzeko.

Elkarrizketatu ditugun gazteek esandakoa jasota, politikari buruzko bi ulerkerak ageri dira. Bi adiera horiek gazteen ikasketa politikoaren intentsitatearekin, politizatze mailarekin eta politikari buruzko esperientzia graduarekin lotuta daude. Baita kultura kapitalarekin eta jatorri sozialarekin zerikusia duten zenbait gaitasunekin.

Batetik, politizatze maila altuena erakusten duten gazteek politikari buruzko ulerkerak konplexua, zabala eta aberatsa dute, horretarako gaitasunak eskuratu dituztelako. Hori dela eta, politikotasuna esleitzen diete ohiko instituzioetatik kanpo egiten diren era askotako ekimenei ere. Esperientzia berritzaile horietan parte hartzaile aktibo dira, eta, hala

eginez, politikaren agendak zabaltzen dituzte auzitan jarrita esparru publiko-politikoaren eta esparru pribatuaren arteko muga zurrinak.

Bestetik, politizatzeko maila ahuleko gazteek esanahi estu eta mugatua ematen diote politikari; nonbait, ekintza handiekin lotzen dute, hedabideetan zabaldutako gertakari eta gatazka ikusgarriekin, urrun hartzen diren erabaki politikoekin, politikari profesional (ustelekin, sarritan) eta gazteen ahotsak entzuten ez dituzten alderdi politikoen organizazio erraldoiekin. Horrela, burutu izan dituzten ekintza eta mobilizazio askori ez diote zentzu politikorik esleitzen, ez dute beren burua subjektu politikotzat hartzen. Beren bizitzetan oso ondo bereizita dago esparru publiko-politikoaren, alde batetik (urrutikoa, ulertezina, arrotza, profesionalizatu), eta esparru pribatua, bestetik (hurbila, familiarena, lagunena, eguneroko bizitza). Eta ez dago bien arteko loturarik, ez baitute zubi horiek eraikitzekeo baliabide egokirik.

Banaketa horretatik harago, bai gazte politizatu gehienek bai politizatzeko maila apalagoa duten guztiek partekatzen dute alderdi politikoei nahiz gainerako ohiko instituzio politikoei buruzko mesfidantza handia.

Gazteen kezka politiko nagusiak bi dira: enplegua eta etxebizitza. Pertsonen bizitzaren egiturazaila da enplegua, bizi proiektua prestatzea ahalbidetzen baitu. Hego Euskal Herrian lan merkatuak ezegonkortasuna eta ziurgabetasuna ditu ezaugarri. Lanik ez izateak edota lanbide horren ezegonkortasunak etxebizitza eskuratzeko eta familiarik emantzipatzeko oztopatzen die gazteei. Enpleguaren eta etxebizitzaren erreibindikazioen aurrean politikariek ez entzunarena egiteak gero eta gehiago urruntzen ditu gazteak ohiko politika instituzionaletik.

Bestalde, gaur egunera arte euskal politikagintzan nagusi izan diren gaiak, hala nola, nazio identitatea, nazio gatazka eta hizkuntza, ez dira ikerketa honen helburuen artean egon (hizkuntzaren gaia izan ezik) eta ez dute zentraltasunik hartu gazteen diskurtsoetan. Hala ere, hainbat adierazpenetan azalera dira:

Nazio identitatearen auzia gazte batzuen esanetan baino ez da ageri da, Euskal Herriko politikagintzan daukan garrantzia azpimarratzeko. Ez da zalantzan jartzen, baina proposamen politiko klasikoekiko urruntasuna erakusten dute.

Haatik, euskarari buruzko atxikimenduaren eta praktika politikoaren arteko harremanak garrantzi handiago eskuratu du gure elkarrizketatu batzuen artean. Euskararen aldeko ekimenetara joateak beren sozializazio politikoan izandako garrantzia azpimarratu dute hainbatek. Halaber, praktika politikoan murgildu direnean, gazte politizatu batzuek diote handitu egin zaiela euskarari buruz zuten atxikimendua.

Gazteen praktika politikoetan euskal gatazkaren eraginaren berri ere izan da elkarrizketatuen diskurtsoetan. Badirudi 25 urte ingurutik gora dituzten gazte politizatuaren artean badela eraginik. Gazte helduenek, helarazitako memoriaren bitartez ez ezik, pertsonalki bizi izan dituzte haurtzaroan eta nerabezeroan gatazkaren adierazpen bortitzenen ondorioak. Gazte horietako askok beldurraren eragina jarri du mahai gainean, baita euskal gatazkak praktika politikoetan eragiten zuen polarizazioa ere. Aldiz, 20 urte inguruko gazteek iraganeko fenomeno gisa ikusten dute gatazka. Azkenik, elkarrizketatu ditugun gazte ez politizatuak ez dute uste euskal gatazkak inolako eraginik izan duenik politikari buruz sentitzen duten urruntasunean, ezta ETaren desagertzeak politikari buruzko interes handiagoa piztuko dienik ere.

4.2. Gazteak eta ohiko politika moldeak

4.2.1. Gazteen ustezko despolitizatzearen inguruko eztabaidak gazteen begietan

Aurretik esan bezala, gizartean iritzi zabaldu samarra da egungo gazteek interes gutxi dutela politikan eta gero eta gutxiago parte hartzen dutela esparru horretan; gazteen *despolitizatzeaz* hitz egiten duenik ere bada. Diskurtso hori leku komuna bilakatu da diskurtso sozial hegemonikoetan, hau da, masa hedabideek zabaldutako mezuetan eta politikariek edo ohiko alderdi politikoek egindako inkestetan. Baina, zein ikuspegi dute gazteek beraiek politikari buruz? Nola deskribatzen dute beren hizkeran errealitate hori? Ikerketaren atal honetan, hain zuzen ere, hauxe egin nahi dugu: gazteek beraien kokapen desberdinetatik egiten dituzten diagnostikoak bere horretan jaso, eta erabiltzen dituzten kontzeptuak eta hitzak bere hartan hona ekarri.

Hainbat elkarrizketatuk adierazi digute, beren ustez, ez dela egokia gazteen despolitizatzearen ideia orokortzea. Ikuspegi horretan bat egiten dute politikaz ezagutza eta esperientzia sakonagoa duten gazteek, batik bat. Esate baterako, LGTBI Ligako kideak duen ikuspegia interesgarria da: Espainiako Estatuko hiri batean jaioa eta hazia da, Euskal Herria baino askoz ere ez politizatuagoa den testuinguru batean, bere ustez. Hain zuzen ere, horixe aurkitu du Euskal Herrira (zehazki Bilbora) etortzean, mobilizaziorako gune bat. *Despolitizatz*e kontzeptuaren erlatibotasuna jarri digu mahai gainean horrela, izan ere, Espainiako Estatuko beste leku batzuetako gazteekin alderatuta, Euskal Herriko gazteak politizatuagoak daudela diosku informatzaile horrek.

Edonola ere, galdera honi erantzun nahi genioke: zein neurritan hitz egin liteke Euskal Herriko gazteen politizatzeaz edo despolitizatzeaz, gazteen ustetan? Zein diagnostiko egiten dute gazteek, beren ikuspegitik? Elkarrizketatu batzuek, politizatze maila handia dutenek, despolitizatzea baino beste kontzeptu batzuk izan dituzte nahiago gaur egungo gazteek politikarekin duten harremana azaltzeko: batzuei egokiagoa iruditu zaie *despolitizatzearen* ordez, “immobilismoa”, “desmobilizazioa”, “desaktibazioa” eta antzeko terminoak erabiltzea gaurko gazteen errealitate politikoa deskribatzeko. Ezkerraldeko bazterketaren aurkako talde bateko kideak, adibidez, ez du uste gazteak despolitizatuta daudenik, eta bereizi egiten ditu despolitizatzea eta desmobilizatzea:

Yo creo que esa imagen de juventud despolitizada no es real. Yo creo que es más bien una juventud desmovilizada que una juventud despolitizada. Yo creo que lo que ocurre es que también el movilizarte hace madurar el discurso político. Sí que es verdad que hay gente que tiene un discurso político inmaduro, o un discurso político “de manual”; hay gente que lee cosas y a nivel de discurso o teóricamente lo tiene más o menos construido, pero en la práctica no lo pone en práctica ni sabría cómo llevarlo a cabo. Además, es un discurso muy ideal, si no lo plasmas en la práctica, no puedes saber si funciona o no (Ezkerraldeko bazterketaren aurkako talde bateko kidea).

Elkarrizketatutako gazte batzuen iritziak, gazteek izan badute gai politikoekiko interesa, badituzte, era berean, pentsaera eta diskurtso argiak ere eta, ildo horretan, politizatuta daudela esateko moduan egongo ginateke. Baina, ez dira mobilizatzen, ez daude aktibatuta, pentsatutakoa ezin dute, beraz, praktikan jarri. OlatuKoop-eko kidearen ustez, jauzi handia dago gazteen eztabaida teorikoen eta praktikaren artean: “ze, ditugu gazte batzuk oso politizatuak, irakurtzen ‘La conquista del pan’, baina gero mugimendu hori ez dago kalean”.

Elkarrizketatuen iritzien berrikusketa eginda, zenbaiten ustez, gazteek ez dute mobilizatze gogorik, beste batzuen ustez, ordea, gogoia eta asmoa izan badituzte, baina antolatze gaitasuna falta dute. Iruñean

elkarrizketatutako neskak, adibidez, konpromiso sozial eskasa antzematen du; uste du gazteek gehiago lagundu behar lioketela elkarri, konpromiso handiagoa izan behar luketela. Donostian elkarrizketatutako mutilaren hitzetan, bestalde, aurrerapen sozial handiak izan dira hainbat esparrutan eta interesa piztu dute gizartean (matxismoaren edo bullyingaren kontrako ekimenek, esate baterako), baina gazteek ez dute antolatze beharrik sentitzen edo ez dute gaitasun nahikorik horretarako. Izan ere, aurreko atal batean ikusi dugunez, gazteen gero eta ekimen gehiago ohiko organizazioen edo mugimenduen bitartekaritzarik gabe gauzatzen da. “Agian izpiritu kritiko gehiago dago gai horiekin, baina ez dago antolatze gaitasunik edo kontzientziarik. Interesa egon daiteke, baina, gero, interes hori ez da bideratzen” (ELK-Donostia-mutila). Hartara, gazte batzuen trebatze eta gaitasun falta horrek eragina du ondoren beste batzuekin batera sartzeko edo antolatu ahal izateko ahalmen urrian.

Ohiko organizazio politikoetan, hau da, alderdi politikoetan edo sindikatuetan dabilzan gazteen iritzia ñabarduraz osatuta dago. Izan ere, batetik, onartu, onartzen dute gazte gehienek ohiko instituzio politikoan aurrean agertzen duten desilusia, baina bestetik, uste dute ahalegina egiten ari direla egiturak aldatzeko eta gazteak politikagintza mota horretara erakartzeko, uste baitute alderdiak direla tresnarik eraginkorrena gazteen eragin politikoa bideratzeko. Adibidez, Nuevas Generaciones-eko kideak politika instituzionalari buruzko urruntasuna eta ikuskera ezkorra nabaritzen ditu gazteengan baina, horrek ez du, bere ustez, politikarekiko interes falta islatzen: “En las redes sociales yo continuamente veo a mis compañeros y amigos hablando de política. ¿Qué la ponen a caldo? Puede ser. Pero que estén desarraigados de la política yo no lo veo” (Nuevas Generaciones-eko kidea). Juventudes Socialistas de Euskadi-ko kidearentzat frustragarria da, oso, gazteengana iritsi nahi eta ezina, eta haiek erakartzen ez asmatzea. Horrela mintzatzen da, bere aldetik, EGIko kidea: “Guk alderdian ere nahi duguna da hori piztea, jende gazte gehiago hurbiltzea (...) Utopiko ikusten dut, oso urrun ikusten dut [alderdietatik kanpoko politikagintza], batez ere horregatik, jendeak uste duelako ez zaiola entzungo” (EGIko kidea).

Bestelakoa da gazte askoren ikuspegia. Zenbaiten ustetan, gazteen politika egiteko modua aldatzen ari da, zehazki, alderdi politikoetatik at geratzen diren beste esparru birtual batzuetara lekuz aldatzen. Ildo horretatik, sare sozialen aukera nabarmendu duenik ere badago. Hala, elkarrizketatu bati, gazteen politikagintza aztertzean, oso aintzat hartzekoa iruditzen zaio kaleko mugimenduaren zati bat sare sozialetara pasatu izana. Bada, sare sozialek askotariko esparru publiko birtualak sortzeko aukera eman dute. Ikerketa honen bigarren atalean sare sozialen gaia aztertu dugunean, gazteen politikagintzan determinanteak ez direnaren ideia jaso badugu ere, ez dago zalantzarik politika egiteko beste modu bat ekarri dutela esaten badugu. Eta horrek hainbat alderditan eragin du.

Ildo beretik, Bilgune Feministako kideak argi du *despolitizatze* terminoa ez lukeela erabiliko; politikagintza sentitzeko eta bertan jarduteko moduak aldatu direla azpimarratzen du. Baina, hori *despolitizatzea* al da? Orain arte aipatu legez, agertu zaigu ohiko politikari buruzko mesfidantza handia, erakunde, alderdi politiko nahiz politikariekiko urruntze bat. Horrek esan nahi du gazteek ez dutela jardun politikorik egiten? Ondoren ikusiko dugunez, gazteen eta politikaren arteko harremana aldatzen ari da. Beraz, litekeena da politizatze eta mobilizatze beste eredu batzuetarako trantsizioan egotea, Bilgune Feministako kideak iradoki duen bezala.

Aurreko atal batean aitzinatu dugun legez, despolitizatzea eta politizatzea ez dira kategoria absolutuak. Hartara, ez dute kontrajarritako gazte taldeak bitan sailkatzeko balio. Aitzitik, mailaz mailakako *continuum* batean irudikatu daitezkeen kokapen desberdinak ditugu, gazteen partaidetza gradua ulertzen lagun gaitzaketenak.

Hala ikusi dute ibilbide politiko luzea duten gazte batzuek ere. Adibidez, elkarrizketatu batzuen arabera, despolitizatzeaz (edo desmobilizatzeaz) hitz egin beharrean, inplikazio mailaz hitz egin behar litzateke. Euskara Elkarte bateko kideak inplikazio mailaketa jarri du mahai gainean. Bere eskualdeko Euskalgintzan, esate baterako, noizean behingo ekimenetarako gazteen atxikimendua lortzea ez zaie zaila egiten baina, azpimarratu digu, gero, gazte horiek ez dutela pausurik ematen elkarte jakin bateko kide bihurtzeko. Euskara Elkartetik bultzatzen dituzten ekimenetan parte hartzen ikusten ditu, nahiz eta onartzen duen, lehen bezala orain ere, “bost katu” direla asko inplikatzeko direnak. Azken adierazpen horiek ere joera nabarmen bat erakusten digute: gazteen partaidetza ekimenak eta aktibismo ereduak bilakaera prozesuan daude; gero eta gazte gehiagorentzat, ekimenak noizbehinkakoak eta iraunkortasunik gabeak izan ohi dira, eta bitartekaritza gabe gauzatzen dira sarritan. Maiz aski, kausa bakar baten inguruko ekitaldiak izan ohi dira, jaria kortasun handikoak.

Ildo berean, Astrako kide batek ere nahiago du inplikazio mailaz hitz egin despolitizatzeaz baino, eta adinarekin eta generoarekin lotzen du arestian aipaturiko mailaketa hori. Berak dioenez, ekimenetan parte hartzeko joera gutxitu egiten da adinean aurrera egin eta bizi-zikloak eta bizi-baldintzak aldatu ahala (emakumeen kasuan bereziki, generoari buruzko atalean adierazi den bezala).

Azkenenean lanagatik uzten dituzu zati batzuk, orain familia bat sortzeko ideia daukat..., gogoia ez da aldatzen, konpromiso maila igual bai, baina gogoak berdin jarraitzen du. (...) prozesu natural bat izan da. Igual 18-28 urteen arteko garaia intentsoagoa izaten da, eta igual 30 urteetatik aurrera apur bat, naturalki, intentsitate hori jaisten doa, baina gogoia eta inplikazioa hor daude oraindik (Astrako kidea).

Azkenik eta atal honekin bukatzeko, esan dezagun elkarrizketatuek politikari buruz duten ikuskera orokorrak politikaz, politikagintzaz eta despolitizatzeaz agertu duten iritzia baldintzatu duela. Beraietako batzuek despolitizatutzat jo dute beren burua erakundeetatik eta alderdi politikoetatik urrun sentitzen direlako. Alabaina, ohiko politika instituzionaletik at ibiltzeak ez du esan nahi beste jarduera batzuetan ez dabilzanik, nahiz eta beraiek ez duten politikotzat jotzen dena delako aktibitate hori. Izan ere, munduan zabaltzen ari diren agenda politikoen eta gazteek gero eta barneratuago dituzten balio post-materialistek gai berriak ekarri dituzte plaza publikora, askotan ohiko definizioetatik at daudenak. Ildo horretatik, Bilbon elkarrizketatutako neska baten adibidea ondo datorkigu egoera kontraesankor hori irudikatzeko: ohiko politika tradizionalen interes gutxi badu ere, animalien eskubideen auzian arreta handia jartzen du, eta kausa horren alde ekiteko grina nabari zaio: “Yo, por ejemplo, soy súper animalista y puedo tener una conversación de dos horas con un amigo sobre el tema de los toros” (ELK-Bilbo-neska). Horrez gain, animalien ongizatearen aldeko sinadura bilketetan ere parte hartu izan du. Alabaina, “politikatik” (hau da, bere ulkeran, politikagintza instituzionaletik) kanpo kokatzen du bere burua, egoera berean eta antzeko esperientzia daukaten beste gazte askoren antzera.

4.2.2. Despolitizatzearen arrazoiak

Orain artekoa ikusita, politika instituzionalari buruzko urruntasun sentimendua gazteengan orokor samarra dela ondoriozta genezake. Izan ere, gero eta nabarmenago agertzen da gazteen hitzetan, sistema demokratiko liberaletan ohikoa den politika moldeekiko desafekzioa. Era berean, sentimendu horrek desmobilizazioa eragiten du, maiz, gazte askoren artean. Baina, ikusten ari garenez, politikagintzan aritzeko modu berriak ere loratzen ari dira. Bigarren gai horren azterketa sakonagoa hurrengo atalerako utzita, analiza dezagun orain zer nolako faktoreak identifikatu dituzten elkarrizketatuek ohiko politikari buruzko gazteen ustezko desmobilizazioa azaltzeko:

1. Alderdi politikoez ez dute esparru publikoaren eta gizartearen arteko zubi-lana betetzen. Gazte gehien gehienek adierazi dute alderdi politikoak urrun sentitzen dituztela. Batzuetan, urruntasun fisikoaz mintzo dira: hots, urrun antzematen dute alderdi politikoen eta politikarien jarduna, bai beraiengandik, bai gizartetik, oro har. Jendearen eguneko bizitzako gorabeheretatik at duten kokapen hori “kalean ez egote” esamoldearekin adierazi dute behin baino gehiagotan. Ezkerraldeko bazterketaren aurkako talde bateko kidearen arabera, horren arrazoietako bat gehiegizko instituzionalizazioa izango litzateke: “han hecho que se pierda mucho la calle para llevar todo a lo institucional”. Baieztapen horrekin ados agertu da Gasteizko eztabaida taldeko partaide bat ere: ez zaio nahikoa iruditzen ezbeharren bat gertatzen denean, politikariak beren babesa hedabideen bidez agertzea; bere ustez, sufritzen ari den jendearengana gehiagotan gerturatu beharko lukete:

Cuando hubo inundaciones en Mallorca salió el Presidente un día con su traje y tal, ¿pero quién está ahí sacando tierra del pozo? La gente de allí y gente que se presta a ayudar. Que está muy bien decir lo mal que está cierta gente, pero si lo dices, ponte a ayudar con ella, pero ayuda activa (ET-Gasteiz).

Iruñean elkarrizketatutako kide batek ere ildo berean hitz egin du: bere ustez, alderdi politikoez ez dute gizartearen aldeko lanik egiten, ez ditu herritarrengandik gertu ikusten. Adierazi du ez dituela politikariak kalean ikusten eta, horregatik, ez duela alderdi bakar bat ere gustuko. Hainbat elkarrizketatuk urruntasun kognitiboa ere aipatu du, hots, informazioan, komunikazioan, ordezkartzan edo eredugarritasunean urrun sentitzen dituztela alderdi politikoak. Are gehiago, ez dituzte sistema politikoaren eta gizartearen arteko bitartekaritza lana eraginkortasunez betetzeko gai ikusten instituzio horien funtzionamendu motagatik. Urruntasun horren ondorioa, gehientsuenetan, desmobilizazioa izaten da, betiere, politika egiteko ohiko eredu instituzionalaren esparruan.

2. Gazteen interesak ez daude ordezkaturik sistema politikoan. Elkarrizketatuen arabera, gazteen ahotsa entzutea eta beren kezkek eta interesak kontuan hartzea behar beharrezkoa da politikan inplikaturik senti daitezen. Baina, nabarmendu dute hori ez dela askotan gertatzen, eta horrek frustrazioa eta etsipena sortzen dizkiela; desmobilizazioaren eragileetan arrazoi hori oso aintzat hartzekoa dela uste dute.

Gure elkarrizketatuek gazteen etsipenari buruz hitz egin dutenean, oro har, bi posiziotatik egin dutela iruditu zaigu. Batetik, politikoki inoiz antolatu ez diren gazteak izan ditugu, inguruko mobilizazioek lorpenik ekarri ez dutela iritzita, seriooki konpromisorik hartzeko grinarik garatu ez dutenak. Gutxien politizaturik dauden gazte horiek, hain zuzen ere, uste dute baliabide eta gaitasun urri dutela beren eskuetan esparru politikoan aritzeko eta gauzak aldatu ahal izateko. Bestetik, modu batera edo bestera mobilizatu diren gazteak izango genituzke baina, hauen kasuan ere, emaitzarik ez ikustean, nolabaiteko nekea sumatu dutenak. Heldu diezaiogun, hasteko, lehendabiziko taldeari.

Gasteizen elkarrizketatutako neska batek argi adierazi du erakundeek muzin egiten diotela gazteen ahotsari, ez dituztela ordezkutzen; elkarrizketatu horrek hor kokatu du arazoaren muina. Haurrak balira bezala tratatzen dituztela sentitzen du, inolako ulermen gaitasunik izango ez balute bezala, eta gaineratu du beren iritziak ez dituztela errespetatzen. Baieztapen horrekin ados agertu da Bilbon elkarrizketatutako mutila ere: “Es que yo creo que hasta que llega una edad, que no sé muy bien cuál es, parece que no existes; estás ahí pero tus opiniones no se tienen tanto en cuenta como otras” (ELK-Bilbo-mutila).

Ildo berean mintzatu dira Donostian elkarrizketatutako mutila eta EGIko kidea ere. Iruditzen zaie gazteek ez dutela politikarekiko interesik, politikak onura zuzenik eta pertsonalik ekarriko ez diela uste dutelako; horregatik sentitzen dute urrun politika eta politikagintza, beren egunerokoarekin lotzen ez dutelako:

Nik uste dut pentsatzen dugula ez gaituztela ordezkutzen eta ez direla saiatzen gure arazoak konpontzen, eta beraien interesa dirua irabaztea dela (...) Esango nuke oso distantzia handia ikusten dugula egiten dituzten gauzen eta guk pentsatzen ditugun gauzen artean (ELK-Donostia-mutila).

Gasteizen elkarrizketatutako mutila ere iritzi berekoa da; ez du uste politikariek gazteen interesak ordezkutzen dituztenik, eta zalantzan jartzen du zerbaiten alde mobilizatzeak ezertarako balio duenik, gero politikariek entzungor egiten badiete: “Puedes salir a la calle a manifestarte, puedes reivindicarte y eso, pero igual te escuchan o igual no. Yo creo que, generalmente, no se nos escucha”.

Enpleguaren gaia etengabe atera zaigu elkarrizketatuen diskurtsoetan. Zalantzarik gabe, esan daiteke elkarrizketa eta eztabaida talde guztietako muinetako bat izan dela. Bada, era guztietako eta politizatze maila guztietako gazteek identifikatu dute, aho batez, kezka hori, eta kezka horren inguruan sistema politikoari egindako eskaria. Ez da harrizkoa gazteen arrangura, aintzat hartzen badugu merkatu-lanaren egoerak gaur eguneko gazte jendearen bizi proiektuetan sortzen dituen ziurgabetasuna eta egonezina. Ildo horretan, gazte asko ohartu da gobernu eta administrazio desberdinen politika publikoek aktore ekonomikoen faboretan jokatzeko dutela eta ez herritarren babesaren alde. Adibidez, Ezkerraldeko eztabaida taldeko kideen ustez, erakundeek ez dute batere ondo jokatzeko lanpostuak sortzeko politikekin, eta ematen dituzten diru laguntzak gehiago dira enpresariarentzat gazte langileentzat baino. Bilbon elkarrizketatutako neska batek gaineratu du alferrik dela horren aurka manifestatzea, politikariek entzungor egiten dietelako gazteen eskariei eta ez dutelako inolako neurririk hartzen.

3. Aktibismoak eragindako frustrazioa eta eraginkortasun ezaren sentimendua. Zertarako ekin ezer lortzeko itxaropenik gabe? Frustrazioa aipatzen du elkarrizketatu askok. Ekimen politikoetan parte hartu eta horrek inolako lorpenik ekartzen ez diela sentitzeak eragiten dien frustrazioa da. Eta nekea, ahaleginak eta bi egin arren, fruiturik ez jasotzeak eragiten duen akidura. Horrek, jakina, erabateko desmobilizazioa ekar dezake luzera, gazteen ustetan. Herri ekimenetan ibiltzen den Donostiako gazte batek aipatu du aktibismoak, maiz, frustrazioa eta etsipena eragiten dizkiela, hain zuzen ere, lorpen handirik eskuratzen ez dutelako edo prozesuak oso luzeak izan daitezkeelako: “Pentsatzen egon naiz, eta egia da militantzian gauza asko ez direla lortzen, eta frustrazioan edo ezintasunean erortzen zarela, orduan, horren aurrean eutsi behar da”.

Tankera bereko baieztapena egin du Gure Esku Dago-ko kideak ere: erabakitzeko eskubidearen aldeko dinamikan belaunaldi gazteak erakartzeko ahalegina egin baitute, baina, ez dute lortu haiek beren ekimenei lotzea. Eta ELAko kideak, bere aldetik, lehen pertsonan hitz egin du militantziak eragindako frustrazioaz. Izan ere, erakunde politiko konbentzionalen barruan (alderdi politikoetan nahiz sindikatuetan) eta organizazio desberdinetan ibili diren edo gaur egun diharduten gazteek ere aitortu dute, behin baino gehaigotan, erakunde horiek mugak dituztela gauzak aldatzeko.

Niri militantziak frustrazio puntu bat eragin izan dit, daukazulako sentazioa karrotik beti tiratu behar izatearena, azken finean ikusten nuen jendeak ez zuela interes handirik mugitzeko eta askotan sortzen

zizkidan zalantzak ea nire historia zen edo historia kolektiboa bat zen, eta baldin bazen historia kolektibo bat, ez zeukala zentzurik. Eta bestetik, funtzionatzeko ereduan konpromiso ezberdinak daude, orduan frustrazio asko, gauzak ez ziren lortzen... (ELA sindikatuko kidea).

Ildo berean mintzatu dira Bilbon elkarrizketatutako neska bat eta Ezkerraldeko eztabaida taldeko kideak ere. Antzua dela azpimarratu dute auzi soziopolitikoekin lotutako protestetan parte hartzea, alferrikakoa; eta hori islatzeko zezenketen gaia, erretiratuen erreibindikazio saioak edo feminismoaren mobilizazioak aipatu dituzte:

Es como con el tema de los toros en Bilbao; se le presentaron al alcalde no sé cuántas mil firmas y el hombre lo que dijo es que no era un tema de interés popular y que no las iba a quitar. (...) Y yo creo que esas cosas igual aumentan esa frustración (ELK-Bilbo-neska).

¿Para qué me voy a movilizar? Ahí tenemos a los jubilados todos los lunes, ¿y para qué sirve? Hemos salido a manifestarnos por temas feministas o simplemente por la igualdad..., ahí puede parecer que empieza a haber algún cambio, pero tampoco... (ET-Ezkerraldea).

Horrenbestez, horixe dugu, elkarrizketatu askoren ahotan, gazteen despolitizaziorako arrazoi nagusitako bat: erakundeek gazteei entzungor egitea eta dituzten beharrei muzin egitea. Testuinguru horretan, ikusten da gazte askoren parte hartze politikoa modu zatituan, puntualean eta denboran jarraipen laburra duten ekintzetan gauzatzen dela gehiago, epe luzeko eta jarraipen handiko ekintzetan baino. Horrela, gutxien politizaturik dauden gazteen kasuan, parte hartzea errazago gauzatzen da sona mediatiko eta sozial handia hartu duten behin behineko protestetan edo unean uneko elkarretaratzeetan; adibidez, biolentzia matxistaren aurkako ekintzak edo martxoaren 8ko manifestazioak askotan aipatu dira ildo horretako parte hartze modura.

Era honetako adierazpenetan, eraginkortasun politikoaren inguruan garatzen ari diren bi joera paralelo antzematen ditugu. Lehenik, eraginkortasun-eza sistemikoa, hau da, ohiko instituzio politikoek agertzen dituzten muga gero eta argiagoak herritarren premiak identifikatu, jaso eta erabakigune politikoetara helarazteko gaur egungo sistema politikoetan. Bigarrenik, lehen joera horrekin batera (eta haren ondorioz), herritarrek, bereziki gazteek, sentitzen duten ezintasun pertsonalaren pertzepzio gero eta indartsuagoa. Azken urteotako ikerketek erakutsi duten moduan, kultura indibidualizatuan arazo sistemikoak porrot indibidual modura bizi ditu norbanakoak. Hain zuzen ere, beste inon baino argiago ikusten dugu bizipen hori arlo politikoari buruz gazteek dituzten pertzepzioetan.

4. Informazio gabezia, hezkuntza politikorik eza eta ezjakintasuna. Kokapen sozio-ekonomikoari, kultura kapitalari eta gaitasun politikoen jabetza mailari lotutako egiturazko gabeziak ere aipatzen dira elkarrizketa batzuetan, bereziki, politikaz interes edo ardura gutxien duten gazteen kasuan. Izan ere, arestian aipatu dugunez, lehen ikasketa politikoek baliabideez hornitzen dituzte haur eta nerabeak beren herritartasunaren eraikuntzan. Hain zuzen ere, baldintza sozial, kultural eta familiarrak tarteko, ikasketa politiko horiek ahulak direnean, gazteak ezinduta sentitzen dira (maila edo gradu desberdinetan) esparru politiko gero eta indibidualizatugoa aritzeko. Ildo horretatik, elkarrizketatu askok interes gabezia baino gehiago informazio falta dutela adierazi du; hori ikusten dute ez mobilizatzeko arrazoiaren artean. Gasteizen elkarrizketatutako mutil batek, adibidez, adierazi du politikari buruzko ezagutza txikia duela eta, ondorioz, parte hartu eta hitz egin beharrean, entzutera mugatzen dela:

Yo tampoco es que sea una persona que tenga mucha idea de política (...) Yo con el tema de la política soy más de escuchar que de hablar; cuando habla mi padre o mi tío de política yo les escucho, porque creo que no tengo mucho que aportar, tengo mi opinión, pero no tengo mucho conocimiento tampoco (ELK-Gasteiz-mutila).

Bestalde, esparru politiko modernoak autonomia handia hartu du gizarteari dagokionez eta, ondorioz, bere instituzio, legedi, antolakuntza konplexu eta hizkera propioak garatu ditu. Hain zuzen ere, kode kultural eta funtzionamendu molde horiek ezagutu behar dira hura ulertzeko eta, are gehiago, hartan parte hartu ahal izateko. Bestalde, gazteen azpikulturak, balioak eta hizkerak asko eta azkar aldatzen ari dira gaurko egunean, orain arte ezezagunak izan diren norabideetan. SOS Arrazakeriako kideak aipatu du, adibidez, ez dela gehiegi jabetzen politika instituzionalaren jardunaz eta, beraz, ez duela erakartzen: “egia esan ez naiz enteratzen ere, ez dut sentitzen gune bat bezala hara joateko, oso urrun ikusten dut”. Baina zerk eragiten du, elkarrizketatuen iritzitan, ezjakintasun hori?

Elkarrizketatu gehienek uste dute erakundeek beraiek eragiten dutela gazteek politika instituzionalarekiko sentitzen duten urruntasuna eta informazio falta. Ezkerraldeko eztabaida taldearen arabera (beste hainbat elkarrizketatu ere bat dator ideia horrekin), politikariak ez dira ahalegintzen herritarrak informatuta egon daitezen. Ekologistak Martxan taldeko kideak, bere aldetik, komunikazio arazoa jarri du erdigunean: politikarien hitz egiteko modua konplexua eta ulertezina iruditzen zaio eta, gainera, ahotan hartzen dituzten gaiak herritarrari oso urrun geratzen zaizkiola uste du. Hizkera horrekin hizlariak bere jakintza agerian utzi nahi duela gaineratu du elkarrizketatuak; herritarrek diskurtso politikoa ulertzeko interesa bigarren mailan geratuko litzateke horrela. Oro har, politikarien hizkera, estetika eta jarrera, gazteen kulturetatik aldentuta daude; politikarien ohiko irudikapen soziala arrotza da gazteentzat.

Iritzi bera du Iruñean elkarrizketatutako gazte batek ere. Bere hitzetan, ulergarria da herritarrek politika urrun sentitzea politikarien diskurtsoak ulertezinak izanda: nola egin lezake inork alderdi baten alde zer defendatzen duten ulertu gabe? Oso esanguratsuak dira elkarrizketatuaren hitzak:

Tampoco entendíamos nada de política. Y luego veíamos a los políticos que sólo pedían el voto... ¿perdona? Si no sabemos ni lo que nos estás vendiendo y ni siquiera te entendemos. Y tampoco se meten en la realidad de los ciudadanos, no miran por el ciudadano. (...) En general la política no me atrae, porque no entiendo la forma que tienen de hablar; hablan con un vocabulario antiguo (ELK-Iruñea-neska).

Gasteizko taldeko kide bat ildo beretik mintzatu da. Politikarien komunikatzeko moduak gardenagoa izan behar lukeela nabarmendu du, eta egiten ari diren hori modu argiagoan azaldu behar lieketela herritarrei:

Dentro de la política yo creo que tampoco ha habido mucha cultura de comunicación transparente. (...) Yo creo que hace falta más de eso: de comunicación clara y concreta sobre lo que se está haciendo y lo que no se está haciendo. (...) Yo creo que uno de los problemas que tenemos es que tenemos ciertas barreras con la falta de información, y sólo vemos lo que nos quieren enseñar (ET-Gasteiz).

Uribealdeko sozioekologia taldeko kideak hezkuntza sistemaren erantzukizuna jarri du mahai gainean. Izan ere, jasotzen dugun hezkuntzak ez du, bere ustez, ikaskuntza politikorik bermatzen eta, heziketarik gabe, gazteek arrotz sentitzen dute, oso, politika instituzionala:

Guri ikasten dugunean ez digute erakusten ikasketa politiko bat, txikia bada ere. Eta horrek egiten du gero instituzioak ikustea besteen gauza bat bezala. (...) Eta niri pena handia ematen dit, ze ikusten dut gero eta gazte gehiago esaten duena politika ez zaiola gustatzen, eta, lehen esan dudan moduan, politika guztia da (Uribealdeko sozioekologia taldeko kidea).

Donostian elkarrizketatutako mutil batek ere hezkuntzaren auziari heldu dio; adierazi du egungo hezkuntza sistemak irakasten dituen balioek, gero beste hainbat esparrutan erreproduzitzen diren horiek, jendearen pasibotasuna bultzatzen dutela eta ez dutela gizarte gaiekiko interesik sustatzen:

Hezkuntza sisteman, adibidez, ez dute uzten norbanakoaren autonomia sustatzen, ez dutelako hausnarketa kritikoa egiteko gaitasuna ematen. Etxean, kalean, koadrillan erreproduzitzen diren baloreak eta ereduak ere badira guztiz zapaltzaileak, guztiz baztertzailak... (Herri ekimenetan diharduen Donostiako gaztea).

Ikuskizunaren gizartean informazioa zabaltzeko eta narratiba hegemonikoari aurre egiteko aukera handiagoa dagoela dioen arren (sare sozialen bidez, adibidez), Donostiako Piratak-eko kideak nabarmendu du orain dela gutxira arte informaziorik gehiena “sistemaren” filtrok pasatzen zela, eta hark erabakitzen zuela zer zen egia eta zer ez. Eta honako hitz hauek gaineratu ditu: “Uste dut sistemak gastatzen dituela milioiak eta milioiak futboleak eta beste mila gauzatan eta, aldi berean, gauza garrantzitsuagoak ez zaizkiola iristen jendeari telebistaren bidez”.

Ikuskizunak ikuskizuna eskatzen du. Gai politikoak lantzen dituzten telebista kateetan eta irratsaioetan ere, maiz, ikuskizuna gailentzen zaio edukiari. Gasteizko taldeko kideek eta Bilbon elkarrizketatutako mutilak iritzi hori dute:

A mí me parece que lo que nos llega es lo que ellos quieren que nos llegue: que si se insultan, que si no sé qué... (ET-Gasteiz).

No, nunca he votado. Es que no veo dónde puedo hacerlo; me parece la misma tontería con distinto color. Además, muchas veces te intentas informar de cada partido qué es lo que hace, pero luego ves las cosas en televisión o en Twitter..., que yo Twitter no tengo, pero te acabas enterando de cosas que pasan..., y es que sólo veo que se lanzan los trastos los unos a los otros y poco más (ELK-Bilbo-mutila).

Hortaz, politika instituzionalaren eta politikari “profesionalen” mundu bereziak, espezializatuak eta arrotzak urrundu egiten ditu gune horretatik bestelako kultur kodeak eta hizkerak erabiltzen dituzten belaun gazteenak. Alde batetik, esparru politikoa gero eta gotortuago agertzen da, gizartetik at. Beste alde batetik, orain arte ikusitakoaren arabera, badakigu, jakin, esparru politikoan herritar izateko baliabide batzuk behar dituztela gizartekideek. Errekurtso horiek sozializazioan eta jardun politikoan eskuratzen dira. Baina, egiturazko asimetria sozialek eta beste faktore batzuek desberdintasunak eragiten dituzte ikasketa eta eskuratze prozesu

horietan. Hartara, baliabide eta gaitasun politikoek banaketa ez da homoginoa gure gizartean. Testuinguru horretan ulertu behar da ezagutza eta gaitasun politiko gutxiago duten elkarrizketatuek politikariei egotzitako erantzunkizuna: politikariek herritarrak informatzeko helbururik ez izatea, lengoia konplexua erabiltzea, edo interesatzen zaien informazioa soilik zabaltzea. Arrazoibide horiek mahaigaineratu dituzte gazteen ezjakintasuna, politikarekiko interesik eza eta desmobilizazio falta azaltzeko.

5. Politikagintzaren ustelkeria eta iruzurra. Arrazoi hori ere aipatu du elkarrizketatu ugari, alegia, politikagintzan dagoen ustelkeriak eta politikari askoren jardunari darion iruzurrak eragin handia izan duela gazteen desmotibazioan eta desmobilizazioan. Gazteek egindako argazki horretan, dudarik gabe, eragin handia izan dute etengabeko zaparradan masa hedabideek eta sare sozialek, modu espektakularizatuan, zabaltzen dituzten mezuek. Herri pentsamoldean ainguraturik geratu diren irudi horiek berrindartu egin dituzte gazteen iritzi ezkorrak (batzuetan, estereotipatutako irudikapenei ere atea zabalduta: “alderdi politiko guztiak dira berdinak”, “politikari oro dago usteldurik”, “ez dago ildo ideologikorik edo proposamen politikorik bereizterik”, “guztiak ari dira lapurretan”, eta abar). Adibidez, Bilbon elkarrizketatutako neska baten ustez, horrek eragin du politika instituzionalarekiko gazteen gaitzespena, eta iritzi berekoak dira Gasteizko eztabaida taldeko kideak ere:

Como hay tanta corrupción y tanta cosa... Yo creo que la política se ve como tan oscura y tan fea y tan misterioso todo que hay un rechazo hacia ella (ELK-Bilbo-neska).

Creo que negativamente ha tenido mayor influencia la corrupción; yo creo que eso sí que ha creado un daño mucho más irreparable en nuestra generación para que haya desafección sobre la política. Eso no hace que se hable menos o que se tenga miedo a hablar, sino que ha generado un desinterés completo al respecto (ET-Gasteiz).

Iruñean elkarrizketatutako mutilaren hitzetan, politika instituzionalean muturra sartzen duen orok dirua irabaztea du helburu eta ez du herritarren onurarik bilatzen, inondik inora ere. Gasteizen elkarrizketatutako mutil bat ere haserre agertu da politikariek gizartearentzako ereduak jarrerarik izaten ez dutelako. Arrakala handia ikusten du: gazteak lan egoera zailetan dabiltza eta politikariek, aldiz, soldata ikaragarriak poltsikoratzen dituzte. Hori gutxi ez, eta diru publikoaz baliatzen ikusteak amorrua bikoiztu egiten diela gaineratu du. Arrazoi horregatik erabaki zuen berak hauteskundeetan parterik ez hartzea, eta iruditzen zaio gazte askori gauza bera gertatzen zaiola, eta horrek eragiten duela gazteek ohiko politikan konfiantzarik ez izatea:

[Los jóvenes] ven que trabajan un montón y que cobran una mierda, y por otro lado, ven a los políticos que ganan un pastizal y encima roban..., pues es normal que se cabreen y que no les voten. Habrá más cosas, pero esa es una razón importante (ELK-Gasteiz-mutila).

Donostian elkarrizketatutako mutila ere bat dator goiko iritziarekin. Esaten du gazteen eta erakundeen arteko arrakala handiegia dela, gazteek nekez bizirauten dutela eta politikariak, ostera, aberasten eta lapurtzen ari direla:

Ustelkeria ikustea edo ikustea jendeak arazoak dituela lana bilatzeko, edo bankuen kontu guztia, edo obra publikoekin egin duten gastu pila hori..., eta gainera ikustea jarraitzen dutela hori guztia justifikatzen...,

ba guzti horrek kriston kontraesan bat sortzen digu. Eta horrek distantziamentua handitzen du. Gure errealtatea da soldadak murrizagoak direla, jendeak kanpora joan behar duela, ez dagoela estabilitaterik lanean... (ELK-Donostia-mutila).

Ustelkeriari iruzurra gehitzen zaio. Iruñean elkarrizketatutako kideak horretan jarri du arreta. Dioenez, politikariek ez dute betetzen hauteskunderen garaian gazteei (eta herritarrei) agindutakoa; aitzitik, jan egiten dute hitza etengabe. Iritzi berekoa da Gasteizko taldeko kide bat ere. Izan ere, etsipengarria iruditzen zaio agindutakoa ez betetzea eta, are okerragoa, gero inork konturik ez eskatzea:

Para mí todo lo que dicen es humo, porque en las elecciones te dicen los puntos que se supone que van a hacer, y luego, ¿cuántos salen? ¿Uno? Es que es puro humo; es decir, lo que quiere oír el pueblo para conseguir su voto y punto. Es muy triste que no cumplan lo que prometen y que no haya nadie que exija que lo cumplan (ET-Gasteiz).

Esanguratsua da, esate baterako, beste esparru batzuetan oso aktiboa den SOS Arrazakeriako kideak bere burua gazte “ez politizatu” gisa definitzea. Bere hitzetan, ez du politikaren esparruan herritarrei ekarpenik egingo dien inor ikusten, eta uste du sentimendu horrek politikari buruzko urruntasuna areagotzen duela gazteengan. Esan genezake, honenbestez, politikariek ereduazko jokamolderik ez izateak, neurriren batean, kezka sozialekin kontzientziatuta dauden gazteak ere politika instituzionaletik urruntzen dituela.

6. Hezkuntza-eredu indibidualizatuaren eragina. Izan ere, batzuen ustetan, gaur egun nagusi den hezkuntza ereduak produktiboak izateko eta norbanakoen artean lehia egiteko prestatzen ditu gazteak, ez beste ezertarako. Are gehiago, elkarrizketatu batzuen iritziz, gaur egungo hezkuntza beldurraren hezkuntza da. Eta gazte gaztetarik inokulatutako ikara horrek desmobilizatu egiten du gazteria. Izan ere, gazte jendearen egungo kezka eta xede nagusiak enpleguaren esparruan kokatzen dira. Hain zuzen ere, esparru horretara bideratzen dira gazteen ahalegin guztiak, hezkuntza ereduak ere horretara bultzaturik. Ildo horretatik, Gasteizko eztabaida taldean beldurrak gazte askorengan sortzen duen otzantasuna hartu dute gogoan:

Yo creo que no les interesa ayudar. Yo creo que nos están educando, sobre todo en nuestra edad, en la educación del miedo, del “no voy a decir esto porque igual no consigo trabajo”, “voy a estudiar esto porque tiene salidas y no porque sea de verdad vocacional”... En ese sentido, yo pienso que a las instituciones no les interesa esa ayuda. (...) es el miedo y la sumisión que nos han creado. Es decir, si tú tienes trabajo y sales a la huelga y te ve la empresa, y puede coger a otra persona más sumisa. Entonces, hay gente que querría protestar, pero nos han educado en la forma de tener miedo a perder lo poco que tenemos. (ET-Gasteiz).

Gasteizko talde eztabaidako kide batek horrela laburbildu du botere publikoen aldetik sentitzen duen kontrolaren sentsazioa: “A veces parece que quieren crear esclavos. Quieren que estemos callados por miedo a cómo pueda reaccionar el que tiene el poder por encima de nosotros” (ET-Gasteiz). Hori guztia areagotu egiten da, gainera, krisi ekonomikoaren garaian. Bereziki nabaritu da elkarrizketatuen diskurtsoetan joan den hamarkadako atzeraldi ekonomikoaren itzala. Ikertzaile batzuek “Arriskuaren Gizartea” deitutakoaren kulturak bere adierazpenik argiena dauka gaur egungo gazteen artean enpleguaren egoerak sortutako ziurgabetasunean. Bada, ziurgabetasun horrek, halaberharrez, gazteen bizitzako arlo guztiak kutsatzen ditu; azken finean, bizitza bera, bere osotasunean. Ildo horretatik, Gasteizen elkarrizketatutako mutil bat eta hiri bereko eztabaida taldeko

kideak, esaterako, bat datoz krisi ekonomikoak gazteen desmobilizazioan duen eragin zuzena azpimarratzean. Enplegua galtzeko beldurra eskubideen aldarrikapenak eta mobilizazioak gutxitzen ditu:

El problema es que hoy en día, especialmente después de la crisis, yo creo que la gente tiene más miedo a perder su trabajo por hacer una huelga o lo que sea, entonces, yo creo que la gente está en parte paralizada y no se involucra (ELK-Gasteiz-mutila).

Pero porque hay miedo. Porque ha habido una crisis que a nosotros económicamente no nos ha afectado, pero sí a nuestros padres. Y en la tele te enseñan lo que te quieren enseñar, y ves a gente que le han desahuciado con hijos, y te meten el miedo (ET-Gasteiz).

7. Gazteen erosotasuna indibidualismoaren gizartean. Horixe izango litzateke, elkarrizketatu askorentzat, desaktibazio politikorako beste arrazoietako bat, alegia, gaurko eredu sozialak sustatu duen kultura indibidualista. Gasteizen elkarrizketatutako mutilak, Iruñean elkarrizketatutako mutilak, eta Iruñeko eztabaida taldeko kideek faktore horretan jarri dute arreta: gizarte gero eta indibidualistagoan eta egoistagoan bizi garela uste dute, eta kezka handiz begiratzen diote bilakaera horri, ez baitute horrelako kulturarik nahi hurrengo belaunaldientzat. Baina, sistemak lehiakortasunean hezten gaituela gaineratu dute Gasteizko eztabaida taldeko kideek. Beste batzuek ere bat egin dute ikuspegi horretan, hala Uribealdeko sozioekologia taldeko kideak nola Donostian elkarrizketatutako mutilak; lehia da gaur egun arau, eta ongizate orokorraren alde lan egitea bazter batean utzi da, haien ustetan:

Instituzioek eta hezkuntzak berak indibidualismoa eta gure arteko kompetentzia areagotu egiten dute, eta gainera esaten dute hori ona dela, ze horrela bultzatzen dugu norbera hobeagoa izatea; baina gertatzen dena da gero eta indibidualistagoak garela, eta orduan norberak begiratzen du bakarrik beragatik, eta horren indibidualista gara ez dugula ikusten besteak zein behar dituen (Uribealdeko sozioekologia taldeko kidea).

Hori, nire ustez, hezkuntza arazo bat da, edo behintzat hezkuntzarekin erlazionatuta dago. Nik uste dut gero eta konpetitiboagoak garela, eta orduan gero eta etsai gehiago eta lagun gutxiago dugu. Ez da oso konpetibitate sana, eta hori nabaritzen da talde giroa lortzeko, adibidez; orain zailagoa da talde giroa lortzea, duela urte batzuk baino. Eta hori lan giroan sumatzen da; bakoitza doa berera eta talde lana urrunago ikusten da. Nik uste dut egoistagoak garela... (ELK-Donostia-mutila).

Bilbon elkarrizketatutako neska batek ere egungo gizartearen indibidualismoa jarri du mahai gainean; bere hitzetan, helburu kolektiboak dituzten mugimenduek ez dute gazteen arretarik erakartzen, ez bada norberari zuzenean eragiten dioten auzietan. Hartara, indibidualismo horrek kutsu instrumental eta egoista itsasten dio ekintza politikoari.

Por ejemplo, a mí me parece estupenda la reivindicación de las pensiones y espero algún día tener pensión, pero mi reivindicación actual es poder irme de casa. Entonces, ahora mismo... igual es pan para hoy y hambre para mañana, pero solucióname mi problema actual, como el señor de 80 quiere que le solucionen su problema actual también. (...) cada cual busca lo suyo, o yo por lo menos (ELK-Bilbo-neska).

Iritzi berekoa da Gasteizko eztabaida talde bateko kide bat ere, ez du inolako itxaropenik indibidualismoaren kulturaren, ezinezkoa baita horrelako kultura batean *guztion ona* helburu izatea eta, are gutxiago, horren alde mobilizatzea:

Yo tengo nulas esperanzas en la unión de las personas, y me encantaría pensar de otra manera, pero es que veo que cada vez vamos a peor, y lo veo en el día a día. Creo que cada uno vamos a lo nuestro, si conoces a alguien le ayudas, pero si no le conoces no le ayudas. Y al final es eso lo que prevalece en la vida (ET-Gasteiz).

Gazteen desmobilizaziorako arrazoietan erakundeak, politikariak eta “sistema” aipatu badituzte ere nagusiki elkarrizketatu gehienek, hainbat diskurtsotan gazteen erantzukizuna ere agertu zaigu. Indibidualismoa erosotasunarekin lotu dute azken horiek, eta hor kokatu dute gazteen ez aritze politikoaren faktore nagusia: gazteak eroso bizi diren bitartean ez dute mobilizatzeko beharrik sumatuko. Aitzitik, norberak bere erosotasuna kolokan ikusten duenean, orduan mobilizatzen da. Iritzi berekoa da Gure Esku Dago-ko kidea ere; amorrua sentitzen du gazte askok politikari buruzko interesik agertzen ez duela ikusten duenean. Sinestezina iruditzen zaio ez bozkatzea, zenbait gertaeraren berri ez eskuratzea, edo hain formazio gutxi izatea. Zergatiaz galdetuta, gakoa gazteen erosotasunean dagoela uste du, ez baitu uste mobilizatuko direnik beren erosotasuna kolokan ikusten duten arte. Honako adibide hau aipatu du:

Udaletxeak ordenantza bat atera zuenean lonjen kontra, orduan plenoa bete genuen. Orduan mugitu ziren gazteak, euren lokala ukitu zutenean. (...) Gazteak mugitzen direlako bakarrik beraien erosotasuna kolokan dagoenean. Ni banago nire lonjan, ni banago nire porroak erretzen, ni banago hemen lasai-lasai, ez naiz arduratuko gure atetik kanpo gertatzen denaz (Gure Esku Dago-ko kidea).

Euskara Elkarte bateko kideak ere bat egin du iritzi horiekin; bere ustetan, gazteek dena eskura duten bitartean, eta gaur egun, oraindik ere, familian duten babes handia desagertzen ez zaien bitartean, ez dute beharrik sentituko lanik egiteko. Honela azaldu du berak:

Ematen du behar bat asetuta daukazunean horren beharrik ez sentitzera ailegatu zaitezkeela. Eta handik urte batzuetara, berriz, behar horiek edukitzen dira berriro. Eta gaur egun gazteei kanpotik hainbeste gauza ematen zaizkie... (...) Gazteek batzuetan babestu gabe daudela sentitzea uste dut ona dela, eta zenbat eta gehiago babestu, orduan eta behar gutxiago sentituko dute (Euskara Elkarte bateko kidea).

Aipatzen ari garen desmobilizazio horrek arrangura handia eragiten du elkarrizketatu askorengan. Gasteizen elkarrizketatutako neskak, esate baterako, kezka horren berri eman digu:

Hoy en día hay muchísima gente joven que no entiende nada de política y no tiene interés en ello. [Lo que les interesa es] salir de fiesta, escuchar reguetón... esas mierdas. (...) y me preocupa un poco. Por nuestro bien deberíamos preocuparnos un poco de lo que pasa (ELK-Gasteiz-neska).

4.2.3. Hauteskundeen balioa kolokan

Ustezko despolitizatzearen arrazoiak aztertzean, ikusi dugu politika instituzionalari buruzko axolagabetasun horrek zuzenki eragiten duela bozkatzeko hautuan ere. Bada, gazte askok (berezi, beren burua “ez politizatutzat” definitu duten horietako hainbatek) zalantzan jartzen du, baita argiro jarri ere, bozkatzearen balioa. Bestelakoa da “politizatu” moduan definitu diren gehienen ikuspegia. Erakunde politikoetan, sindikatuetan nahiz bestelako organizazio eta mugimenduetan antolatuta dabilzan gazteek arras argi dute hauteskundeetan parte hartzea garrantzitsua dela. Horietako askok, parlamentuz eta alderdiz kanpoko dinamika sozio-politikoetan parte hartuta ere, bateragarri ikusten ditu hauteskundeetan esku hartzea eta politika ordezkatzaille konbentzionalaren bideak erabiltzea, eta beste aktibismo mota batzuetan jardutea. Egia da, azken gazte horiek ere, behin baino gehiagotan, kritiko agertu direla alderdi politikoekin eta sistema politikoaren gainerako instituzioen funtzionamenduarekin. Izan ere, askok barru-barrutik ezagutzen dituzte alderdi politikoak, sindikatuak eta bestelako erakundeak, beren iraganeko ibilbidean edo gaur egun bertan horietan aritzen direlako. Horrela, desiluziozko zertzeladak ere ez dira falta egin dituzten balorazio batzuetan. Baina, aldi berean, esperientzia horrek zaildu eta trebatu egin ditu herritar sortzaile izateko, eta eskuraturiko ezagutzak eta gaitasunak eremu instituzionalean ez ezik beste toki batzuetan ere erabiltzeko. Adibidez, eguneroko bizitzako esparruetan sortutako ekimen politikoetan, eta lan mota alternatiboetan erabili dituzte gaitasunok. Bada, gaitasun eta ezagutza horiek metatu egiten dira. Beraz, habitus politiko landua duten gazteak aktibo izan ohi dira, gehienetan, politika instituzionalean nola handik kanpoko ekintza politikoan.

Gainerako gazteei dagokienez, elkarrizketek eta eztabaida taldeek hauxe erakusten dute: zenbat eta ahulagoa izan politizatzeko maila hainbat eta handiagoa da hauteskunde partaidetzari buruzko distantzia. Hain zuzen ere, elkarrizketetarako egindako gazte ez politizatuen soslaiak ezarri genituenean, aintzat hartu zen gazte horien bozka-jokabidea; zehazkiago, talde hori zedarritzeko, inoiz bozkatu ez duten gazteak, aldizka bozkatu dutenak eta bozkan hautu aldakorrak izan dituztenak hartu ziren aintzat. Esan bezala, talde horretako elkarrizketatuek, oro har, ez diote baliagarritasun handirik aitortzen bozkari. Are gehiago, mesfidati agertu dira hauteskundeen aurrean, ez baitute uste alderdi politikoek beren interesak aintzat hartzen dituztenik; maiz agertu da alderdi guztiak ezpal berekoak direla azpimarratzen duen diskurtsoa. Alfer lana iruditzen zaie bozkatzera joatea, ez dute inolako konfiantzarik hauteskundeetan, ez dutelako uste beren errealitatea ezertan hobetuko dutenik. Hona hemen tankera horretako iritzi-sorta bat:

Quizás tu voto no llega a donde tú querías (ET-Iruñea).

No sabía a quién votar, porque no me gusta ninguno. Son todos iguales, y si no gana uno va a ganar el otro y es lo mismo (ELK-Bilbo-neska).

¿Pero es que a quién votas? Si es que escuchas cada cosa que ya no sabes a quién votar. (...) yo de momento no voto y no creo que vote, porque no veo a nadie que me convenza (ELK-Gasteiz-mutila).

Dentro de la gente joven ¿cuánta gente no vota? Porque muchos piensan que votar no sirve de nada. Yo creo que eso es parte del problema: que vivimos en un mundo de engañosos (ET-Gasteiz).

Iruñean elkarrizketatutako neskek aitortu du bozkatzera joaten denetan ez dela eroso sentitzen eta, aldiro, bozka hautua aldatu egin duela. Alderdi politikoez sentitzen duten arrotasun horri buruz galdetuta, urruntasunaren eta iruzurraren gisako ideiak agertu zaizkigu berriro:

Yo no creo que votando se consiga nada, porque al final luego ellos deciden lo que hacen y hacen lo que quieren. Igual en los pueblos de la Ribera ves más piña, pero en Pamplona yo no veo esa afinidad. Tendrían que tener más cercanía con los jóvenes, no sólo decirnos cosas y luego no cumplirlas. A mí becas no me dan, y menos siendo hija única y viviendo con mis padres; te dicen literalmente que te lo paguen tus padres ¿Y si no pueden? (ELK-Iruñea-neska).

Politika instituzionalari buruzko konfiantza ezaren arrazoiak aztertzen ari garen honetan, elkarrizketatu batzuk kexu agertu dira hauteskudeen inguruan duten informazio faltaz. Iruñeko eztabaida taldeko kideek hori azpimarratu dute; hots, hauteskudeak, berez, balagarriak izan litezkeela baina, gazteek ordezkari sistema buruz duten ezagutza eskasa dela eta, ez dietela garrantzirik ematen. Esate baterako, Gasteizen elkarrizketatutako neskek adierazi du berak ez duela sekula bozkatu, ez dakielako botoa nori eman nahi dion. Eta joera orokorra dela dio bere lagunartean: “No. Total, para un voto más..., si al final siempre sale lo mismo. (...) En mi cuadrilla muchos pensamos lo mismo; de doce o así que somos, igual seis no hemos votado nunca”.

Hauteskudeetan parte hartzeko inolako motibaziorik ez dutela erakutsi dutenen alboan, beste batzuek tarteka parte hartzen dutela aitortu dute. Ezkerraldeko eztabaida taldean, adibidez, oso iritziz ezkorra agertu dute bai parte hartzeaz, bai hauteskudeez. Batzuk oso gutxitan joan dira botoa ematera, beste batzuk sekula ere ez. Joan diren aldietan, gainera, alderdi politiko batzuek hauteskudeak irabaz ez zitzaizkien bozkatu dute. Oro har, ez diote zentzurik ikusten bozka emateari, uste dutelako beren botoari ez diotela kasurik egingo boterean daudenek. Taldeko kide bat itxaropenik gabe agertu da:

Da pereza, porque no se ven cambios. Si vieras que cuando se vota o cuando la gente se moviliza hay una respuesta o se ve algo, pues yo creo que la gente se movería más, pero como todo sigue igual... (ET-Ezkerraldea).

Gazteen hausnarketarako eta gogoetarako interesik eza ere agertu zaigu. Elkarrizketatu batek baino gehiagok aipatu du gazte eta, bereziki, heldu askok ez dutela inolako gogoetarik egiten bozkatzeko garaian; alderdi berberaren alde egiten dutela beti, aukerei buruzko egiazko hausnarketarik egin gabe. Eta, modu horretan, gauzak ez direla aldatzen. Euren iritziz, tradizio politikoek oraindino belaun helduagoetan duten eraginaren ondorioa da hori. Hau da, uste dute gaurdaino inertzia batzuek iraun egin dutela, helduen artean batik bat, baina jende gehienak ez duela hautuaren inguruan pentsatzen eta, hartara, ez duela bozkatzeko duenaren kontzientzia handirik. Behin eta berriro errepikatzen diren adierazpen horietan ikusten dugu XX. mendean nagusi izan zen “leialtasunaren politika” arrotza egiten zaiela gazteen artean gazteenei; besteak beste, alderdi politikoez leialtasuna, klase sisteman oinarritutako lerratze politikoa, ezker-eskuinaren edo kidez nazionalaren araberrako sailkapen-sistema, tradizio politikoaren eragina, eta abar. Izan ere, lehenagoko komunitate eta atxikitze politikoak ahuldu egin dira XXI. mende hasierako urte hauetan, belaun arteko ordezkari tartean dela. Bestela adierazita, joan den mendeko alderdi-sistema lehiakorretan ohikoak ziren atxikimenduak eta kokaguneak ulertezin bihurtzen ari dira gaur egun gero eta gazte gehiagorentzat. Kode zaharkitua eta arrotza da eurek bizi eta ezagutzen duten egoeran.

Hay gente que les vota solamente porque es de aquí, aunque no concuerde con sus ideas (...) Hay gente que igual vota porque es el partido que votan en su casa y punto (ELK-Bilbo-neska).

Y lo vemos, sobre todo en este país, como a los equipos de fútbol; o sea, hay un tío que vota al PSOE y le va a votar siempre, pase lo que pase y haga lo que haga. Creo que la gente no tiene la cultura de saber elegir, porque por mucho que te guste un partido político, si crees que lo ha hecho mal, lo lógico es cambiar o informarte para poder cambiarlo. Creo que eso no existe en este país (ET-Gasteiz).

Arrotz duten sistema batean hala-nola parte hartzen dabiltzanen ondoan, badago ezagutza eta gaitasuna izanik, jarrera politiko modura hauteskunderetatik erretiratu denik ere. Ildo horretatik, zenbait elkarrizketatu oso kontziente da zergatik ez duen botorik ematen. Ez dute informazio faltarik, ezagutzen dute sistema politikoaren funtzionamendua baina, hain zuzen ere, ez dute bat egiten sistema horrekin, eta modu kontzientean erabakitzen dute hauteskontzira ez joatea. Gasteizko eztabaida taldeko kide baten hitzetan, adibidez, “zirkua” da hauteskunde sistema, eta alderdi politikoak merkatuko enpresa handien esanetara dauden “txotxongiloak”. Horregatik, ez dio inori botorik ematen:

A mí casi toda mi vida me ha interesado la política y he votado, pero es que cuanto más sabía sobre ella más absurda me parecía y más absurdo me parecía el voto. Por eso no voté la última vez, porque me parecía algo que no iba a servir. Por ejemplo, en Salvados entrevistaron a Pedro Sánchez cuando le echaron del PSOE, y él dijo que estaba hablando con Podemos, pero que Iberdrola le dijo que no, que si iban con ellos les quitaban el apoyo. Con ese ejemplo ves que ellos también son titeres. Entonces, yo he llegado a esa conclusión. Igual dentro de seis meses pienso de otra manera, pero, hoy por hoy, pienso que el voto es algo absurdo (ET-Gasteiz).

Talde horretako kide batzuek proposatu dute interesgarria litzatekeela inork ez bozkatzeari, alderdi politikoak egoeraz ohar daitezkeen bide bat izan litekeelakoan. Pentsatzen dute, beharbada, modu horretan herritarren eskaerak eta beharrak entzungo lituzketela:

Estaría bien, a ver qué pasa. Sería interesante. No sólo los jóvenes, sino que nadie vote. Igual así habría algún cambio (ELK-Gasteiz-mutila).

¿Y si el 60% restante no votara, qué pasaría? Al final sí, es verdad que si fuéramos todos a votar habría cosas que podrían cambiar, pero si no fuera nadie igual también. Lo que pasa es que siempre hay gente que va a votar. Digo que puedes plantear un lado o el otro (ET-Gasteiz).

Atal honi amaiera emateko, komenigarria da gogora ekartzea orain arte aipatu diren ikuspegiak, hau da, elkarrizketaturiko gazteek dauzkaten pertzepzioak, aintzat hartu behar direla, dudarik gabe, baina irakurketa soziologikoa ere eskatzen dutela gazte horien argazki erabat desitxuratua saihestu nahi badugu, behinik behin. Lehenik, gazte askok gazteriaz duen iritzi ezkorra (indibidualismoa, norberekoikeria eta antzeko ezaugarriak biltzen dituena) ez dator bat gero gazte horietako askok beren eguneroko bizitzan daukaten konpromiso sozialarekin eta arlo desberdinetan burutzen dituzten ekintzekin. Izan ere, era askotakoak dira iritzi horiek emandako gazteek berek boluntariorik egindako lanak, aisialdi eta kirol taldeetan garatutako jarduerak, kooperazioan gauzatutako esperientziak, eta maila apalagoan, protesta eta manifestazio ekitaldietan izandako

partaidetza ekintzak. Hartara, politikari buruz azaltzen dituzten iritzi kritiko horiek eta horren ondoriozko politikari buruzko “deskonexioa”, politika instituzionalaren testuinguruan ulertu behar dira, batik bat. Beraz, gazteak politika-molde jakin batetik urruntzen ari dira, bai. Hain zuzen ere, sistema demokratiko liberaletako politikagintza instituzionala dute jomugan beren kritikek. Sistema politiko demokratikoa oso deslegitimatuta agertzen da gazteen begietan. Hartara, batez ere eredu horretara mugatu behar da gazteen ustezko desfekzio politikoaren diagnostikoa, gure ustetan. Izan ere, gizartean nagusi den sen oneko ezagutza hegemonikoan, politika eta politikagintza esparru instituzional horrekin eta bertan dauden instituzioen funtzionamenduari identifikatzen dira, eta ez beste jarduera sozial eta zibiko batzuekin. Azken horiei zentzu politikoa esleitzeko gai dira gazte batzuk, hain zuzen ere, baliabide kognitibo gehiago eta partaidetza ibilbide luzeagoa dutenak bai esparru politiko konbentzionalean, bai handik kanpoko esperientzia politikoetan. Eta, beste batzuek, aldiz, ekintza-molde instituzionalarekin, eta horrekin soilik, identifikatzen dute politika, ikusi dugunez.

Bigarrenik, azpimarratu behar da gizarteko kideek beren bizipenak izendatzeko erabiltzen dituzten hitzak, eta mundu zientifikoan errealitate sozialaren egiturazko prozesu konplexuak azaltzeko sortzen diren kontzeptuak ez direla beti bat etortzen. Gazteek indibidualismoaz hitz egiten dute elkarriketatik eta eztabaida taldeetan. Soziologian, berriz, indibidualizazio prozesuaz hitz egiten da. Ez dira gauza bera. Indibidualismoa berekoikeria pertsonalaren zentzuan ulertzen dute gazteek. Hala bizi dutelako beren bakardadea, noraeza edo ezintasuna gaurko mundu aldakorrean. Indibidualizazio prozesuak, aldiz, egiturazko dinamika sistemiko bat adierazten du, banakoen orientazioak baldintzatzen eta moldatzen dituena. Izan ere, gizarteko orain arteko instituzio nagusiak endekatze prozesu batean daudenean eta ustez zituzten funtzioak dagoeneko eraginkortasunez betetzen ez dituztenean, norbanakoa behartuta dago bere bizitzaren ibilbidea bere gain hartzera eta bakar bakarrik gobernatzera, ziurgabetasuna ahalik eta ondoen kudeatzeko eta etorkizun ezezagunari aurre egin ahal izateko. Zeregin horretan, ikusi dugunez, batzuek baliabide egokiak izan ohi dituzte; beste batzuk, aldiz, babesgabe egon ohi dira egoera aldakorra ulertzeko eta, hartara, egokitzeko zailtasun gehiago izaten dute.

Hirugarrenik, ezin dugu ahaztu gizartekideen irudikapen sozialak sortzean zer nolako eragina izaten duten masa hedabideek, eragile politikoei eta errealitate sozialaren eraikuntzan eragin handia duten mota guztietako eragileek (*lobby* politikoei nahiz ekonomikoei lotutako *think-tanks* deiturikoei, esaterako). Ildo horretatik, gizartean badaude, egon, hara-hona dabiltzan oraingo gazteei buruzko irudi jakin batzuk, gazteek eurek askotan barneratuta dauzkatenak eta beren auto-pertzepzioetan islatzen direnak. Behin baino gehiagotan, irudikapen estereotipatuak eta sinplifikatzaileak izan ohi dira. Besteak beste, gazte jendeari erabateko talde homogeneotasuna esleitzen diote (“gazteak holakoak edo halakoak dira” esan ohi zaigu sarritan). Ildo horretan, oraingo gazteak pertsona indibidualista eta axolagabe gisa irudikatzen dira hedabide askotan, baita, noiz edo noiz, politikarien adierazpen publikoetan ere. Ondorioz, irudikapen edo ikusmolde hegemoniko horiek ezkutatu egiten dute gazteen artean egon daiteken dibertsitatea, eta gazteek bizi dituzten egoera desberdinak, bai gizartean, bai esparru politikoan ere.

Azkenik, gazteei buruzko irudikapenak nola, hala zabaldua daude aurreko belaunaldiei buruzko irudi jakinak ere. Ildo horretan, izan badira gure gizartean narratiba nagusi batzuk gaurko gazteen gurasoen belaunaldien edo, oro har, aitzineko belaunaldien jokamoldeen eta bizipen politikoen berri ematen dutenak. Horiek ere beren eragina dute gazteen auto-pertzepzioan, nagusien ispiluan islatzen baita, behin eta berrito, gazte jendea beren herritar identitate propioa eraikitzeko.

4.2.4. Gazteen egungo joerak lehenagoko belaunaldiaren politika moldeen ispiluan

Gazteek politika instituzionalarekiko desafekzioak dituzten auto-pertzepzioak modu ulergarriagoan agertzen zaizkigu beren bizipenak aurreko belaunaldien testuinguru sozialarekin eta helduen esperientziekin alderatzen dituztenean. Elkarrizketatuek beraiek, bai politizatuenek (edo partaidetza maila handiagoak dituztenek) eta bai hain politizaturik ez daudenek (edo partaidetza maila apalagoa dutenek) etengabe erabili dituzte tankera horretako konparaketak. Baina zer irudikapen dute gazteek belaunaldi arteko etenaz edo arrakalaz jokabide politikoari dagokionez?

Orain arte elkarrizketetan ikusi dugunaren arabera, badira politikagintzan aritzeko ereduak, politika instituzional konbentzionaletik at garatzen direnak. Eta horietan jarduten duten gazte batzuek politikaren adiera zabala dute. Ordea, beste gazte batzuek politikaren ikuspegi murriztaileagoa dute, estatu instituzioen jarduerari lotuta zedarritzen baitute politikagintza. Oraingo eta lehenagoko eredu politikoez galdetuta, era askotako iritziak jaso ditugu elkarrizketatuen aldetik: batzuek alde nabarmena ikusten dute lehenago politikagintzaren eta oraingoaren artean; beste batzuek (agian talde txikiago batek) ez dute alde handirik antzematen; eta hirugarren talde baten ustetan, molde batzuk mantentzen dira, eta beste joera batzuk, aldiz, aldatzen ari dira. Politikari buruz (hau da, haren hedadura eta adierari buruz) elkarrizketatuek duten abiaburuko iritziak eragina izan du erantzun horietan.

Edonola ere, izan dira elkarrizketatuen iritzietan adostasun handia lortu duten puntuak: 1) oro har, bat datoz gaur egungo gizartean herritarren artean lehen baino interes eta partaidetza politiko gutxiago dagoela esatean. Beraz, zeharka bada ere, onartzen dute lehenagokoa ez den agertoki politikoan edo, gutxienik, bestelako abagune politiko batean gaudela gaur egun; eta 2) uste dute gizartea, eta guri dagokigunez gazteak, gero eta indibidualistagoak direla, eta balio kolektiboek pisua galdu dutela balio indibidualen mesedetan, aurreko belaunaldiekin alderatuta. Ildo horretako diskurtso batzuetan, iraganaren ikuspegi nostalgikoa atzematen da, are gehiago esango genuke, ikuspegi idealizatua.

Izan ere, gurasoei buruz nahiz, oro har, era guztietako pertsona helduei buruz barneratuta duten irudikapena euskal politikagintzaren garai “epikoagoekin” loturik dago, elkarrizketaturiko gazte askoren adierazpenen arabera. Alde batetik, frankismoaren eta ondorengo “trantsizio politikoa” deitu den prozesuaren testuinguruan kokatzen dituzte helduagoen bizipen politikoak. Jakina, eurek ez dituzte garai horiek zuzenean ezagutu. Hartara, erabiltzen dituzten irudiak familian, inguru hurbilean (komunitatean, lagunartean), eskolan eta hedabideetan helarazitakoak dira, kasuan kasuko eragin desberdinekin bada ere. Oroimen historiko hori, batez ere politizatze maila apalena duten gazteei dagokienez, modu oso sinplifikatuan eraiki da. Eraikuntza horretan gauza asko nahasten dira, aro historikoak, abagune politikoak eta gertakari entzutetsuak, besteak beste. Hala, frankismoaz eta frankismo osteko urteez hitz egiten da, Espainiako egoeraz nahiz Euskal Herrikoaz, zehaztasun handirik gabe eta, behin baino gehiagotan, modu oso lausoan. Era berean, sinplifikatu egiten dira testuinguru horretan jendeak izandako balioak, jarrerak baita jokamolde politikoak ere.

Oro har, elkarrizketen bitartez osa daitekeen iragan politiko hurbilari buruzko gazte gehienen narratiba horrek, desberdintasunak desberdintasun, ezaugarri batzuk ditu, honako zertzelada hauetan laburbildu daitezkeenak. Lehenbizi, helduen belaunaldiak sentiberagoak izan dira auzi kolektiboekin eta politikoeekin, borroka antifrankistan zailduta eta eskubide demokratikoen nahiz instituzio demokratikoen alde mobilizatuta ibili dira. Baita eskubide sozioekonomikoen defentsan ere. Bigarrenik, Euskal Herriko politikagintzari dagokionez,

batetik, euskal nazionalismoaren esparruan, helduak euskal identitatearen aldeko defentsan aktiboki lehiatu dira, bai instituzio politikoak eratzeko bai euskararen eta euskal kulturaren garapenerako erakundeak sortzeko. Gatazka armatuak eta hark eragindako ondorioek ere toki berezia hartzen dute narratiban. Batetik, ETAren jazarpena pairatu eta haren kontra egin zutenen aktibismoa egon da. Bestetik, ezker abertzalearen eta haren inguruan sortutako ekimen sortaren eraginpean bultzatutako etengabeko ekintza eta kultura militantea. Nolanahi ere, edozein lekutatik begiratuta, gizarte-eredu eta jende oso politizatuaren irudia azpimarratu da elkarrizketetan.

Ispilu horretan begiratuta, gazteek ez dute eder ikusten beren gaur eguneko jarrera. Gu/haiek (hau da, gazteak/helduak) binomioa etengabe aipatzen da elkarrizketetan nahiz eztabaida taldeetan, biak bereizteko ariketan. Ildo horretan, adibide asko jaso ditugu. Iruñeko eztabaida taldeko kideek, esate baterako, aurreko belaunaldien politikari buruzko interesa nabarmendu dute, eta testuinguruan jarri dute arreta, izan ere, beren ustez, frankismoan eskubide gehienak ukatuta izateak politikagintzarako grina sustatzen zuen. Iruñean elkarrizketatutako mutilak eta Gasteizko eztabaida taldeko kideek tankera bereko arrazoiak azpimarratu dituzte: alde handia nabari dute aurreko eta oraingo joeren artean, lehenagoko belaunaldiak oraingo gazteak baino erreibindikatzailagoak izan dira, dudarik gabe, eta gaur egunean ere belaunaldi horiek beren eskariak politikoki galdatzen jarraitzen dute:

Nosotros hemos llegado a donde hemos llegado porque nos hemos estado quejando durante mucho tiempo. Ha habido generaciones que han reivindicado y han conseguido lo que han conseguido, mejor o peor, pero lo han hecho, y las generaciones que vienen las veo que piensan que muy bien, pero que lo haga otro. Y esa es la generación que se está creando con todo, también a niveles personales. Ahora hay una aplicación que te trae la comida a casa, y el tío que te trae la comida a casa está en una situación muy precaria... ¡pues no fomentes esa empresa! Pero no hay esa visión global (ELK-Iruñea-mutila).

Ahora mismo con las manifestaciones que están habiendo de los jubilados en Bilbao... esa gente es la misma que se ha quejado hace 40 años y consiguió las cosas para nosotros. A final los que somos indiferentes somos nosotros, esa gente hace 40 años fueron los que consiguieron las ventajas que nosotros teníamos, y eso se está perdiendo. Y en vez de ser nosotros los que nos quejamos ahora, siguen siendo ellos. Entonces, yo creo que está claro que vivimos en la indiferencia (ET-Gasteiz).

Arestian aipatu denez, ideia topikoak agertu dira hainbat elkarrizketatan: gaur egun gazteak eroso bizi direla lehenagoko belaunaldien aldean eta horrek axolagabekeria bultzatu duela euren artean. Bada, iritzi hori orokor samarra izan da elkarrizketatutako gazteen diskurtsoetan. Erosotasun hori, neurri batean, gaur egun, oraindik ere, familiek gazteenei eskaintzen dieten babesaren ondorioa da. Izan ere, familian errotutako kultura duen gizartean bizi gara. Bestalde, Ezkerraldeko bazterketaren aurkako talde bateko kideak axolagabekeria baino, jarraikatasun falta nabarmendu du. Kezka badute gazteek, ekimenak ere egiten dituzte zenbaitetan, baina zerbaitekin epe luzez konprometitzeko gaitasuna falta zaiela uste du. Aurreko belaunaldiak askoz ere konstanteagoak ziren beren jardunetan; egun, ordea, emaitza ikusgarriak jaso ezean, gazteak berehala desmotibatzen direla kexatu da:

Yo creo que nos han dado todo tan mascadito en la vida que tenemos muy poca constancia, igual nos cansamos antes de las cosas (Ezkerraldeko bazterketaren aurkako talde bateko kidea).

Ados agertu da Bilgune Feministako kidea ere: gazteek izan badute hainbat gai soziali buruzko kezka baina, aldi berean, zehaztu du kolektibotasunaren balioak indarra galdu duela, eta kezka horiei buruzko engaiamendu politiko iraunkorra ez dagoela batere indartsu. Antzeko iritziak eta kezkak agertzen dituzte politizatze maila handiena duten gazteek. Donostiako Piratak-eko kideak, esaterako, prestigioan jarri du arreta: azaldu du, lehen aktibista edo militante izateak nolabaiteko izen ona zuela eta, aldiz, gaur egun galdu egin duela ospe hori. Gainera, protesta egiteko arrazoiak ere asko aldatu direla azpimarratu dute beste elkarrizketatu batzuek. Lehen, egoera politikoak hala eraginda, Euskal Herriko kaleetan aldarrikapen erabat “politikoak” egiten ziren; orain, berriz, ustez gauza asko lortutzat jotzen direnean, beste azaleko kezka eta zeregin hutsalak nagusitu dira gizartean, futbola kasu.

Nik uste dut gurasoen garaian politika zela oso presente zegoen gai bat, eta gaur egun ez bazaude mugimenduren batean sartuta ez dut ikusten jendeak daukanik interes handirik. Ikusten dut diferentzia handia dagoela. Gurasoen garaian joaten ziren manifestazio pila batera, eta gauza asko zegoen kalean. Orain ez dut hori ikusten, eta uste dut horrek daukala harremana interes falta horrekin (ELK-Donostia-neska).

Porque además actualmente ya nadie sale a la calle a luchar como antes, ahora no hace nadie nada. Bueno, cuando gana España sí, o cuando gana el Alavés o lo que sea. Somos la generación de... (ET-Gasteiz).

Batzuen ustetan, kaleko aldarrikapenen indar-galtze prozesuan kontuan hartzekoa litzateke sare sozialen eragina ere. Ildo horretatik, hainbat elkarrizketatuk aipatu duen bezala, gaur egun kalera atera gabe aldarrikapenak egiteko eta zabaltzeko aukera ematen diete gazteei teknologia berriek. Informazioa ere eskuragarri dute gazteek berehalaxe baina, paradoxikoki, internetek eskaintzen duen informazio gaindosiak desinformazioa ere ekar lezake, Gasteizko eztabaida taldeko kide baten hitzetan. Bigarren elkarrizketatu batek ere bat egin du iritzi horrekin:

Antes igual no tenías acceso a tanta información, pero la que tenías te contaba lo que pasaba. Si tú cogías el periódico que te gustaba ahí tenías la información, pero ahora te bombardean con mil cosas que en realidad no te interesan. Y a veces quieres leer una noticia en concreto y acabas leyendo sobre cualquier otra cosa (ET-Gasteiz).

Ildo berean, gehiegizko informazioak interesa galtzera eramán ditzake gazteak, Iruñeko eta Gasteizko taldeetako kideen arabera. Horietako batek aipatu du aurreko belaunaldiak tabernara jaisten zirela politikaz hitz egitera, eta hausnarketa kolektiboak egiten zituztela gune publikoetan zein pribatuetan; gaurko informazioaren gizartean, ordea, beste edozein gairi buruz hitz egiten da, auzi “politikoez” hitz egin ordez:

Yo creo que tecnológicamente se ha avanzado más, pero antes igual sí que había más ilusión por cosas como la política. Igual sí había gente más comprometida y más ilusionada. Y aunque se ha fomentado el desarrollo tecnológico y vivimos mejor que nuestros padres, a la vez, se va banalizando todo; quitamos importancia a cosas que antes sí la tenían (ET-Iruñea).

Claro, es que antes si bajabas al bar y hablabas de política o de lo que fuera, pues no tenían más, y hablaban y pensaban sobre eso. Pero ahora en seguida ves otra cosa y se te olvida de qué estabas hablando antes (ET-Gasteiz).

Ustezko despolitizatzearen arrazoiak aztertu ditugunean, elkarrizketatu gehienek bat egin dute honako pertzepzio honetan: gaurko belaunaldiak aurrekoak baino indibidualistagoak direla pentsatzen dute. Iritzi horietako bat hona ekartze aldera, ikus dezagun Gasteizko eztabaida taldeko kide baten ustea: norbera bere zilborrera begira bizi dela iruditzen zaio, ikusi besterik ez dago zer gertatzen den alokairu pribatuekin eta kaleratzeekin:

Pero hablando de desahucios; en los últimos años además de desahucios por hipotecas, ha habido un montón de desahucios por alquiler privado. Y ves que los propietarios dejan a una persona o a una familia por ganar unos euros más. Que igual en el momento no te pueden pagar el alquiler completo pero sí una parte, porque no creo que la gente que vive de alquiler sean de grandes fortunas. Yo creo que antes eso igual no pasaba. Porque hablamos mucho de los bancos, de lo malos que son, pero ahora los malos somos también nosotros (ET-Gasteiz).

Uribealdeko sozioekologia taldeko kidea ere iritzi berekoa da. Bere ustez, indibidualismoaren kultura nagusi den gizartean, norberari eragiten dioten arrazoiengatik baino ez da mobilizatzen jendea. Krisi ekonomikoa gogortu zenean eta M-15 mugimendua zabaldu zenean agerian geratu zen hori: “jende asko batu zen plazetan, baina non dago jende hori orain?”. Elkarrizketatu horren ustez, oso garrantzitsua da gizarteko sektore guztiak antolatzea eta denek parte hartzea: “Hor badago zera bat, lehen Euskal Herrian erabiltzen zena: denok eman behar dugu zerbait gutxi batzuek dena eman behar ez dezaten; kasu honetan berdina da, ezin diogu utzi besteari erantzukizun osoa, berak nihatik lan egin dezan”.

Beste elkarrizketatu batzuek zalantza egin dute belaunaldi etenez galdetu diegunean. Astrako kidearen esanetan, egungo gizartean “interes indibidualak” nagusitu zaizkie “interes komunitarioei”, nahiz eta horrekin ez duen adierazi nahi gazteak orain antolatzen ez direnik. Ezkerraldeko bazterketaren aurkako talde bateko kideak, bere aldetik, iraunkortasun falta nabarmendu du, baina ez du uste gaurko belaunaldia aurrekoa baino indibidualistagoa denik. Bere ustez, indibidualismorako joeran alde handiagoa dago hiriko bizimoduaren edo baserri eremuko bizimoduaren artean, baserriko balioek komunitate zentzuari gehiago eusten baitote oraindik.

Idea horri tiraka, Ongi Etorri Errefuxiatuak-eko kideak aipatu du ez dela egokia despolitizatzearen tesia erabat orokortzea. Izan ere, bere hitzetan, herrietan hirietan baino mugimendu handiagoa dago. Altsasu eta Gasteiz konparatu ditu, eta Altsasun saretu den mugimendua azpimarratu du. Iruñeko kide batek ere alde ikusten du hiriguneko giroaren eta landa-gunekoaren artean; haren arabera, herrietan gazteek, eta herritar guztiek, oro har, gertuagotik bizi dute komunitate jarduera eta, ondorioz, gehiago hartzen dute parte herriko ekimenetan. Alde nabarmena antzematen du berak Erriberako herrien eta Iruñearen artean (ELK-Iruñea-neska). Ildo berean, Ezkerraldeko bazterketaren aurkako talde bateko kideak ere baserri eremuan balio kolektiboek gehiago eusten zaiela iradoki du (iraganeko ereduetatik gertuago ikusten ditu), hiriguneetan balio indibidualistagoak nagusitu diren bitartean.

Dena den, orain arte atal honetan jaso den aipu-sortan azaldutako irudi lausoa baino zehatzagoak dira gazte politizatu batzuek belaun arteko jauziaz eta paraleloki gertatutako aldaketa politikoez egiten dituzten iruzkinak. Izan ere, oraingo eta lehenagoko testuinguru eta politikagintza moldeei buruzko ezagutza sakonagoa dute esperientzia handiagoaren eta ibilaldi politiko luzeagoaren jabe diren gazteek. Besteak beste, politikoki jantziagoak izateaz gain, adinez ere helduagoak direlako (elkarrizketen unean 28-35 urteko tartean daudenak, esaterako), eta elkarrizketatu gazteenek transmisioz besterik ezagutzen ez dituzten gertakari asko zuzenean bizi izan dituztelako. Azken gazte horiek politikagintzan gauzaturiko trantsizioaren lekuko ez ezik partaide ere izan dira. Halatan, denboraren eta esperientzia politikoaren perspektiba luzeagoa izatean, gaztaroaren eta helduaroaren arteko mugetan egonik, kontzienteagoak dira mundu politikoan gertatzen ari diren aldaketez.

Lehenik, beren eskarmentu politikoaren ondorioz, oraintsu arteko ildo eta eredu politikoen agortzea eta bestelako ziklo politiko baten sorrera ikusten dute euskal politikagintzan. ETArek desagertzearen ostean, euskal politikagintza guztiz instituzionalizatu da eta, besteak beste, kaleak utzi egin dio ekimen politikoaren gune nagusi izateari, haien ikuspegian. Alderdi politikoetan ibilitakoek, esaterako, organizazioen berkokapena bizi izan dute egoera berrian:

Es verdad que nosotros vivíamos muy centrados en el tema del terrorismo, y es verdad que después de 2011 nos quedamos en el limbo, en un espacio que no está definido totalmente. Entonces, hay que empezar a definirlo (...) la conciencia sobre el tema del terrorismo que tiene la generación de menos de 18 años no tiene nada que ver con lo que ha pasado (Juventudes Socialistas de Euskadi-ko kidea).

Nire belaunaldia izango da azkenetarikoa pixka bat gatazka egoeran aktibatu dena. Nire ustez, bai dago erreferente falta bat, eta lehen oso agerikoak eta errazak ziren kontraesan horiek hor zeuden, orduan errazagoa zen posizionatzea eta aktibatzea. Orduan, egun gatazka oso espliziturik ez dagoenez, ba gatazka ezak bilatzen du ez posizionatzea eta, horren ondorioz, ez politizatzea (Errekaleorreko kidea).

Bigarrenik, adin bateko gazte aktibistek edo organizazioetako militanteek hurbiletik ezagutu dituzte politikagintza instituzional ordezkatzailaren mugak eta kontraesanak. Besteak beste, aldaketa asmoak xurgatzeko, herritarrak desmobilizatzeko eta balio kultural indibidualizatuagoak sortzeko bide politiko-instituzionalen erabilerak duen ahalmena. Horregatik balioesten dute bide desberdinak urratu beharra politikagintzan, hala estatu instituzioen espazioetan gauzatzen den jarduera konbentzionalean, nola handik kanpoko esparru sozialetan eta eguneroko bizitzan sortu behar diren esperientzia berrietan.

Adibidez, Uribealdeko sozioekologia taldeko kideak bi joerak ikusten ditu: balio batzuetan belaunaldien arteko eredu politikoen erreprodukzioa gertatzen da eta, beste batzuetan, aldiz, aldaketa, bere ustetan. Testuinguru politikoari dagokionez, esate baterako, aldaketa atzeman zuen berak M-15 mugimenduak ekarritako politikagintza-modu berrien saiakeran. Uste du inflexio puntu bat izan zela. Izan ere, nabarmentzen du indar politiko berri bat sortu zela gizartean eta ideia politiko berriak sozializatu zituela ordura arte desmobilizaturik zegoen sektore batean. Edonola ere, denbora laburrean M-15aren ondorengoek ohiko alderdien logika eta eredu politiko berberak erreproduzitu dituztela pentsatzen du: “partidu politiko horri ematen dio erantzukizuna berak nahi duena aurrera eramateko, eta hasten gara berriro kritikatzeko txarto egiten duenean”. Hartara, esperientzia berritzaile izan behar zuena, sistema politikoaren logika ordezkatzailak irentsi du.

Bestalde, Euskal Herriko agertokitik kanpo ere, gazte politizatu helduenak jakitun dira esparru politikoa globalki aldatzen ari dela, eta ez dela aurrerantzean aurreko belaunaldiek ezaguturikoa izango. Hala ere, organizazioen eta alderdien barruan askotan formula zaharkituekin jokatzen ari direla onartzen dute (ideiei, balioei eta organizazio-ereduei dagokienez) eta horrek eraginkortasun politikoa mugatzen duela eta frustrazioa sortzen.

Tankera horretako iritzia agertu du Donostian elkarrizketatutako herri ekimenetan dabilen gazteak ere; bere aburuz, agertoki berri baten aurrean gaude, baina formula tradizional berberekin aritzen dira, eta horrek ezin du ezer onik ekarri: “Heteropatriarkatuak jarraitzen du izaten sistema, enpresek berdin jarraitzen dute, alderdi berdinek jarraitzen dute... Orduan, agertoki berria da baina ez diogu behar bezala erantzuten”.

Azkenik, beren ibilbideetan izandako frustrazioak eta desilusioak aitortu arren, aktibismoan eta militantzian ibilitako gazte helduek balioetsi egiten dituzte beren belaunaldikoez eskuratutako lorpenak ere, eta ez dira gelditzen aurreko belaunaldiek egindakoaren mirespenean. Horretan ere argiro aldentzen dira politizatzeko maila apalagoa dutenen iritzietatik, azken horiek gutxietsi egiten baitute, are gehiago ukatu ere, beren belaunaldiaren ekarpen politikoa. Ildo horretan, belaun arteko trantsizio unean daudenek azken urteetako zenbait aldaketa aletzen dute: neska gazteen integrazio gero eta handiagoa organizazio politikoetan, parte hartze irekiagoaren eta harreman horizontalen aldeko progresioa, estrategia feministen txertaketa ildo politikoetan, pertsonen bizitzarekin bateragarriagoak diren aktibismo ereduaren ezarrera, gazte jendearengana hurbiltzeko egindako saiakerak (komunikazio bideak hobetuta eta abar), eta beste hainbat joera. Azpimarratu behar da emakumeen integrazio progresiboak eta emakumeen eskutik indarra hartzen joan diren proposamen feministek zenbaterainoko aldaketa ekarri duten erakunde politikoetan, elkarrizketaturiko emakume aktibista gazteen ustez.

ELA sindikatuko ordezkariak, esate baterako, aktibismo ereduari jarri du arreta, egungo parte hartzea asko aldatu dela dio, generoari eta adinari dagokionez: nabarmentzen du, aurreko belaunaldien eredia oso maskulinoa zela, gaur egun emakume asko ari dela parte hartzen politikagintzan, eta horrek militantzia eredia aldarazi duela. Belaunaldi aldaketa gertatzea ezinbestekoa izan ohi da eredu berriak eraikitzeko. Antzera mintzatu da Ernaiko kidea ere:

Bai. Gazte eta helduen artean eta baita gizon eta emakumeen artean. Uste dut organizatiboki ematen den aldaketa dela, alde batetik, jende gaztea sartzeko, baina baita ere emakumeak. Nik uste dut bi kontuak lotuta doazela, belaunaldia eta generoa. Hemen dauden heldu gehienak gizonak dira, orduan uste dut dena nahasten dela. Azken finean, haiek izan dira organizazioa egituratu dutenak, eta militantzia eredu batzuk daude, eta eredu horiek beraien ereduak dira, eta oso maskulinoak dira. Orain, gazteen artean, jende berri gehiena emakumeak dira, baina mutilak ere beste eredu horretara egokitzen dira (ELA sindikatuko kidea).

Alderdiak daude beti jende nagusiz osatuta, eta uste dut [gazteek] ikusten dituztela oso urrunak, urrunegi (...). Nik uste dut haiek [helduek] bizi direla militante 24 ordutan, modelo hori daukate barneratuta (...). Nik uste dut horretarako gazteak garelako askoz irekiagoak (...). Gauzak aldatu dira. Orain esan dezakezu ezetz, lehen ez. Eta orain hartu ahal dituzu erantzukizun batzuk eta beste batzuk ez. Eta zure ordutegiak dira hauek eta emango dut hau, honaino (...) Hori positiboa da. Nik uste dut feminismoarena gogor sartu dela, eta badirudi kontzientziak astindu dituela, baina ezberdintasunak daude (Ernaiko kidea).

Laburbilduz

Gaurko gazteak despolitizatuta daudeneko ideia gure gizartean aski zabaldua dagoen arren, argi geratu da ez dela orokortu daitekeen baieztapena. Politika instituzionalari buruzko urruntasuna eta ikuskera ezkorra nabarmentzen dira gazteen diskurtsoetan, baina horrek ez du, halaber, politikarekiko interes falta islatzen. Ñabardura anitz agertu dira:

Batzuek, despolitizazioaren kontzeptuaren ordez desmobilizazioarena hobesten dute gazteen egoera deskribatzeko, izan ere, nolabaiteko lanketa teorikoa badagoela uste dute, baina praktikara eramatea faltako litzatekeela. Mobilizatzeko edo antolatze gogoia badagoela gazteen artean, baina benetan burutzeko gaitasuna falta dela pentsatzen dute.

Beste hainbaten arabera, despolitizazteaz (edo desmobilizazteaz) hitz egin beharrean, inplikazio mailaz hitz egin behar litzateke. Inplikazio hori batzuetan jarraitua bada ere, gero eta gehiago noiz behinkako inplikazioa nabarmentzen da, ekimen zehatzetan parte hartzen da jarraikortasun gehiegi erakutsi gabe. Batzuetan, jarraikortasun eza horretan badu eraginik adinak edo bizitza zikloak. Esaterako, enplegu bat izateak edo familia bat osatzeak aktibismoarako denbora murriztu dezakete.

Politikaz, politikagintzaz zein despolitizazteaz gazteek duten ulerkera desberdina ere aintzat hartzekoa da. Horren arabera, zenbaitzuk euren burua politizatutzat definitzen dute, eta, aldiz, ezaugarri antzekoak dituzten beste batzuk despolitizatutzat hartzen dute.

Dena den, politika instituzionalari buruzko urruntasun sentimendua gazteengan nahiko orokortua dagoela ikusi dugu. Sistema demokratiko liberaletan ohikoa den politika moldeekiko desafezioa da, hain justu, nabari dena. Politika eredu horrek eskaintzen dituen ohiko bideen aurrean (hauteskundeak, alderdi politikoak, parlamentuak) parte hartze mota indibidualizatuagoak lehenesten dira, organizazio handien bitartekaritza saihesten dutenak. Desafezio horren eragile gisa, arrazoi desberdinak aipatu dituzte gazteek beraiek:

1. Alderdi politikoaren urruntasun fisiko zein kognitiboa. Ez dute esparru publikoaren eta gizartearen arteko zubilana betetzen.
2. Gazteen interesak sistema politikoan ordezkaturik ez egotea. Gazteen beharren aurrean entzungor egiten dute alderdi politikoek eta, oro har, instituzio politiko formalek..
3. Aktibismoak eragindako frustrazioa eta eraginkortasun ezaren sentimendua. Zertarako ekin ezer lortzeko itzaropenik gabe?
4. Informazio gabezia, hezkuntza politikorik eza eta ezjakintasuna. Politikariek herritarrak informatzeko helbururik ez dute, lengoia konplexua erabiltzen dute, edo interesatzen zaien informazioa soilik zabaltzen dute.
5. Politikagintzaren ustelkeria eta iruzurra. Esandakoa bete ez eta, gainera, dirutza handiak poltxikoratzen dituzte, gazteek nekez biziraun dezaketen bitartean.
6. Hezkuntza-eredu indibidualizatuaren eragina: produktibitatea da helburu.
7. Gazteen erosotasuna indibidualismoaren gizartean. Interesik eta mobilizaziorik ez da ageri harik eta arazoak norberari eragiten dion arte.

Arrazoi horiek guztiek hauteskunderen balioa kolokan jartzea dakarte hainbat gazteren kasuan. Gehienetan, zenbat eta ahulagoa izan politizatze maila, hainbat eta handiagoa da hauteskunde partaidetzari buruzko distantzia. Mesfidati agertu dira hauteskunderen aurrean, ez baitute uste alderdi politikoez beren interesak aintzat hartzen dituztenik. Dena den, bada informazio faltarik ez duenik ere, ondo ezagutzen dute sistema politikoaren funtzionamendua eta sistemarekin bat egiten ez dutelako ez bozkatzeko hautu kontzientea egin dute.

Edonola ere, politikari buruzko “deskonexioa”, politika instituzionalaren testuinguruan ulertu behar da. Izan ere, gazte hauek askok beste hainbat esparrutan konpromisoa erakusten dute: boluntariora lanetan dabiltza, kirol taldeetan, kooperazioan, eta maila apalagoan, protesta eta manifestazio ekitaldietan ere partaidetza izan dute. Gazteak, beraz, politika-molde jakin batetik ari dira urruntzen, sistema demokratiko liberaletako politikagintza instituzionaletik, sistema hori oso deslegitimatuta agertzen delarik euren begietan.

Gainera, aurreko belaunaldien erreferentzia oso presente dago gaurko gazteen irudia eraikitzerakoan. Lehenagoko belaunaldiak politizatuagoak zirela aipatzen da, gaurko gazteak, gero eta indibidualistagoak direla, eta balio kolektiboek pisua galdu dutela balio indibidualen mesedetan. Gaur egun gazteak eroso bizi direla lehenagoko belaunaldien aldean eta horrek axolagabekeria bultzatu duela euren artean. Aurrekoekin egindako konparaketa horrek lehengoarekiko nostalgia eta gaurkoarekiko gutxiagotasun konplexua eragiten du hainbatetan.

Alabaina, ezin da orokortasunik egin, lehengo eta oraingo agertokien baitan bestelako aldagaiak ere sartzen dira eta jokoan. Ildo horretan, aintzat hartzekoa da teknologia berriek kalera atera gabe aldarrikapenak egiteko eta zabaltzeko aukera ematen dietela gaurko gazteei. Kontuan hartzekoa da ere hiriko bizimoduaren edo baserri eremuko bizimoduaren artean dagoen aldea, baserriko balioek komunitate zentzuari gehiago eusten baitote oraindik.

Eta ez da dena negatiboa izango, izan da aurrerapenik lehengo garaietatik hona: neska gazteen integrazio gero eta handiagoa organizazio politikoetan, parte hartze irekiagoaren eta harreman horizontalen aldeko progresioa, estrategia feministen txertaketa ildo politikoetan, pertsonen bizitzarekin bateragarriagoak diren aktibismo ereduak ezarri, gazte jendearengana hurbiltzeko egindako saiakerak, eta beste hainbat joera.

4.3. Gazteen politika moldeak

Ikerketa lan honetan aurrera egin ahala, ikusi ahal izan dugu ikuspegi ezkor samarra agertzen dutela egungo gazteek alderdi eta ohiko instituzio politikoaren jardunari buruz. Hala ere, ikuspegi horren atzean gazteen pasibotasuna eta axolagabekeria politikoa besterik ez dagoela ondorioztatuko bagenu, ez ginateke guztiz zuzen ibiliko. Izan ere, pertzepzio ezkor hori adierazi duten elkarrizketatuek beraiek erakutsi digute zenbat eta zein mota ezberdinetako ekimenetan hartzen duten parte. Hori gutxi ez eta, gainera, konpromiso sozialari eta zibikoari buruz dauden beste era bateko ikusmolde politikoak eta ideologikoak eskaini dizkigute. Ikus ditzagun segidan.

4.3.1. Ohiko politikagintza instituzionaletik haragoko partaidetza motak: boluntariora eta mugimendu sozialak

Elkarrizketatuen diskurtsoak aintzat hartzen baditugu, gehiengo batek ez du politikagintza konbentzionalean aritzeko interes eta motibazio handirik. Ohiko instituzio politikoetatik kanpo dagoen jardun esparruan murgiltzeko, ordea, ez dira hain nagi agertzen elkarrizketatuak. Izan ere, ikerketan parte hartu duten gazteetako askok eguneroko jarduerak egiten ditu; jarduera horiei zentzu politikoa ematen diete batzuek, eta beste batzuek,

aldiz, ez. Baina, zalantzarik gabe, ohiko politikagintzari buruz gazteek sentitzen duten urruntasuna edo arrotasuna nabarmena da. Eta, hala ere, aldi berean, bertatik bertako ekimen politikoak (ikuskerazabalean ulertzen ditugunak) sortzen eta saretzen ari direla dirudi.

Horiek horrela, elkarrizketatuei gazteen ustezko despolitizazteaz galdetu diegunean, harridura aurpegia jarri digute askok. Astrako kideak, adibidez, nabarmendu du interes txikia eta kemen gutxi ikusten duela gazteengan; baina, aldi berean, onartu du bere herrian ekimenak izaten direla eta jendeak ekimen horietan parte hartzen duela, nahiz, dena esate aldera, parte hartzaileen kopurua eta konpromiso maila apalagoak diren egun:

Hor nik kontraesanak dauzkat nire buruarekin ere bai. Orokorrean uste dut ez dagoela berdin, uste dut jendeak interes gutxiago daukala, pasibitate gehiago ikusten dut, lonjen munduak jarraitzen du. Gero, beste alde batetik, hasten zara baloratzen eta ikusten duzu pila bat elkarte dagoela oraindik martxan ere bai, eta jendeak parte hartzen du (...) eta esaten duzu “badago!”, baina, beste alde batetik, ikusten duzu zerbait antolatzen bada jende gutxiago agertzen dela, interes gutxiago dagoela... nik hor kontraesanak dauzkat (Astrako kidea).

Ustezko desmobilizazio hori eragiten duten arrazoiak aztertu ditugunean, ohiko politikagintzan epe laburrean emaitzarik ez jasotzearen arrazoa aipatu dugu. Baina onik ez dakarren gaitzik ez omen da, eta beste elkarrizketatu honen hitzen arabera, horrek mesede egin diezaioke gizarte mugimenduen jardunari:

Igual politikak maila handian abor datzen dituen arazo hauek, ez da hobekuntzarik ikusten momentuan, eta familia batera edo ume multzo batera hurbiltzen bazara eta beraiei laguntzen badiezu, ba hobekuntza igual urte batean ikus dezakezu. Agian, eragin handiagoa lor daiteke bide horretatik bestetik baino (ELK-Basauri-neska).

Hain zuzen ere, gazteen egungo joera politikoak aztertzean, askotariko ereduak azaleratu zaizkigu; eredu horietako batzuek aurreko politikagintza moldeei jarraitzen badiete ere, atzoko eta gaurko ereduaren artean aldea dagoela iruditu zaigu, oro har. Bi praktika-politiko mota identifikatu ditugu, gutxienez, gazte mobilizatuenean elkarrizketetan: alde batetik, mugimendu sozial gisa ezagutzen dugun horri lotutako partaidetza eta, beste aldetik, boluntariotza deiturikoari lotutako jardun zibikoa. Ikusmolde horiekin txirikordetzen dira, halaber, honako beste bi abiapuntu hauek ere: hots, gizarte konpromisoa ohiko politikarekin lotzen dutenena, batetik, eta beren burua ohiko politikatik at ikusten dutenena, bestetik.

Boluntariotzarekin harremana duten gazteen kopuruak aurreikusitakoa baino leku handiagoa hartu digu elkarrizketatuen laginean. Horrek bete betean egiten du talka gazteen ustezko axolagabekeria defendatzen duen tesiarekin. Izan ere, gazteen ekimen horrek zerbaitekiko kezka izan badutela adierazten baitu. Hala ere, boluntariotza lana jasotzen duten erakunde edo elkarte gehienek ez dute, mugimendu sozialek bezala, aldaketa soziala helburu; eta, askotan goitik behera eratutako jardun guneak dira. Adibide batzuk aipatze aldera, Nuevas Generaciones erakundeko elkarrizketatuarena ekar genezake hona: boluntariotza eta ohiko politikagintza bateragarriak direla defendatzen du berak. Hain zuzen ere, ohiko alderdi politiko bateko kide izateaz gainera, Gurutze Gorrian jardun da hamar urtez; ekimen horretan etorkinei espainiera irakasten aritu da, eta beste hamaika lanetan ere parte hartu du. Bere hitzetan, inguruko lagun eta ezagun ugari sartu da boluntariotzan bere bidez.

Elkarrizketatutako beste neska batek, bere aldetik, azpimarratu digu boluntarioran ari den arren, ez duela inolako kezka politikorik sentitzen, eta senideekin eta lagunekin oso gutxitan hitz egiten duela gaiaz. Baina, aldi berean, gizarte gaiei buruz sentitzen duen grinak bultzatu du gizarte langintzako ikasketak egitera. Eta hor kokatzen du Caritasen egiten duen boluntariora lana ere; hainbat umeri eskolako lanak egiten laguntzen aritzen da (ELK-Basauri-neska). Gasteizen elkarrizketatutako neskek ere boluntariora lanak egiten ditu, baina ez da sekula elkarte bateko kide izan; elikagai bankuetan aritu da lanean, baita aniztasun funtzionala duten pertsonekin ere. Iruñeko eztabaida taldeko kideek, beren aldetik, boluntariora lanetan parte hartu izana aitortu dute: errefuxiatuei espainiera irakastea, esate baterako, jardunbide ohikoa izan da beraientzat, baita haurtxoekin kirol jarduerak egiten aritzea ere. Azken adibide bat aipatze aldera, Donostian elkarrizketatutako neska ibilbidea deigarria gertatu zaigu. Kooperante gisa jardun da birritan Erdialdeko Amerikan eta, azpimarratzen digu han bizitako esperientziak munduari buruz zuen ikuspegia aldatu diola, Euskal Herrian ez bezala, hango lagunekin asko hitz egiten baitzuen politikaz.

Boluntarioen jardunari ez bezala, mugimendu sozialen jarduerari izaera politiko esplizitua aitortzen diote elkarrizketatuek. Kasu horretan, *laguntzaz* bainoago *elkartasunaz* hitz egiten dute, maila berekoen elkarrekintza dela erakusteko. Gainera, mugimendu sozialek, gehienetan, eraldaketa sozialaren alde egiten dute lan. Izan ere, mugimendu ezkertiarren ekimena izan da, nagusiki, orain arte. Alderdi politikoetan eta sindikatuetan jarduten duten elkarrizketatuentzat bateragarriak dira, erabat, mugimendu sozialen ekimena eta politikagintza klasikoa; ez dute, edonola ere, auzi hori gehiegi nabarmendu beren diskurtsoetan. ELA sindikatuko kidearen ustez, adibidez, politikagintza ez da alderdi politikoaren jardunera mugatu beharreko zerbait; bere iritziz, funtsezko ekarpena egiten dute gizarte mugimenduek politikagintzan. Podemos-Ahal Dugu-ko kideak ere antzera hitz egin du, eta azpimarratu du ezinbestekoa iruditzen zaiola gizarte mugimenduek eta alderdi politikoek norabide berean lan egitea, nahiz bakoitzak bere esparruan jardun:

Niretzat politena izango litzateke mugimendu sozialek politika egitea jendearekin, eta mugimendu sozial horien eta jendearen beharrianak eta nahiak igotzea Legebiltzarrerara, eta alderdiok horri buruzko gauzak aurrera ateratzea, baina beti jendeak esan duenarekin (Podemos-Ahal Dugu-ko kidea).

Nolanahi ere, mugimendu sozialen esparrutik hitz egin duten elkarrizketatu batzuek interes gutxi agertu dute alderdi politikoekiko eta sindikatuakiko. Ezkerraldeko bazterketaren aurkako talde bateko kideak, esate baterako, urrun sentitzen ditu alderdi politikoak, bere hitzetan, gehiegi instituzionalizatu direlako. LGTBI mugimenduko kideak ere erakundeen eremutik kanpo kokatzen du bere burua, nahiago baitu mugimendu sozialen bidez kalean eragin. Ez du esparru instituzionala gutxiesten, eragin-indarra aitortzen dio, baina berak, bere aldetik, nahiago du ekimen indibidualagoa garatu; eta behin eta berriro azpimarratu digu Liga ez dagoela alderdi politiko bakar bati ere lotua. Donostiako taldeko kideek mugimendu feministaren ekarpena azpimarratu dute. Ohiko politikagintzarekin harreman handirik izan ez arren, elkarrizketatutako neska batzuek bat egin dute institutuko edo fakultateko talde feministen deialdiekin; nahiz, aldi berean, aipatzen duten “erradikalak” iruditzen zaizkiela mugimendu feministako kideak. Ezkerraldeko eztabaida taldeko partaideek ere bereizi egin dituzte alderdi politikoak eta gizarte mugimenduak, eta azken horiek ekarpen baliagarriak egiteko asmoa dutela iruditzen zaie. Talde feministen eta pentsiodunen lana azpimarratu dute. Baina ezin izan dute kezka bat ezkatu; hots, horien ekimena ere ez ote den ustelduko.

Oro har, politikagintza ulertzeko era asko eta oso dibertsifikatuak aurkitu ditugu ikerketan. Adibidez, beste profil bat marrazte aldera, aipa dezagun orain beren bizi proiektua eta lana gizarte mugimenduen baitan

ulertzen duten gazteen adibidea. OlatuKoop-eko kideak, esaterako, ekonomia sozial eraldatzailearen esparruan betetzen duen lanetik hitz egin digu. Bere ustez, ekonomia sozial eraldatzailea teoriaren eta praktikaren artean dagoen aldea txikitzeko bitartekoa da:

Nik esango nuke ekonomia sozial eraldatzaileak eman duela espazio bat orain arte hutsune ideologikoan ez baina praktikoan mugimendu aldetik absolutuan dauden gazteentzat (OlatuKoop sareko kidea).

Ildo berean, Errekaleorren bizi den elkarrizketatua ere urrundu egin da azken urteotan ohiko politikagintzatik, eta okupazioaren mugimendura hurbildu da, gazteak bizi dituen prekarietateari aurre egiteko eta gizartea bera aldatzeko esparrua delakoan.

Profil horiekin batera, badira mugimendu sozialen esparruan eta boluntariotzaren esparruan aldi berean jarduten duten elkarrizketatuak ere; joera berri samarra izan liteke, beharbada. Ongi Etorri Errefuxiatuak-eko kideak, adibidez, helburu humanitario batek bultzatuta parte hartzen du errefuxiatuen aldeko ekimenean; baina, aldi berean, beste era bateko boluntariotza lanak ere egiten ditu: besteak beste, Down sindromea duen jendearekin, familia behartsuekin, eta abar, aritzen da. Horrek sortzen dio grina eta aurrerantzean ere bide horretan segitu nahi luke, ohiko aktibismo politikotik at. Basaurin elkarrizketatutako neskak, bere aldetik, euskal kultura sustatzeko ekimenetan hartzen du parte, euskal musikaren aldeko jarrera aktiboa agertzen du, eta euskararen aldeko ekintzek erakartzen dute. Baina, ez du sekula botorik eman, eta ez da ekitaldi “politikotara” joaten; bai, ordea, ekitaldi kultural eta sozial batzuetara, baita ekitaldi feministetara ere (ELK-Basauri-neska).

Eta galdera gehiago sortu zaizkigu: zer iritzi dute elkarrizketatuek konpromisoaz? Zergatik eta zertarako egiten dituzte ekimen soziopolitikoak eta kulturalak? Nondik etorri zaie hurkoari laguntzeko eta elkartasuna adierazteko grina?

Boluntariotzaren eta mugimendu sozialaren jardunaz galdetuta, ikuspegi baikorra agertu dute, oro har, elkarrizketatutako gazteek. Batzuek maila pertsonalagotik hitz egiten dute, norberaren bizipenetan oinarritutako arrazoiak ematen dituzte. Ildo horretan, adierazgarria da, oso, Iruñean elkarrizketatutako mutilaren ibilbidea: bere hitzetan, senide bat zaindu beharrak piztu dio jendeari laguntzeko bokazioa. Donostian elkarrizketatutako mutilak, berriz, haurra zenean saskibaloian aritzeak eskaini zion aukerak bultzatu du orain haurren entrenatzaile izatera, berak besteengandik jasotakoa itzuli nahi baitie orain beste batzuei:

Kirola gustatzen zait, eta ondo pasatzen dut entrenatzen. Ikusten dut laguntzen ditugula umeak; oso garrantzitsua iruditzen zait umeek kirola egitea. (...) Ni txikia nintzenenean entrenatzaileei esker egin nuen kirola, orduan, gustatuko litzaidake nik beste batzuei berdin laguntzea (ELK-Donostia-mutila).

Iruñean elkarrizketatutako neskak, bere aldetik, Gurutze Gorriak piztu zion jakin-mina aipatu du: erakarri egiten zuen eta, hala, gertutik ezagutu zuenean, atsegina iruditzen zitzaion bertako lana. Beharra dutenei laguntzeko grina piztu zion horrek eta, gerora, ospitaleko animazio taldean sartu zen minbizia duten haurrei laguntzeko. Asko bete zuen esperientzia hark. Hamar urte daramatza Gurutze Gorrian eta, aurrerantzean ere, bertan jarraitzeko asmoa du. Lagun taldea ere osatu du bertan ezagutu dituen gazteekin. Iruñeko taldeko kideak ere “baliagarri sentitzeak” bultzatzen ditu hainbat elkartetan parte hartzera; betiere, ohiko politikagintzatik at dauden ekimenez ari dira:

Lo que estamos diciendo es que votar no sirve de nada, pero si lo que vamos a hacer es ayudar mediante un grupo en el cual sientes que sí sirves o te sientes valorado..., es que entonces claro que participas... (ET-Iruñea).

Parte hartze politikoa baliagarritasunarekin lotzen dute, elkarrizketuok bezala, beste batzuek ere: gizartearentzat lagungarriak direla sentitzen duten ekimenetan gustura parte hartzen dute gazteok, ez ordea hauteskundeetan. Iruñean elkarrizketatutako neskaren iritziz ere, bozkatzea eta konpromiso soziala ez daude halabeharrez lotuta: “Para mí votar es una cosa y el compromiso social es otra”. Gasteizen elkarrizketatutako neskaren ustez ere emaitza hobekak lortu daitezke ekimenen bidetik, hauteskundeen bidetik baino. Eta iritziz berekoa da Gasteizen elkarrizketatutako mutila ere:

Puede que no votes porque no te interesa o no te convence ningún partido y estar comprometido igualmente. (...) Para algunos votar será lo más importante y para otros será más importante ir a una charla o ir a una manifestación (ELK-Gasteiz-mutila).

Nuevas Generaciones-eko kideak ere zuzeneko laguntza nabarmendu du, emaitzak lortzen dituen laguntza humanitarioa. Gurutze Gorriaz ari dela, jendeari benetan laguntzea eta laguntza hori egikaritatea ikustea nabarmentzen ditu:

Es una forma de ayudar a la gente, que ya sé que suena muy bien, pero es que les ayudas realmente, porque esa formación que te enseñan ves que se materializa realmente y además de aprender y conocer gente, desarrollas una labor humanitaria (Nuevas Generaciones-eko kidea).

Edonola ere, Donostian elkarrizketatutako neskaren hitzak hona ekarrita, badira konpromiso soziala eta konpromiso politikoa (besteak beste, botoa ematea) txanpon beraren bi aldeak direla uste duten diskurtsoak. Jarraian irakur dezakegun adibidea horren lekuko:

Uste dut konpromiso soziala dutenak direla konpromiso politikoa dutenak, berdina dira, edo hori da nik ikusten dudana (ELK-Donostia-neska).

4.3.2. Gazteen proposamenak: nola parte hartu?

Ikerketa honen bilakaeran ikusten ari garenez, itxura batean, gazteek gizartean eragin nahi izaten dute eta horregatik hartzen dute parte politikagintzan; ez dute, ordea, ohiko esparru politikoetan konfiantzarik. Eta, hartara, gero eta mugatuagoa da politika konbentzionalean gauzatzen den gazteen partaidetza mota. Konpromisoari eta partaidetzari buruz galdetzean, edonola ere, askotariko erantzunak bildu ditugu; gazteek ez dute ikuspegi bateraturik auzi horri dagokionez. Ikus ditugun sakonkiago elkarrizketatuen iritziak.

Hauteskundeetan botoa emateari dagokionez, esate baterako, erakunde politikoetan eta sindikatuetan parte hartzen duten gazteek izan ezik, oro har, balio txikia aitortzen diote elkarrizketatuek. Salbuespen gisa, badira hauteskundeetan abstenitu izan diren arren, botoa emateari garrantzia ematen dioten gazteak ere. Bilbon elkarrizketatutako neskak, adibidez, aldi batzuetan bozkatu ez duela onartu duen arren, iruditzen

zaio konpromiso garrantzitsua dela bozkatzeko ekintza. Uste du, gainera, hala egiten ez duenak kexatzeko eskubidea galtzen duela, nolabait:

También te digo que siempre he pensado que sin ir a votar tampoco tienes derecho a quejarte. Si vas a votar tienes el derecho a quejarte después, pero si te quedas en casa... que yo lo he hecho, pero siendo objetiva, no le veo el sentido. Yo creo que hay que ir a votar, y algunas veces no lo he hecho por pereza o por desinterés (ELK-Bilbo-neska).

Donostian elkarrizketatutako taldeko kide batzuek, botoa ematera joaten diren arren, aitortzen dute itxaropen handiegirik gabe egiten dutela:

Nik bozkatzerakoan beti pentsatzen dut denak direla txarrak, baina aukeratzean aukeratzen dut el menos malo (ET-Donostia).

Baina, badira bozkatzera joateko prest agertu diren elkarrizketatuak; baita bozkatzeko baldintzak gaur egun hobeak direla uste duenik ere. Adierazpen horietako batzuek politikaren alderdirik instrumentalenean jartzen dute arreta. Izan ere, beren arazoak konpontzeko eraginkortasuna eskatzen diete gazteok alderdi politikoei bozkaren berme gisa. Ikus ditzagun iritzi horietako batzuk. Gasteizen elkarrizketatutako mutilak, esate baterako, ez du baztertzen bozkatzera joateko aukera; baina, pausu hori emateko gizartearen aldeko erabakiak hartzen ikusi nahi ditu politikariak eta alderdiak. Donostian elkarrizketatutako mutilak ere ez du baztertzen orain arteko joera uztea eta bozkatzera joatea, baldin eta etorkizuneko lan-baldintzetarako alderdi baten hautua beste batena baino hobea dela ikusiko balu.

Gasteizko eztabaida taldeko kide bat itxaropentsu agertu da, iruditzen baitzaio egungo gazteek informazio gehiago dutela eskura, eta etorkizuneko belaunaldiek irizpide gehiagorekin bozkatu ahal izango dutela. Eta, hortaz, gizartearen beharrei erantzuteko hautua indartu egingo dela aurrerantzean:

Es que hay mucha gente que ha votado siempre al mismo partido. Hay gente más mayor que nosotros que llevan votando 30 años al mismo partido, hagan lo que hagan. Yo creo que hay que tener esperanza, porque la gente de nuestra edad ya tiene mucha más información sobre todo, y en base a esa información y desde su criterio elige votar a uno o a otro o no votar. Yo creo que hay que llegar a un acuerdo contigo mismo y decidir qué es lo que tú quieres realmente (ET-Gasteiz).

Hauteskundeetan parte hartzeko hautuaz harago, hainbat elkarrizketatuk beste era bateko parte hartzea proposatzen du; jarrera aktiboagoa aldarrikatzen du, oro har. Baina, indibidualismoa gero eta erosoago dabilen garaiotan, zailtasunak besterik ez dituzte topatzen gazteen jarrera aktiboa bilatzen dutenek. Mugimendu sozialetan jarduten duten elkarrizketatuek badute horren kontzientzia baina, edonola ere, egoera horri aurre egin behar diotela defendatzen dute. Ongi Etorri Errefuxiatuak-eko kideak eta Uribealdeko sozioekologia taldeko kideak, esate baterako, gazteek gizartearen onuraren eta ongizatearen aldeko ideologiak eta jarrerak bereganatu behar dituztela aldarrikatu dute. Bigarrenaren ustez, egungo gazteek oso ondo ezagutzen dituzte gazte gisa dagozkien eskubideak, baina aldi berean, ahaztu egiten dituzte beren betebeharrak. Kritikatzen aritzea erraza iruditzen zaio Uribealdeko sozioekologia taldeko kideari, ez, ordea, norberak bere buruari zer egin dezakeen galdetzea eta ekiten hastea.

Astrako kideak, bere aldetik, uste du gizartea aldatu den heinean, alderdi politikoak eta sindikatuak aldaketa horietara egokitu behar direla, bestela, are eta zaharkituago geratzeko arriskuan ikusten ditu. Jendeak parte hartzeko guneak eta esparruak sortu behar direla uste du, izan ere, nabarmentzen du zerbaiti buruzko interesa pizten denean, jendea bere kabuz lotzen zaiola mugimendu sozialari; horretarako, jarduteko metodoak aldatzea iruditzen zaio garrantzitsuena. Eta ekimen komunitarioaren sustapenean jartzen du arreta, hots, komunitate osoaren interesen aldeko lana sustatzean. Horretarako, ordea, ezinbesteko lana iruditzen zaio gazteen kontzientzietan eragitea:

Hori lortzeko, nire ustez, taldeek eta grupilloek oztopatzen dute, gehiago pentsatu behar da era komunitarioan hobeto funtzionatzeko. Baina klaro, egia da jendeak ez daukala horretarako kontzientziarik, eta gazteek ere gero eta gutxiago (Astrako kidea).

Ildo berean, SOS Arrazakeriako elkarrizketatuak eta Ezkerraldeko bazterketaren aurkako taldeko kideak ohiko politikagintzatik haragoko eremuetan dute itxaropena; horrela lortuko da, lortzekotan, gazteek parte hartzea. Uribealdeko sozioekologia taldeko kideak, adibidez, norberaren eguneroko hautuen garrantzia azpimarratu du, eta erosketa-ohiturak aipatu ditu: zer eta nola erosten dugun. Egunero hartzen ditugun erabakien konpromisoaren zentzua aldarrikatu du. Ezarian-ezarian, gauza asko egin ditzakegula uste du, aldaketa txiki askok aldaketa handia ekar dezaketela sinetsita.

Bere burua apolitikotzat jo duen elkarrizketatu batek baino gehiagok beste era bateko parte hartzea proposatu du. Ezkerraldeko taldeko gazte batek, adibidez, erreferendum sistematikoak egitea aipatu du:

En vez de un tipo que mande o lo que sea, que haya más referéndums y que vote el pueblo. Yo creo que eso estaría mejor que lo que se lleva hoy en día. En otros países de hecho se lleva eso, y creo que funciona bastante bien. También tienen partidos políticos, pero te hacen un referéndum si van a arreglar una calle o para lo que sea (ET-Ezkerraldea).

Iritzi horren alde agertu den arren, talde bereko beste kide batek zailtasunak besterik ez dizkio ikusten horrelako jardun bati; izan ere, uste du gizarteak ez duela informazio nahikorik horrelako erreferendum-sistema batean parte hartzeko. Hortik tiraka, eztabaida piztu da elkarrizketa taldean. Arriskutsua iruditzen zaio taldeko kide bati baino gehiagori edozeinek edozein gairi buruz iritzia eman ahal izatea. Hona hemen iritzi hori azaldu duen elkarrizketatu baten aipua:

Lo ideal cuando se hace un referéndum sería que estuviera destinado a gente que supiera del tema, no puedes poner a una persona por ejemplo que no tiene estudios o una persona que no está movilizada en temas sociales a debatir sobre si se debería ilegalizar el aborto, o cualquier otro tema. Creo que eso es peligroso también (ET-Ezkerraldea).

Iruñeko eztabaida taldeko kideentzat ezinbestekoa da gazteak batzea eta antolatzea, baina informazio falta eta indibidualismoa oztupo handiak dira, haien ustetan:

Pero, por otro lado, mi bienestar emocional también es general, y hay que conseguirlo. Pero claro, uno solo no puede hacerlo, tenemos que estar todos juntos y eso te desmotiva mucho. Yo creo que muchas veces, por estar uno tranquilo y no meterte en líos pasamos de todo, pero por mirar por nosotros y los que vengan después de nosotros hay que salir a la calle (ET-Iruñea).

Yo pienso que hay que hacer algo, no hay que pasar de todo, pero como estamos tan ocupados con tantas cosas... Y luego, sobre la política; como nos vienen mil fuentes que no sabemos por dónde cogerlas o de cuáles fiarnos, es por eso por lo que pasamos. Todos aquí sabemos que si hacemos algo se pueden cambiar ciertas cosas, pero yo tengo que hacer algo ahora para salir adelante, para currar, para sacar adelante a mi hijo... Entonces, tú te mueves un poco por tu interés. Pero yo creo que si el tema político a nosotros nos beneficiara, saldríamos los primeros. Entonces, no es que pasemos, lo que pasa es que tengo mil problemas y no me apetece meterme en cosas que igual me están engañando y me siento gilipollas y tal (ET-Iruñea).

Edonola ere, zailtasunak zailtasun, norbanakook aldaketa sozialen aurrean dugun erantzukizunaz jabetu behar genukeela uste dute elkarrizketatu batzuek. Horixe da talde ekologista bateko kide honek defendatzen duena:

Eta hori da nire ustez egin behar dena edo mantendu behar dena: jendea mugiaraztea eta ikustaraztea jendeari norberak daukala giltza gauzak aldatzeko, ezin dugula besteengan utzi ardura edo erantzukizun hori (Uribealdeko sozioekologia taldeko kidea).

Zeharka bada ere, politikagintzan parte hartzeko modua aldatzea komeni dela babestu duen diskurtsoerik ere azaldu zaigu gure ikerketan. Piratak-eko kidearen hitzetan, militantzia eredu gaitik behera aldatu behar litzateke, eta ELA sindikatuko elkarrizketatua ere antzera mintzatu da:

Militantzia eredu ezberdinak, harreman ezberdinak, politika eta sindikalgintza egiteko modu berriak... (ELA sindikatuko kidea).

4.3.3. Gazteen proposamenak: nola erakarri gazteak politikagintzara?

Orain arte esan dugunez, *politika* eta *politikagintza* kontzeptuei askotariko adierak esleitzen dizkiete gaur egungo gazteek. Hain zuzen ere, aldaketa edo trantsizio une batean gaudela iradokitzen digu esangura-aniztasun horrek. Elkarrizketatu batzuen diskurtsoetan politikaren adiera oso zabala aurkitu dugu; azken horietan, gazteek eguneroko ekintzak ere politikotzat jo dituzte. Beste batzuen diskurtsoetan, berriz, politikaren ohiko ikuspegi hegemonikoak zer-nolako pisua duen antzeman dugu; bada, alderdi politikoen eta sindikatuen jarduna erreferentzia politiko nagusia da, oraindik ere, gazte askorentzat. Edonola ere, batean eta bestean, gazteak politikagintzara erakartzen asmatu behar dela aipatu dute; bakoitzak bere arrazoiak eta helburuak dituen arren. Bi ikusmolde daude, oro har. Gazte batzuek politikagintzan jartzen dute arreta (nolanahi ulertzen dela ere kontzeptu hori), hots, zer egin behar litzatekeen politikagintzaren esparrutik gazteak erakartzeko. Beste batzuek, aldiz, gazteengan jartzen dute arreta, alegia, zer egin behar luketen gazteek, zein erantzukizun duten beraiek politikagintzara hurbiltzeko.

Lehendabiziko ikuspegitik hitz egin digu ELA sindikatuko kideak: bere hitzetan, ez da lan samurra gazteak politikara erakartzea, ez daki zehazki nola asmatu lezaketan alderdi politikoei eta sindikatuei gazteak beren

esparrura erakartzeko. Baina, argi adierazi du hainbeste gazte politikari buruzko interes urria izatea ez dela kasualitatearen ondorioa. Gazteen ustezko despolitizatzea zerk eragiten duen aztertu dugun atalean aipatu dugunez, gazteek funtsezkotzat jotzen dute politikariek gazteen beharrak entzutea, behar horiei erantzutea, gazteak informatzea, politikariek beraiek jarduera eredugarria izatea, eta hurrengo belaunaldi heziketa politikoa eskaintzea; horrela baizik ez dute lortuko, elkarrizketatuen iritziz, gazteengana hurbiltzea.

Ekologistak Martxan taldeko kideak, bere aldetik, aldeztu du, alderdiek “ekimen irekiak” egin behar lituzketela; bere hitzetan, lau urtean behin bozkatu behar diren egitura soil eta urrun gisa ikusten dituzte gazteek alderdi politikoak. Edonola ere, gaineratu du gazteak politikagintzara erakartzeko bidea mugimendu sozialena dela, ez alderdi politikoa. Horri tiraka, gazteak erakartzeko gakoei buruz hitz egin dutenean, honako kontzeptu hauek nabarmendu dituzte mugimendu sozialean parte hartzen duten elkarrizketatuek: autoantolakuntza, horizontaltasuna, mobilizazioa, aktibismoa, ekimen irekiak, egunerokotasuna, eta abar.

Piratak-eko kideak, esate baterako, politikagintzak iraganean izan duen ospea eta arrakasta berreskuratu behar dituela adierazi digu. Aldaketa beharra nabarmendu du. Bere ustez ere, gazteak politikagintzara hurbiltzeko bidea mugimendu sozialen dinamikan datza: iruditzen zaio, egitura horizontaleko mugimenduak eta autoantolakuntzan oinarritzen direnak esparru egokiak izan litezkeela gazteak politikagintzan hasteko. Euskara Elkarte bateko kideak, bere aldetik, diskurtsoan jarri du arreta: bere hitzetan, euskalgintza bezalako mugimendu batek diskurtsoa aldatzen asmatu behar luke eta, horretarako, ezinbestekoa iruditzen zaio gazteen kezkek aintzat hartzea, eta sor litezkeen diskurtsoak gazteen kodigoen arabera eraikitzea.

Mugimendu sozialen ekarpena azpimarratu du Ernaiko kideak ere. Makro-diskurtsoetatik aldentzea, eta jendeari egunerokoan garrantzitsuak zaizkion auziez hitz egitea ezinbestekoa iruditzen zaio. Ildo horretan, Donostiako Piratak-eko kideak *Herri Harresiaren* esperientzia aipatu du; izan ere, nabarmentzen du inolako dinamika politikotan sekula parte hartu ez zuen bere lagun bat erakarri zuela egitasmo hark. Hitz hauekin azaltzen du berak:

Horrek erakusten du egin daitezkeela gauzak beste modu batera, hori bai, asmatu behar da proposamenarekin eta jendeak sentitu behar du hor egoteak zerbaitetarako balio duela. Gauzak beste modu batera egiteak ez du esan nahi light-ago egitea (...) Nire ustez, lortzen bada jendea modu horizontalean antolatzea eta inteligentzia kolektiboa batzea badagoela zeregina (Donostiako Piratak-eko kidea).

Gazteak politikagintzara erakartzeko beste bide bat feminismoarena litzateke, elkarrizketatu askoren ahotan. Gazte ugari goraipatu du mugimendu feminista jorratzen ari den bidea, eta garatzen ari den jarduera politikoa belaunaldi gazteenentzat eredu izan daitekeela uste dute. Iritzi horretakoak dira, besteak beste, Piratak-eko kidea, herri ekimenetan diharduen gaztea, eta Bilgune Feministako kidea. Azken horren hitzak dira ondorengoak:

Nire ustez asko dago ikasteko adibidez mugimendu feministatik, ze mugimendu feministan belaunaldi gazteak ari gara atxikitzen eta antolatzen. (...) badago botere harremanen inguruko hausnarketa bat, nik uste dut feminismoak oso modu integralean analizatu dituela jendartean dauden botere posizioak, dauden rola... orduan, hor gazte bezala, zure buruan pentsatzeko tresna gehiago dituzu (Bilgune Feministako kidea).

Bilgune Feministako kideak gaineratu du gazteak politikagintzan jardun daitezzen “artikulazio formula lausoagoak” sortzea ezinbesteko lana dela. Hain zuzen ere, bere ustez, feminismoak horretarako tresna teorikoak eskaintzen ditu; izan ere, teoria feministek esplotazio eta dominazio sistemak identifikatu eta aztertu dituzte, baita sistema horietan bazterreko sektoreek duten kokalekua ere. Feminismoak eskaintzen dituen tresnetatik abiatuta, honako hau proposatzen du:

Gune askotarikoak elkartzeko eta gero berriz aldentzeko, eta egitura zurrun bat bezala funtzionatu beharrean olagarro bat bezala funtzionatzea, adarkatze ezberdinak dituen eta unean uneko beharren arabera funtzionatzen duena (Bilgune Feministako kidea).

Gazte ez politizatuen jarrera oso bestelakoa da, oro har. Jarrera ezkorragoa antzematen zaiela esan genezake, nolabaiteko kontsumo-kutsua dariona: hots, erabiltzailearen eskubideez asko mintzo dena, baina aldi berean, betebeharrak nolabait ahazten dituena. Ezkerraldeko eztabaida taldeko kide batek argi azaldu du aldagetak etortzekotan *goitik* etorri behar direla; beraz, bere ustez, politikariek egin behar dute zerbait gazteek politikari buruzko ilusioa berreskura dezaten. Egia zor, talde horretako beste kide batzuek kontrako iritzia agertu dute. Esate baterako, jarraian datorren honek:

Como antes hemos dicho, los jóvenes tenemos la llave del cambio, pero lamentablemente vivimos en un sistema democrático y también todo depende de arriba. Entonces, primero tendrá que haber un cambio arriba, crearnos el interés en ciertas cosas... porque nos pueden acusar de individualistas y de que no nos interesa la política, pero nosotros somos así porque la situación actual es así. Nosotros, algunos hemos coincidido en que si pudiésemos votar a alguna persona que nos representase, votaríamos. Nosotros la iniciativa la tenemos, pero claro, nos tienen que generar el interés. Nosotros tenemos interés en muchas cosas... (ET-Ezkerraldea).

Politikariek gazteak informatzeko duten betebeharra maiz aipatu dute elkarrizketatuek; gainontzean, politikari buruzko ezjakintasuna olia bezala zabaltzeko arriskua ikusten dute belaunaldi gazteenengan. Gure Esku Dago-ko kidea, adibidez, oso kezkatuta agertu da bere ondoko belaunaldikideak politikoki oso ezjakin ikusten dituelako; susmoa du etxe askotan gurasoek ez dutela seme-alabekin auzi politikoez hitzik egiten. Bide berean, Gasteizen elkarrizketatutako neska kezka berbera agertu du; gaineratu du zerbaitekiko ezjakintasuna eta gai horri buruzko interes falta zuzenki lotuta daudela. Segidan aurkezten dugun aipuan azaltzen du ideia hori:

La verdad es que nunca me han explicado exactamente lo que defiende cada partido político en particular. Si se diera mayor información igual los jóvenes tendrían mayor interés o mayor conciencia para votar. (...) como tienen ese desconocimiento de las cosas, pues se mueven menos. Igual con mayor información habría mayor participación (ELK-Gasteiz-neska).

Ongi Etorri Errefuxiatuak-eko kideak, bere aldetik, hedabibideen erantzukizuna jarri du mahai gainean: zeresan ikaragarria dute, bere hitzetan, munduan gertatzen den hori jendeari erakusteko eta “objektibotasunez” helarazteko zereginean:

Azken finean, komunikabideetan esaten da nahi dutena, eta ez benetan gertatzen dena, orduan, komunikabideek ez badigute hori transmititzen, normala da ere jende asko ez mugitzea. Agian ez daukagu jakintza hori gertatzen denari buruz ez digutelako erakusten (Ongi Etorri Errefuxiatuak-eko kidea).

Baina, informazioaren kudeaketa ez da hedabideen zeregina soilik. Hezkuntza sistemaren erantzukizuna ere agertu zaigu hainbat elkarrizketaturen diskurtsoetan. Herri ekimenetan dabilen kideak hezkuntzak ezagutza zabaltzeko duen egitekoa azpimarratu du, eta gaineratu du hausnarketarako espazio gehiago ireki behar lituzkeela. Donostian elkarrizketatutako taldeko kideek ere hezkuntzaren egitekoa nabarmendu dute. Aipu bana azaltzen dugu jarraian:

Eskolan inork ez dizu hitz egiten politikari buruz. Orduan, hori ere gaizki dago, nire ustez (Herri ekimenetan diharduen Donostiako gaztea).

Igual ikastolan “Ética y Religión” dagoen moduan, egon daiteke bat dena “Política para la vida real” (ET-Donostia).

Uribealdeko sozioekologia taldeko kideak tankera beretsuko ideia azpimarratu du. Bere ustez, jendeak, gazteek, inizatiba hartu behar lukete eta ekimen politikoetan parte hartu; baina, aldi berean, uste du erakundeen zeregina dela gazteengan jarrera hori sustatzea. Ildo horretan, ezin interesgarriagoa iruditzen zaio gutxieneko hezkuntza politiko bat jasotzea:

Eta iruditzen zait hori asko bultzatu dutela instituzioek beraiek, ez dutelako lanik egiten guztiok barnebiltzeko. Eta zer egin ahalko luketen? Ba hori, hezkuntza politiko minimo bat ematea (Uribealdeko sozioekologia taldeko kidea).

Iruñean elkarrizketatuko neskari ere funtsezkoa iruditzen zaio gazteek prestakuntza politikoa jasotzea. Iruditzen zaio ezinbesteko lana dela hurrek txiki-txikitatik alderdi politikoez, politikaz eta politikagintzaz hitz egitea. Testuinguru horretan, politikariei proposatzen die gazteengana hurbiltzea eta hizkera ulergarria erabiltzea. Segidan datorren aipuan azaltzen du ideia hori:

Si nos ayudan a ver la política como algo más ameno (...) que no hablen con palabras difíciles de entender, que se acerquen más; que no todos tenemos carreras universitarias, no todos entendemos las palabras de economía que utilizan (ELK-Iruñea-neska).

Gazteen ahotsak entzutea eta ahots horiek dakartzaten aldarrikapenak aintzat hartzea ezinbesteko baldintza iruditzen zaie elkarrizketatu batzuei, gazteak politikagintzara hurbil daitezten. Gasteizen elkarrizketatutako neskaren arabera, adibidez, gazteen politikari buruzko interesa pizteko gakoetako bat beren ahotsa entzutea da, gazteengana gerturatzea, eta dituzten beharrak ezagutzea eta kontuan hartzea. Antzera mintzatu da Gure Esku Dago-ko kidea ere; bere hitzetan, herriko gazte asanbladan jabetu zen gazteen iritziak duen garrantziaz eta iritzi hori entzuteak duen balioaz: “eta ikasten duzu gazteak gizartea garela gaur egun”. Ildo berean, Podemos-Ahal Dugu-ko kideak legeak gazteen beharrei begira egiteak duen garrantzia azpimarratu du bere diskurtsoan:

Nik uste dut bitala dela gazteen eskubideak bermatuko dituen lege bat egitea, eta denon laguntza behar dugu hori egiteko. Azken finean, ez da gobernuak edo alderdi batek lege hori egitea, baizik eta espazio komun polit bat sortzea lan hori egiteko. Azken finean, instituzioek, berez, ez diote gizarteari erantzun bat emango, eta denon nahiak instituzionalizatu behar dira, eta lege bihurtu behar dira (Podemos-Ahal Duguko kidea).

EGIko kideak, bere aldetik, alderdi guztiak seinalatu ditu, izan ere, bere ustez, alderdi guztiak hartu behar lukete lehentasun gisa gazteen politikari buruzko interesa piztearen erronka. Helburu garbi batekin, gainera, hots, gazteak politikaren erabilgarritasunaz ohartaraztea:

Uste dut hori guztion ardura izan behar dela, eta guztiok eman behar diogu horri buelta bat eta ekitaldi edo jarduera ezberdinak planteatu haiek parte hartzeko. Eta gero, parte hartzean ikustea haiek esandakoak eta haiek hara joateak zerbaiterako balio duela, ez du balio egitea ekitaldi bat gazteak egoteko eta hor esaten dena ez erabiltzeak, kasu horretan gazteek esango dute ez direla bueltatuko (EGIko kidea).

Azkenik, erakundeetan eta hainbat alderdi politikotan azalera atera den ustelkeriak ere izan du lekurik hainbat elkarrizketaturen ekarpenetan. Podemos-Ahal Duguko kidearen ustez, testuinguru horretan lehendabizi egin beharreko etxekolana gazteen konfiantza berreskuratzea litzateke. Donostian elkarrizketatutako mutilaren arabera, berriz, aurrekontuetako diru partidak beste era batean kudeatu behar lirateke: proposatzen du armadari eta elizari ematen zaien dirua berraztertzea, politikarien soldatak eta jende arruntarenak parekatzea, eta abar. Ikus dezagun nola azaltzen duen berak:

Gaur egun botere politikoen antolamendua nola dagoen eta zenbat kargu politiko dagoen beraien soldatekin... hori aldatuko nuke, eta beste batzuen soldatekin ekiparatuko nituzke (ELK-Donostia-mutila).

Ikus dezagun jarraian, gazteak politikara hurbiltzeko prozesuaren erdigunean gazteen beraien inizatiba jartzen duen ikuspegia: zer dago gazteen esku? Zer egin behar lukete politikaren esparrura hurbiltzeko? Ezkerraldeko bazterketaren aurkako talde bateko kideak mobilizazioaren garrantzia azpimarratu du; izan ere, bere ustez, mobilizazioetan parte hartu ondoren beste begi batzuekin begiratzen zaio politikagintzari:

En el fondo, por naturaleza, somos muy conservadores y nos da miedo dar el paso. Pero si das el paso, ya te metes en ese mundo, o, por lo menos, ya has hecho una pequeña transformación (Ezkerraldeko bazterketaren aurkako talde bateko kidea).

ELA sindikatuko kideak, bere aldetik, gazte aktiboak nahi ditu; erakundeetan parte hartuko duten gazteak, hartara, uste du erakundeek gazteen beharrak eta interesak ordezkatzeko aukera asko handituko litzatekeela. Segidan aurkezten ditugun hitzak bereak dira:

Nik uste dut gazteen beharrizanei erantzuteko lehendabizi gazteok egon behar dugula egitura horietan eta protagonismoa hartu, bestela, oso zaila da egitea. Alor politikoan parte hartzea iruditzen zait askoz gehiago landu beharko genukeela (ELA sindikatuko kidea).

Ongi Etorri Errefuxiatuak ekimeneko kidearen arabera, ezinbesteko baldintza da gaur egun bizi gaituen indibidualismotik ateratzea, eta beste bizimodu eta errealitate batzuek jabetzea, eta horren kontzientzia hartzea. Bere hitzetan, horrela baizik ez da lortuko gazteek politikari buruzko grina senti dezaten:

Bakoitza bere bizitzatik irtetea eta ikustea zure etxetik at bizitza dagoela, eta pertsona gehiago dagoela, eta ez dela dena zu, zure bizitza, zure herria... Gasteizetik kanpo edo Euskal Herritik kanpo ere beste gauza batzuk daudela, eta Euskal Herri barruan ere zure indibidualismotik kanpo ere beste gauza asko daudela egiteko edo laguntzeko edo bakoitzak nahi duena egiteko (Ongi Etorri Errefuxiatuak-eko kidea).

Gazteek egiazki duten erantzukizunaren kontzientzia hartu behar luketela aipatzen du Uribealdeko sozioekologia taldeko kideak. Bere ustez, aldaketa eta hobekuntza ez dira politika instituzionalaren eskutik soilik etorriko; norberak bere eguneroko zereginetan garatu dezakeen zerbait izanik, hori barneratu, eta konpromiso soziala hartu behar lukete gazteek. Bestalde, protesta egiteko “modu alternatiboak” asmatu behar direla dioen diskurtsoa ere agertu zaigu gure ikerketan; hori babestu duten gazteen arabera, ohiko aldarrikapenek eta manifestazioek ez dute arrakastarik gaur egun. Beraz, egoera horren aurrean, beste era bateko bideak jorratu behar izango dituzte belaunaldi gazteenek, politikariek beren interesak aintzat har ditzaten eta beren betebeharrak berma ditzaten:

Yo creo que la típica manifestación de sentarte en algún sitio con pancartas está ya un poco pasada, a los políticos les da igual que hagan otra manifestación más (ELK-Bilbo-mutila).

Edonola ere, aipa dezagun hemen gazte ez politizatuen sentazioak ez direla bereziki positiboak. Ezkerraldeko eztabaida taldeko kideen hitzetan, borondatea izan badute egungo gazteek, baina erreta daude, oro har:

Aunque la gente joven siempre ha sido la que ha cambiado las cosas en la sociedad, actualmente la gente joven está muy quemada (ET-Ezkerraldea).

Atal honi amaiera emateko, Iruñeko mutilaren hitzak hona ekarrita, esan dezagun, gazteak elkartzea eta antolatzea lan erraza izango ez den arren, egungo egoera ikusita, erreakzionatzeko beharra sentitu dezaketela luze gabe.

Laburbilduz

Gazteak ez daude pozik alderdi eta ohiko instituzio politikoekin, hori begi bistakoa da, baina oker egongo ginateke hortik gazteen pasibotasuna eta axolagabekeria politikoa besterik ez bagenu ondorioztatuko. Atal honetan ikusi dugu zenbat ekimen desberdinetan parte hartzen duten gazteek, eta, horrekin batera, konpromiso sozialari eta zibikoari buruzko bestelako ikusmolde politiko eta ideologikoak agertzen ari direla.

Ekimen horien artean bi praktika orokor bereiz ditzakegu: boluntariotza eta gizarte mugimenduak. Boluntariotzari dagokionez, elkarrizketatuen kopuru handi bat egon da, edo dago, halako jarduerekin harremanetan, eta horrek indargabetu egiten du gazteen axolagabekeriaren tesia. Parte hartzen dutenen artean, esan liteke askok ez diola

partaidetza horri esanahi politikorik esleitzen, baina esanguratsua da gero eta ohikoagoa dela boluntariorian eta gizarte mugimenduetan batera aritzea.

Gizarte mugimenduetan ari direnek, aldiz, gehienetan zentzu politikoa ematen diote jardunari, eta argi dute behetik sortutako ekimenetan subjektu aktibo direla eta eraldaketa soziala dutela helburu. Kasu batzuetan, alderdi politikoetan edo sindikatuetan ari direnen aldetik, bateragarri egiten dute politikagintza klasikoa eta gizarte mugimenduetako jarduera, baina beste kasu askotan, ez dute halako loturarik egiteko beharrik ikusten. Alderantziz, politikagintza klasikotik urrun, eroso sentitzen dira gizarte mugimenduetan bakarrik arituta. Adibide asko jaso ditugu ildo horretan, bestelako politikagintza ereduak garatu nahi dituzten gazteenak, alegia.

Baina zergatik eta zertarako inplikatu halako ekimenetan? Arrazoi asko aipatzen dira: bizipen pertsonaletatik abiatutako *bokazioa*; txikitik beste batzuegandik jasotakoaren *ordea* edo *ordaina*; halako ekimenak egiteak berez sortzen digun gogobetetzea; elkartasun ideologiko landua; bestelako gizarte bat eraikitzeke konpromiso militantea, etab. Oro har, gizartearentzat lagungarriak direla sentitzen duten ekimenetan gustura parte hartzen dute gazteek.

Gazteen ustezko pasibotasunaren gaia bazterturik, ez dugu batasunik aurkitu, ordea, konpromisoa eta partaidetza nola gauzatu beharko litzatekeen galdetzean. Hauteskondeen garrantzia, esate baterako, oso eztabaidatua da. Ohiko politikan ari direnek defendatzen dute, eta baita *ez politikoen* multzoan sartzen diren batzuek ere, uste baitute gauzak eskatu ahal izateko, parte hartu behar dela. *Ez politikoen* multzo honetan, ordea, gehiago dira batere ilusiorik agertzen ez dutenak edo balio instrumental hutsa ematen dietenak hauteskondeei: parte hartuko lukete onura zuzena aterako balute. Eta badira, azkenik, ikuspegi ideologiko batetik hauteskondeetako botoari garrantzia kendu nahi diotenak, bestelako partaidetza motak hobesten dituztelako, ekimen komunitarioa sustatuz. Hala ere, azken multzo honetako kideak jakitun dira gaur eguneko ohiturak haien desioen kontra doazela, indibidualismoa oztopo handia baita partaidetza aktiboa bultzatzeko, baina eguneroko ekimenetatik abiatuta, bide berriei ekiteko garrantziaz ohartarazten dute.

Politikagintza zer den modu desberdinetan ulertzen bada ere, oso aipatua izan da gazteak politikara nola hurbildu asmatu behar dela. Ildo horretan, bi ikusmolde daude: nagusia den ikusmoldean politikagintzan jartzen da arreta, eta bilatzen da gazteak politikara zelan erakarri; baina bigarren ikusmoldean gazteengan jartzen da arreta, eurak dira subjektuak, eta, beraz, pentsatzen da gazteek zer egin beharko luketen politikagintzara hurbiltzeko.

Lehenengo ildoan, gazteak politikara erakartzearen zailtasunak aitortzen dira. Gazteek egindako salaketei erantzunez hasi beharko litzatekeela uste da, hau da, politikariet gazteen beharrak entzutea eta haien beharrei erantzutea, informatzea eta jarrera ereduariak izatea. Horrez gain, proposamen bat baino gehiago egiten da, herri mugimenduetan ari direnen aldetik batez ere: hurbiltasuna bilatzea eta zaintzea, horizontaltasunez jardutea, informazio bideak ugaltzea, heziketa politikoari garrantzi handiagoa ematea, etab.

Bigarren ildoan, gehiago eskatzen zaie gazteei. Batetik, aktiboak izatea eta adieraztea, mobilizazioetan eta baita erakundeetan ere parte hartuta, informatzailearen arabera, politikagintza zerbait propio gisa ulertu ahal izateko horrela; bestetik, oraingo indibidualismotik irtetea, bestelako egoera eta errealtatez jabetu ahal izateko

Hala ere, eta amaitzeko, ez politizatuenen artean ez da esperantza gehiegirik nabari, erreakzionatzeko borondaterik ager daitekeen arren.

5. BERRIKUNTZA POLITIKOAREN ZANTZUAK: GAZTEEN ESKUTIK SORTZEN ARI DEN POLITIKAGINTZA

Txosten honetan ikusi ahal izan dugunez, gazteen eta politikaren arteko harremana aldatzen ari da. Maila eta intentsitate desberdinetan bada ere, gaur egungo gazteek harremana dute politikarekin, bai, baina ez XX. mendeko belaunaldien tankerakoa, beste adierazpen batzuen bitartez gauzatutakoa baizik. Hartara, gaurko gazteen politikagintza eta partaidetza politikoa ulertzeko beste kode batzuk baliatzen hasi behar dugu. Ba al dago berrikuntza politikorik ikerketa honetan elkarrizketaturiko gazteek adierazitako esperientzietan? Hala bada, zelan adierazten dira esperientzia politiko berriak? Eta nortzuk dute rol nagusia azaleratzen ari diren esperientzia horietan?

Txostenean behin eta berriro esan dugun bezala, politikaren kontzeptua bera ulertzeko modua aldatzen joan da azken hamarkadetan. Hain zuzen ere, horixe bera da, oraintsutik, gazteen eskutik politikan gertatzen ari den berritasun handienetakoa: gaur egungo gazte asko, bereziki gazte politizatuena, ohiko ekintza politikoaren mugak berriz definitzen ari dira, hau da, gune pribatuen eta kolektiboen arteko erreferentziak lausotzen, parte hartze politikoaren errepertorioak orain arteko esparruetatik kanpo zabaltzen, eta beren konpromiso soziala adierazteko erabiltzen duten testuingurua desinstituzionalizatzen. Izan ere, gazte horietako askorentzat, aktibista izatea edo politikoki mobilizatuta egotea gizarte bizitzan eragina duen kausa jakin batean engaiaturik egotea da, bizitza komunean inplikazioa duen zerbaitetan aritzea, edozein dela ere auzi hori. Aktibista izatea edo politikoki aktibo egotea ez dago, ezinbestean, politika instituzionalari loturik, gazte askoren ustetan, sistema demokratiko liberalek eta beren instituzioek ez dituztelako eraginkortasunez jasotzen eta betetzen gazteen eskariak. Aitzitik, marko globalean, estatu politikek aktore ekonomiko transnazionalak markaturiko politika publikoak abiarazi dituzte urteotan, babes gutxien duten gazteen interesen kaltetan. Ondorioz, hein handi batean, gazte askoren konfiantza galdu dute indarrean dauden sistema demokratiko liberalek eta haien instituzioek.

Horrenbestez, gaur egun gazte politizatuena gauzatzen ari diren politikagintza berria ez dago, ezinbestean, sistema demokratikoetako logika ordezkatzaileari loturik (hauteskundeak, bozkak eta alderdi politikoak tartean direla). Politikagintza berriak ez du delegazioa lehenesten. Gazte askorentzat, politika egitea botere harremanak eta desberdintasun nahiz bereizkeria sozialak aldatzeko jardutea da, baina ez soilik eskala handian, alderdiak bezalako instituzio politikoaren bitartekaritzarekin, baita eskala txikian ere, norbanakoaren ekintzen bidez eta, maiz, bitartekaritza organizatiborik gabe. Hartara, gazteen politizatzeaz hitz egiten dugunean, ezin diegu politika alderdikoari, politika parlamentarioari edo hauteskunderen ohiko esparru politikoari soilik begiratu. Izan ere, esparru horiek baino aintzat hartzen ez badira, sarritan gazteen inplikazio politikoari buruzko inkestek egiten duten bezala, gazteen argazki desitxuratu samarra agertzen zaigu: gazte axolagabeak irudikatzen dizkigute behin baino gehiagotan azterketa kuantitatiboek, kezka kolektiboetatik at bizi diren heldu-gaiak. Baina, benetan, indarrean dagoen sistema politiko instituzionalari buruzko interesik eza eta desilusioa adierazten dute gaur egungo gazte gehienek, ez politikari buruzkoa. Aitzitik, ikusi dugun bezala, gazteek beren kezka eta agenda politikoak dituzte eta helduen kezken eta agenden bestelakoak dira. Horrela, elkarrizketetan eta eztabaida taldeetan berretsi ahal izan dugu gazte politizatu gehienak (eta ez hain politizatuak ere, gradu desberdinetan) gizartearen bilakaeraz arduratzen direla, baita eredu sozial alternatiboez ere, eta zalantzan jartzen dituztela botere harremanak, ohiko esparru publikoan nahiz handik kanpoko bizitza arloetan.

Jakina, elkarriketatu ditugun gazte guztiek ez dituzte eraldaketa soziala helburu duten praktikak gauzaten. Denek ere ez dute engaiamendu zibiko edo sozial maila bera adierazi. Baina, badira batzuk, ibilbide politiko luzeagoa, esperientzia biziagoa eta, ondorioz, trebetasun politiko landuagoak dauzkatena. Azken horien gogoetarako gaitasuna ere oso handia da. Esan nahi baita, garatua dute, oso, beren parte hartzeaz hausnartzeko gaitasuna, eta gai dira gogoetaren bidez beren aktibismoaren norabidea moldatzeko, eta aktibismo hori baldintza sozial aldakorrek ezarritako desafio berriei aurre egiteko moduan egokitze.

Bestalde, politika egiteko modu berriak ez dira ezerezetik sortzen. Ildo horretan, Euskal Herriko zenbait gunetan orain arte garatu izan den bizitza komunitarioak (bereziki, herri txikietan eta zenbait auzotan) eta zenbait talde politikotan landutako kultura politiko kontrahegemonikoak hazitegi emankorrak izan dira gazte askoren politizatze prozesuaren hastapenetan. Izan ere, gazte talde batzuk aurretik datozen tradizio politiko eta sozial horietatik elikatu dira. Bada, balio komunitarioetan sozializatuak izan dira etxean, eta lehenagotik datorren kultura politiko horietan aurkitu dute azpiegitura organizatibo egokia ikasteko eta trebatzeko (ezker abertzalearen inguruko organizazioetan, batik bat, baina baita bestelako mugimendu sozialetan eta jarduera zibikoetan ere). Gazte horien ibilbideetan Bigarren Modernitateak ekarri duen aro berrietarako trantsizioa atzeman dezakegu, bai eraketa ereduetan, bai balioak, politikagintza, eta aktibismoa ulertzeko moduetan. Oraingoan, aldaketa horiek xumeak dira, gazteen gutxiengo batzuen praktiketan azaleratzen dira. Hala ere, zantzu modura, joera-ildo batzuk iragartzen dituzte, hemen ez ezik esparru globalean ere une honetan gauzaten ari direnak.

Ildo horretan, ondoren aletzen diren prozesuetan atzeman ditugu gazte horiek sortzen ari diren politikagintza berriaren zantzuak.

1. Esparru pribatuaren politizatzea. Gazte berritzaileek eguneroko jardueretan jarri dute beren kezken eta interesen erdigunea. Izan ere, ez dute ikusten ohiko sistema politikoak aukera handirik ematen dienik beren premiak asebetetzeko. Sistema politikoa entzungor hautematen dute beren eskarien aurrean. Hartara, arian-arian, gazteon ekimenak lekuz aldatzen ari dira, alderdi politikoetatik eta hauteskunde sistematik, eguneroko bizitzako esparruetara. Jakina, toki aldatze horrekin batera, bestelako agenda bat agertzen ari da gazteen jardueretan. Horrela, orain arte ez politikotzat hartzen ziren gai asko zentzu politikoa hartzen ari dira: zein hizkuntzatan hitz egiten den, nolakoak diren pertsonen arteko harremanak eta harreman horiek zeharkatzen dituzten azpiratze erak, zer erosten den eta zer kontsumitzen den, zer nolako lana aukeratzen den, naturarekin ezartzen diren harremanak, sexualitatea garatzeko askatasuna, identitate indibidualak nahiz kolektiboak eraikitzeke aukerak, eta abar. Esparru horietan guztietan eta beste askotan egindako ekintzak, ekintza etiko-politiko garrantzitsu bilakatzen dira gazteen bizitzan. Hain zuzen ere, gazte horien praktikek hauxe adierazten digute: pertsona batek esparru pribatuan egiten duen eragin erabakigarria dauka testuinguru pribatutik harago. Jakina, esanahi politikoaren esleitze horrek zabaldu egiten ditu parte hartze politikoaren errepertorioak, ohiko instituzio politikoetatik kanpo.

Nik uste dut politika egin daitekeela edozein lekutatik; politika egin dezakezu zure koadrillan, zure lanpostuan, ikasten duzun lekuan... Eta ez zara zertan egituratuta egon behar edo antolatuta egon behar. Logikoki, kolektibo horrek ematen dizun indarra ezin da konparatu pertsona baten ekintzarako gaitasunarekin..., baina, bai, politika alderdietatik kanpo ere badago. Eta, nahiz eta uste dugun ezetz, gero eta indartsuagoa da hori, nire inguruan ikusten dudana (Ernaiko kidea).

Politika, orokorrean, egunero egiten ditugun hautuak egitea da, eta horrek eramango du gizartea era batekoa izatera edo beste era batekoa izatera (Uribealdeko sozioekologia taldeko kidea).

2. Agentzia politikoak izatearen zentzua. Orain arte esan dugunaren harira, aldaketa norberaren aldaketatik hasten da, dela hizkuntzatik, dela sexualitatetik, dela kontsumo ohituretatik, eta abarretatik. Bada, politika ez da bizitzatik banatuta dagoen esparru bat, non banakoa kanpotik integratu behar den bere helburuak lortzeko. Ildo horretan, publikoa eta pribatua lotu-loturik daude ikuspegi berrietan, eta nia eta eguneroko bizitza, biak ala biak, ekintza politikoan sartu-sartuta egon litezke, baita sakonki egon ere. Gazte berritzaileek subjektu politiko izan nahi dute, ez politikari profesionalen edo instituzio politikoaren modura, beren bizitzak beren nahierara eraiki ahal izateko baizik. Logika horrek errepertorio politikoaren indibidualizazioa dakar, eta modu paraleloan, politikaren eredu instituzionalizatuen ahultze bat. Izan ere, ugalduta egiten dira banakoaren eta egunerokoaren inguruan oinarrituriko praktika politikoak.

Eta ikasten duzu ere bai gazteak ez garela etorkizuna, oraina ere bagarela. Eta gure iritzia orain ere entzun behar dela (Gure Esku Dago-ko kidea).

Nik laranja non erosten ditudan politika da. Edo nori erosten diodan esnea ere politika da. Ze guk egiten ditugun gauza txiki horiekin eragiten dugu (...) ze, baserritarrari erosten badiot esnea berak lan egiten jarraitu ahal izango du (...) Bestela, Eroskin erosten badut, edo beste supermerkatu batean, multinazionalen politikari jarraipena egiten diot. Eta berdin ogiarekin, eta berdin erosten ditugun erosketa guztiekin (...) Horregatik esaten dut dena dela politika, guk hartzen ditugun erabaki txiki guztiak politika dira (Uribealdeko sozioekologia taldeko kidea).

3. Autonomiaren zentzua. Esandakoak esanda, nora bideratzen dituzte gazte horiek beren energia politikoak? Ez politikaren ohiko guneetara, ikusi dugunez. Kultura gero eta indibidualizatuago batean, haien parte hartze politikoak sustraitzen ari da autonomia eta kontrola garatzeko ahalmena duten guneetan, batik bat. Izan ere, beren subiranotasuna gauzatu ahal duten lekuetara jotzen dute gazteek, eta beharrezkoa denean, espazio sozial alternatiboak sortzen dituzte. Ildo horretan, gazteok eraikitzen ari diren herritartasunaren ezaugarri nagusienetakoak dira aldarrikatzen dituzten subiranotasunaren edo autonomiaren balioak.

Eraldaketa soziala eta pertsonala bultzatzen dugu, lehenik eta behin ikusten dugulako eraldaketa bat beharrezkoa dela. Zergatik? Ikusten dugulako gaur egungo gizarteak daukan norabideak galbidera garamatzala. Zergatik galbidera? Ari garela lurra bera esprimitzen laranja bat izango balitz moduan, eta helduko da eguna tantarik ere ez duguna edukiko. Orduan, pentsatzen dugu eraldaketa bat egin behar dela, horretaz kontziente izan eta gure bizimodua eta bizitzeko erak aldatu behar ditugula, ze bestela, ez dugu etorkizunik izango. Eta bide horretan guk (...) sinesten dugu trantsizio bat eman behar dela, bizi dugun gizarte honetatik beste batera, non, naturarekiko eta gure arteko erlazioekiko izan behar dugula kontzienteagoak, eta besteen beharretara eta lurraren beharretara ere moldatu behar garen (Uribealdeko sozioekologia taldeko kidea).

4. Norbere balioen eta ekintzen arteko koherentzia. Engaiamenduak diskurtsoa eta ekintza egokitzea ahalbidetzen die gazte politizatueni. Bada, norberaren ekintzaren bitartez, sinesteak, balioak eta idealak gauza ditzake batek, eta modu horretan, koherentzia ezarri pentsatzen duenaren eta egiten duenaren artean. Horrela,

berdintasuna, kooperazioa, elkartasuna, justizia, ekologia, elikadura subiranotasuna, bidezko merkataritza, feminismoa, askatasuna, antikapitalismoa, aldaketa soziala eta elkarrizketetan aipatu diren hainbat eta hainbat balio, ez dira diskurtsoan geratzen diren printzipio hutsalak eta eduki gabeak, eguneroko ekintzetan abiarazi daitezkeen errealitateak baizik. Printzipio horien artean, pisu handia hartu dute balio post-materialistek. Bestalde, partekaturiko balioek ahalbidetzen dute, gero eta gehiago, besteekin batera aritu ahal izatea, ohiko afiliazio politikoaren gainetik.

Eta egin genuen balore zerrenda bat, eta horren gainean eraiki genuen gure lana (Donostiako Piratak-eko kidea).

Hasieran, 0 km-a zen zelako Astra nahi genuen. Eta hor ere bai finkatu ziren ideologikoki zelakoak izan behar genuen: interkulturala, feminista, antimilitarista... (Astrako kidea).

Ni harritu nau onerako oso leku desberdinetatik datorren jendea dagoela taldean eta, azkenean, errespetuaren balore horiek batu gaituzte era desberdinetako jende asko. Hasiera batean, agian antagonikoak izan ahal diren kultura politiko batzuetatik datorren jendea dago (Uribealdeko sozioekologia taldeko kidea).

5. Lana eta aisialdia engaiamenduari loturik. Aipatzen ari garen engaiamendu mota gazteen bizi proiektuen barneko atala dugu. Izan ere, gazteen konpromisoak *continuum* bat osatzen du beren eguneroko bizitzan. Halako moldean, non, aisialdiaren eta harreman sozialen denborak eta espazioak ere barnean hartzen dituen, batzuk eta besteak nahasita agertzen baitira. Eta ez gune horiek soilik. Zenbaitetan, gazteek hautaturiko lanbidera ere zabaltzen da konpromisoa. Horrela, zentzu etikoa esleitzean, gazte horiek birdefinitu egiten dute lanaren esanahia. Modu horretan, lana iraunkortasunari, besteen zaintzari, justiziarri, eta antzeko balioei loturik agertzen zaigu gazte politizatuaren esperientzietan. Zentzu berean, norberaren auto-adierazpen sortzaile gisa ere atzematen dugu lana gero eta sarriago. Azken kasu horietan, gazteen parte hartzea ez da jadanik denboran eta espazioan zedarriturik geratzen, hau da, konpromisoa ez da eteten ekinaldi jakin batetik beste ekinaldi baterako tartean. Aitzitik, eguneroko bizitzan txertaturik dagoenez, konpromiso horren hedadura zabaldu eta zabaldu egiten da, harik eta bizitzaren atal guztiak inbaditu arte.

Niretzat ez dago mugarik, edo ez dakit mugak jartzen lanaren eta gizarte konpromisoaren artean. Esan nahi dut, noiz ari naiz lanean eta noiz ari naiz militatzen? Dena bat da gaur egun, orduan... esango nuke ez dela lana, pasioa dela, eta nire pasioa egiteagatik ordaintzen didatela (Euskara Elkarte bateko kidea).

Politikoki, aktibismo organiko hori utzi dut. Orain ez nago inongo egituratan. Baina, ulertzen dut nire bizitza askoz ere politizatuago dagoela, ze, adibidez, nire janari dena kontsumitzen dut kontsumo saskitan edo laboreen kontsumo elkarteetan. Nire aisialdiaren aldetik, askoz ere buelta gehiago ematen dizkiot zer, nola eta horri guztiari. Saiatzen naiz nire harreman guztiak interpretatzen betaurreko politikoagoetatik eta, horren arabera ere, eraikitzen. Eta, gero, lana. Nire lanak ematen dit aukera, nire lana politikoa da; politika egiten dugu ere zerbitzu bat eskaintzen dugunean, edo laguntzen diogunean beste kooperatiba bati. Eta lana bera da tresna bat [enpresaren] barruan politika egiteko (OlatuKoop sareko kidea).

Lanaren gaiari dagokionez, lan merkatuan enplegu duina lortzea gero eta zailagoa da, gazteen adierazpenetan behin eta berriro aipatu den bezala. Horrenbestez, ohiko enplegu formalari lotutako lanean eraikitzen diren

identitateak gazteen aukeretatik gero eta urrunago daude. Ildo horretan, “do it yourself” ereduari lotutako ikuspegiak atzeman ditugu gazte politizatu batzuen praktiketan. Hala, elkarrekin antolatze bide alternatiboak jorratzen dituzte, elkarrekiko laguntza bilatzen dute praktika aktibistetan, eta maila desberdinetan bada ere, auto-hornikuntzan eta autogestioan sakontzen dute.

Azkenean, okupatzen baduzu eta xume bizi bazara, 400 eurotako soldata batekin lor dezakezu bizitzea. Eta gero, beste aldetik, autoenpleguaren bidean lortzea baldintzak izateko behar duzuna bizitzeko. Nik uste dut alternatiba bilatze horretan sakondu behar dela (Errekaleorreko kidea).

6. Engaiamendu politikoari lotutako ni-aren garapena eta identitatearen eraikuntza. Gazte berritzaileen engaiamendua besteengana ez ezik norberarengana ere zuzendurik dago. Esan nahi baita, parte hartze politikoak gaztearen identitatearen eraikuntzan laguntzen du. Zalantzarik gabe, eraikuntza hori norberari buruzko prozesu erreflexibo baten ondorioa izan ohi da. Ez da ahaztu behar gizarteko instituzio nagusiak ahultzen ari diren garai honetan eta desinstituzionalizazioa aurrera doan heinean, inoiz baino nabarmenagoa dela identitatearen berreraikuntza erreflexiboa, bai norbanakoarena bai taldeena. Hala, gazte politizatuenentzat, konpromiso politikoaren beren buruen irudia lantzeko eta fintzeko bitarteko bat da. Engaiamendu horrek beren estimua garatzen laguntzen die, eta beren buruen irudi positiboa eta ahaldundua sendotzen. Horrela, bi prozesu paralelo gertatzen ari dira gaur egun. Batetik, lehenagotik jasotako identitate finkoak eta leialtasun politiko sendoak indarra galtzen ari dira, baina, bestetik, azaltzen ari diren eredu politikoaren ezaugarri bat erabakigarri bilakatzen da, alegia, norberari eta norbere ekintzei buruzko erreflexibitatearen garapena besteekin batera egindako jardunean.

La Liga es una asociación apartidista. Sí somos anticapitalistas y feministas. Pero, no podemos abogar [por una organización política]. Si, obviamente, vamos a tener una ideología, pero no es homogénea. (...) Nuestro principal interés es sobre nuestras identidades, sobre nuestras orientaciones y sobre la aceptación de las mismas (LGTBI Ligako kidea).

Zuk badituzu zure kezak, zergatik egiten ditugun gauzak, eta abar. Eta denborarekin joaten zara zure burua ordenatzen, eta galdetzen diozu zure buruari ea zer egiten ari garen (Donostiako Piratak-eko kidea).

Neu ere, nire identitatea eta kokalekua hausnartzen hasi nintzen (Bilgune Feministako kidea).

Hasten zara planteatzen ea zertarako egiten dituzun gauzak, ez bakarrik gaztetan bezala, “porque me motiva y porque está guay”. Planteatzen duzu beste modu batera, zure bizitzan integratzen duzu [politika] (Ikasle Abertzaleak-eko kidea).

Ildo horretan, parte hartze politikoak gizartean nagusi diren balioak eta harreman ereduak auzitan jartzen laguntzen die gazte batzuei, baita aukera zabalagoak lortzen ere esperientzia berrien bitartez. Esperientzia horiek aurretik zituzten kokapenak berriz pentsatzera behartzen dituzte, beraien buruan konfiantza hartzen eta, batzuetan, lehenago zeuzkaten mugak gainditzen (boteretu egiten diren neska gazte feministekin gertatzen den bezala).

Gazte mugimendua zegoen “en un momento de” goazen gure burua birpentsatzera, goazen harremanetan fokoa jartzera, goazen saretzera..., eta apur bat ateratzen “de una fase de respuesta”. Ez dakit, beste klabe batzuetan zegoen, fase eraikitzaileago batera pasatzeko. Orduan, nahiz eta momentu hartan ez deitu hitz hauekin, oinarri inportante bat izan zen feminismoa. Eta ez jartzea horrenbeste begirada mundua aldatzeko kanpoan zer egin behar genuen, baizik eta gure baitan, guk zer nolako rol, zer nolako botere harremanak erreproduzitzen genituen gazteen artean (...) Topatu nintzen egitura patriarkalarekin (...) identifikatu nituen botere harremanak, gizonen nagusigoa, eta emakumeok izan ditugun zailtasun desberdinak, objektu sexual bezala heziak izan garela, edo pasiboak izateko... (Bilgune Feministako kidea).

Ikusi dugunez, norberaren lanketa egitea, norbere balioen arabera bizitzea, eta bide horretan ikasten joatea gazteen egitekoak dira gizarte indibidualizatuan. Izan ere, instituzio sozialek banakoaren bizitza gero eta gutxiago orientatzen duten aro honetan, politikoki aritzea ez da soilik aldaketa sozial edo politikoaren aldeko ekintza kolektibo bat, esperientzia pertsonala ere bada; hain zuzen ere, norberaren ezagutzan eta norbere identitatearen osaketan laguntzen duena. Are gehiago, aktibismoak atsegin emalea den nortasuna garatzen uzten die gazteei.

7. Parte hartzearen bidezko integrazio soziala eta sari sinbolikoak. Zalantza barik, errealizazio pertsonalaren eta sozialaren sentimenduak zentzua ematen dio gazte politizatuen parte hartzeari eta, arestian aipatu dugunez, norberaren identitate eraikuntzari. Era berean, aktibismoak integrazio sozialerako bidea zabaltzen die gaur egungo gazteei: beste gazte batzuekin interakzioan soziabilitate sareak eratzeke, besteekin emozioak partekatzeke, bidezkoak jotzen dituzten borroketan asebetetze sentimenduak jasotzeko eta testuinguru indibidualizatuan “familia kidetzak” osatzeko, besteak beste. Zentzu ekoizle garrantzitsua da, beraz, parte hartze hori gazte politizatuen bizitzetan, bizitza sozialaren esparru guztiak blaitzen baititu. Hartara, aktibismoaren sari sinboliko horiek, sarritan, aurrera egiteko motibazioak pizten dituzte.

Ni lehenengo momentutik motibatu nintzen pila bat. Berehala ikusi nuen hori zela nire lekua (...) dena zen ilusioa eta poza, dena zen zoragarria, jendea ikusten zenuen motibatuta, lanean kriston gogoekin (...) Izan zen gogorra ere (...) Baina (...) nire lekua topatu nuen, ikusten nuen baliagarritasun bat zeukala, ikusten nuen egiten genuenak emaitzak zituela (...) Momentu horretan lagunak egin ziren, eta beraiekin hainbat denbora pasatzen nuen, eta ekintza bakoitzak ahalduz zuten apur bat gehiago, kapazak ginen, eta oso polita izan zen (Gure Esku Dago-ko kidea).

Ildo horretatik, aktibismo mota berrien kezketako bat pertsonak eta pertsonen arteko harremanak zaintzea da. Izan ere, sakrifizioan oinarritutako lehenagoko militantzia ereduak modu kritikoa aztertzen dituzte oraingo gazte aktibistek. Horrela, banakoa asebetetzen duten harremanak eta, aldi berean, ongizate kolektiboa bilatzen duten jarduerak sustatzen dira.

Jendeak gustura egon behar du hasieratik. Orduan, ez bada ondo zaintzen gaztetxo berrien lehenengo sarrera hori espazio publiko batean, lortzen baduzu gaztetxo horiek deseroso sentitzea lehenengo egunetan, agian galdu dituzu betiko (...) Eta pisua eman behar diegu bertan sortzen diren harreman sozialei, eta harreman sozial horiek zaindu (Errekaleorreko kidea).

8. Praktika politiko indibidualizatuen dimentsio kolektiboa. Parte hartzean eta konpromiso politikoa bereganatzean gazte aktibistek besteekin batera aritzeko asmoa izan ohi dute. Hori egitean, kidezko sentimenduak lortu nahi dituzte, talde batean aitortuak izatea, interes komunitate batzuetan loturak sortzea, edo kausa baten izenean ekintza kolektiboan parte hartzea. Ildo horretatik, aitortu egiten dituen talde bateko kide direla sentitzeko aukera ematen die engaiamendu politikoak gazte politizatuenei. Gune horretan duten inplikazioa, hartara, egituratzailea da. Izan ere, beren premia identitarioa asetzen duen talde batean daude; talde horretan “beren lekua” aurkitu dutela sentitzen dute, hain zuzen ere.

Nunca he formado parte de ningún colectivo, porque no me sentía cien por cien de acuerdo ni con los ideales ni con lo que defendían, pero aquí sí. Y, de hecho, es algo que nos vamos formando mutuamente. Tenemos un club de debate. Entonces, si yo tengo una duda respecto a algo, lo pregunto de una manera adecuada, porque hay temas de identidad que pueden dañar, e intentamos debatirlo (...) Es algo que nos vamos construyendo (LGTBI Ligako kidea).

Batez ere, nik uste dut lehen urte horretan izan zela, alde batetik, hori, auzoaren kontrola poliki, eta gero etxean, zortzi gazte okupatutako etxe bat, oso trinkoa, oso politizatu etxea, oso laguntasun erlazio polita garatu, komunitate bizitza oso polita eraman eta sortu nukleo fuerte bat, eragin zuzena eduki zuena auzoaren garapenean (Errekaleorreko kidea).

Horrenbestez, elkarrizketetan jasotako adierazpenen argitara, ñabarduraz bete behar da sarritan indibidualizazioari buruz eskaini den lerraturiko ikuspegia. Behin baino gehiagotan, indibidualizazioa indibidualismoarekin nahasi bada ere, ez dira gauza bera. Egia da indibidualizazioaren aldeko egiturazko joerek beren bizi-arazoaren konponbideak beren kabuz bilatzera bultzatzen dituztela gazteak, instituzioen babesik gabe. Hala ere, indibidualizazioaren teoriariek berek onartzen dutenez, prozesu horrek ez ditu ezinbestean baztertzen komunitate edo kolektibismo forma batzuk. Kontua da forma berri horiek banakoez sortu behar dituztela. Hain zuzen ere, biografia lineala galdu duten gazteek sareak sortzeko gaitasunak garatu behar dituzte, hau da, aliantzak eraikitze eta besteekin negoziatzeko trebetasunak. Bada, era horretako sareek baino ezin dute indargabetu agertoki sozialean nahiz ekonomikoan nagusi den ezegonkortasuna eta, ondorioz, gizarteko kideek bizitako ziurgabetasuna eta antsietatea. Ildo horretan kokatzen dira, adibidez, zaintzaren eta elkarren arteko dependentziaren beharra aldarrikatzen duten proposamen feministak. Bada, horrelako estrategiarik gabe, gero eta zailagoa egiten da Bigarren Modernitate kapitalistaren baldintzei aurre egitea.

Nire ustez asko dago ikasteko, adibidez, mugimendu feministatik, ze mugimendu feministan belaunaldi gazteak ari gara atxikitzen eta antolatzen. Eta nik uste dut hor dagoela permeabilitate bat edo marjen gehiago probatzeko eta asmatzeko (...) Beste zerbaitekin, eta zure identitate propioetik ekiteko eta zure arazo propioak nolabait erantzuteko eta hausnartzeko, zuek abiatuta. Nik uste dut feminismoak eskaintzen dituela horretarako tresna teorikoak; nola zeharkatzen diren esplotazio- eta dominazio-sistema desberdinak, eta hor ze kokaleku daukagun emakumeok, gazteok, beltzok... Eta, gero, behar ditugu, behar bada, artikulazio forma lausoagoak, hau da, gune askotarikoak, elkartzeko eta gero berriz aldentzeko, eta egitura zurrin bezala funtzionatu beharrean, olagarro bat bezala funtzionatzea, ramifikazio ezberdinak dituen eta nean uneko beharren arabera funtzionatzen duena (Bilgune Feministako kidea).

Hartara, gazte politizatuen esperientzietan atzeman dugun indibidualizazioa, indibidualizazio kolaboratzailea izan da. Elkarrekin aritze horrek ezaugarritzen ditu gazteen saiakerak beren identitateak buruaskitasunean definitzeko, baina betiere besteen laguntza eta lankidetzarekin.

Okupazio bat egon zen gazteok leku bat behar genuelako. Izatez, Gernika oso aktiboa izan da beti, pila bat elkarte eta mugimendu sozial egon da beti hemen (...) Baldintzak ziren herriak gestionatzea hori, hau da, udalak ez sartzea eskua, autogestionatua izatea. Orduan, hori dela eta, prozesu bat sortu zen, parte hartze prozesu bat herrian (Astrako kidea).

9. Praktika politikoak berrikuntza politikorako laborategi sozial gisa. Elkarrizketatuen adierazpenetan ikusi dugunez, gazteen praktika politikoak asko dibertsifikatu dira, aurreko belaunaldien praktikekin alderatzen baditugu. Izan ere, arestian esan den bezala, XX. mendeko herritartasunaren eredu nagusia estatuarekin izandako harremanetan oinarritu da, eta herritartasun hori hauteskunde bidezko partaidetzan besterik ez da gauzatu. Dibertsifikazioaren ildo horretan, aldiz, bide berriak urratzen joan dira gazte batzuk (kapital sozial eta politiko gehien metatu dutenak) eta errepertorio politikoak gero eta esparru zabalagoetara hedatzen. Bide horiek izan litezke aurrerantzean gazte-jende askorentzat eredu, orain arte beren buruak politizatutzat hartu ez dituzten gazteentzat ere erakargarriak izan daitezkeenak, gaur egungo gazte kulturekin gehiago konektatzen duten heinean: bizi estiloak, kontsumo ohiturak, hizkuntza praktikak, izan litezkeen bestelako harremanak, eta abar.

Oso inportantea da politika egiten dugunean ikustea ea gure usteak besteengan ere eragina daukan (...) Gutxienez, ondorengoei jasotako ondare politiko guzti hori uztea (...) Behar dira erreferentziak gazteentzat. Eta nik uste dut gaur egun gure proiektua badela erreferente bat gazte horientzat (...) Askorentzat izango da ere aktibazio puntu bat, egiten ditugun mobilizazioei esker. Azken finean, erreferente falta daukagu eta, maila lokalean, gurea [Errekaleor] izan dela gazteentzat esango nuke (Errekaleorreko kidea).

Aipaturiko esperientzia horiek guztiek elkargune eta bidegurutze asko erakusten dizkigute. Bide horiek jakina esperimentalak dira, hainbat esparrutan aldaketak eragitea baitute xede. Baina, dagoeneko abian dira bizimodu desberdinak sortu nahi dituzten tankera askotako laborategi sozialak, nahiz eta oraindik eragin mugatua duten: autoeraketa moduak lantzen, esperientzia sozioekonomiko berriak martxan jartzen, besteekin eta naturarekin harremantzeko eredu eraldatzaileak frogatzen, eta beste hamaika saiakera.

Nik uste dut hasi behar dugula lantzen egunerokotasunean jendeari gertatzen zaiona. Nik argi daukat hori dela gazteak politikara hurbiltzeko bidea (Ernaiko kidea).

Gu ere kanpora joaten garenean bizitzen gara komunan, bizitzen gara denok batera, eta denon artean antolatzen dugu dena, beharren arabera (...) Beste bizitza eredu bat posible dela ikusten duzu bertan (Herri ekimenetan diharduen Donostiako gaztea).

Egun bizi gara ehun eta piku pertsona etxe horiek okupatzen (...) Gure asmoa da produkzio bitartekoak apropiatuz, poliki poliki, geroz eta dependentzia gutxiago izango dugula merkatuarekiko. Orduan, alde batetik, komunitatea indartu, planteatuz harreman sozial sanoak eta, beste alde batetik, erakutsi eredu berri bat posible dela. Bizi garen gehienok gara gazteak (Errekaleorreko kidea).

Horrenbestez, gazte berritzaileen esperimentazio saioek gune berriak zabaltzen dituzte (fisikoak, birtualak, sozialak, politikoak) hala gazteen nola gainerako herritar helduen partaidetzarako. Gune horietan ezagutzak nahiz esperientziak sortzen eta trukatzeko dira, gazteak babes barik geratzen ari diren testuinguruan erresilientzia pertsonala eta kolektiboa handitzeko eta eraldaketak bultzatzeko. Hala, espazio horietan beharizan pertsonalak nahiz materialak, existentzialak eta sozialak asebetetzeko praktika kolektiboak gauzatzen dira, saretuak eta konektatuak.

Laburbilduz

Txosten honetan ikusi ahal izan dugunez, gazteen eta politikaren arteko harremana aldatzen ari da, besteak beste, politikaren kontzeptua ere aldatzen ari delako. Bide berriak bilatzen dira, batzuetan aurreko ereduak bateragarri direnak, beste batzuetan aurreko ereduak saihesten dituztenak. Zertan datza berrikuntza politikoak, eta nork bideratzen du?

Gaur egun gazte politizatuenak esperimentatzen ari diren politikagintza berria ez dago, nagusiki, sistema demokratikoetako logika ordezkatzailerari loturik (hauteskundeak, bozkak eta alderdi politikoak tartean direla). Politikagintza berriak ez du delegazioa helburu, ez eskala handian ez txikian. Horrek hauteskundeekiko urruntasuna ekarri du, eta hortik gazte axolagabeen irudia zabaltzen da; baina errealitatea bestelakoa da, ikusi dugunez. Horrela, elkarriketetan eta eztabaida taldeetan berretsi ahal izan dugu gazte politizatu gehienak (eta ez hain politizatuak ere, gradu desberdinetan) gizartearen bilakaeraz arduratzen direla, baita eredu sozial alternatiboez ere, eta zalantzan jartzen dituztela nagusi diren botere harremanak, ohiko esparru publikoan nahiz handik kanpoko bizitza arloetan.

Hona politikagintza berriaren zenbait zantzu:

1. Eguneroko jarduera interesen erdigunean jarrita, esparru pribatua politizatu egiten da; hala, orain arte ez politikotzat hartzen ziren gai asko zentzu politikoa hartzen ari dira gaur egun.
2. Politika ez dago norbanakoaren bizitzatik banatuta, eta gizartean aldaketak egin nahi badira, norberaren aldaketatik hasi behar da. Publikoa eta pribatua lotu-loturik daude ikuspegi berrietan: esparru pribatuan egiten denak eragin erabakigarria dauka testuinguru pribatutik harago.
3. Politika instituzionalaren ohiko guneetatik at, gazte politizatuenen parte hartze politikoa autonomia eta kontrola garatzeko ahalmena duten guneetara bideratzen da sarritan; are gehiago, beharrezkoa denean, gazte berritzaileek espazio sozial alternatiboak sortzen dituzte.
4. Engaiamenduak diskurtsoa eta ekintza egokitzea eskatzen du. Koherentzia ezarri behar da pentsatzen denaren eta egiten denaren artean. Printzipioak ez dira diskurtsoan geratzen, eta bai, aldiz, eguneroko ekintzetan islatuta agertzen.
5. Konpromisoa eguneroko bizitzan txertatzen da, eta lana eta aisialdia ere barnean hartzen ditu, norbanakoen bizi proiektu baten barruan. Zentzu etikoa esleituta, birdefinitu egiten da lanaren esanahia ere: iraunkortasunari, besteen zaintzari, justiziarri, eta antzeko balioei loturik.
6. Engaiamendu politikoak gazteen ni-aren eta identitatearen garapenean eragiten du: besteengana ez ezik, norberarengana ere zuzendurik dago. Gizarte indibidualizatuan politikoki aritzea ez da soilik aldaketa sozial edo

politikoaren aldeko ekintza kolektibo bat, esperientzia pertsonala ere bada; hain zuzen ere, norberaren ezagutzan eta norbere identitatearen osaketan laguntzen duena.

7. Parte hartzeak integrazio sozialerako bidea zabaltzen die gazte politizatuei: beste gazte batzuekin interakzioan soziazialitate sareak eratzen dira, besteekin emozioak partekatu, asebetetze sentimenduak jaso, eta baita “familia kideak” ere sortzen dira horrela.

8. Bereizi egin behar dira indibidualizazioa eta indibidualismoa. Lehena gaur eguneko gizartearen joera orokorra eta egiturazko da, herritar guztiengan eragina duena, bereziki gazteengan. Joera horrek esan nahi du, instituzioen erregulaziorik ezean, norbanakoak bizi ibilbideak eta bizi hautuak beren kabuz egitera beharturik daudela. Testuinguru horretan, parte hartzeko eta konpromiso politikoa berenganatzeko, gazteek beraiek hartu behar dute ekimena subjektu politiko bilakatzeko bidean. Bide hori hartzen badute, beste banakoekin batera aritzeko asmoa izan ohi dute, eta praktika politikoei dimentsio kolektiboa ematen diete. Hartara, gazteen indibidualizazioa eta norbanakoen arteko saretzea eta kolaborazio politikoa prozesu bateragarriak dira.

9. Gaurko gazteen praktika politikoak asko dibertsifikatu dira, aurreko belaunaldien praktikekin alderatuta. Esperientzia berriak sortzen dira, eta aurrerantzean erakargarriak izan litezke orain arte beren buruak politizatutzat hartu ez dituzten gazteentzat. Jarduera eta gune esperimentalak dira, baina dagoeneko gazte askoren artean abian dira bizimodu desberdinak sortu nahi dituzten tankera askotako laborategi sozialak.
